

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Eusko Jaurlaritzako Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

NORK ZAINTZEN DU?

Zainketen gizarte antolaketari
buruzko ekarpenak



Eusko Jaurlaritzako Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

NORK ZAINTZEN DU?

Zainketen gizarte antolaketari
buruzko ekarpenak

IZENBURUA: Nork zaintzen du? Zainketen gizarte antolaketari buruzko ekarpenak

EDITOREA: EMAKUNDE - Emakumearen Euskal Erakundea. Manuel Iradier, 36. 01005 Vitoria-Gasteiz

KOORDINAZIO TEKNIKOA: María Ángeles Durán

MAKETATZAILEA: EPS Comunicación

DATA: 2021eko martxo



AURKIBIDEA

1.	Zaintza eta bere politikak. María Ángeles Durán	13
2.	Zaintzen gizarte-antolaketako interes-gatazkak. Cristina García Sainz	39
3.	Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zaintzeak zaintzaileen osasunean eta ongizatean duen eragina. Mayte Sancho ets Elena del Barrio	63
4.	Etxeko zereginen eta zaintza-lanen banaketa EAEn: luzetarako begirada (1993-2018). Matxalen Legarreta Iza	85
5.	Zaintza, zaurgarritasuna eta interdependentziak. Aro berri baterako erronkak. María Teresa Martín Palomo	115
6.	Zaintzari buruzko politika latinoamerikan. Ahazturiko sektorea: 6 eta 17 urte bi-tarteko gazteak. Mercedes Pedrero Nieto	139
7.	Zaintza, pandemia garaietan. María Ángeles Durán	167





Pasa den 2020an, COVID-19ak eragindako pandemiarekin inoiz baino ageriago geratu da zaintza-lanek berebiziko garrantzia dutela gure gizartean. Zaintza-lanok ezikusi egiten zaie, oro har, eta emakumeen esku uzten dira, izan lanok ordainduta, izan ordaindu gabe. Krisi sanitarioarekin argiago ikusi dugu lanok, ia erabat emakumezkoen esku daudenak, biziraupenerako funtsezkoak direla.

Fokua zaintzan jartzea da feminismoaren aldarri nagusietarik bat, baina baita, besteak beste, NBEk garapen jasangarrirako sustatutako Agenda 2030 deiturikoaren eta EAEko Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-planaren helburuetako bat ere.

Emakundek, 2021 honetan, sentsibilizazio-kanpaina zainketei eskaini die, ondo dakielako funtsezkoa dela eztabaida piztea zaintza-lanak ikusgarri egiteari eta baloratzeari, eta guztiak zainketetan inplikatzeari buruz.

Beraz, *Nork zaintzen du? Zainketen gizarte-antolaketari buruzko ekarpenak* argitalpenaren xedea da, hain juxtu, eztabaida behar-beharrezko hori sustatzea, aldaketa politiko, sozial eta kulturalerako bidean aurrera egiteko.

Zaintza-lanak berdin banatzea emakumeen eta gizonen artean, zaintza-lanen erantzukide izatea erakundeak eta gizartea, eta lanok ikusgarri egin eta baloratzea, horiek dira egin beharreko lanak, eta edizio honek bultzada eman nahi die horiei guztiei.

Zorionak eta eskerrak eman nahi dizkiet argitalpenean jasotako artikuluen egileei –María Ángeles Durán, Cristina García Sainz, Mayte Sancho eta Elena del Barrio, Matxalen Legarreta Iza, María Teresa Martín Palomo eta Mercedes Pedrero Nieto–, ezagutzaren bidez gizarte berdinzale eta bidezko bat eraikitzeke egindako ekarpen eta ahaleginagatik.

Gizartea zainketak ardatz diren eredu batera aldatzea ez da erraza, balioak eta lehentasunak aldatu behar dituelako. Hala ere, zeharo ezinbestekoa da, eta, orobat, premiazkoa da gaiaren gaineko sentsibilizazioa, eztabaida eta ezagutza areagotzea. Argitalpen honek horixe bultzatzea du asmo.

Ziur nago eztabaida aberastuko duela, eta bultzada izango dela gizarte-antolaketa berdinzaleago batera igarotzeko.

Izaskun Landaida Larizgoitia

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria





SARRERA

Zainketez hitz egitea, hemen eta nonahi, gehienbat emakumeek beren gain hartzen duten lan batez hitz egitea da.

Eustaten datu berrienen arabera, EAEko etxebizitzetan, emakumeek egiten dituzte etxeko lanak eta zainketak kasuen % 67,2an. Gizonezkoek kasuen % 32,8an egiten dituzte. Zehazki, emakumezkoek hartzen dituzte beren gain hezteko lanen eta haur, adintsu eta gaixoen zainketen % 65; arropari loturiko lanen % 83 (erostea, garbitzea, lisatzea, etab.); janariari loturiko lanen % 69 (planifikatzea, erostea, prestatzea, harrikoa egitea, etab.); eta etxeko gainerako lanen % 62 (erostea, alokatzea, garbitzea, jantzea, mantentzea, konpontzea, etab.).

Ondorioz, batik bat emakumeek eusten diote gizartearen funtzionamendurako behar diren habeetako bati. Artikulu sorta honek egitate hori ikusgarri, ukigarri nahi du egin; izan ere, ezikusi egiten zaie askotan lan horiei eta horien protagonistei.

Hezkuntzako ikerkuntzako eta zerbitzu soziosanitarioetako sei egilek ikuspegi eta esparru teoriko desberdinetatik modu zehatzean jasotzen dute errealitate hori, egungo zaintza-sistema sistema erantzukide bihurtzea premiazkoa dela agerian uzten duen ikuspegi orokorra jorratzeko.

Hauk dira egileak: María Ángeles Durán (Ikerketa Zientifikoen Goi Kontseilua), Cristina García Sainz (Madrilgo Unibertsitate Autonomoa), Mayte Sancho eta Elena del Barrio (Matía Fundazioa), Matxalen Legarreta Iza (Euskal Herriko Unibertsitatea), María Teresa Martín Palomo (Almeriako Unibertsitatea) eta Mercedes Pedrero Nieto (Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoa).

Den-denek agerian utzi dute zaintza-lanak egituratzeak erronka handiei egin behar diela aurre, eta abiapuntuko egoera okerra eta abantaila eskasekoa dela. Zaila da hori neurtu eta kuantifikatzea, eta, beraz, legez xedatzea modu koherentean; genero-roletan irmo errotutako ohitura da; inoiz ez beza-

lako zama ari da pairatzen COVID-19agatik, eta horrek gure bizimoldean izan dituen ondorioengatik; eta ez du justizia sozialik.

Nolanahi ere, zaintza-lanak eta norbere zaintza demokratizatzea da, hain zuzen ere, gizarte moderno eta bidezkoen beharretarik bat.

Zainketen egungo egoeraren zirriborroaz gain, azken urteetako bilakaera eta etorkizuneko aurreikuspenak jaso ditugu artikulu sorta honetan, gogoeta eta zaintzaileei nahiz zainduei dagokien duintasunaren aitortza sustatzeko.

Azken batean, guztiok jaso ditugu zainketak inoiz, eta azkenetan gaudela ere jasoko ditugu. Beraz, zer dela eta ez diegu bermatu behar denik eta egoerarik onena zaintzaileari eta zainduari zaintza atsegina izan dadin? Are gehiago, zergatik ez egin bateragarri zainketak norbere zainketekin, garapen pertsonal eta profesionalarekin, eta ongizate-estatu bateko bizimoduarekin? Lortuko bada, borondate politikoa-gatik ez ezik, herritarren nahiagatik ere izango da.

Berdintasunaz hitz egitea zainketez hitz egitea da. Izan ere, zaintza-lanak, egungo gizarteetan, baldintza eta muga dira emakumeentzat. Zainketen banaketa desorekatuak emakumeen egoera sozioekonomikoa okerragotzen du, hezkuntzan, osasunean, ordainpeko lanean eta bizitza publiko eta kulturean parte hartu ahal izateko eragozpen delako.

Pedrero Nietoren artikuluan esaten denez, Latinoamerikan, denbora faltan dute adinekoek, gehienbat emakumezkoek, familia-dinamikaren barnean zainketak bere gain hartu behar dituztelako eta adin txikikoen zaintzaile nagusiak, eta batzuetan bakarrak, direlako. Egoera hori munduko ia herrialde guztietara estrapolatu liteke. Baike, askotan, adinekoek ez dituzte behar diren tresnak, azpiegiturak eta prestakuntza aipaturiko zainketak egoki emateko, eta horien funtzioa etxeko esparrura mugatzen da ia erabat.

Martín Palomoren hitzetan, elkar zaintzeko lankidetzak eta komunitate-proiektuetan agerian geratu da mota horretako erantzunak aproposak direla zaintza-lanek egun dituzten zailtasunen aurrean. Egia esanda, gobernu-politikak baino eraginkorragoak dira askotan, egileak dioenez, haiek zurrinak direlako, eta beharrak, aldiz, aldakorak.

Martín Palomok proiektu horietako batzuk aztertu ditu bere testuan, eta batzuek zainketen adiera aldatzen dute; zainketa-lanak indargune gisa ageri da horietan, ez ahultasun gisa, harremanak estutzen dituztelako eta «komunitatea» eratzen dutelako. Azken batean, soziologoak agerian jartzen duenez, gizarte sendoagoak, sentsibilizatuagoak, burutsuagoak, inklusiboagoak eta berdinzaleagoak sortzeko lagungarriak dira.

Zainketen adiera hori, gizarte helduen berezko abantailetakoa bat izatearena, bere egiten dute Mayte Sanchok eta Elena del Barriok ere, zainketen estigmatizazioa hizpide dutenean; zer eragiten duen zaintzailearen osasunean (batik bat intentsitatearen aldagaia jokoan sartzen denean): sedentarisismoa, higadura fisiko eta emozionala, tristura, depresioa eta, diotenaren arabera, etsipena. Deus gutxi esaten da besteak zaintzeak dakartzan poz, elkarrekikotasun eta gizarte-onurez.

Zaintza-lanak emakumeen eta gizonen artean desberdin banatuta egoteaz eta horrek azken 25 urteetan izan duen bilakaeraz mintzatu da Legarreta Iza: «Emakumeek gero eta gehiago hartzen dute parte


lan-merkatuan, baina horrek ez ditu salbuesten etxeko/familiako erantzukizunez, gizonak ez direlako berdin engaiatzen [...] Gizon langabeek eta erretiratu/pentsiodunek, lan-merkatutik kanpo egonda ere, denbora gutxiago eskaintzen diete etxeko eta familiako ardurei emakume landunek baino».

Alde hori argi eta garbi islatzen du María Ángeles Duránek Eustat, Euskal Estatistika Erakundeak argitaratzen dituen denbora-aurrekontuei buruzko inkesten emaitzak xehe-xehe aztertuta. Hori eta beste lagin batzuk kontuan hartuta, egileak esku-eskura du erreminta paregabe bat, estatistika-ehunekoen bidez, etxeko lanak eta zainketak emakumeen eta gizonen artean desberdin banatuta daudela modu zalantzagabean nabarmentzeko.

Hala, Duránek zainketez eta pandemiak idatzitako artikuluan agerian uzten du (sortako azkena da), zainketak agenda politiko eta sozialean bete-betean sartu direla, maila guztietan, baina, hala ere, ez dela alternatiba errealistik eskaintzen, adibidez, adinekoen egoitzen eremuan.

García Sainzen ideia aipatuko dugu: erantzukidetasuna eta zainketak banatzea *sine qua non* baldintza izan behar da ez bakarrik genero-berdintasunerako, baizik eta maila guztietarako (etnia, klase soziala, etab.). Izan ere, egile horren arabera, zainketak etxean erdibana egiteaz gain, etxetik kanpo ere gauza bera egin behar da, esaterako, zaintza-lanak profesionalizatuta.

García Sainz ziur dago era horretan zaintza-lana ez litzatekeela botere publikoen arretarik eta erantzunik gabe geratuko, behartuta leudekeelako eredu jasangarri eta kalitatezko bat lantzerako, eta eredu horrek desagertzeko bidean jarriko lituzke desparekotasuna eta generoa jartzea betikotzen dituzten zerbitzu profesional prekarizatuak.





Zaintza eta bere politikak

MARÍA ÁNGELES DURÁN

Aurkibidea

1. Zaintzatik agenda politikorako jauzia. Nor da zaintzailegoaren beldur?	15
2. Hazkunde-mugarik gabeko eskari bat	16
3. Etxeko lanen eta zaintza-lanen arteko bereizketa zaila: zeharkako zaintzen balioaren zenbatespena, BPGarekiko erlazioaren arabera	18
4. Administrazio publikoak eta zaintza. Euskadin eskaintzen diren zaintza-zerbitzuak	20
5. Zaintzarako denbora gutxi izatea	21
6. Kuantifikatzea ez da gizatasuna kentzea. Mendekotasun-adierazleak	22
7. Aurrerapen teknologikoak bat-batean txertatu dira zainketan	26
8. Aldaketa demografikoak eta zaintza-eskari berriak, 2020-2030	26
9. Egungo zaintza-lana lanaldi osoko enplegu baliokide bihurtzea Euskadin: 918 586 enplegu ikusezin eta ordaindu gabe	28
10. Mendekotasunen bat duten pertsonen zaintzaren faktura: zenbatekoa eta banaketa	30
11. Bi azpisistema ekonomikoren arteko muga. Zergatik nahiago dute mendekoek laguntza ekonomikoa zerbitzuak ematea baino?	31
12. Proposamen interaktibo bat: etorkizuneko zaintzaren egoerarik onenak eta txarrenak Euskadin	33
Erreferentziak eta iturriak	35



1. Zaintzatik agenda politikorako jauzia. Nor da zaintzailegoaren beldur?

Berriki identifikatu da zaintza gai politiko gisa, eta oraindik ez du eragin merezi duen besteko inpak-turik ikerketa sozial eta politikoan. Hitzen erabileran ez dago adostasunik, datu-iturri gutxi daude eta apenas ez dagoen egitura sozial eta ekonomikoarekin lotzen duen teoria orokorrik. Gauza bera ger-tatzen da lege-arloan. Hala ere, azken urteetan, ikerketa-arlo hori nabarmen hazi da, eta garrantzi po-litikoaren kausa eta ondorio izan da aldi berean.

Aurreko urteetan bezala, 2020ko martxoaren 8an ere zaintzak lehentasunezko lekua hartu zuen emakumeen aldarrikapenetan, beste eskubide sozial batzuekin batera. Zer gertatu da zaintza agenda publikora eramateko? Jokaleku-aldaketa horretan, epe luzeko egiturazko joerak eta gaurkotasuneko gertaerak batu dira. Hedabideetan oihartzun handia izan duten gertaera batzuk (batez ere Estatu Ba-tuetatik zabaldutako *Me Too* mugimendua) akuilu zorrotzak izan dira iritzi publikoaren aurrean, eta haien egiturazko oinarria osatzen duten eraldaketa sakonen gainetik jarri dira. Eraldaketak dira: *demo-grafikoak* (bizi-itxaropenaren igoera, zahartzea, jaiotza-tasaren beherakada, migrazioak, hiri-lurraldea-ren hedapena), *sozioekonomikoak* (ondare-sozietateak errenta-sozietate bihurtzea, ongizate-estatu-a lortzea industria-gizarteetan eta ekonomia aurreratuko gizarteetan) eta *ideologikoak* (emakumeek hezkuntzarako sarbidea izatea, berdintasunaren eta norbanakoaren askatasunaren balorazio handia).

Zaintza hitz balioaniztuna da eta askotan erabiltzen da, baina esanahi desberdinak ematen zaiz-kio. Erabilera aldatu egiten da testuinguruaren arabera: ez da berdín erabiltzen osasun-arloan, hezkuntzan, gizarte-zerbitzuen eremuan, familia-gaietan, publizitate-arloan edo sare sozialei ba-gagozkie. Eguneroko bizitzan, eta osasun-arlokoak ez diren langileen artean, *zaintza* terminoaren erabilerak gradiente zabal-zabala du. Zerbitzua ematen duenaren ikuspegitik, arreta jartzen du *ezer txarrik gerta ez dadin*, edo akonpainamendu pasiboa ematen du, bai eta *zerbitzu aktibo eta espezializatuak ere, honako gai hauetan laguntzeko: elikadura, bitartekaritza, garbiketa, errehabi-litazio-ariaketak, garraioa eta osasun-arretaren kudeaketa*. Hartzailearen ikuspegitik, zainketaren barruan sartzen dira *pertsonaren berehalako biziraupenerako ezinbestekoak diren jarduerak*, bai eta *funtsezkoak ez diren beste jarduera batzuk ere, jasotzen duenaren bizi-kalitatea nabarmen ho-betzen dutenak*, edo epe luzeagorako ondorioak dituztenak. Eta *autozaintza* ere bai, gero eta ga-

rrantzitsuagoa dena; iritzi publikoan kanpainen xede ere bada. Osasun-arloko hizkeran, *zainketa intentsiboetako unitateak* teknologia medikoaren arreta eta erabilera handieneko eremuak dira, baina terminoa sarriagotan erabiltzen da erizaintzan gainerako osasun-lanbideetan baino, pazientekiko harremanaz aritzeko. Erabilera-tartearen beste muturrean, sare sozialetan eta publizitatean, *“norbere burua zaintzea» «bizitzaz gozatzea»*ren sinonimoa da askotan, eta fitnessaren, aisialdiaren eta luxuaren kontzeptuetara hurbiltzen da.

Kontzeptuetan eta datu-iturrietan adostasunik ez dagoenez, zaila da aldaketak egiteko neurri politikoak hartzea. Adibide bat jartzearren, ezin da aurrekonturik garatu lege-proiektuekin batera aurkezteko, baldin eta *familia-zaintzailea* edo *etxe-zaintzailea* bezalako oinarrizko kontzeptuak aldeztatik argitu, adostu eta adierazleen bidez identifikatu ez badira. Kontzeptu baten definizioan edo hura eraginkor bihurtzeko moduan egon litezkeen alde txikiak eragiten dute bider hamar edo gehiago egitea zaintzeko beharrezko bolumena edo esku hartzeko programa baten aurrekontua. Horregatik, premiazkoa da zaintzari buruzko nazioarteko hiztegi adostu bat sortzea, alderaketak eta prospektibak egiteko oinarri sendo batean oinarrituta, erabiltzaile bakoitzak jakin dezan zeri buruz ari den zaintzaz hitz egiten duenean.

Zaintza agenda publikoan sartzeak ez du soilik esan nahi erakundeak herritarren eskariari erantzuteaz arduratzen direla. Zaintzako langileek, oro har, lan-egoera txarra eta eskubide-eskasia dute, gainerako langileekin alderatuta. Zaintzaile guztiek goraka doan *zaintzailegoa* izeneko klase soziala osatzen badute, jakin beharko genuke nor den klase sozial berri horren beldur eta nor dagoen prest klase horretako kidea dela aitortzeko, bere barne-antolaketan arriskatzeko. Jakin beharko genuke, ordea, nork utzi nahi duen klase sozial hori kontzientziarik gabe, nork zatitu nahi duen, nork bereganatu nahi duen haren ordezkari, nork desagerrarazi nahi duen beste gizarte-talde batzuen eskubide finkatuak arriskuan jar ditzaketen aldarrikapen-jarduera garrantzitsuak. Azken urteetan, zaintzako langileak gizarte-talde gatazkatsua izan dira, eta lan-gatazka ugari izan dituzte, soldata-hobekuntzak, lanaldi-murrizketak, antzinasun-aitorpenak, garraio-denbora eta langabezia kobratzeko eskubidea aldarrikatzeagatik. Ordainduta ez dauden eta ordezkari-erakunderik ez duten langileen artean, gatazka ez da ikusten, eta barne-sufrimendu bihurtzen da, baina gatazka-potentziala handiagoa da ordaindutako langileen artean baino, haien egoerak are zailagoak direlako. Administrazio publikoek *zaintzailegoa* ezinbesteko aliatua dute beren ardura politikoak betetzeko. Baina, aldi berean, kontzientzia politikoak duen zaintzailego bat, eraginkortasunez antolatua eta borrokalaria dena, aurkari beldurgarria izango litzateke, eta ziurrenik ez du bultzatu nahi.

2. Hazkunde-mugarik gabeko eskari bat

Politika Administrazio publikoek dagokiena dela uste izaten da; horregatik, zaintza-politikez hitz egitean, ulertzen da Administrazio publikoek sustatutako edo egindako politikez ari garela. Hala ere, zaintza batez ere etxe barruan gertatzen eta kontsumitzen da. Ez Estatua, ez autonomia-erkidegoak, ez udalak, ez dira zainketa-lanen protagonista nagusiak; beraz, epe labur eta ertainera izango duten bilakaerari buruzko hausnarketa ezin da mugatu administrazio publikoek eskaintzen dituzten zerbitzuak aztertzeraz. Etxeetan, zaintza gehienbat emakumeek beren gain hartzen duten funtzio soziala da, eta

adibide argia da, zeinak erakusten baitu barne-eremua eta pribatua publikoa eta politikoa direla aldi berean. Etxeek ez bezala, Administrazio publikoak programa zehatzak ezartzen ditu, lurralde-maila guztietan, zaintza-eskaria ebazteko, eta horretarako, aurrekontuak lehenetsi eta emaitzak kontrolatu eta justifikatu behar dira.

Ikuspegi sozioekonomikotik, zaintzak bi alderdi ditu: eskatzaileena eta zaintza-ekoizleena. Etxeetan, eskaintza eta eskaria espazio berean gertatzen dira, baina Administrazio Publikoan espazio bereizietan.

Zaintza-premia ez dator guztiz bat eskari esplizituarekin: kasu batzuetan, badira premia batzuk, premia horiek dituztenek ere haien kontzientzia ez dutenak, eta beste premia batzuk, ordea, haien kontzientzia egon arren, zenbait arrazoiengatik ez dira azaleratzen. Bataren eta bestearen artean, bat-batekoa edo berehalakoa ez den heltze-prozesu bat dago. Beharraren eta eskariaren arteko loturak konplexuak dira, are gehiago eskaria antolatua bada. Askotan, eskaintza eta eskaria ere ez datoz bat; *zaintzari buruzko burdinaren Legeak* dioen bezala, gehien behar dutenek dituzte zailtasun handienak beren kabuz hori lortzeko. Beharra eskari bihur dadin, prozesu bat behar da: aktibismo soziala, egoeraz jabetzea, lidergoak, antolakuntza eta adierazpen moduak bilatzea, antagonismoak, aliantzak, akordioak.

Asetu gabeko eskaria dago, pizgarririk gabeko eskaria eta baita isilpekoa ere. Hain ohikoa ez bada ere, gehiegizko eskaintzak eta gutxiegi erabilitako eskaintzak ere gertatzen dira.

Hiru kategoria handik osatzen dute gizartean aitortutako eskari esplizituaren zatirik handiena, haie-tako bi adinagatik eta hirugarrena osasunagatik: haurrak, zahar zaugarriak, eta gaixoak eta mendeko-tasuna dutenak. Horiek guztiek egiturazko zailtasunak dituzte antagonista baten aurrean antolatzeko eta beren premien asetzea eskatzeko. Noren aurrean erreklama daiteke bete daitezela zainketa ja-sotzeko eskubidea, eta beste norbait zaintzeko eta nork bere burua zaintzeko eskubidea? Hurbileko senideen aurrean, Estatuaren aurrean? Familia barruan, zer senitartekori erreklama dakizkioke, zer mugarekin, zer kontraprestazio edo obligazioekin? Eta Estatuaren barruan, zer erakunderi?, zer muga-rekin?, zer argudiotan oinarrituta, zer eraginkortasun praktikorekin?

Sozialki onargarria den eskari mota horretaz gain, zaintza naturalizatuen, inplizituen eta gutxi onar-tutakoen eskari handia dago; kontsumitzen duten zaintzaren zati handi bat beren buruei eman die-zaieketen gizarte-kolektibo zabalak dira, eta ez dute halakorik egiten etxe barruko lan-banaketa tra-dizionalaren ondorioz. Batez ere tarteko adina duten gizonak dira, bai eta hezkuntza-sisteman edo lan-merkatuan modu intentsiboan sartu diren gizon eta emakume gazteak ere, zaintza-lanetik sal-buetsita daudela uste baitute. Funtzio sozial horretatik *aske* daudenak dira. Talde handi horiei bo-lumen txikiagoko beste batzuk gehitu behar zaizkie, espezializatuagoak eta gizarte-aitorpen hetero-geneokoak: pertsona horiek beste arrazoi batzuegatik arreta publiko berezia behar dute, hala nola muturreko pobreziagatik, familia-indarkeriagatik, sexu-erasoengatik, etxebizitzarik ezagatik, ludopa-tiengatik, arraza-gorrotaren biktimak direlako, legeztatuta ez dauden etorkinak direlako, gizarte-baz-terkeriagatik, asilo-eskubideen eskatzaile direlako, eta abar.

Zaintza-eskariak ez du hazkunderako mugarik. Zerbitzuek estaldura, maiztasuna eta kalitatea han-ditu ditzakete, modu mugagabeen. Haren muga ez du eskariak markatzen, ia erabat elastikoa baita, eskaintzak baizik, zeina inelastikoa baita bai baliabide monetarioetan bai pertsonaletan, denbora era-bilgarrian eta erreakzio-arintasunean.

3.

Etxeko lanen eta zaintza-lanen arteko bereizketa zaila: zeharkako zaintzen balioaren zenbatespena, BPGarekiko erlazioaren arabera

Zuzeneko eta zeharkako zaintzaren artean bereiztea da zainketa aztertzeko orduan sortzen den arazo metodologiko zailenetako bat. Zeharkako zainketak, hala nola janaria prestatzea, zainduentzako arropa eta etxebizitza garbitzea, garraiatzea, hezkuntzan laguntzea, erosketak kudeatzea eta abar, zaintzaren definizioan sartzen badira, bolumenaren zifrak aldatzeaz gain, bestela baztertuko liratekeen lan-kategoriak ere sartzen dira. Adibidez, haur-hautzaindegi edo egoitza geriatriko batean sartzen badira edo kanpoan uzten badira garbitzaileak, sukaldariak, gidariak eta abar, edo etxeetako enplegatuen artean soilik hartzen diren zaintza-langiletzat etxeko langileak edo gaixoak eta mendekotasuna dutenak zaintzeko zerbitzu espezializatuak ematen dituztenak. Praktikan, erakundeetan oso zaila da bereizketa horiek egitea, eta berdin gertatzen da etxeetan, soldatapekoak zein ordaindu gabeko seni-deak izan.

Gai honen adibide gisa, merezi du funtzio horietako bat, elikagaien ekoizpena, xehetasunez aztertzea eta haren balioa dirutan zenbatestea. *Etxeetako elikagai-ekoizpenaren guztizko balioak ordaindu gabeko lana hartzen du elementu nagusitzat (Barne-produktu gordinean (BPG) sartu gabea), eta horri gehitu behar zaizkio prozesatu aurreko elikagaiak, erabilitako energia, etxeko espazioaren erabilera, erabilitako garbiketa- eta tresneria-gaiak (BPGd-an sartuta dago), etab.*

Euskadin, biztanle gehienek egunean hiru aldiz jaten dute, eta batzuetan bost aldiz, horren barruan sartzen badira otordu nagusietatik kanpoko janaurrekoak, askariak edo otordu arinak. Asteko egun guztietan ez dira ordutegi berberekin egiten otorduak, eta ordutegiak ez dira berdinak etxean bizi diren pertsona guztientzat. Denbora Aurrekontuen Inkestaren arabera (Eustat - *Euskal Estatistika Erakunde*, 2018), *ehun pertsonatik laurogeita hamabostek ohiko otorduak egiten dituzte etxean; horrek esan nahi du etxeek kudeatu behar dutela otorduekin lotutako tresnen eskuraketa, kontserbazioa, presaketa eta garbiketa. Funtzio hori betetzeko, egunero 5,5 milioi otordu produzitu behar dira, gosariak, bazkariak eta afariak kontuan harturik, eta kopuru horri erantsi behar zaizkio etxe askotan goiz erdian edo arratsalde erdian jaten diren ogitartekoak edo aperitiboak, bai eta familia-bilerekin eta -ekitaldiekin lotutako ohiz besteko otorduak ere. Inkesta beraren arabera, *hamasei urtetik gorako biztanle guztiek egunean 47 minutu ematen dituzte batez beste, baina horri erosketetan, garbiketan, kudeaketetan eta joan-etorrietan emandako denboraren zati bat gehitu behar zaio.* Ez daukagu informazio zehatzik, baina, zalantzarik gabe, gehitu behar den denbora horrek asko luzatzen du etxean jaten ematen den denbora. Uste denez, 47 minutu horiei gutxienez 13 minutu erantsi behar zaizkie sukaldeko lanak egiteko. Ondorioz, egunean ordubete baino gehiago ematen da otorduetan, hamasei urtetik gorako pertsona bakoitzeko. Beraz, Euskadiko biztanleria osoaren kasuan, egunean 1,83 milioi ordu baino gehiago inbertitzen dira ordaindu gabeko elikadura-zerbitzuak ematen etxean, eta modu egonkorrean mantentzen dira urteko 365 egunetan. *Urtean, 670 milioi lan-ordu baino gehiago ematen dira elikadura-zerbitzuak ekoizten.**

Bestalde, etxeko otorduez gain, hamasei urtetik gorako biztanleen erdiak baino gehiagok egunero beste otordu bat egiten du etxetik kanpo. Kontsultatutako iturriak ez du zehazten zein den etxetik kanpo

gehien egiten den otordua, baina, zalantzarik gabe, bazkaria da, eskola-establezimenduen eta enpresa askoren errutinakoa baita. Euskadiko herri guztietan sortu da jantoki, jatetxe, kafetegi eta tabernen sare indartsu bat, tokian tokiko bezeroen eskakizunetara egokitutako eguneko menuak eskaintzen dituen astelehenetik ostiralera (prezioa: 9 eurotik 15 eurora bitartean).

Etxean elikagai-zerbitzua erabiltzeko indizea oso egonkorra da, beti ehuneko 95 ingurukoa, baina etxetik kanpoko elikadura-zerbitzuak erabiltzeko indizea ere nahiko egonkorra da. Lanegunetan, biztanleen % 48k erabiltzen dituzte etxetik kanpoko elikadura-zerbitzuak. Asteburuan izaten dira gorenko puntuak, eta ostiralean eta larunbatean % 57 eta % 58 izaten dira, hurrenez hurren. Igandea murriztu egiten da, gehienbat familian egoteko eguna delako, eta kanpoko jatetxeen erabilera-maila lanegunen antzeko maiztasunera jaisten da. Poteatzea eta mokaduak jatea oso ohikoa da, eta asteburuko otordu nagusiak lanegunetako menuak baino garestiagoak izaten dira.

1. TAULA

Etxeko pertsonak zaintzeko denbora Euskadin, 2018an (ordutan eta minututan)

	(1) B.d.s.	(2) E.b.d.	(3) Tasa
Zainketa			
Adingabeak zaintzen emandako batez besteko denbora	0,16	1,36	16,40
Jokoak eta heziketa	0,13	1,55	11,50
Helduen zaintza	0,07	2,07	5,20
Zainketak, guztira	0,36		
Etxeko zereginetan emandako denbora			
Otorduen prestaketa	0,47	1,14	63,60
Garbiketa-lanak	0,30	1,12	41,40
Arropa	0,09	1,00	15,00
Beste konponketa batzuk	0,05	0,52	9,40
Erosketak	0,21	1,05	32,70
Kudeaketak	0,03	1,27	3,10
Erdi-aisialdia	0,10	1,45	9,70
Etxeko zereginak, guztira	2,05		
Zainketak + etxeko zereginak	2,41		
Lan nagusia	2,38		
Bigarren mailako lana	0,01		

Iturria: Eustat, Denbora-aurrekontuen inkesta 2019. 2019ko ekainaren 26an argitaratua.

Adingabe bat baino gehiago eta heldu bat baino gehiago egon daitezke etxean.

(1) Batez besteko denbora soziala

(2) Eskaintzen duen batez besteko denbora

Ez da erraza elikaduraren funtzioari jatetxe eta ostalaritzaren sektoreko lanpostuen edo negozio-bolumenaren kuota bat esleitzea; izan ere, bi sektore horietan ospakizunaren, topagunearen eta aisial-

diaren osagai bat ere badago; gainera, jatetxeen eta tabernen zerbitzu batzuk Euskadin bizi ez diren pertsonak kontsumitzen dituzte: pasadizokoak edo turistak dira. Nolanahi ere, tabernek, jantokiek eta jatetxeek ere elikaduraren funtzioaren zati garrantzitsu bat estaltzen dute, eta hori, konparatuz gero, erabil daiteke kalkulatzeko etxeek ekoiztakoaren balioa edo ekoizpen monetarizatuaren bolumena, sortuko litzatekeena gaur egun etxeetan egiten diren otordu batzuk lekualdatuko balira ekonomia-aren sektore monetarizatura, jatetxeetara, eskoletako jantokietara edo jantokietara eta enpresakoetara. Eguneko hiru otorduetatik 20,00 euroko balioa zenbatesten bada 2 180 000 pertsonako biztanleria osoarentzat, etxeen unitateen ekoizpenaren baliorako lehen hurbilketa bat izango litzateke kontzeptu horrengatik 43,6 milioi euro egunean, edo 15 914 milioi euro urtean.

Lehenengo hurbilketa hori egiteko, egiaztatu beharko litzateke hamasei urtetik beherakoek ohiturak inkestako erreferentziazko biztanleriaren berdinak ote diren, murriztu egin beharko litzateke etxean otordurik egiten ez dutela diotenen proportzioa (% 5), eta kalkulatu etxetik kanpo egiten duten otorduen kopurua. Etxetik kanpoko otorduei dagokienez, maiztasunari buruzko datuak baino ez ditugu (% 48), baina ez otordu motari eta kopuruari buruzkoak. Lan-hipotesi gisa, egunero etxetik kanpo otorduren bat egiten dutela erantzun dutenen artean, % 70ek otordu bat baino ez dute egiten, % 20k bi otordu eta % 10ek hiru, etxetik kanpoko otorduak ez dira hiru eguneko otorduen baliokideak, 1,4 bazkariren baliokideak baizik; hau da, ohikoaren % 47. Beraz, ez da % 48 kendu behar, % 48aren % 47 baizik, % 22aren baliokidea dena. Horri gehitu behar zaio aparteko otordu txikien (hala nola askariak edo aperitiboak) eta etxean egunerokotasunetik kanpo egiten diren otorduen balioaren zenbatespena. Daturik ez dagoenez, lan-hipotesi gisa kalkula daiteke elikadura-zerbitzuen ekoizpen osoaren % 10 dela otordu horien balioa. Laburbilduz: $[100-(5+22)+10]=\% 83$.

Bigarren hurbilketa kalibratuago horrek lehenengo hurbilketaren guztizkoaren % 83ko zifra ematen du; beraz, Euskadiko etxeetan elikagaien ekoizpenaren balioa eguneko 36,2 milioi eurokoa da, eta urteko 13 200 milioi eurokoa. Testuinguruan jartzeko, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2019ko BPGa, Eustaten arabera, 74 780 milioi eurokoa izan zen. Etxeetan ekoiztako elikagaiak (hori baita zaintzaren zeharkako moduetako bat) BPGaren % 17,65 dira. Gainerako funtzioen ekoizpenaren balioa, azterketa zehatzagorik ezean, erabilitako denborarekiko proportzionala izan daiteke soilik, erabilitako materialak kontuan hartu gabe eta denboraren balioari funtzio guztietan eutsiz. Eustaten Denbora Aurrekontuaren Inkestak «etxeen denbora» izenburupean jasotzen dituen zainketaren zeharkako funtzioak egiteko, 16 urtetik gorako biztanleek egunean bi ordu eta bost minutu behar dituzte; beraz, zeharkako zaintza horien ekoizpenaren balioa BPGaren % 75 da.

4. **Administrazio publikoak eta zaintza. Euskadin eskaintzen diren zaintza-zerbitzuak**

Administrazio publikoek zainketarako egiten dituzten ekarpenetan, erabakigarriak dira biztanleriaren osasunaren (Osasuna) eta soldataz kanpoko prestazio ekonomikoen (Gizarte Segurantzza) ardura zuzena duten erakundeenak, lehenengoak izaera teknikoagatik eta bigarrenak mendekotasuna dutenen

eguneroko biziraupena ahalbidetzen dutelako. Mendekotasuna duen pertsona batek zenbait programaren laguntza jasotzen du maiz.

Laguntza-iturri garrantzitsu horiez gain, administrazio publikoetako beste erakunde batzuek ere zaintzarako ezinbestekoak diren baliabideak edo zerbitzuak eskaintzen dituzte. Euskadin, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak gizarte-zerbitzuak kudeatzen ditu, eta mendekotasunak dirauen bitartean zaintzeko eskaintza askotarikoa da. Zerbitzuen zati bat zuzeneko zaintza-lana da, eta, beraz, zuzeneko zaintzaileengan oinarritzen dira, baina beste zerbitzu batzuk mendekotasuna duenaren ingurune fisikoa hobetzera bideratuta daude. Jarduera-motak programatan banatzen dira, kontuan hartuta laguntza nori emango zaion: mendekotasuna duenari edo haren zaintzaileei (laguntzaile pertsonalak, familiako zaintzaile ez profesionalak, zaintzaileei aldi baterako atsedena ematen dietenak); kontuan hartuta, baita ere, zainketa egunez edo gauzez emango den, etxean bertan edo Administrazio Publikoaren lokaletan emango den, esku-hartze psikosozialekoa edo bestelakoa izango den, lojamenduetan emango den, zentro espezializatueta barneko gisa; ea laguntza mendekoaren etxebizitzan edo ibilgailuan egokitzapenak egiteko den, joan-etorriak, telelaguntzako gastuak ordaintzeko laguntzak diren, produktu iraunkorrak edo erabili eta botatzeko produktuak eskuratzeko diren.

5. Zainketarako denbora gutxi izatea

Eustaten Denbora Aurrekontuen Inkestako datuen arabera, ez dago denbora askorik Euskadin zaintzara bideratutako denbora handitzeko, batez ere tarteko adinetako biztanleen artean. Zer jarduerari kendu beharko litzaioke denbora hori zaintzan erabiltzeko? Zer taldek egin beharko lukete? Zein da pertsona batek nekerik, estresik edo aukera-galerarik izan gabe aldi berean jasan ditzakeen jardueren metatze-maila?

Goiz hasten da denbora erabilgarrian eta etxeko lanekin konprometitutako denboran dagoen genero-desberdintasuna, zehazki, oraindik oso gazteak direnean eta ikasten ari direnean hasten da. Gizonen ikasleek egunean ordubete gehiago ematen dute aisia aktiboan eta kirolean, hiru ordu laurden gutxiago lanean eta prestakuntzan, eta ordu laurden gutxiago etxeko zereginetan ikasleek baino. Erretiratuek aisialdirako denbora dute, baina oso modu desberdinean banatzen da emakumeen eta gizonen artean; ordubete baino gehiagoko aldea dago gizonen alde, eta zalantzarikoa da aisialdiari uko egiteko prest daudela besteak zaintzeko. Langabeen arteko aldeak handiak dira. Langabeziak esanahi desberdinak ditu gizon eta emakumeentzat; emakumeek batez beste lau ordu inguru ematen dituzte etxeko zereginetan, beste lanbide-talderen batek baino gehiago, etxeko andreenak izan ezik, eta haiek baino are ordu gehiago ematen dituzte etxeko pertsonak zaintzen.

Ez da erraza izango zaintza etxe barruan birbanatzea, kulturalki oso errotuta dauden egoerak baitira.

2. TAULA

Batez besteko denbora soziala, sexuaren eta eguneroko batez besteko jarduerarekiko erlazioaren arabera, Euskadi, 2018

	Landunak			Langabeak			Erretiratuak			Ikasleak			Etxeko zereginak		
	T	H	E	T	H	E	T	H	E	T	H	E	T	H	E
Beharrian fisiologikoak	11:35	11:30	11:41	12:17	12:12	12:21	13:40	13:36	13:44	12:01	12:03	11:59	13:01	12:12	13:01
Lana eta prestakuntza	5:08	5:36	4:38	0:51	1:04	0:41	0:05	0:06	0:04	4:54	4:34	5:18	0:02	0:00	0:02
Etxeko zereginak	1:41	1:11	2:14	3:05	2:08	3:50	2:31	1:52	3:15	0:34	0:27	0:42	3:52	4:12	3:52
Etxeko pertsonen zaintza	0:42	0:31	0:53	0:59	0:27	1:24	0:19	0:19	0:18	0:04	0:05	0:03	0:46	0:40	0:46
Aisialdi aktiboa eta kirolak	1:13	1:21	1:04	1:57	2:48	1:18	2:00	2:24	1:32	2:22	2:52	1:47	1:31	2:09	1:31
Aisialdi pasiboa	1:50	1:57	1:42	2:54	3:15	2:38	4:06	4:19	3:51	1:45	1:44	1:46	3:39	4:12	3:39
Joan-etorriak	1:13	1:14	1:12	1:05	1:10	1:02	0:40	0:42	0:36	1:06	1:01	1:12	0:36	0:08	0:36

Iturria: Eustaten datuak oinarri hartuta M.A. Duránek egina, Denbora Aurrekontuen Inkesta 2018, 2019ko ekainaren 26an argitaratua.

6. Kuantifikatzea ez da gizatasuna kentzea. Mendekotasun-adierazleak

Neurtzea ez da gizatasuna kentzea; aitzitik, neurketa eta kuantifikazioa beharrezko tresnak dira arazoak sakon ezagutzeko eta haien konpontzeko modua bilatzeko. Zaintza-jarduera guztiek elementu afektiboak eta moralak dituzte, baina horregatik ez zaio uko egin behar kuantifikatzeari, batez ere neurtzen errazten diren alderdietan, hala nola pertsona kopuruan edo premia bat betetzeko beharrezkoa den denboran. Harrigarria izan daitekeen arren, zaintza produkzio-sektore bat da, eta haren azterketaren metodologia-alderdi asko bat datoz beste sektore batzuekin, hala nola hezkuntzarekin, osasunarekin, aisiarekin edo garraioarekin.

Zaintza neurtzen bada soilik hartu ahal izango dira erabakiak eta diseinatu ahal izango dira baliabide garrantzitsuak alde aurretik aurreikusten dituzten politikak, hala nola zenbat langile beharko diren edo lanaldi osoko zenbat lanpostu baliokide beharko diren, zerbitzuak merkatura edo administrazio publikoetara eta boluntariorantz eramateko. Edo alderantziz.

Jarduera oso heterogeneoa eta neurri handi batean mentala denez eta publiko heterogeneoei zuzenduta dagoenez, zaila da makro alderdien berri eman dezaketen neurri-unitateak aurkitzea, hala nola, eskari globala edo zaintzen eskaintza globala. Gainera, zaintza gehienak zuzenean monetarizatutako kontraprestazio ekonomikorik gabe egiten dira, eta, beraz, ez dira oso lagungarriak jardueraren merkatu-prezioari buruzko informazioa eskatzen duten adierazleak. Horregatik, orokortu egin dira denboraren erabileran oinarritutako zainketa-adierazleak, lehen hurbilketa gisa behintzat. Denbora-adierazleak izu-

garri fintzen dira denboraren ezaugarriak jasotzen direnean, eta ez kantitatea bakarrik: adibidez, maiztasuna, aldizkakotasuna, intentsitatea, aurreikusgarritasuna, zereginaren zailtasuna, egunaren edo astearen unea eta tokia, hura zaintzaile nagusi edo bigarren mailakotzat hartzeko modua, etab.

Mendekotasun demografikoaren indizeek bi biztanleria-talderen arteko zenbakizko erlazioa adierazten dute: zaintza-kontsumitzailetzat hartzen dena eta zaintza-ekoizletzat jotzen dena. Argi dago ezen, hain orokorrak diren zifra batzuetan, ekoizle gisa agertzen diren pertsona batzuk kontsumitzaileak direla batez ere, eta alderantziz; hala ere, mendekotasun demografikoaren adierazleek ahalbidetzen dute adieraztea banaketaren ezaugarri nagusiak eta aurreikuspen-garaien edo -egoeren arteko joerak eta aldaketak.

Denboran zuzenean oinarritzen ez den neurri-unitate komunik ez egotearen arazoa konpontzeko, adierazle abstraktuago bat sortu da, bai eta kanon edo metro bat ere, askotariko egoerak konparatzeko aukera ematen duena, eta hori bereziki erabilgarria da nazioarteko erkaketak egiteko edo etorkizuneko garaietarako proiektioetarako. Kontu-unitate komun hori *zaintzaren kontsumo-unitatea* edo, sinpleago, *zaintza-unitatea* da: *Biztanleria jakin batean 15-64 urteko pertsona bakoitzak kontsumitzen duen batez besteko zaintza-denboraren kantitatea*.

Makro-mailarekin alderatzeko, kontu-unitatearen definizioarekin batera haztapen-eskalak erabiltzen dira, zaintza produzitzen edo kontsumitzen duten kolektiboek aplikatzeko. Haztapen-eskala sinpleenak (*Duran eskala*) subjektuen adina baino ez du kontuan hartzen, eta tarteak finkatzeko Nazio Batuen biztanleria-proiektioetara egokitu da. Eskala sinple horretatik abiatuta, beste eskala asko sortu dira, eta xehetasun handiagoz ikus daitezke beste argitalpen batzuetan. Hemen, onartzen da *Duran eskalak* bost adin-tarte baino ez dituela erabiltzen zenbatespenak egiteko: *biztanleriaren talde zentralak (15-64 urte) pertsona bakoitzeko zaintza-unitate bat kontsumitzen du, muturreko taldeek hiru zaintza-unitate (80 urte eta gehiago, 4 urte edo gutxiago) eta tarteko taldeek bi zaintza-unitate (5 eta 14 urte bitarteko eta 65 eta 79 urte bitartekoetan)*.

Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) proiektio demografikoak ditu, eta haiei esker biztanleriaren bolumena zenbatets daiteke, bai eta biztanleriaren banaketa ere, adin-talde handien, generoaren eta kokapen geografikoaren arabera, epe labur eta ertainean. Ez dago proiektio bakar bat ere, zenbait egoera posible baizik, eta haien artean probableena aukeratu behar da. Datu horiekin, zaintzaren eskaintza eta eskaria banatzeko aurreikuspenak egin daitezke. Eskaintzaren eta eskariaren aukerak gurutzatuz (esate baterako, zainketa-hornitzaile mota bat aukeratuz, eskatzaileen talde espezifikokoak zaintzea bere gain hartzen duen ala ez kontuan hartuta), zainketa-eredu teorikoak eraiki daitezke, zehatzago aztertzeko bai egoera desiragarrienak (egoera hobereena), bai baztergarrienak (egoera gaiztoak).

Eustatek Erkidegoko biztanleriaren banaketa argitaratu du hiru adin-talde handitan: 20 urtetik beherrakoak, 65 urtetik gorakoak eta tarteko adinekoak (20-64 urte). Ez dator guztiz bat *Duran eskalan* erabilitako tarteekin; beraz, azterlan honetan tarteak Eustatek emandakoetara egokitu behar izan dira, eta, ondorioz, ponderazio-irizpideak aldatu egin dira. taula honetan, hiru adin-talde handi horietako bakoitzean Euskadin dagoen biztanleria-bolumena ageri da, generoaren arabera bereizita.

Euskadiko biztanleriari *Duran eskala* aplikatzeko eta datu horiek zaintza-eskariari buruzko beste azterlan batzuekin alderatzeko, adinaren arabera bereizi beharko litzateke, jaiotza-urteko datuetatik abia-

tuta, baina taula honetan nahiago izan da Eustatek argitaratutako datuen jatorrizko egiturari eustea, eskala egokituz. 20 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren kontsumoa/eskaria zainketa-unitate gisa ponderatu da, eta zaintzako 2,5 kontsumo-unitaterekin ponderatu da, bai 20 urtetik beherakoentzat, bai 65 urtetik gorakoentzat.

Abiapuntu teorikoa da, eta supozizio berriekin garatuko da. Oinarrizko datu horietatik abiatuta, erantsitako taulan mendekotasun demografikoaren adierazle konplexuago batzuk aurkezten dira.

3. TAULA

Mendekotasun-indizeak Euskadin, 2019

1. Biztanleriaren banaketa

	Guztira	0tik 19ra urteak	20tik-64ra urteak	>= 65 urteak
Guztira (milakotan)	2.188	402	1.299	487
Gizonak	1.061	207	648	207
Emakumeak	1.126	195	651	280

2. Mendekotasun sinplearen indizeak

2.1. Haurren eta gazteen mendekotasuna [(0 urtetik 19 urtera bitarteko biztanleak)/(20 urtetik 64 urtera bitarteko biztanleak)]	0,31
2.2. Mendekotasun handiak [(65 urteko edo gehiagoko biztanleak)/(20 urtetik 64 urtera bitarteko biztanleak)]	0,37
2.3. Haurren, gazteen eta adinekoen mendekotasuna [(0 urtetik 19 urtera bitarteko biztanleak) + (65 urteko edo gehiagoko biztanleak)/(0 urtetik 64 urtera bitarteko biztanleak)]	0,68
2.4. Gizonek emakumeekin duten mendekotasuna (20 urtetik 64 urtera bitarteko gizonak)/(20 urtetik 64 urtera bitarteko emakumeak)	1,00
2.5. Biztanleria osoak emakumeekin duten mendekotasuna (biztanleria osoa) (20 urtetik 64 urtera bitarteko emakumeak)	3,36
2.6. Hurrek eta gazteek emakumeekin duten mendekotasuna (0 urtetik 19 urtera bitarteko biztanleak)/(20 urtetik 64 urtera bitarteko emakumeak)	0,62
2.7. Adinekoek emakumeekin duten mendekotasuna (65 urteko edo gehiagoko biztanleak)/(20 urtetik 64 urtera bitarteko emakumeak)	0,75

3. Haztatutako mendekotasun-indizeak

3.1. Haurren eta gazteen mendekotasuna (0 urtetik 19 urtera bitarteko biztanleak)/(20 urtetik 64 urtera bitarteko biztanleak)	0,77
3.2. Mendekotasun handiak (65 urteko edo gehiagoko biztanleak)/(20 urtetik 64 urtera bitarteko biztanleak)	0,94
3.3. Hurrek eta gazteek emakumeekin duten mendekotasuna (0 urtetik 19 urtera bitarteko biztanleak)/(20 urtetik 64 urtera bitarteko emakumeak)	1,54
3.4. Adinekoek emakumeekin duten mendekotasuna (65 urteko edo gehiagoko biztanleak) (20 urtetik 64 urtera bitarteko emakumeak)	1,87
3.5. Biztanleria osoak emakumeekin duen mendekotasuna (biztanleria osoa) (20 urtetik 64 urtera bitarteko emakumeak)	8,40

Iturria: M.A. Duranek egina, Eustaten «Biztanleria-elementuak» datuen gainean. 2019ko urriaren 17an eguneratua.

Abiapuntutzat hartzen da 20 eta 64 urte bitarteko pertsona bakoitzak zaintza-unitate bat sortu eta kontsumitzen duela; gainera, zaintza-zerbitzuak sortzen ditu etxeetan gainerako biztanleentzat, eta horrela eskari osoa aseta geratzen da. Haurren eta gazteen mendekotasun-indize orokor haztatu ga-beak ezartzen du haurren eta gazteen eta tarteko adineko biztanleriaren arteko estatistika-proporzioa. Euskadirako indizea 0.31 da. Horrek esan nahi du tarteko adin-taldeko heldu guztiek berdin zainduko balute eta zaintza-eskari guztiei erantzungo balie, adin-talde horretako pertsona bakoitzak bere gain hartu beharko lukeela 0.31 haur eta gazteren zaintza. Edo, bestela esanda, tarteko adineko hiru heldu inguruk hogeitetik beherako haur edo gazte baten zaintzaz arduratu beharko lukete (eta zaintza-gaitasun txiki-txiki bat izango lukete sobera).

Adinekoen mendekotasun-indizea lortzeko, adin aurreratuko biztanleria adin ertainekoaz zatitu behar da, eta Euskadiri 0,37ko indizea dagokio, haurren eta gazteen mendekotasun-indizea baino handixeagoa dena. Edo, bestela esanda, tarteko adineko hiru helduri 65 urtetik gorako pertsona bat zaintzea dagokie (eta ekoizpen-gaitasun apur bat izango lukete faltan).

Mendekotasun orokorraren indizeak haurren eta gazteen mendekotasun-indizea eta adinekoen mendekotasun-indizea batzen ditu, eta Euskadiri 0,68 dagokio. Edo, bestela esanda, adin zentralako edo potentzialki aktiboko hiru helduk beren zaintza propioa sortu behar dute, eta, gainera, bi pertsonarena (haur bat edo gazte bat eta adineko bat): heldu baka bat geratzen da zaintza-zereginetatik salbuetsita.

4. TAULA

6 urteko edo gehiagoko biztanleria, mendekotasun mailaren arabera 1989-2014

	1989	2014	2019
Zailtasunak ditu			
BAI	9,2	8,0	6,3
EZ	90,8	92,0	93,7
Zailtasun-maila			
Beste pertsona baten mende dago erabat	6	12,2	14,7
Beste pertsona baten mende dago partzialki	74,7	73,6	78,1
Zailtasunak ditu moldatzeko	14,8	8,8	7,0
Ondo moldatzen da	4,5	5,3	0,1

Iturria: Eustat, Bizi-baldintzei buruzko inkesta, 2015eko ekainaren 1a.

7. Aurrerapen teknologikoak bat-batean txertatu dira zainketan

Beste edozein giza jarduera bezala, zaintza aurrerapen teknologikoetan oinarritu daiteke. Teknologia erabiltzeak sortzen duen arazoa zaintzaren giza kalitatearekin duen bateragarritasun-maila da. Urruneko teknologiak urruneko zerbitzuen eta zerbitzu telematikoen belaunaldi oso bati ematen dio bide. Zerbitzu horien artean ezagunenak hauek dira: telefono bidezko kontrola, etxe edo zentro instituzionaletakoren gela bidezko kontrola, izu-botoiak, laguntza-txilibituak, identifikazio-eskumuturrekoak, etab. Oraindik orain, robotak erabiltzen hasi dira zaintza-lan sinpleetarako, baina baita, maskoten antzera, konpainia pertsonalizatua eskaintzeko ere. Domínguezek eta beste batzuek ospitaleetako zaintzari buruz diotenez, teknologia oso lagungarria izan daiteke, baita gaixo isolatuekin ahots bizia izateko ere. Horien ezarpena, batez ere, haien eraginkortasun ekonomikoaren arabera izango da, hau da, aurretik zerbitzu horiek egiten zituzten zaintzaileen ordezkotako edo osagarri gisa prezio baxuko zerbitzu zaharrak eta berriak eskaintzeko gaitasunaren arabera.

8. Aldaketa demografikoak eta zaintza-eskari berriak, 2020-2030

Erabili ohi diren mendekotasun-indizeak sinpleegiak dira, bi faktorerengatik. Alde batetik, ez dute kontuan hartzen desberdina dela haurren, gazteen eta adinekoen zaintza-eskariaren intentsitatea. Eta, bestalde, onartzen dute tarteko adineko biztanle guztiek neurri berean parte hartzen dutela zaintza-produkzioan edo zaintza-eskariari erantzuteko lanetan. Aurrez azaldutako *Duran eskala* bezalako haztapenak sartzen direnean, mendekotasun-indizeek emaitza dezente desberdinak ematen dituzte. Haurren eta gazteen eskaria 2,5eko biderkatzailearekin haztatzen bada, tarteko adineko pertsona bakoitzak tarteko adineko 0,77 helduen haur eta gazteen eskariari erantzun beharko lioke. Horri adinekoen eskari bat gehitu behar zaio, tarteko adineko 0,93 helduen eskariaren baliokidea dena. Oro har, tarteko adineko pertsona bakoitzak bere burua zaindu beharko luke, eta, gainera, haurren, gazteen eta adinekoen zaintza-eskari bat asetu beharko luke, tarteko adineko 1,71 helduen eskariaren baliokidea dena.

Hurrengo urratsa zaintzaile potentzialen artean kalkuluak egitea da, tarteko adineko heldu guztiek ez baitute berdin zaintzen. Lehen doikuntza, lehen hurbilketa teoriko gisa, adin ertaineko zaintzaileak adin-talde horretako emakumeengana murriztea da, alde batera utzita gizonak ere zaintzen dituztela, eta adin-talde horretako emakume guztiak ez direla egiaz zaintzaileak.

Haurrek eta gazteek 20 eta 64 urte bitarteko emakumeengandik soilik jasotzen badituzte zaintzak, adin-talde horretako emakume bakoitzak tarteko adineko 0,61 pertsonak kontsumitutakoaren baliokidea den zaintza egin beharko luke haientzat, eta hori 1,54 da haurren eta gazteen eskarien batez besteko intentsitatearekin haztatzen denean.

Irizpide horiek adineko biztanleentzat aplikatuta, tarteko adineko emakume bakoitzak adineko pertsonentzako 0.75 zaintza-unitate produzitu beharko litzuzke, 1,86 zaintza-unitate bihurtuta, indizea adineko pertsonen zaintza-eskariaren intentsitatearen arabera haztatzen denean.

5. TAULA

Zaintzaren eskaria Euskadin, 2020-2030

Adina	A.- 2020				B.- 2030				C.-
	A.1 Biztanleria (milakoetan)	A.2 Biztanleriaren banaketa %	A.3 Zaintza- unitateen eskaria (milakoetan)	A.4 Eskariaren banaketa %	B.1 Biztanleria (milakoetan)	B.2 Biztanleriaren banaketa %	B.3 Zaintza- unitateen eskaria (milakoetan)	B.4 Eskariaren banaketa	EAEko Eskariaren bilakaera 2020-2030 Aren gaineko % ^o B
Guztira	2.179,5	100,00	3.232,3	100,00	2.184,9	100,00	3.340,1	100,00	1.033
25 - 4 urte	92,8	4,26	278,4	8,61	82,2	3,76	246,6	7,38	886
25 - 14 urte	210,5	9,66	421,0	13,02	184,7	8,45	369,4	11,05	877
51 - 64 urte	1.379,3	63,28	1.397,3	42,67	1.313,8	60,13	1.313,8	39,33	1.088
25 - 79 urte	337,1	15,47	674,2	20,86	402,3	18,41	804,6	24,09	1.193
80 eta +	159,8	7,33	479,4	14,83	201,9	9,24	605,7	18,13	1.263

Iturria: M.A. Duranek egina, EUSTATen «Populazio-proiekzioak» datuen gainean. 2020/03/06An eguneratua. 2020an 36,3 mila immigrazio eta 30,9 mila migrazio aurreikusi dira (5.400 pertsonako migrazio-saldoa). 2030erako 37,1 mila immigrazio eta 29,9 mila emigrazio aurreikusten dira (7.200 pertsonako migrazio-saldoa)

Haur eta gazteen eskaria eta adinekoena batuta, eta tarteko adineko emakumeek soilik betetzen zutela pentsatuta, emakume bakoitzak 3,41 zaintza-unitate produzitu beharko litzuzke haur, gazte eta adinekoentzat. Kopuru horretan ez dago sartuta bere burua zaintzeko produzitu beharko lukeen zaintza-unitatea; izan ere, zaintza-produkzioa 4,41 zaintza-unitatera igotzen du adin ertaineko emakume bakoitzeko; era berean, kopuru horretan ez dago sartuta adin-talde bereko gizonen eskariei erantzuteko produzitu beharko lukeena ere, beren burua zaintzen ez badute.

Gizon askok zaintzen dute beren burua eta beste pertsona batzuk ere zaintzen dituzte, baina emakumeek baino ekarpen txikiagoa egiten diote norberaren eta besteen zaintzari. Kasu teoriko gisa, eta aurretik esandakoa alde batera utzi gabe, bitarteko adineko gizonek beren burua zaintzeko eta beste batzuk zaintzeko gaitasuna erabiliko ez balute eta gaitasun hori beren adin-talde bereko emakumeen gainean jarriko balute, emakume bakoitzak zaintza gehigarriaren 0,996 unitateen pareko zaintza-karga sortu beharko luke.

Laburbilduz, zaintza-karga guztia 20-64 urteko emakumeen taldeari soilik badagokio, eta eskariaren intentsitatearen arabera haztapena *Duran eskalaren* egokitzapen gisa azaldu dugun adin-taldearen arabera aplikatzen bada, Euskadiko tarteko adineko emakume bakoitzak 5,41 zaintza-unitate produzitu beharko litzuzke: bat bere buruarentzat eta gainerakoak lan egiten ez duten haur, gazte eta adinekoentzat, bai eta zaintzeko gaitasuna ez darabilten tarteko adineko pertsonentzat ere.

Adierazle horiek adierazle berri konplexuagoen aurrerapena baino ez dira, eta beste banaketa-egoera posible batzuk kontuan hartzen dituzte; adibidez, zaintzaile potentzialen kopurua nabarmen handitu daiteke osasun ona duten 65 urtetik gorako erretiratuen zaintzaren produkzio-funtzioaren zati bat lekualdatzen bada. Edo hamabost urtetik gorako gazteei, edo 18 urtetik gorakoei. Baina, era berean, nabarmen murriztu daiteke, eta nahiko modu errelistan gainera, baldin eta baztertzen edo murrizten bada lan-merkatuan sartu diren tarteko adineko biztanleek zaintza produzitzeko duten ahalmen potentziala, bereziki etxe barruan tradizionalki zaintzaile izan diren emakumeen kasuan.

9. Egungo zaintza-lana lanaldi osoko enplegu baliokide bihurtzea Euskadin: 918 586 enplegu ikusezin eta ordaindu gabe

Zenbait bide eta datu-iturritatik lor daitezke Euskadik behar duen zainketa-denboraren zenbatespena eta lanaldien baliokidetasuna. Bizi-baldintzei buruzko inkestaren arabera (Eustat, 2019ko datuak, 2020an argitaratuak), sei urtetik gorako biztanleen % 6,3k zailtasunak dituzte eguneroko bizitzarako. Mendekotasunak gehiago eragiten die emakumeei (% 7,0) gizonari baino (% 5,4), bai zifra erlatiboetan, bai absolutuetan (75,3 mila emakume eta 54,8 mila gizon). Zalantzarik gabe, partez kausa genetikoek eragiten dute, baina ez dakigu zer neurritan laguntzen duten emaitza hori lortzen arrazoi sozialek, hala nola benetako lanaldiak luzeagoak izateak eta gizarte-segurantzaren estaldura txarragoa izateak.

Duela hogeita hamar urtetik hona, gaixotasunagatiko mendekotasun-indizeak etengabe egin du atzera: orduan % 9,2 zen. Oso albiste ona izango litzateke ez balitz interpretatzeko zaila izango, batez ere biztanleria zahartzen ari delako. Pentsatu behar al dugu mota guztietako babes-neurriek heren bat murriztea lortu dutela, nahiz eta azken hiru hamarkadetan handitu den 80 urtetik gorako pertsonen proportzioa (pertsona horiek dira zaurgarrienak)?, ala mendekotasunaren definizioaren aldaketa bat gertatu da iritzi publikoan, bai metodologiari dagokionez, bai pertzepzioari dagokionez? Nolanahi ere, indize hori Euskadin eguneroko bizitzako jarduerak egiteko zailtasunak dituzten 130 139 pertsonaren parekoa da; kontuan hartzeko zifra da.

Mendekoen proportzioak behera egiten du inkesta horren arabera, baina larritasunak gora egiten du. Zaintza-politikei dagokionez, lau larritasun-mailetatik garrantzitsuenak beste pertsona baten erabat mende daudenak (% 15) edo partzialki mende daudenak dira, gehienak baitira (% 73,6). Zenbaki absolutuetara itzulita, 19 130 pertsonak erabateko mendekotasuna dute, eta 101 638k mendekotasun partziala. Zerbitzu mota desberdinak behar dituzte, nahiz eta, zailtasunez bada ere, beren bizitzako eguneroko premiei beste pertsona baten mende egon gabe erantzun diezaieketen (% 7,0) edo beste pertsona batek artatu beharrik gabe ongi konpon daitezkeen (% 0,1). Azken bi kategoria horietan, pentsatzekoa da mendekotasuna sendagaiekin edo ekipamendu teknologikoekin ordeztzen dela, esaterako, gurpil-aulkiekin edo ortopediekin.

Ez dakigu zenbat laguntza-ordu jasotzen dituzten bi maila larrienen mendekoeak, baina horiei guztiei aplikatzen bazaizkie 2008ko Desgaitasunaren Inkesta handian lortutako eguneko zaintza-orduen adierazleak (5,7 eta 9,6 ordu egunean, erabilitako zenbaketa-sistemaren arabera, batez beste 7,6 ordu egunean), zaintza jasotzeko 917 837 ordu izango dira (120 768 mendeko x 7,6 ordu) edo 6 424 857 ordu astean. Horietako bakoitza 37 orduko asteko lanaldia duen soldatapeko zaintzaile bakar batek zainduko balu, 173.6 eta 44 langile beharko lirateke zaintza-premiari erantzuteko. Kopuru hori erdira jaitsiko balitz ere, 85 mila langile baino gehiago beharko lirateke lan-arauetara egokitutako lanaldietan arreta emateko premia estaltzeko.

Eustaten 2019ko denboraren erabilerrari buruzko inkestaren arabera, eguneko 125 minutukoa da (2 h, 5 min) 16 urteko eta gehiagoko biztanleek eskaintzen duten batez besteko denbora sozial ordaindu gabea, eta ordu horiei 36 minutu gehitu behar zaizkie, etxean bizi diren pertsonen zaintzan espezifikoki emanak.

Eustaten arabera ere, 2020an hamasei urte eta gehiagoko 1 834 200 pertsona bizi dira Euskadin («biztanleriaren proiektzioak», 2000/03/06an eguneratua); beraz, etxeko lanen eguneroko produkzioa 229 275 000 minutukoa da, hau da, astean 26 748 750 ordukoa. Erreferentziatzat 37,5 orduko asteko lanaldi osoa hartzen bada, eta ez funtzionarioentzat 2018an ezarri eta ondoren errekurritu zen 35 ordukoa, Euskadin ordaindu gabeko etxeko lanak eta zaintza-lanak lanaldi osoko 713 300 enpleguen bestekoak dira. Horri gehitu behar zaio etxean bertan bizi diren pertsonak zaintzeko egiten den zuzeneko lana, astean 7 707 000 ordu ematen baitituzte, hau da, lanaldi osoko 205 520 enplegu.

Etxekoen unitateetan zainketa-denbora osoaren karga murrizteko, produktibitateari eutsiz gero, lanaldi osoko 91 858 langile kontratatu beharko lirateke.

6. TAULA

Zaintza-lana lanaldi osoko enplegu bihurtzea Euskadin.

Zuzeneko zaintzan emandako batez besteko denbora soziala (minututan)	36
Zeharkako zaintzan emandako batez besteko denbora soziala (minututan)	125
Zaintzan emandako batez besteko denbora soziala, guztira (zuzena + zeharkakoa) (minututan)	161
Zaintzan emandako batez besteko denbora soziala, guztira (zuzena + zeharkakoa) (ordu eta minututan)	2h 01
16 urteko edo gehiagoko biztanleria	1.834.200
Zuzeneko zaintzaren eguneko ekoizpena, ordutan	1.100
Zeharkako zaintzaren eguneko ekoizpena, ordutan	3.821
Zaintzaren eguneko ekoizpen osoa (zuzenekoa + zeharkakoa)	4.921
Zuzeneko zaintzaren asteko ekoizpena, ordutan	7.700
Zeharkako zaintzaren asteko ekoizpena, ordutan	267.470
Zaintzaren asteko ekoizpen osoa (zuzenekoa + zeharkakoa), ordutan	344.470

Zuzeneko zaintzaren urteko ekoizpena, ordutan	401.500
Zeharkako zaintzaren urteko ekoizpena, ordutan	1.394.665
Zaintzaren urteko ekoizpen osoa (zuzenekoa + zeharkakoa), ordutan	1.796.165
Euskadiko Administrazio Publikoko asteko lanaldiaren iraupena, ordutan	37,5
Lanaldi osoaren baliokideak diren lanpostuak, zuzeneko zaintzakoak	205.333
Lanaldi osoaren baliokideak diren lanpostuak, zeharkako zaintzakoak	713.253
Lanaldi osoaren baliokideak diren lanpostuak, erabateko zaintzakoak(zuzenekoa + zeharkakoa)	918.586
Zuzeneko zaintzaren karga % 10 murrizteko, kontratatu egin beharko lirateke (pertsonak)	20.533
Zeharkako zaintzaren karga % 10 murrizteko, kontratatu egin beharko lirateke (pertsonak)	71.325
Zaintzaren karga osoa (zuzenekoa + zeharkakoa) % 10 murrizteak (pertsonak) kontratatzea eskatuko luke	91.858

Iturria: M.A. Duranek egina, Eustaten (Denbora Aurrekontuen Inkesta 2018) datuen arabera, 2019an argitaratutako datuak eta «Biztanleriaren Proiekzioa» datuen gainean (2020/03/06an argitaratuak).

10. Mendekotasunen bat duten pertsonen zaintzaren faktura: zenbatekoa eta banaketa

Laneko legeriaren arabera, soldatapeko baten lanaldia ezin da asteko berrogei ordutik gorakoa izan urtean. Estatistikako Institutu Nazionalaren arabera, zaintzaileen zerbitzu-sektorean, lanaldi osoko lanpostua astean 37 ordukoa da. Mendekotasuna duen pertsona bati aitortzen bazaio beste pertsona baten mende dagoela erabat, astean 168 orduz behar du nolabaiteko arreta. Arreta-ordu horiek betetzeko, lanaldi osoko 4,5 lanpostu behar dira, eta hori, egia esan, zertxobait handiagoa izango litzateke, kontuan hartu behar baita aldi baterako lanera ez joatea, oporregatik, langilearen gaixotasunengatik eta antzeko beste arrazoi batzuegatik. Ratio handi hori, etxe gehienek aurrekontuarekiko eskuragarria ez dena, murrizteko alternatibak honako hauek dira: arreta-denboraren zati bat estali gabe uztea edo benetako lan-denbora gisa ez zenbatzea dira, zeinak legezko interpretazio-arazoak eta beldurra sortzen baititu kontratatzaileen artean, lan-gatazkak piztu edo salaketak aurkez baititzakete horrelako akonpainamendu-lana egiten duten langileek. Zaintzaile berak mendekoak diren zenbait pertsona aldi berean artatzea ere badago, baina alternatiba hori, barneratze-erakundeetan ohikoa dena, ezinezkoa da etxeetan.

Ez dira guztiz baliokideak inkestetan erabilitako mendekotasunaren definizioa eta lan-legerian erabiltakoa; azken hori Gizarte Segurantzaren alta emandako langileei soilik aplikatzen zaie. Lanerako ezintasunaren mailarik altuena baliaezintasun handia da, baliaezintasun absolutuaren edo osoaren gainetik. Pentsioak finkatzean kasuistika zabala dago langilearen inguruabar pertsonalen arabera (urteak eta kotizazio-oinarriak, adina, senar-emazteen egoera, ezkontidea bere kargura dagoen edo ez, etab.)

eta baliaezintasunaren kausaren arabera (gaixotasun arrunta, lan-istripua erakunde kontratatzailearen zabarkeriarekin, etab.). Nolanahi ere, baliaezintasunagatik jasotzen duen osagarria (Gizarte Segurantzak berak bere webgunean adierazitakoaren arabera) ezin da izan jasotako pentsioaren % 45 baino txikiagoa, osagarria kontuan hartu gabe.

BBVA Fundazioko Pentsio Institutuak kasu horren berri eman du zifrekin (2020ko uztailaren 28a). Gaixotasun arruntak eragindako baliaezintasun absolutua edo osoa duen 65 urteko langilearen kasuan, pertsona bakarreko unitate ekonomikoan (bere kargurako ezkontiderik gabea), 2020ko gutxieneko pentsioa 683,50 eurokoa izango da hilean. Jakina, osagarri horrekin ezin zaio lanaldi osoko zaintzaile bati ordaindu, eta are gutxiago zaintzaile bati baino gehiagori. Zainketa-sistema osoaren oinarrian dagoen ideia batek eragiten du pentsio osagarrien bidez lanaldi osoko zaintzaileei ordaindu ezin izatea, uste baita zerbitzu hori doakoa dela, eta langilearen senideek eta, zehazki, berariaz esaten ez bada ere, beren familiako emakumeek eman behar dutela. Hain zuzen ere, langileen familietako emakumeek estaldura okerragoa dute baliaezintasunaren edo mendekotasunaren aurrean, zaintzarekin lotutako familia-betebeharrek eragotzen dietelako lan-merkatuan erabat sartzea eta gizarte-segurantzaren eta, ondorioz, zaintza finantzatzeko sistema publiko batean baldintza berdinetan afiliatzea.

Egoitzetako zuzendarien kritika larria eta iraunkorra da, mendekotasunerako zuzkidura behar bestekoa ez delako eta izapide burokratikoak nekagarriak direlako: *Espanian, 2020ko lehenengo bost hilabeteetan, 16.000 pertsona inguru hil dira mendekotasunaren itxaron-zerrendan. Eskubide aitortua zuten, baina ez zuten inolako prestazio edo zerbitzurik jasotzen. 106 heriotza egunero. Orain 254.000 pertsona inguru daude itxaron-zerrendan. Beste 150.000 pertsona balorazioaren zain daude, mendekotasun-graduren bat aitortzen zaien jakiteko.*

Ceaps-en arabera (Pertsonen Arretarako Enpresa Zirkulua), Euskadin mendekotasun aitortua duten 65 urtetik gorako 78.811 pertsona daude (65 urtetik gorakoen % 9,66). Horietatik, 65 mila prestazioren bat jasotzen ari dira, eta 13 mila zain daude.

11. Bi azpisistema ekonomikoren arteko muga. Zergatik nahiago dute mendekoek laguntza ekonomikoa zerbitzuak ematea baino?

Mendekoen zaintza autozaintzaren, senideen, administrazio publikoen, merkatuaren eta boluntaritzaren artean banatzen da; zaintza mota horietako bakoitza beste azpimota batzuetan banatzen da. Ikuspegi makroekonomikotik, zaintza-programak bi talde handitan sailka daitezke: nagusiki ekonomia monetarizatuaren mende daudenak eta ez daudenak. Horiek guztiak, familia-ingurune-ko zaintzaile profesionalizatu gabeena izan ezik, ekonomia monetarizatuaren eremuan egiten dira, hau da, merkatuko prezioek arautzen dituzte. Hala ere, mendekotasunen bat dutenetako gehienek familia-laguntza aukeratzen dute, hau da, formula misto bat erabiltzen dute zaintza-zerbitzu gehienak doan emateko, eta konpentsazio ekonomiko bat jasotzen dute horregatik, eta konpentsazio

hori askoz ere txikiagoa izango da ordainsaria jasotako zaintza-orduen proportzioan esleituko balitz merkatuko prezioei legokiekeena baino.

Formula hori da Euskadin eta Espainia osoan gehien erabiltzen dena, eta horrek oso ondo erakusten ditu ekonomiaren azpisistema monetarizatuaren eta monetarizatu gabekoaren arteko tentsioak, eta zeinen zaila den sistema baten eta bestearen arteko tentsioak kudeatzea. *Orientazio ideologiko liberaleko ekonomiarako, azpisistema monetarizatu baina ez da benetako ekonomia, eta sektore horri bakarrik aitortzen zaio aberastasuna sortzeko gaitasuna.* CEAPSek (Pertsonen Arreta Emateko Enpresa Zirkulua) oso ondo erakusten du haren ikuspuntua, jendaurrean adierazi baitu hori Euskadin «*gainditu gabeko irakasgai handi*» bat dela. Familia-inguruneke zaintzaileentzako laguntza ekonomikoak Mendekotasun Legearen «*abusua*» edo interpretazio okerra dira: familia-errenta hobetzen dute eta, aldi berean, ezkutuko ekonomian ordaindutako etxeko laguntzaren bat kontratatzeko aukera ematen dute, baina ez dute «*enplegurik, aberastasunik eta itzulerarik*» sortzen. (Deia, 2020/01/22).

Formula hedatuena izateak ez du esan nahi mendekoeke eta haien zaintzaileek gehien nahi dutena denik, ezta eraginkorra ere, baina bai, ordea, Administrazio Publikoarentzat merkeena dela, bere aurrekontu-mugak direla-eta, ez baitago zaintza-kontzeptuagatik ordainketa handiagoak bere gain hartzeko moduan. Administrazio publikoak bere aurrekontuaren zati handiagoa egoitzetara edo etxeko zaintza profesionalizatuera bideratzen badu, estaldura-indizea murriztu beharko du, horrek dakarren kostu politikoarekin. Familiak prestazio hori onartzen dute, batez ere ez dutelako aukera egokiagorik; etxean eta senideen alde zaintzea guztiz bat dator tradizio historikoarekin eta ez du tradizio hori hausten: batez ere familiako emakumeek hartzen dute beren gain zaintza, beren senideekiko betebeharrak moral eta erantzukizun afektibo gisa. Profil tradizionalari erantzuten dion zaintzailerik ez dagoen etxeetan tentsioak sortzen dira, zaintzailerik ez dagoelako edo profil ideologiko eta sozial modernoago bati erantzuten diotelako. Ordaindutako langileekin ere tentsioak sortzen dira; izan ere, zaintzari esleitzen zaizkion baliabide monetarizatuak urriak dira beti, eta zaintza hori beren gain hartzen duten langileak lan-merkatuko sektore okerren ordaindutakoan kokatu behar dira. Zaintzaile monetarizatuaren artean, etengabeko tentsioa dago etxeko langileentzat hartzea onartzen dutenen eta estatutu profesionalizatuagoa eskatzen dutenen artean. Azken batean, estatutu horrek era guztietako eskubide hobeak ditu, prestigio soziala eta ordainsaria barne. Eztabaidak izaten dira sarritan eskumenen mugaketa hori dela eta, eta eztabaida haien azpian produktibitatearen gaia dago. Langile kualifikatueneke lan-baldintza eta ordainsari hobeak eska ditzakete beren lana produktiboagoa dela onartzen dutelako, baina, askotan, ez dago hori gertatzen dela egiaztatzen duen ebidentzia empirikorik, eta ebidentzia bakarrak administratiboak dira, langilea lanbide-kategoria batean edo bestean kokatzeari dagokionez. Etxeeke dagokienez, etxeko zerbitzuko langile baten produktibitatea zaintzaile profesional batena baino handiagoa izaten da askotan, aldi berean zaintza- eta garbiketa-arloko funtzio gehiago hartzen dituztelako beren gain, eta etxeko kide guztiei –eta ez soilik mendekoari– on egiten dieten beste zeregin batzuk ere hartzen dituztelako beren gain. Egoera hori gaixoak edo haur txikiak bizi diren etxeetan ere planteatzen da, non etxeak ezin baitu finantzatu zaintzaileengandik edo profesional espezializatuengandik jasotako denboraren kostua. Horregatik, nagusiki jotzen dute akreditazio mota batean ere aitortu ez den kualifikazioa duten eta asmo ekonomiko apalagoak dituzten langileengana.

12. Proposamen interaktibo bat: etorkizuneko zaintzaren egoerarik onenak eta txarrenak Euskadin

Epe ertain eta luzera, oso litekeena da, ia saihestezina, Euskadiko biztanleria zahartzea. Horrek berekin ekarriko du, gainerako aldagaiak egonkor mantentzen badira, zaintzaren eskaria eta kontsumoa handitzea eta potentzialki zaintzen dutenak murriztea. Halaber, saihestezina da pertsona bakoitzeko zaintza-karga handitzea. Hala ere, saihets daiteke tarteko adineko emakumeek erantzutea gaur egungo eskariari, gaur egun nagusiki hala gertatzen ari bada ere.

Etorkizuneko eskariaren aurreikuspenean funtsezko bi elementu daude: eskatutako zaintza-bolumena eta adinen araberako banaketa. Erantsitako taulan, hiru denbora-muga daude (2020, 2030 eta 2050), Artikulu hau irakurtzen ari denak interakzioan jardun dezan eta banaka posiziona dadin, bai itxaropenen mailan, bai zainketen ekoizpena gizarte-eragileen artean banatzeko moduari buruzko asmoen mailan. Abiapuntua sinplea da eta, errealitatea konplexuagoa izango dela jakinda ere, ez da aldaketarik egongo eskari-kopuruan. Bakar-bakarrik aipatzen ditu etxeek, administrazio publikoek (Estatua eta beste lurralde-erakunde batzuk), Merkatuak edo irabazi-asmoko erakundeek eta langile autonomoek eta Boluntariotzak betetzen duten eginkizunean izan daitezkeen aldaketak. Kontua da gai bat eskema sinple batekin sartzea, gero eta konplexuagoak diren suposizioetan garatzen joateko.

Zaintza-ekoizle nagusia *Etxeak* dira, eta bertan egiten da ordaindu gabeko zaintza-lana. Egia esan, etxeak abstrakzioak dira, etxeak osatzen dituzten pertsonen jarduera laburbiltzen dutenak. Lehenengo hurbilketa horretan ez da desberdintasunik ezartzen etxeko kideen artean, baina ondorengo elaborazio sofistikatuagoetan egin beharko da hori.

Zaintza-zerbitzuen bigarren ekoizle handia *Administrazio publikoak* dira, batez ere hezkuntza-, osasun- eta gizarte-zerbitzuak. Elaborazio konplexuagoetan, administrazio publiko mota desberdinak bereizteko faktoreak sartuko lirateke.

Merkatua hirugarren ekoizle handiena da zaintza-orduen bolumenari dagokionez. Zaintzaren merkaturia heterogeneoa da. Luxuzko zerbitzuak biltzen ditu, bai eta oinarrizkoenak ere. Zerbitzuak eskaintzen ditu bere instalazioetan, baina zeregin garrantzitsu bat betetzen du zaintzaileen eta etxeko langileen bidez, zerbitzuak jasotzen dituzten pertsonen etxean zaintzen baitituzte.

Boluntariotza, halaber, eragile heterogeneoa da, eta erakunde garrantzitsu, laiko eta erlijiosoak biltzen ditu, bai eta beste batzuentzako zaintzak banaka ekoizten eta ematen dituzten elkarrekin inskribatuta ez dauden pertsonak ere.

Taula honen abiapuntua Euskadiko zainketa-ekoizpenaren egungo banaketaren egoera bat da, 2020. urtekoa. Ez du bolumenik eta kalitaterik adierazten; urtean zaintzan emandako ordu kopuruaren agenteen arteko banaketa soilik adierazten du. Kontsumitutako zaintza-orduen erdia etxeek asetzen dutela onartzen du (eskariaren % 50). Administrazio publikoek eskariaren laurdena asetzen dute (% 25), eta merkatuak eta boluntariotzak zati berdinetan banatzen dute eskariaren gainerako zatia (bakoitzak % 12,5).

Taula honen helburua irakurlearen interakzioa eragitea denez, irakurleak agenteen arteko banaketa alda dezake, haien pertzepzioetara hobeto egokituzko.

7. TAULA

Euskadin eskari egonkorreko egoeran dauden gizarte-erakundeen artean zaintza-eskaintzak banatzeko egoera posibleak, 2020-2030-2050.

(urteko zaintza-orduen bolumenaren gaineko ehunekoa)

Data	Erakundeak	A	B	C
		Gaur egungo egoera (hipotesiak)	Gehikuntza Sozializazioa	Murrizketa Sozializazioa
2020	Etxeak	50,0		
	Administrazio publikoak	25,0		
	Merkatua	12,5		
	Boluntariotza	12,5		
2030	Etxeak		40,0	55,0
	Administrazio publikoak		35,0	20,0
	Merkatua		12,5	12,5
	Boluntariotza		12,5	12,5
2050	Etxeak		35,0	55,0
	Administrazio publikoak		40,0	20,0
	Merkatua		12,5	20,0
	Boluntariotza		12,5	5,0

Iturria: M.A. Duránek egina.- Ez dira zenbatespenak, egoera posibleak baizik, eztabaidarako tresnak.

2030. urtean, taulak hiru egoera posible eskaintzen ditu. Lehenengo zutabean, «Mistoa» izenekoan, 2020koaren antzeko egoera eskaintzen da, zertxobait aldatua. Bigarren zutabean zenbait aldaketa egin dira, eta hipotesi bat egin da: administrazio publikoek esku-hartze handiagoa izango dute zaintza-zerbitzu gehiago sortzeko. Hirugarren zutabean, aurrekoan ez bezala, hipotesi hau hartu da abiapuntutzat: administrazio publikoek esku-hartzea murriztuko dutela. Eskari osoari erantzuteko, beste gizarte-eragileek esku-hartze handiagoa izan behar izan dute.

Azkenik, epe luzerako hiru egoera posible planteatzen dira, 2050erako. taula hori oso erraza da, eta haren helburua da eztabaida bat piztea zeinean aztertuko baitira testu honen irakurleen itxaropenak eta nahiak.

Sormena eta berrikuntzak ez dira soilik teknikaren eremuan gertatzen, beharrezkoak dira eta gizarte-antolamenduaren eremuan sortzen dira. Horregatik, seguru asko sortuko dira epe ertaineko egoeretan zaintzarako irtenbide berritzaileak, etxeen eta merkatuaren artean formula mistoak ekarriko dituztenak (horrelako zerbait egiteko ahaleginetan ari dira *cuidker*-sareak edo *co-housers*-ak), edo ad-

ministrazio publikoen eta boluntariotzaren artean, edo oraindik aztertu ez den beste edozein formula, hau da, zenbait eragileren, giza baliabideren eta finantza-baliabideren artekoa.

Artikulu honen irakurleari eskatzen zaio egoki irizten dituen egoerak hauta ditzala eta hurrengo hamarkadetan zaintza banatzeko desegokitzat jotzen dituen egoerak identifika ditzala. Zifra bakoitza alda dezake benetan gertatuko denari buruz espero duenera egokitzeko, egoera bakoitzean eskari guztia bete behar dela kontuan hartuta. Edo, bestela esanda, indizeen baturak beti % 100ekoa izan behar du.

Irakurleak uste badu gertatuko dena eta gertatzea nahiko lukeena antzekoak izango direla, ez da inolako akuilagarririk izango ekintzetara pasatzeko. Baina oso desberdinak badira irakurleak gertatzea nahiko lukeena eta ustez gertatuko dena, lan hori irakurtzea eta iruzkintzea lagungarri izango da nahi den eraldaketa lortuko duten tresnak bilatzeko helduleku eta pizgarri gisa.

Erreferentziak eta iturriak

Abellán García, A.; Ayala García, A.; Pujol Rodríguez, R. (2017). «Un perfil de las personas mayores en España, 2017. Indicadores estadísticos básicos». Madrid, Informes Envejecimiento en red nº 15, última versión: 27/03/2017.

Aguirre, Rosario. *Los cuidados familiares como problema público y objeto de políticas*, en Arriagada, Irma (editora) «Políticas hacia las familias, protección e inclusión sociales». División de Desarrollo Social, CEPAL, Santiago de Chile, 2005, pp. 291-301.

Asociación de Directoras y Gerentes de Servicios Sociales; (Declaración en El País, 06 junio 2020).

Ceaps, Círculo Empresarial de Atención a las Personas. (Deia egunkarian jasotako adierazpena, 2020/01/22).

Pertsonen Arretarako Enpresa Zirkulua (CEAPS), Gerokan elkarteak autonomia-erkidegoetan mende-kotasunari ematen zaion arretari buruz egindako txosten bat aipatuz (2019ko martxoa).

Lan eta Justizia Saila. Eusko Jaurlaritzza. Zerbitzu Zuzendaritza. Estadística de la Economía Social 2018 y Avance 2019.

Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila Eusko Jaurlaritzza. (información página web, «Estructura y funciones del Departamento de Empleo y Políticas Sociales.» 11. legegintzaldia (2016-2020)

Domínguez-Alcón, Carmen. «*Robots y cuidados*» en Domínguez-Alcón, Carmen; Busquets Surribas Montserrat; Cuxart Ainaud, Núria; Ramió Jofre, Anna . (Coords). «*Tecnologías y nuevas relaciones en el cuidado*». Col·legi Oficial d'Infermeres i Infermers de Barcelona (COIB) Barcelona, Setembre, 2019, pags. 187-213.

Domínguez-Alcón, Carmen; Busquets Surribas Montserrat; Cuxart Ainaud, Núria; Ramió Jofre, Anna . (Coords). «*Tecnologías y nuevas relaciones en el cuidado*». Col·legi Oficial d'Infermeres i Infermers de Barcelona (COIB) Barcelona, Septiembre, 2019.

Durán, Maria-Angeles. «Urgencia vs. fiabilidad. El desafío de las fuentes en época de pandemia». *Genero Estatistiken Nazioarteko XXI. Topaketan aurkeztutako txostena*, 2020ko irailaren 10ekoa. Mexiko (prentsan).

- «Alternativas metodológicas en la investigación sobre el cuidado». En Ferreira, M. (Coord.) *El trabajo de cuidados*. ONU MUJERES, México (2019).
- *La riqueza invisible del cuidado*. Universidad de Valencia (2017).
- La capacidad de los hogares para financiar el cuidado remunerado. *I Jornada sobre la Dependencia. Carabanchel-Latina*. Martxoak 31 eta Esteka: <http://hdl.handle.net/10261/147903>
- «Los costes no sanitarios de la atención a los pacientes crónicos». *Conferencia inaugural, IX Congreso Nacional de Atención Sanitaria al Paciente Crónico*, Oviedo (2017) <http://hdl.handle.net/10261/147902>
- «The contribution of unpaid work to global well-being». En Glatzer, W., Camfield, L., Møller, V., Rojas, M. (Eds.) *Global Handbook of Quality of Life*, Springer, págs.: 381-411 (2015).
- *Mujeres y hombres ante la situación de dependencia*. Mintegia: «Políticas públicas de atención a personas mayores dependientes: Hacia un sistema integral de cuidados», 46 págs. 2014.- Esteka: <http://hdl.handle.net/10261/101937>

Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea. «La igualdad en época de pandemia. El impacto de la COVID-19 desde la perspectiva de género». Lantaldea: EDE Fundazioa. 2019ko uztaila

Empresa Topnanny.es, anuncios en web (28 agosto 2020).

Encina Soriano, M^a Carme; Vilanova Zapata, David .«*El valor de la palabra en la UCI: comunicador de voz Liberia*», en Domínguez-Alcón, Carmen; Busquets Surribas, Montserrat; Cuxart Ainaud, Núria; Ramió Jofre, Anna . (Coords). «*Tecnologías y nuevas relaciones en el cuidado*». Col·legi Oficial d'Infermeres i Infermers de Barcelona (COIB) Barcelona, 2019ko iraila. 137-147 orr.

EUSTAT, PIB y su distribución (2020/03/06ko deskarga).

- Encuesta de Condiciones de Vida (2019ko datuak, 2020an argitaratuak)
- Encuesta de Presupuestos de Tiempo, 2018
- Encuesta de Condiciones de Vida , 2015
- Valoración del trabajo doméstico no de mercado y no remunerado (no incluido en el SEC) de la C.A. de Euskadi por territorio histórico, sexo y funciones (miles de euros) (Base 2010). 29/03/2010.

García-Calvente, María del Mar / Mateo-Rodríguez, Inmaculada / Eguiguren, Ana P. «El sistema informal de cuidados en clave de desigualdad». Gaceta Sanitaria (PDF, 2020ko abuztuaren 20ko deskarga).

García Sainz, Cristina. «La organización social de los cuidados en la encrucijada. Hacia un modelo sostenible». Emakunde, 2020, prentsan.

Geriasistencia. Servicios sociosanitarios de atención domiciliaria de personas dependientes: mayores, enfermos y discapacitados (información página web, bolsa de empleo).

Gomez, S., Ferrer, J., Ródenas Rigla, F. J. «La sobrecarga de las cuidadoras de personas dependientes: análisis y propuestas de intervención social». Tirant lo Blanch, 2006.

INE, Estatistikako Institutu Nazionala Biztanleria Aktiboaren Inkesta, 2020ko bigarren hiruhilekoa.

- Espainiako Hiruhileroko Kontabilitate Nazionala, 2/2020 hiruhilekoa. 2020/9/23an argitaratua.
- Espainiako Hiruhileroko Kontabilitate Nazionala: agregatu nagusiak. 2020ko lehenengo hiruhilekoan Aurrerapena.
- [Mujeres y hombres en España / Empleo \(2019ko ekainaren 11n eguneratua\)](#).
- Encuesta de Discapacidad, 2008.
- Encuesta de Población Activa, módulo del año 2018 sobre Conciliación entre la vida laboral y familiar.
- Encuesta Nacional de Condiciones de Trabajo, 2015.

Instituto de Pensiones de la Fundación BBVA. «Así quedan las pensiones mínimas durante 2020», 2020ko urtarrila (2020ko uztailleko deskarga).

Legarreta Iza, Matxalen. «Distribución del tiempo de trabajo doméstico y de cuidados en la CAE: una mirada longitudinal (1993-2018)». Emakunde, 2020, prentsan.

Martín Palomo, María Teresa. «Cuidados, vulnerabilidad e interdependencias. Retos para una nueva época». Emakunde, 2020, prentsan.

[medium.com](#). «Navidades-en-silencio». 2019ko abenduaren 22a

Oxfam Intermón y Laboratorio de Derecho Social del Instituto Universitario de Estudios de Género de la Universidad Carlos III de Madrid, citados por [Érika Montañés](#) en ABC, Informe [sobre las empleadas del hogar](#). (actualizado:24/10/2018).

Pedrero Nieto, Mercedes. «La política sobre cuidados en América Latina. El sector olvidado: la población entre 6 y 17 años». Emakunde, 2020, en prensa.

Rico, M. N. y Segovia, O. (eds.) ¿Quién cuida en la ciudad? Aportes para políticas urbanas de igualdad. Comisión Económica para América Latina y el Caribe (CEPAL). Santiago de Chile. (2017).

Sancho, Mayte; Barrio, Elena del. «Impacto de los cuidados de larga duración en la salud y el bienestar de las personas cuidadoras». Emakunde, 2020, en prensa.

UNWomen. «The impact of covid-19 on women's and men's lives and livelihoods in Europe and Central Asia: Preliminary Results from a Rapid Gender Assessment», 2020.

www.diarioabierto.es. «Cuidkers aspira a ser la comunidad de referencia de las familias». (7 abr. 2020) CSIC.

[CSIC. Envejecimiento en red](#)

www.huellasbysareb.es. «Cohousing para personas mayores: alternativas a residencias».




Zainteten gizarte-antolaketako interes-gatazkak

CRISTINA GARCÍA SAINZ

Aurkibidea

1. Hitzaurrea	41
2. Zainketaren dimentsioak. Auziaren egoera eta erronkak	42
2.1. Familia eta zaintzaren kulturak	43
2.1.1. Zaintzaren kulturak gatazkan. Erronkak eta proposamenak	45
a) Familiaren zaintza vs zainketa soziala	46
b) Zaintza kanpora ateratzea vs jasangarritasun soziala	47
c) Zaintzeko denbora vs norberarentzako denbora	47
2.2. Etxeko merkatuaren esparrua. Zaintza kanpora ateratzea	48
2.2.1. Etxeko enplegua vs zainketen profesionalizazioa. Erronkak eta proposamenak	49
a) Zaintza profesionalizatzeko prestakuntza	50
b) Alderdien arteko interes-gatazkak	51
c) Zaintza profesionalaren denborak	52
2.3. Politika publikoen eremua eta zaintzaren gizarte-erantzukizuna	52
2.3.1. Zerbitzuak eta prestazioak. Erronkak eta proposamenak	53
a) Zerbitzuak vs prestazio ekonomikoak	53
b) Desfamiliarizatzea vs etxeko zerbitzuak	53
2.3.2. Politika publikoak. Neurriak eta orientazioak	54
a) Sistemaren unibertsaltasuna eta kudeaketaren hobekuntza	55
b) Aukera-aniztasuna eta zerbitzuen malgutasuna	55
c) Parte-hartzea	55
d) Zerbitzuen koordinazioa	56
3. Ondorioak	56
Erreferentziak eta iturriak	59



1. Hitzaurrea

Literatura espezializatuak erakutsi duen bezala, eta nazioarteko erakundeen azken txostenek islatzen duten moduan —hala nola Nazio Batuen *Giza Garapenari buruzko Txostena 2015. Lana eta Giza Garapena* (2015), eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) *El trabajo de cuidados y los trabajadores del cuidado para un futuro con trabajo decente* (2018) txostenek—, zaintza-lana funtsezkoa da gizartearen garapenean eta ongizatean. Era berean, Garapen Jasangarrirako Helburuen (GJH) formulazioak, 5. helburuan, genero-berdintasuna lortzeko funtsezko elementutzat jotzen du ordaindu gabeko etxe-ko lana aitortzea eta balioestea.

Genero-ikuspuntua barne hartzen duten ongizate-estatuari buruzko azterlanek behin eta berriz nabarmendu dute ordaindutako nahiz ordaindu gabeko zaintza-lanaren garrantzia, hura baita, hezkuntzarekin, osasunarekin eta pentsioekin batera, pertsona bakoitzaren garapena ahalbidetzen duen eta edozein herrialdeetako biztanleen bizi-kalitatea bermatzen duen oinarrietako bat. Zainketak behar dituzten pertsonen arreta- eta zaintza-gabeziak behar bezala aintzat hartzen ez dituen gizarte batek gizarte-arriskuak jasan ditzake, bizi-kalitatea murriztuz.

Europa hegoaldeko herrialdeetako zaintza-erregimen guztiak familian oinarrituta daude tradizioz, emakumeen ordaindu gabeko lanean funtsetan dena. Horrek argi eta garbi islatzen du sozializazio berezituaren pisua —generoarekin lotutako rolen arabera— eta lanen sexu-banaketaren jarraipena. Gainera, azken bi hamarkadetan, herrialde horiek antzeko jarraibideak izan dituzte zainketa-lanak eta etxe-ko lanak kanpora ateratzeari dagokionez, eta etorkinak kontratatu dituzte barne-erregimen bidez. Horri «etxean etorkinak dituen» etxe-ko eredia deitzen zaio (Bettio, Simonazzi eta Villa, 2006), eta fenomeno horrekin batera nabarmen handitu dira emakumeen migrazioak, batez ere Latinoamerikako herrialdeetatik etorritakoak, zainzailez bete baitituzte EAEko nahiz beste autonomia-erkidego batzuetako hiriak eta herriak.

2006an, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko Legea (LAPAD) onartu zen, eta hori oso aurrerapauso handia izan zen zainketak gai sozial eta eskumen publikoko gai baten gisa hartzeko orduan. Dena den, haren garapena aurreikusitako emaitzen azpitik geratu da, arrazoi ekonomikoengatik, batetik, eta genero-ekitatearekin lotutako arazoengatik, bestetik. Ikuspuntu horretatik, zainketa-lanaren eta emakumeen erantzukizunaren arteko

lotura baieztatu da, eta gainera, are gehiago indartu da zainketa-prestazioaren hiru esparru nagusietan: ordaindu gabeko familia-zaintza, etxeko enplegua eta diruz lagundutako edo instituzionalizatutako zainketa.

Testu honen helburua informazioa, analisia eta hausnarketa eskaintzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) zaintza-beharrei erantzutera bideratutako politika publikoak orientatzeko. Izan ere, zaintza-sistema integral eta jasangarri bat diseinatzen laguntzea da xedea. Horretarako, Mendekotasunari buruzko Legearen ondorioz hartutako zenbait neurri aztertu dira, lege hori ezarri ondorengo lorpenak eta hutsegiteak aztertuz; era berean, ordaindu gabeko eta diruz lagundutako familia-zaintzaileen¹ aldarrikapenak aztertu dira, baita zaintzaile profesionalenak eta etxeko sektorean lan egiten dutenenak ere. Arreta berezia jarriko da zaintzaren antolaketatik eratorritako kulturen, praktiken eta helburuen arteko harremanak sortutako dilemetan eta gatazketan, esaterako, zaindutako pertsonen nahien eta zaintzaileen eskubideen artekoetan, baita emakumeek senideei eskaintzen dieten alderdi afektiboan ere, betiere zainketa sozializatzeko, ohitura ez bihurtzeko eta profesionalizatzeko helburuarekin. Zaintzan, oso zaila da haren dimentsio guztiak artikulatzea, eta beraz, berdintasunezko eredu jasangarri bat prestatzeko neurriak hartzea.


2. Zainketaren dimentsioak. Auziaren egoera eta erronkak

Arlo honetan espezializatutako literaturak zehazten duenez, zainketak hainbat ikuspuntutatik hartu behar dira kontuan (Thomas, 2011; Durán, 2018). Begirada izan behar da holistikoa, baina baita integrala ere, eta beraz, ez dugu zainketak emateko eta jasotzeko prozesuan parte hartzen duen alderdirik ahaztu behar.

¹ Testu hau egiteko hizkuntza inklusiboa erabili da (ahal den neurrian). Horregatik, gaztelaniazko testuan «cuidadoras» terminoarekin (femeninoa), adibidez, «personas cuidadoras» ulertu behar da, subjektua alde batera utzita. Gainera, eta jakina den moduan, zaintzaren testuinguruan emakumeak dira aipatzen diren pertsona gehienak.

1. IRUDIA.

Zainteten antolaketa soziala



Iturria: Geuk egina.

Oharrak: Ordaindu gabeko etxeko lana esklusiboki egiten dena da, kanpoko laguntzarik gabe. Profesionalak ez diren zaintzaileen kategoria, hemen modu berezian hartzen da kontuan, diruz lagundutako zaintza delako eta ordaindu gabeko nahiz ordaindutako zaintzatik bereizten delako. Geziek zaintza-agenteekiko loturak adierazten dituzte: familiak, sektore pribatua eta sektore publikoa. Parentesi arteko zifrek sektore bakoitzak EAEko zainteten horniduran zer ehuneko duen adierazten dute (Nogueira eta Zalacain, Emakunde, 2015).

Azterketarako, testu honetan iraupen luzeko zaintzaren planoak planteatu dira, askotan gainjarrita egoten direnak, prestazio-eremu nagusien arabera (1. irudia): Hau da, ordaindu gabeko langileek etxeetan egiten duten lana; merkatuko erantzukizuna, etxeei eta zentroei soldatapeko eskulana ematean zehaztua, eta administrazio publikoen eremua, zerbitzuak eta prestazioak emanez, baita zaintza-sistema publiko bat garatzeko ardura duten aldetik ere.

2.1. Familia eta zaintzaren kulturak

Letablier-en arabera (2007), zaintzaren kulturez hitz egiten dugunean, zaintza ematearen erantzukizunari dagokien irudikapen kolektiboak egiten diegu erreferentzia, kasu honetan, mendekotasuna duten adineko pertsonak oinarritzat hartuta; horiek bikote- eta familia-harremanak arautzen dituzten gizarte-balioen eta arau instituzionalen arabera eraikitzen dira. EAEn kasuan, herrialde gehienetan bezala, datuek egiaztatzen dute mendekotasuna duten pertsonen etxeetan ematen zaiela arreta batik bat, ordaindu gabeko senideen aldetik (1. irudiko goiko ezkerreko laukia). Arreta motaren bat jasotzen dutenen artean, % 41,2k senideen edo lagunaren aldetik jasotzen dituzte zaintzak, etxean. Bigarrenik, berriaz kontratatutako pertsonak arduratzen dira zaintzetan (kasu guztien % 29,1), eta hiruga-

rrenik, Administrazio publikoen laguntzarekin kontratatutako zentro eta pertsonak. Neurri txikiagoan, eguneko zentroek bereganatzen dute zaintzaren erantzukizun nagusia, eta publikoak dira mendeko pertsona gehien hartzen dituztenak (artatutako pertsona guztien % 5,8, eta pribatuetan, berriz, % 3,3), baita barneratze-erregimeneko egoitza-zentroek ere (horiek eskaintzen duten arreta zentro guztien % 1,6koa da) (Nogueira eta Zalacain, 2015: 130). Ikus daitekeenez, hiru dira aukera nagusiak: familiaren arreta etxean —bertan artatzen dira mendeko hamar pertsonatik lau—, familiaren kontura ordaindutako zaintzaileak —mendeko hamar pertsonatik hiruk jotzen dute aukera honetara— eta etxeetan eskaintzen den arreta, Administrazio publikoek diruz lagundutako zaintzaileen bitartez —eguneroko beharretarako laguntza behar duten hamar pertsonatik bi—².

EAEen, etxean artatutako pertsonaren profila adineko emakume alargunarena da (mendeko lau pertsonatik hiru emakumeak dira). Ia hirutik bi beren senarrak baino gehiago bizi dira eta 80 urte baino gehiago dituzte; gainera, hamarretik lau bakarrik bizi dira (Nogueira eta Zalacain, 2015: 69). Adineko pertsona gehienek (% 87,3) nahiago dute bere etxean bizi, konpainiarik gabe bada ere (Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutua, Imsero, 2010). Etxean bertan bizitzeko desirari zaintza familiaren aldetik jaso nahia gehitu behar zaio; hori da herritar gehienek desira, eta % 41ek adierazi dute, mendetasuna izanez gero, «familiako pertsonak bakarrik» zaintzea nahiko lukeela (Durán, 2018: 369), alabak ahal izanez gero (Imsero, 2005). Lehentasun hori berretsi egiten da iritzi-inkestetan, eta elkarrizketatutako pertsonen erdiek baino gehiagok (% 53,7) uste dute, mendeko pertsona zaharrek laguntza behar izanez gero, laguntza hori, lehenik eta behin, familiak berak eman beharko lukeela (Ikerketa Soziologikoen Zentroa, CIS, 2014). Praktikan, familiaren aldeko hautuak esan nahi du batik bat emakumeak direla zaintza beren gain hartzen dutenak, eta hala erakusten dute azterketa espezializatuak, mendekotasunari buruzko txostenek eta denboraren erabilerari buruzko inkestek. Lehentasun eta iritzi horien agertokia zaintza femeninoaren kulturarena da: mendekoak hobeto sentitzen dira etxeko eremu batean, beren familiako emakumeek zainduta, edo bestela, haien ordezkoko beste batzuek zainduta, eta iritzi publikoaren zati handi batek aukera horiek berresten ditu, sostengatzen dituzten genero-, etnia- eta klase-arloko asimetriak eta desberdintasunak denak direla.

Gizartearen zati handi baten lehentasunetan eta jardunbideetan islatzen den moduan, zainketen ereduak ondorio zitalak ezkututzen ditu; pitzadura horiek zaintzaileei egiten diete kalte batez ere, eta zailtzen jartzen dute eredu, etorkizuneko proposamen gisa. Izan ere, denek ez dute familiaren zaintza hobesten. *Adinekoen Inkestak* (IMSERO, 2010) jasotzen duenez, zaintza mota batekiko edo bestearekiko joera eskuratutako prestakuntzaren arabera da, eta beraz, hezkuntza-maila handiagoetan handiagoa da zaintza profesionalen aukera. Inkesta horretan nolabaiteko beherakada ageri da familia-zaintzaren hautuan, landa-eremuan salbu, emakumeen nahiz gizonen artean, eta joera hori berretsi egiten da adinari dagokionez; adinean behera egin ahala txikiagoa da familia-zaintzaren aldeko hautua, eta aldea ehuneko hamaika puntukoa da 65 eta 69 urte bitartekoen eta 80 urtetik gorakoen

² Oro har, banaketa horrek Espainiako Estatu osorako datuek islatzen duten joera berberari jarraitzen dio. Bertan, jasotako zaintzaren bi heren baino gehiago familia-inguruneke pertsonak eskaintzen dituzte, edo zaintza informala deituriko horretatik datoz; hein txikiagoan (% 13- 15 inguru), etxeko langileek egiten dituzte; zaintza-horniduraren antzeko proportzio bat ematen dute familiako gizonak; eta % 10 baino zertxobait gutxiago, Estatuak (edo Administrazio publikoek) diruz lagundutako zerbitzu profesionalak eskaintzen dituzte, etxeko laguntzaren, eguneko zentroen edo egoitzen bitartez (Roger García, 2009; San José, 2012).

artean. EAeri buruzko datuek joera bera berresten dute; izan ere, etxeko beste kide batzuk zaintzen dituzten biztanleen partaidetzak behera egin du, azken urteetan, emakumeen nahiz gizonen artean, eta adin-talde guztietan, 45-64 urtekoen taldean izan ezik (Eusko Jaurlaritzak, 2019)³.

Zaintza-hornitzaileen ikuspegitik gero eta handiagoak dira zainketen eredu konbentzionalarekin lotutako aldaketa-eskaerak. Etxeko lanaren banaketa desberdina da, hain zuzen ere, norbere denboraren (Díaz *et al.*, 2016) eta denbora librerik ezaren arrazoi nagusia. Emakundek argitaratutako datuen arabera (Royo Prieto, 2012), EAeko biztanleek uste dute etxeko lanak partekatzea bikote-harreman ona izateko asmo bat eta eskakizun bat dela. Zaintzari dagokionez, haurren zaintzari buruz galdetu denean, galdetutako pertsonen % 86k adierazi dute amak eta aitak zaintzaren ardura hartzeko gaitasun berbera dutela. Badirudi posizio horren logika adinekoren zaintzara heda daitekeela. Berdintasun-borondatearen iritziak horiek izan arren, eguneroko jarduna ez da batere orekatua, parte-hartzeari nahiz ordaindu gabeko lanari eskainitako denboraren banaketari dagokionez, eta zaintzako genero-arrakaldetan alde nabarmena dago oraindik ere⁴.

Azken urteetan, genero-desberdintasunekiko sentsibilitatea handitu egin da gizartearen; aldaketa hori mugimendu feministaren etengabeko lanak aktibatu du, bereziki 2018tik, eta argi eta garbi islatzen da *Me Too* mugimenduan eta martxoaren 8an mundu osoan zehar egiten diren manifestazio masiboetan. Jazarpena eta genero-indarkeria salatzeaz gain, EAeko hirietako protestek «beste eredu sozial eta produktibo bat» eskatzea izaten dute helburu, besteak beste, soldata-arrakala ezabatzeke eta zaintza-lanaren banaketa zuzena egiteko. Etxeko lanen eta zaintza-lanen banaketa desberdinak sortutako asimetriari buruzko datuak kontuan hartuta, emakumeen eta feministen elkarteek erantzunkidetasuna eta zaintzaren banaketa aldarrikatzen dituzte genero-berdintasunerako *sine qua non* baldintza gisa (San José, 2012; Briñón *et al.*, 2020).

2.1.1. Zaintzaren kulturak gatazkan. Erronkak eta proposamenak

Gizartea aldatu egin bada ere —hala ikus dezakegu, adibidez, eremu demografikoan, familien tamaina txikiagotu egin delako eta biztanleria zahartu egin delako; kulturaren, emakumeek bizitza publikoan gehiago parte hartzen dutelako; eta esparru sozioekonomikoan, lan-munduan gero eta emakume gehiago sartu direlako—, etxeko lanen banaketa eta zaintza ematearen familia-sistema ez dira ia ezertxo ere aldatu, eta bilakaera atzeratua izaten ari dira. Gizarte-aldaketen aurrean, ordaindu gabeko lanen genero-asimetriari «iraultza geldo» bat utzi du agerian, eta hor izango genuke etxeko lanen erantzunkidetasuna. Bestalde, zainketen eskaintzaren eta eskariaren arteko desorekak argi eta garbi islatzen du gizarteak «zainketen krisi» bati aurre egin behar diola, zainketak emateko praktikak eta kulturak ez

³ Joera nagusia hori izan arren, covid-19aren pandemia dela-eta areagotu egin daiteke familia-zaintzarekiko lehenetasuna, egoitzetan bizi diren pertsonak baitaude birusak eragindako heriotza-tasa altuenak dituzten kolektiboen artean.

⁴ Eustat - Euskal Estatistika Erakundeak egindako Denbora Aurrekontuen Inkestaren (DAI) arabera, 2018an, emakumeek batez beste 3 ordu eta 20 minutu eskaini zizkieten etxeko lanei eta zaintzari, eta gizonek berriz, ordubete eta 44 minutu. Beraz, egunean ordubete eta erdikoa baino zertxobait handiagoa izango litzateke genero-arrakala (ikus M. Legarretaren artikulua liburuki honetan bertan).

baitatoz bat zaintzen dituztenen eskaerekin eta itxaropenekin. Zentzu horretan, pertsonen zainduak izateko eskubidea genero-berdintasunaren printzipioarekin artikulatzea da erronka.

- a) Familiaren zaintza vs zainketa soziala (*social care*). Zaintzaren eredu familiaristak inplizitu-ki mantentzen du zaintzaren, emakumearen, etxearen eta familiaren arteko loturaren naturalizazioa, eta zenbait alderditan ez dator bat zaintza gai sozial baten gisa hartzearekin. Zaintza familiaristaren eredua da, hain zuzen ere, rolak generoaren arabera bereiztearen kausa eta ondorioa: emakumeek zeregin horretan duten protagonismoak ez du sustatzen gizonak zaintzan parte hartzea, eta beraz, ez da emakumeen eta gizonen arteko aldea ixten; era berean, ez du erakundeen esku-hartzea bultzatzen, familiek estrategia eta baliabide pribatuekin konpontzen baitute «beren» arazoa. Bestalde, zainketa sozialaren edo *social care* deiturikoaren ikuspegiak erantzukizun publikoa azpimarratzen du, eta familien zaintza-eskaerak estaltzeko prestazioak eta zerbitzuak jartzen ditu herritarren eskura. Zentzu horretan, zaintza desfamiliarizatzearen helburua da zaintzaileek, horien familia-testuingurua dena dela, enplegua eta bizitza sozial eta politikoa lor dezatela, beste gizarte-talde batzuen aukera berdinetan, zaintzearen erantzukizunaren zati handi bat botere publikoetara bideratuz. Zaintzaren antolaketa soziala berdintasunez jasangarria izan dadin, zaintzaren erantzukizunak botere publikoen eskumena izan behar du, eta emakumeen ordaindu gabeko lan hutsal bat izatetik haratago joan behar du, besteak beste, eta lan-estatistikek eta LANEk berak adierazi duenez (2018), familia-erantzukizunak direlako emakumeak lan-merkatuan sartzeko oztopo nagusia.

Beraz, politika publikoen esparruan honako hau da lehen erronka: kultura familiarista —adineko pertsonak hura aipatzen dute batik bat zaintza «etxean eta familiarekin» jasotzearen aukerarik egokienaz hitz egiten dutenean⁵— lan horren sozializazioarekin eta profesionalizazioarekin uztartzea. Adinekoen zaintza familia-gaitzat hartzen den neurrian, eta praktikan, familiako emakumeek (edo ordaindutako beste emakume batzuek) gauzatzen dituzten heinean, zaintza etxeko lanen esparrura mugatzen da, gizarte-izaera galduz eta gizartearentzat ezkutuan geratuz, eta, hala, botere publikoentzat errazagoa da horiek alde batera uztea eta ez ikusiarena egitea.

Bigarren erronka honako hau izango litzateke: generoaren araberako zaintza-arrakalak Europako handien artean daude EAEn (eta Espainiako Estatu osoan) (Legarreta Iza eta García-Díez, 2015). Hori dela eta, familia-zainketen erantzukidetasuna da lan horretan igarotako denborak modu orekatuan banatzeko lehen urratsa. Himmelweit eta Land (2011) autoreek adierazten dutenez, genero-berdintasuna lortzeko behar-beharrezkoa da gizonak ere jarduera horretara batzea. Etxeko lanetara eta zaintza-lanetara bideratutako denborak gizonen eta emakumeen artean banatzea ezinbesteko baldintza bat da genero-berdintasunerako, eta funtsezko elementua da zaintza-eredu jasangarri bat lortzeko.

⁵ «Etxean eta familiarekin» zaintza-eredurik egokienaren argudioak eta oinarria xehetasun handiagoarekin ikus daitezke hemen: Moreno-Colom, *et al.*, 2016.

- b) Zaintza kanpora ateratzea vs jasangarritasun soziala. Mediterraneoko herrialdeetan, zainketen krisia dela-eta klase ertainen artean izugarri handitu da ordaindutako eskulana kontratatzearen baliabidea, adinekoak eta mendekotasuna duten pertsonak etxean zaintzeko premiei erantzun ahal izateko. «Etorkinekin etxean» ereduaren egitura ekonomikoek eta sozialek zalantzan jartzen dute haren jasangarritasuna etnia- eta klase-berdintasunaren ikuspegitik, eta zainketa orokortzen du gainera. Mendekotasun-egoeran egonez gero beren lehentasunezko aukera zein izango litzatekeen galdetzean, herritar gehienek (% 36,1) ordaindutako emakumezko zaintzaile batekin bizi nahiko luketela erantzuten dute (CIS, 2014). Hau da, familiaren aukeraren ondoren edo familiarik ez dutenean, herritarrek nahiago dute beste emakume bat kontratatu, eta beraz, zaintzaren erantzukizuna eta jarduna emakumeen gaitasunak mantentzen dira. Gainera, zaintza-lanetarako eta etxeko lanetarako kanpo-kontrataziora jotzeak emakumeen lan-karga arintzen du hein batean, baina lan erreproduktiboan duten erantzukizun-kuotatik askatzen edo salbuesten ditu gizonezko asko. Etxeko enpleguak Mediterraneoko herrialdeetan duen osaerak argi eta garbi islatzen ditu errenta-maila desberdinak dituzten herrialdeen arteko desberdintasun globalak eta lan-merkatuaren etnozatiketa; gainera, zaintza emakumei esleitzen zaie berriz ere, doan nahiz ordainduta.

«Etorkinekin etxean» Mediterraneoko ereduaren erronka nagusiek jatorrizko desberdintasunei heltzea dute helburu, eta horretarako ezinbestekoa da ikuspegi intersektional bat izatea, honako eremu hauek aintzat hartuko dituenak: i) desberdintasun ekonomikoa, zainketa-kate globalen eragin negatiboan nahiz kontratatzaile eta kontratatuen erosteko ahalmen desorekatuan (soldata-arrakala) islatzen dena; ii) genero-desberdintasuna, horrek emakumeen eta gizonen arteko arduraldiaren asimetria eragiten duelako, baita genero barruko desberdintasunak ere, enplegatzaileek eta enplegatuek (emakumeak biak) eremu berean bat egiten baitute; iii) etnia- eta jatorri-desberdintasuna, gaur egungo baldintzetan, horrek etnikoki egituratutako lan-merkatua bultzatzen duelako⁶. Zaintza kanpora ateratzearen oinarrian dauden desberdintasunak murriztea da eredu integral eta sozialki inklusibo bate-rantz aurrera egitea ahalbidetuko digun helburua.

- c) Zaintzeko denbora vs norberarentzako denbora. «Etxean eta familiarekin» zaintzaren kultura familiaristak denbora asko eskatzen die zaintzaileei, eta Mediterraneoko herrialdeak dira zaintza informalerako denbora gehien bideratzen dutenak (Genero Berdintasunerako Europako Institutua, EIGE, 2019). EAEn, emakumeek egunean bi ordu eta bost minutu bideratzen dituzte adineko pertsonak zaintzera (Eustat, 2019). Hala ere, zaintzara bideratutako denborak —denboraren erabilerrari buruzko inkestekin neurtu denak— ez du islatzen mendekotasuna duten pertsonen erantzukizuna bereganatzen dutenen eguneroko errealitatea, modu berezian zenbatzen baitituzte etxeko lanak eta zuzeneko zaintza-lanak, praktikan biak hertsiki lotuta egon arren. Beste iturri batzuek emandako informazioaren arabera, hala nola

⁶ Migrazio-fluxuek etenik gabe jarraituko dute eredu hori mantentzen den bitartean, azken bi hamarkadetan gertatu den bezala; baina haren jasangarritasuna kolokan dago, are gehiago covid-19aren pandemia globalaren ondoren, hark zalantzan jarri baititu langileen eta salgaien merkatu globalen bideragarritasuna eta eraginkortasuna.

Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Premiei buruzko Inkesta (GPI) jasotzen duen Gizarte Zerbitzuen Eskariaren Estatistikak (GZEE) (2019)⁷, mendeko pertsonen kasuan, astean berrogeita hamar ordu baino zertxobait gehiago eskaintzen zaizkie batez beste. Barneratze-erregimenean salbu, kontratatutako zaintzaileek eskaintzen dute arretarik intentsiboena, denborari dagokionez (astean 59 ordu baino pixka bat gehiago); horien atzetik, familiako pertsonak emandako zaintza (ia 48 ordu) eta zentro publiko edo itunduetako langileek emandakoa (astean 37 ordu baino pixka bat gehiago) izango genituzke (Nogueira eta Zalacain, 2015: 133). Hala eta guztiz ere, lanaldiak are luzeagoak dira barne-erregimenean kontratatutako zaintzaileen artean⁸, baita mendekotasun larria duen pertsona batekin bizi diren zaintzaile ez-profesionalen artean ere. GZEE-GPIaren 2018ko datuek argi eta garbi erakusten dute etxeko beste kide batzuei arreta eskaintzen dieten zaintzaileen lan-kargak gora egin duela, eta honako ezaugarri hauek ditu: egunean bi ordu edo gehiago ematen dituzte, hezkuntza- edo lan-aukerari uko egiten diete, gizarte-bizitzari uko egiten diote, eta tentsio handiak izaten dituzte beren familia-bizitzetan (Eusko Jaurlaritza, 2019). Zaintzaileen arduraldi intentsiboa —ordainduta egon ala ez— ez dator bat norberarentzat denbora izatearen eskubidearekin, herritartasun-printzipio gisa. Denbora librea izateko eskubideaz gain —lan egitearekin lotuta—, denbora hori kalitatezkoa izateko, ezinbestekoa da hura beste erantzukizun batzuetatik bereiztea, hala nola zaintza- edo gainbegiratze-arduretatik, betiere denbora hori norberarentzako izan dadin⁹, hazteko, prestatzeko edo jolasteko.

Etxeko zaintzan igarotako denborei dagokienez, honako hau da erronka nagusia: zaintzara bideratutako denbora-dimentsioak beste gizarte-denbora batzuekin artikulatzea. Lehenik eta behin, zaintza-denborek ere badituzte beren eskakizunak eta zurruntasunak, baina denbora-tarte malguak eta geldoak izaten dira batik bat, laguntzeko, zaintzeko edo entzuteko, besteak beste; eta, bigarrenik, zaintzaileen denbora beste pertsona batzuei eskuzabaltasunez eskainitako denbora gisa hartzen da, baina oso eskasa da beraiarentzat. Denbora erabilgarria ongizatearen adierazle garbia da; norberaren autonomiarako baldintza bat izateaz gain, berdintasunerako baldintza bat da (Wajcman, 2017).

2.2. Etxeko merkatuaren esparrua. Zaintza kanpora ateratzea

EAEen etxeko langileen kontratazioa da, familiak emandako arretaren ondoren (zaintza informala), mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko gehien erabiltzen den estrategia (1. irudiaren beheko ezkerreko laukia). Izan ere, laguntza motaren bat jasotzen dutenen artean familiek kontratatutako

⁷ Gizarte Zerbitzuen Eskariaren Estatistika, Gizarte Premiei buruzko Inkesta, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Estatistika Organoak egiten du (aurrerantzean, GZEE-GPI).

⁸ Barneko etxeko langileen asteko lanaldia 131,40 ordukoa izaten da astean, Martin eta Rogeroren 2012ko datuen arabera (Nogueira eta Zalacain aipatuta) (2015: 57).

⁹ Murillok (1996) etxeko espazioak eta espazio pribatuak bereizten ditu: lehenengoan etxeko kideei eskaintzen zaie denbora eta lana, eta bigarrenean, berriz, norberarentzat da denbora, norberaren prestutasunerako edo jolaserako.

pertsonen baliabideak jasotako arreta osoaren ia % 30 dira. Bestalde, lan hori egiten duten gehienak emakume atzerritarrak izaten dira, Latinoamerikako herrialdeetatik etorriak (Nogueira eta Zalacain, 2015)¹⁰.

Etxeko eta zaintzako enplegua lortzeko ez da ia kualifikazio-eskakizunik behar. A priori, edozein emakumek egin dezakeela jotzen da. Formakuntza edo prestakuntza espezifikoa baino gehiago, hautagaiaren trebetasunak, prestasuna eta beste baldintza pertsonal batzuk balioesten dira, horiek ez baitute baliokidetasunik enplegu formalean: borondate handiko pertsona izatea, alaia eta hiztuna izatea, seme-alabarik eta familia-kargarik ez izatea, eta abar. Genero femeninoarekin lotutako estereotipoak argi eta garbi islatzen dira zaintza-lanetarako eskakizunetan.

Etxeko lanak eta zaintza-lanak ia bereizezinak dira praktikan: adineko pertsonak zaintzen dituzten etxeko langile gisa kontratatutako zaintzaileek etxeko lanak egiten dituzte kasu guztien % 85etan (Im-serso, 2005; Nogueira y Zalacain, 2015). Etxeko langileek etxeko lanak bakarrik egiten dituzten ia kasu gehienak kanpoko lanaldi partzialeko edo ordukako kontratazioetara mugatzen dira. Bestalde, zainketen krisiak izugarri handitu du etorkinen kontratazioa mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko, eta horiek mota guztietako etxeko lanak eta zaintza-lanak egiten dituzten etxeetan.

Lan-baldintza ezegonkorrak eta kolektiboaren lan-eskubide mugatuak dira etxeetan lan egiten duten ordaindutako zaintzaileen lanaren ezaugarri nagusiak. Soldatak lanbide talde guztietako baxuenen artean daude, eta askotan, ez dira iristen lanbidearteko gutxieneko soldatara; barnekoen artean (asteazkari zehar), lanaldiek askotan gainditzen dute legeak ezarritakoa, eta haien zaugarritasun-egoera areagotu egiten da enplegua galtzen dutenean —zaindutako pertsona hil egiten delako edo egoitza batean sartzen dutelako—, eta kasu bakar batean ere ez dute langabezia-prestaziorako eskubiderik (ATH-ELE, 2020). Enpleguaren zati handi bat modu irregularrean egiten da, kontraturik gabe, enpresariak hala nahi duelako; langileek arazo baten gisa aipatzen dute alderdi hori ere (Nogueira eta Zalacain, 2015: 149). Gainera, langile asko administrazio-egoera irregularrean daude, lan-baimenik gabe eta bizileku-baimenik gabe, eta egoera horrek mugatu egiten du lan-harremana. Kasu guztietan ez da kontraturik egiten, eta beraz, ez dago Gizarte Segurantzako kotizaziorik edo horrek sortutako prestazio sozial eta ekonomikoak jasotzeko aukerarik. ATH-ELE elkartearen ustez % 30ekoa da administrazio-egoera irregularrean dauden erkidegoz kanpoko langileen kopurua. Kolektibo horrek osatzen du lan egiten duten etxeetan bertan bizi diren barneko langileen gehiengoa, eta horiek dira, beraz, egoera ezegonkorrenetan bizi direnak. Euskadiko Etorrin Atzerritarrei buruzko Inkestak (2010) jasotzen duenez, etxeko sektoreko nazionalizatu gabeko etorkinen % 44,6k kontraturik gabe lan egiten dute (Nogueira eta Zalacain, 2015: 144).

¹⁰ Bizkaiko Etxeko Langileen Elkarteak (ATH-ELE) ere berretsi du jatorri hori, 2019an zehar sektoreko langileei Bilbon egindako aholkularitzan oinarrituz.

2.2.1. *Etxeko enplegua vs zainketen profesionalizazioa. Erronkak eta proposamenak*

Ordaindu gabeko etxeko zaintzaileen edo langileen kasuan bezala, etxeko enpleguan ere emakumeei esleitzen zaie zaintza. Oro har, familiako emakumeek egin ezin dezaketen edo egin nahi ez duten lana eskuordetzen eta kanporatzen da, eta horrek genero-estereotipoa errepikatzen du zainketei dagokionez; gainera, harreman hori naturalizatu eta lanaren sexu-banaketa indartzen du. Hala eta guztiz ere, etxeko zerbitzua okupazio-sektore dinamiko bat da. Hala uste du Lanbidek (Euskal Enplegu Zerbitzua), eta oso enplegarritasun handiko lanbide baten gisa iragartzen du bere webgunean. Erakunde horren arabera, 2019an, EAEn 17 218 kontratu erregistratu ziren, guztira, etxeetako jardueren sektorean, eta horietatik % 93,0 emakumeei bideratuta egon ziren; horietatik erdiak (% 52,4) aldi baterakoak izan ziren, eta gehienak (% 64,8) lanaldi partzialekoak¹¹.

Sektoreko lan-baldintzek hobekuntza nabarmenak behar dituzte aukera jasangarri bat bihurtu nahi bada. Honako hauek dira epe ertainera bete beharreko helburuak: soldatak hobetzea, emakumeen eta gizonen arteko eta lanbideen arteko soldata-arrakala murrizteko, eta hala, beste sektore batzuekiko lehiakorra izateko; prestakuntzara sarbidea erraztea eta lanbide-sektore honetan nahiz beste batzuetan gora egiteko aukerak sortzea; laneko arauak betetzen direla ziurtatzea, lan-baldintzei dagozkenez, eta zaintzaileei laguntza eta babesa eskaintzea, haien laneko lotura eta administrazio-egoera denak direla¹².

Jasangarritasun-helburuak bete ahal izateko —genero-berdintasunarekin eta lan-eskubideak betetzearekin lotutako irizpideetan oinarrituz—, sektoreak honako erronka hauei egin behar die aurre:

- a) Zaintza profesionalizatzeko prestakuntza. Etxeko sektorearen baldintzak hobetzeko helburuetako bat da sektoreari legeak ezartzen dituen sartzeko eta jarduteko baldintzak hornitzea; izan ere, etxeko sektorearen araudiak adineko pertsonak zaintzen dituzten etxeko langileei eragiten die. Horretarako, prestakuntza da oinarritzko eskumenetako bat, prestakuntza profesionaltasun-titulu edo -ziurtagiri batekin egiaztatu ahal izan dadin. Dena den, puntu honetan galdera bat egin beharko genioke geure buruari: baldintza horrek zaintzaileei bakarrik eragin beharko lieke, edo etxeko zerbitzuko langile guztiei? Izan ere, langile horiek bi lanak betetzen dituzte askotan. Administrazio publikoek instituzionalizatutako, azpikontratutako edo diruz lagundutako zaintzaileen kasuan, prestakuntza legez araututa dago Autonomia eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemaren (AMAS) esparruan, baina ez dago aseguratuta lan-harremana lotura horretatik kanpo gertatzen denean. Zentzu horretan, kontuan izan behar dugu, praktikan, prestakuntza-ibilbidea itxita egongo litzatekeela gaur egungo etxeko langileentzat, batez ere barnekoentzat; gainera, eta egiten dituzten lanaldi

¹¹ Lanbide, 2019an sinatutako kontratuak (urtean metatua). Sektorean sinatutako kontratuek urtebetetik beherako iraupena izaten dute batez beste.

¹² Araudiari dagokionez, autonomia-erkidegoen eskumena ez izan arren, langile-elkarteek eskatzen dute beren eskubideak beste kolektibo profesional batzuekin pareka daitezela; baina horretarako, estaldura ekonomikoa eta soziala indartu behar da gaixotasun-egoeretan, erretiro-pentsioetan eta, bereziki, langabezia-aseguruan. LANEren 189. Hitzarmena balioztatzea oso urrats garrantzitsua da norabide horretan aurrera egiteko.

luzeengatik, baliabiderik ezagatik, libre egoteko eskakizunagatik eta norbere denborarekiko autonomiarik ezagatik, ezin dute ikastetxeetara joan ohiko eskola-ordutegietan.

Profesionalizatzeko gaitasunarekin lotutako lehen erronka zaintzaile guztiei prestakuntza bermatzea da, horien lanaldia eta kontratu-erregimena denak direla; horrela, bada, jatorria-rekin, etniarekin edo irregulartasun-egoerekin lotutako bereizketa saihestea da helburua. Prestakuntza zaintzaileei bakarrik edo etxeko langileei ere eskaini behar zaien argitzea da bigarren erronka, horien modalitatea dena dela (barnekoak eta kanpokoak, lanaldi osokoak edo partzialekoak). Horrekin lotuta, Tobío *et al.* (2010) eta Torns *et al.* (2014) autoreen arabera, mugatu egin behar da zainketen enplegua, jarduera-azpisektore bakoitzerako lanbide-profilak zehaztuz¹³.

- b) Alderdien arteko interes-gatazkak. Etxeko lanetan eta zaintza-lanetan harremanak izaten dira enplegatzaileen eta enplegatuen artean, eta zaintza-eskatzaileen eta zaintzaileen artean, eta ez dute zertan izan baztertzailak. Batetik, etxeko zerbitzuko lan-harremanak antagonikotzat jotzen diren bi posizio mugatzen ditu, klase sozialaren azterketa tradizionalarekin bat etorriz. Eta hala berresten dute kontratuaren baldintzek, soldataren zehaztapenak eta lan-baldintzen aldebakartasunak. Lan-testuinguruak argi eta garbi islatzen du lan-harreman horretan dagoen genero barruko desberdintasuna: enplegatzaileek, emakumeak gehienetan, lan-baldintza ezegonkorrak dituzten zaintzaileak kontratatzen dituzte; kasu horretan, klase-desberdintasunak bigarren planoan uzten du emakume subjektu politikoaren homogeneotasuna. Hala ere, ez da mendeko enplegatzaileen eta zaintzaileen arteko harremana bezain nabarmena, eredu berari jarraitu arren. Kasu honetan, lotura horren ñabardurek lanekoa bakarrik ez den harreman bat islatzen dute batzuetan, estuagoa eta gertukoagoa; izan ere, elkarri laguntzeko harremanak izaten dira, bere burua zaugarritzat jotzen dituzten pertsonen artean: egoera ezegonkorrean bizi diren etorkinak eta zaintzak behar dituzten eta baliabide gutxi dituzten mendeko pertsonak. Hemen, alderdien arteko konplizitatea nagusitzen da, klaseen arteko harreman antagonikoaren gainetik. Testuinguru horretan, interes-gatazka hau planteatzen da honako bi alderdi hauek bateragarri egiteko orduan: etxeko langileen eskubideen aitorpena (soldataren hobekuntza batez ere) eta diru-sarrera gutxi dituzten adinekoren eskaera (kaudimen txikikoa), zaintzak behar dituztelako eta bere etxean zain ditzatela nahi dutelako. Zaintzaileen lan-baldintzak hobetuz gero, baliteke mendekotasun-mailaren bat duten eta kaudimenik ez duten eskatzaile asko ordaindutako zaintzatik kanpo geratzea (Razavi, 2007). AMASek konpondu ez duen gatazka bat da, horretarako, artatu gabeko eskarian sartu behar baita, biztanle talde horrek erosteko ahalmen txikia duelako.

¹³ Espainiako Mendekotasun Legearen garapenak zainketak profesionalizatzeko prestakuntza txertatu beharra jasotzen duen modu berean, Uruguaiako Zaintza Sistema Nazionalaren Legeak zaintzaileen prestakuntza eta gaikuntza jasotzen ditu (9 E artikulua). Latinoamerikako eskualdean gai horren inguruan sortutako eztabaidak etxeko sektorearen lan-segmentazioa azpimarratzen du; izan ere, bi kategoria bereizten ditu: batetik, zaintzeaz arduratzen diren langile kualifikatuen kategoria, eta bestetik, etxeko lanak edo zeharkako zaintzak egiten dituzten langile ez-kualifikatuen kategoria.

- c) Zaintza profesionalaren denborak. Zainketen eredu familiaristaz hitz egin denean norbere denboraren autonomia-eskubidea jorratu den modu berean, ordaindutako zainketaz hitz egitean denborak kontrako bi dimentsio hartzen ditu, denboraren politika koordinatuetatik heldu beharrekoak. Zaintza-lanaren esparru profesional eta ordainduan, etxez etxeko laguntzaren kasuan esaterako, denbora murriztu nahi da, lana produktiboa izan dadin; etxeko enpleguaren kasuan, berriz, lanaldiak mugatu nahi dira, horiek «lan duinaren» irizpidera egokitzeko, erakunde eskudunek (LANE) gomendatzen duten eta lan-arauek ezartzen duten bezala. Hala ere, zaintzara bideratutako denborak ardura handikoa izan behar du, geldoa eta presarik gabea, eta hori ez da bateragarria produktibitatearekin. Jarduera horretan emandako denbora murriztean zaintzaren kalitateak ere behera egiten du oro har.

2.3. **Politika publikoen eremua eta zaintzaren gizarte-erantzukizuna**

Botere publikoek –EAEren kasuan, autonomia-erkidegoko, foru-lurraldeetako eta tokiko Administrazioek– bi motatako konpromisoak bereganatzen dituzte mendekotasuna duten pertsonen zainketarekin lotuta: batetik, ongizate-estatuaren esparruko politika publikoak diseinatzeaz eta ezartzeaz arduratzen dira; eta bestetik, zerbitzuak eta prestazioak jartzen dituzte herritarren eskura. Lehen konpromisoarekin bat etorritik, autonomia-erkidegoko administrazioak arau-eskumenak ditu berdintasunaren eta gizarte-zerbitzuen esparruetan, zaintza-sistemaren garapena bideratu ahal izateko. Nazioartean, 5. GJHak honako hau planteatzen du helburu gisa: «ordaindu gabeko zaintza eta etxeko lana aitortzea eta balioestea zerbitzu publiko, azpiegitura eta gizarte-babeseko politiken bidez, eta etxean eta familian partekatutako erantzukizuna sustatuz, herrialde bakoitzean dagokionaren arabera». Estatuan, LAPAD legeak gizarte-babeseko sistema egituratzen du egunerokotasunean arreta behar duten pertsona zaugarrientzat; eta, EAEn, araudi horiek Berdintasun Legearen (4/2005 Legea)¹⁴ eta Gizarte Zerbitzuen Legearen bidez garatzen dira; haren aplikazioa Gizarte Zerbitzuen EAEko Sistemari zehazten da¹⁵. Jarraian, prestazioen inguruko eztabaidak jasotzen dira lehenik, eta politika publikoiei buruzkoak bigarrenik, zentzu zabalagoan.

¹⁴ Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak honako hau ezartzen du 3.6. artikuluan: «EAEko botere publikoek sexuaren araberako rol sozial eta estereotipoak desagerraraztea sustatu behar dute; izan ere, rol eta estereotipo horiek emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriaren oinarri dira, eta horien arabera esleitzen zaie emakumeei etxeko eremuaren ardura eta gizonari, berriz, eremu publikoarena, eta hori, gainera, balorazio eta aitortpen ekonomiko eta sozial oso ezberdinak eginez».

¹⁵ Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko Legea (39/2006 Legea, abenduaren 14koa) eta Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea (12/2008 Legea, abenduaren 5koa), hurrenez hurren.

2.3.1. Zerbitzuak eta prestazioak. Erronkak eta proposamenak

LAPAD oso erritmo geldoan garatzen ari da, eta oso bestelako erritmoan autonomia-erkidego batetik bestera. Gizarte Zerbitzuetako Zuzendarien eta Kudeatzaileen Elkartearen *Mendekotasunaren Estatu Behatokiaren XX. irizpenak 2020* (XX dictamen del Observatorio estatal de la Dependencia 2020) azterlanaren arabera, EAEren datuak oso onak dira zenbait adierazletan; esaterako, mendekotasuna izan dezaketen biztanleekiko gastu publikoan, bigarrena baita autonomia-erkidego guztien artean; datuak onak dira, halaber, izapidetze-epeen kudeaketan, puntuaziorik onena duten lau erkidegoen artean baitago azken adierazle horri dagokionez —araudiak zehaztutako 180 eguneko batez besteko epeetatik behera—. Hala ere, posizioa ez da horren ona arreta kopuruaren igoerari eta itxarote-zerrenden murrizketari dagokionez. Izan ere, EAE egoera honetan egongo litzateke: «Itxarote-zerrenda xurgatu ezinik dago, arreta-erritmoa areagotu arren». Urtero artatutako pertsonen hazkundeari dagokionez, bilakaera autonomia-erkidego guztien batezbestekoa baino txikiagoa da. Elkarre horrek gogorarazten duen moduan, gastu publiko handiagoa izateak ez du esan nahi, bere horretan, hura hobeto gauzatzen denik. EAE bosgarren lekuan dago artatutako kasuen prestazio ekonomikoei dagokionez, baina, azken urteetan hazi egin bada ere, AMAS sistemarekin lotuta sortutako zuzeneko enpleguen bolumena ez da nabarmenetako bat, hamargarren postuan baitago autonomia-erkidegoen zerrendan.

- a) Zerbitzuak vs prestazio ekonomikoak. Batetik, sistema publikoak mendeko biztanleen premiei erantzuteko prestazio eta zerbitzuen katalogo bat du: lehen mailako arreta, telelaguntza eta etxez etxeko laguntza, adibidez, eta bigarren mailako arreta, eguneko zentroak eta egoitzak batez ere. Horiek mendetasun-egoeraren arabera erabiltzen dira, dagokion administrazioaren eta onuradunen arteko koordainketa zehazten duten zenbait baldintza ekonomikoren arabera. Bestetik, administrazioek bitartekari gisa jarduten dute mendekotasuna duen pertsonarekin bizi diren senitartekoek etxean zaintzak hornitu ahal ditzaten, haien kostua diruz lagunduz eta zaintzaile ez-profesional horien Gizarte Segurantzako kotizazioa ordainduz. Prestazio ekonomikoak zerbitzuen horniduraren gainetik egongo lirateke, eta beraz, hori ez dator bat LAPAD legearen beraren 18. artikularekin, hark lehenengoak salbuespenezkotzat hartzen baititu. Hala eta guztiz ere, egoera kontraesanezkoa da; Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoaren (LPPE) estaldura zabaltzea (Gipuzkoan), adibidez, laguntza ekonomiko bat da, eta horrek murriztu egiten du kanpoko zaintza-baliabideak eskuratzeko kostua, bestela horrelakorik izango ez lukeen biztanle sektore batentzat. Nolanahi ere, kontuan izan behar da, zaintzaren dimentsio sozialetik zerbitzuak garatzearen eta hedatzearen aldeko apustua egiten den bitartean, ikuspegi familiaristatik gehiago defendatzen dela zaintzak etxean eskaintzea ahalbidetzen duen prestazio ekonomikoa. Politika publiko gisa, zerbitzuak hornitzearen aldeko apustu egitea diru-prestazioen alde egitea baino egokiagoa izango litzateke sektorean enplegua areagotzeko mekanismo gisa.
- b) Desfamiliarizatzea vs etxeko zerbitzuak. Zaintza-sistemaren helburuetako bat zaintza desfamiliarizatzea da, zaintza soziala sendotzeko, hain zuzen ere; baina gaur egungo errealitatea oso bestelakoa da, biztanleek etxean artatu ditzatela nahi baitute, eta zaintzaren zati handi bat etxeetan egiten da, erakundeen laguntzarekin edo laguntzarik gabe. Alde horretatik, zehaztu behar da, zaintzak desfamiliarizatzeke, lehenik eta behin zaintza-lana emakumeen genero-estereotipotik bereizi behar dela; hau da, lotura hori naturalizatzen duen genero-araua ahuldu behar dela, baina horrek ez du esan nahi etxeetan lan egiten duten

zaintzaileen eskaerei eta premiei jaramonik egin behar ez zaienik. Emakume horiek guztiek helburu komun batzuk dituzte, beren lana duin egin eta behar bezala aitortu dadila, adibidez, baina horien eskaera zehatzak aldatu egiten dira horiek ordaindu gabeko etxeko langileak direnean, administrazioek diruz lagundutako zaintzaileak direnean, etxean laguntzeko azpikontratatuta daudenean edo etxeko langileak direnean (barnekoak, kanpokoak, lanaldi osokoak edo partzialekoak). Etxeetan denbora gehien igarotzen duten ordaindu gabeko zaintzaileek, zaintzaile ez-profesionalek eta kontratatuek, adibidez, honako neurri hauek aldarrikatzen dituzte: laguntza psikologikoa eta osasun-arloko prebentzioa, isolamendu-sentimendua arintzeko (batez ere lan egiten duten etxebizitza berean bizi direnen artean); kontziliazio-neurriak (beren familiei ez uko egin behar izateko); prestakuntzarako sarbidea erraztea; asteburuetan errefortzu-zerbitzuak ezartzea (lan-karga arintzeko); eta administrazio-kudeaketak egiteko laguntza, besteak beste (Mier *et al.*, 2007; Briñón García *et al.*, 2020).

Zaintzaile taldeari dagokionez —gizarte-zerbitzuen esparru instituzionalean lan egiten dute—, etxeko langile gisa, eguneko zentroetako langile gisa eta egoitzetako langile gisa, haien eskariak lan-baldintzak hobetzea eta beste alderdi zehatz batzuk dituzte xede, honako hauek, adibidez: etxeko zerbitzuen koordinazioa (joan-etorrien denbora murrizteko); eguneko zentroetan eta egoitza-zentroetan lan-denborak arrazionalizatzea, zerbitzu hobea eskaini ahal izateko; prestakuntza-aukerak; garapen profesionala; eta aurrera egiteko eta sektorean edo antzeko beste sektore batzuetan lanpostu kualifikatuak eskuratzeko aukera izatea.

2.3.2. *Politika publikoak. Neurriak eta orientazioak*

Araudia onartu, garatu eta aplikatzeak aldaketa-prozesu bat finkatzea esan nahi du, bere mugekin eta hobetu beharreko puntuekin. Prozesu horretan, zaintzaren erantzukizuna familiatik eremu publikora igaroko da, baina horrek ez du esan nahi emakumeek eta familiak konpromisorik bereganatuko ez dutenik. Zentzu horretan, zaintzea eta zaintza ematea ez da familiaren kontua bakarrik; politika publikoen xede bihurtzen da (Martín Palomo, 2016); beraz, gizarte-arloko gai bat (*social care*). Administrazio publikoak arduratzen dira zaintzaren erantzukizuna agenda publikoan kokatzeko prozesuaz.

Bestalde, iritzi publikoak gero eta gehiago eskatzen du botere publikoek arlo horretan konpromisoa izan dezatela. CISen arabera (2012), biztanleriaren % 46,0k uste du autonomia-erkidegoek eta udalek eskaini behar dietela laguntza adineko pertsoneri (zifra hori oso gertu dago % 46,4tik, hau da, zaintzaz familiak arduratu behar duela uste dutenen ehunekotik). Bestalde, EAEn kasuan, Eusko Jaurlaritzaren datuek erakusten dute mendeko biztanleek gero eta gehiago erabiltzen dituztela baliabide publikoak, eta hori Gizarte Zerbitzuen EAEko Sistemaren ezagutza eta zerbitzuen hedapen handiagoarekin lotu daiteke.

Zaintza-sistema integral bat garatzeko neurriak diseinatu eta aplikatzeko ezinbestekoa da administrazio-maila guztien lankidetzatza (Estatukoa, autonomia-erkidegokoa, forukoa nahiz tokikoa), baina zaintzak emateko eta jasotzeko prozesuan parte hartzen duten alderdiek ere parte hartu behar dute, baita horiek ordezkatzeko dituzten elkarteek eta erakundeek ere. Alderdien artikulazio-lana oso konplexua da, batik bat kontuan hartuta, askotan, jarrera antagonikoak egoten direla hartu beharreko

neurrii dagokienez, baita ia ahotsik eta ikusgarritasun publikorik ez duten taldeen prekaritate- eta zaugarritasun-egoerak ere.

Politika publikoek herritarren bizi-kalitatea hobetzea dute helburu. Zaintzen hornikuntzari dagokionez, mendetasun-sistema garatzeko gaur egungo etapan, administrazio publikoek gainditu egin beharko dituzte sistema abian jarri zenetik hautemandako oztopoak eta akatsak, aurreikusitako helburuekin bat etorri. Zaintzak ondasun publiko bat dira, eta beraz, botere publikoek modu eraginkorrean kudeatu behar dituzte. Premisa hori oinarritzat hartuta, honako helburu hauek planteatzen dira:

- a) Sistemaren unibertsaltasuna eta kudeaketaren hobekuntza. Laguntza publikoa behar duten eta hura eskatzen duten herritar guztiei irisgarritasuna bermatzeko baldintza bat sistematik arintasunez funtzionatzea da. Ebaluazioak egiteko itzarote-zerrendak arintzeaz gain, kasu honetan, izapidetze-epeak ahalik eta gehien murriztea da erronka, hala, prestazioak jasotzeko eskubidea dutenek ahalik eta eperik laburrenean lor ditzaten, eskubidea aitortzen denetik laguntza lortzen den arteko «linbo» egoera ezabatuz¹⁶. Bestalde, sistemaren ekitate-printzipioa ebaluatu ahal izateko, baliabide gutxien dituzten sektoreei zerbitzua emateko gaitasuna hartzen da kontuan; izan ere, eta kasu honetan gertatzen den bezala, gehien behar dutenak dira zaintza-kostuak gutxien beregana ditzaketenak. Udalek kudeatutako zerbitzu batzuen prezioak, hala nola etxez etxeko laguntzarenak, oso altuak dira mendekotasun-maila txikia duten adineko batzuentzat, eta askotan ez dituzte eskatu ere egiten (koordinaketan izan arren)¹⁷. Mota horretako desorekak konpontzeko, onuradunen iritzia jaso behar da (baita zaintzaileen ikuspegia ere), eta erabiltzaileen eta horien senitartekoen parte-hartzea txertatu behar da horiek erabiltzen dituzten zerbitzuak martxan jartzean.
- b) Aukera-aniztasuna eta zerbitzuen malgutasuna. Sistema publiko gisa, zaintza-eredua efikazagoa izango da hura zerbitzuen eskaintza plural eta malgu bat erakusteko gai bada (laguntza, zuzeneko arreta, etxez etxeko elikadura-hornidura, bizitokia, eta abar) eta hainbat aukera eta agertoki eskaintzen baditu (Himmelweit eta Land, 2011; Torns, 2012). Familia-ingurunekeo eredu indibidualizatu edo pribatu batetik erantzukizun publikoko sistema batera igarotzean —bertan zerbitzu komunitarioek dute lehentasuna—, familiaren zentraltasuna aldatu egiten da zainketen hornitzaile bakar gisa; era berean, zalantzan jartzen dira genero-arauak, zaintzaren dimentsio soziala indartuz.
- c) Parte-hartzea. Sektore publikoak gero eta protagonismo handiagoa du zaintzaren horniduran, baina horrek ez du esan nahi familiek erantzukizuna galtzen dutenik. EAEn, familiak arduratzen dira mendeko pertsonen % 40az baino gehiagoaz, baina horrek ez du esan nahi gainerako ehuneko hirurogeia administrazio publikoek eta merkatuak bakarrik beregatatzen dutenik; gizarte-eragile horiek zainketaren erantzunkide dira, ordaindutako lanaren, zerbitzuen edo prestazioen bitartez, baina familiaren parte-hartzea ez da desagertzen, osa-

¹⁶ EAEn onuradunen % 12 inguru egoera horretan zeuden 2019. urtea amaitzean (Gizarte Zerbitzuetako Zuzendarien eta Kudeatzaileen Elkarte, 2020).

¹⁷ Zentzu horretan, kontuan izan behar da zerbitzu publikoetan eta itunduetan artatutako pertsonen asegabetasun-mailak gora egin duela 2014tik 2018ra bitartean (Eusko Jaurlaritz, 2019).

garria da. Kasu guztietan, zaintza-eredu integralaren garapenak eragile parte-hartzaile guztiak hartu behar ditu barne, eta ezin da alde batera utzi interesdunen ekarpena. Pertsona horiek aukera zabal bat osatzen dute: onuradunak, etxeetako ordaindu gabeko langileak, zaintzaile ez-profesionalak, etxez etxeko zaintzaileak, laguntzaile pertsonalak, etxeko langile gisa kontratatutakoak nahiz eguneko zentroetako eta egoitzetako langile profesionalak. Ikuspuntuak artikulatu eta koordinatu ahal izateko ezinbestekoa da, halaber, zaintzaileen eskubideen alde lan egiten duten elkarten ekarpena, baita zentro eta egoitzetako ardurdunena ere.

- d) Zerbitzuen koordinazioa. Mendekotasun-egoeran dauden eta bakarrik bizi diren adineko pertsonen kezketako bat honako hau da: nola izango dute bermatuta laguntza kontingentzia desberdinen aurrean, gaixotasun baten eraginez, adibidez, ospitale-zerbitzuetan alta eman behar dutenean? Hori dela-eta, gizarte-zerbitzuen eta zerbitzu sanitarioen arteko koordinazioa da premia gehien duten eskaeretako bat. Zaintzaileen artean, gizarte-zerbitzuen eta zaintza-lanetan parte hartzen dutenen arteko koordinazioa behar dute, familiena nahiz komunitatearena, hala, ahaleginak banatu eta hura hornitzean eraginkortasuna hobetzeko.

3. Ondorioak

Europako ongizate-ereduen ezaugarri bereizgarri bat zaintza agenda publikoan sartzea izan da. Plan-teamendu hori are irmoagoa da herrialde nordikoetan; horietan enpleguaren alde egin dute apustu (gizonenak eta emakumeenak), eta horretarako, landunek denbora izan behar dute zaintzarako (García Sainz, 2019). Europako hegoaldean, familiez gain, boluntarioen sektoreak (antolatua edo ez) ere garrantzi handia du zaintza-premien estalduran, bereziki gertuko auzo-ingurunearen babesari dago-kionez. Hala ere, herrialde horietan familiari egiten zaio, oraindik ere, zaintza-eskaera gehien; beraz, eta etxeetako lan-banaketa desberdina kontuan hartuta, zaintza emakumeen eskuetan geratzen da batik bat. Generoaren araberako esleipenarena idatzi gabeko arau bat da, botere publikoek indar-gabetu eta alderantzikatu beharrekoa, lehenik eta behin, etxeko kideek etxeko eta zaintzako lanetan duten erantzunkidetasuna bultzatuz, eta bigarrenik, sektore publikoaren lana indartuz, zaintza desfamiliarizatze eta haren dimentsio soziala indartzeko.

Zaintza ondasun publiko bat da, eta biztanleriaren bizi-kalitaterako baliabide bat. Krisi-garaian —izan sanitarioa izan ekonomikoa— are ezinbestekoagoa da Estatuaren, botereen eta Administrazio publikoen parte-hartzea. Krisi sanitario honek erdigunean jarri du zainketak familia- eta komunitate-ingurunean duen garrantzia, eta krisi ekonomikoko egoeretan bezala, erakunde publikoek etxeetara bideratzen dituzte beren eskumenak eta jarduerak (adinekoen arreta egoitzetan eta eguneko zentroetan, ikasleen arretaz gain); horrek areagotu egiten du ordaindu gabeko lan-karga, batik bat baliabide gutxien dituzten sektoreetan. Birfamiliarizatzeko arriskua hazi egiten da prozesu horietan; horregatik, behar-beharrezkoa da zainketa-sistema sendo bat izatea, gehien behar duten pertsonentzat eta kole-

ktiboentzat euskarri finko eta iraunkor bat izan dadin, eta baliabide-sare erabilgarri bat berma dezan, egoera politikoa edo ekonomikoa dena dela, bereziki krisi-egoeretan.

Zaintzen denborak bere dinamika propioa du. Sendatu ahal izateko ezinbestekoak dira bizkortasuna eta berehalakotasuna, eta etxeko lanak egiteko premiamendua eta eraginkortasuna, baina zaintzeko denborak beste erritmo batzuk ditu; elastikoa da, premia materialen eta afektuen arabera, eta motela da, elkarrizketa eta konpainia, kantitatea eta kalitatea behar baitira. Gainera, zaintzak beste denbora-dimentsio batzuk ditu, eta horiek denborazko gizarte-politikatik artatu behar dira, Administrazio publikoen aldetik. Mendekotasun larria duten pertsonen ordaindu gabeko zaintzaileentzat, zaintzaile ez-profesionalentzat eta etxeko barne-langile batzuentzat, denbora libre existitu ere ez da ia existitzen. Kasu askotan, kolektibo horiek ez dute denbora propiorik izaten lanetik kanpo beste jardura batzuk egiteko edo aisialdiaz gozatzeko; askotan, «beren» denbora beste pertsona batzuen eskakizunen arabera izaten da. Ez dute bere denboraren gaineko autonomiarik; horregatik, denbora izateko eskubidea aldarrikapen bat bihurtzen da, herritartasun-ariketa praktikoa egitea eskatzen duena. Bestalde, etxeetako zaintzaileen lan-ordutegiak beste edozein lanbidetan baino luzeagoak dira; lo egiteko denbora ere jar dezake kolokan lanak. Denborarekin lotutako irizpide horiek ez datoz bat hiriaren eta ingurunearen denborekin, kultura-bizitzaren estandarrekin, prestakuntza-zentroen eskakizunekin eta gizarte-harremanen erritmoekin. Hori guztia dela eta, tokiko eremuan denbora-politikak diseinatzea eta gauzatzea komeni da, zaintzaren hornidurari eta harrerari loturiko gizarte-denborak artikulatzeko.

Langile horien eskubideak defendatzen dituzten elkarteek eta gizarte-mugimenduek aspaldidanik aldarrikatzen dute Administrazio publikoek ordaindutako edo diruz lagundutako zaintzaileen lan-baldintzak hobetzea. Etxeko Langileentzako Sistema Bereziaren sorrerak eta hura Estatuko Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean txertatu izanak legegintza-esparruaren aldaketa eragin arren (Estatuan), eta LANEren Etxeko Langileentzako Lan Duinari buruzko Hitzarmenak ere eragina izan arren (Espainiak ez du oraindik berretsi), biak 2011n onartuak, sektoreko lanak ez du ia hobekuntzarik izan. Zentzu horretan, hainbat erronka planteatzen dira: alde batetik, lan-eskubideak aitortzea, hala nola langabezia-eskubidea eta soldaten hobekuntza; eta bestetik, lanaren profesionalizazioa, horrek prestakuntzarako eta aukera profesional berrietara irekitzeko aukerak barne hartuko babiliztuzke. Baina bi helburu horiek kontraesanak planteatzen dituzte elkarren artean; izan ere, zaintzaileen lan-baldintzen hobekuntza eta lanaren profesionalizazioa bateragarri egitea da helburua, mendekotasuna duten pertsonen baliabideekin, batez ere bakarrik bizi diren emakumeak, alargunak, haien diru-sarrerek ez baitiete ahalbidetzen etxeko langile baten soldata ordaintzea. Estatuaren edo administrazio publikoen laguntza ezinbestekoa da zaintza behar duten eskatzaile pobreetzat. Botere publikoek behar bezala konpondu beharko dute zaintzaileen lana aitortzeak eragin dezakeen interes-gatazka, betiere haien zaintza behar duten erosahalmen urriko eskatzaileen egoera kontuan hartuta.

Laguntza publikoek ez dute estaltzen mendetasun-maila txikia duten eta zaintza behar duten adineko pertsonen egoera, eta askotan familiek konpontzen dute kontingentzia hori, zaintza kanpora aterata. Familiek kontratatutako lanarekin lotutako esku-hartze publikoak behar bezala argitu beharko du zer bereizketa dagoen etxeko enpleguaren (etxeko zeregin materialetan bakarrik oinarritua, hau da, arropa erostea, garbitzea edo zaintzea, besteak beste) eta etxeko langile gisa kontratatutako zaintzaileen lanaren artean, haien zeregin nagusia beren kabuz baliatzen ez diren adineko pertsonen artean. Etxeko enplegua —zaintza da haren funtzio nagusia— eta etxeko zerbitzua —denborarik ez

duten edo lan horiek egin nahi ez dituzten emakume eta gizon landunek kontratatuta— legegintza-babes beraren pean daude, baina administrazio publikoetatik laguntza-neurriak hartzeko orduan, hau da, transferentzia ekonomikoak edo bestelako prestazioak eskaintzeko orduan, behar-beharrezkoa izango da elkarrengandik bereiztea, hala, estaldura bereizia eman ahal izateko. Zaintza-lanari tratamendu publikoa eman behar zaio, eta etxeko zerbitzu zorrotzak, berriz, balio pribatua du, baina botere publikoek horietan lan egiten duten guztiei eskaini behar die babesa.

Zaintza «etorkinekin etxean» ereduari jarraikiz kanpora ateratzen denean, batez ere Mediterraneo herrialdeetan, ekitate-gabeziak izaten ditu, eta beraz, jasanezina izaten da. Lehenik eta behin, zaintza-kate globalen metaforak argi eta garbi erakusten du estrategia hori errenta-maila baxuko Latinoamerikako herrialdeetatik etorritako etorkinetan oinarritzen dela; horiek inolako euskarri afektiborik eta behar dituzten zaintzarik gabe uzten dituzte beren familiak, modu ordaindutan, zaintza beste herrialde batzuetako pertsoneri eskaintzeko. Bigarrenik, proiektzio demografikoetan oinarritzen da, eta proiektzio horiek herrialde pobreetatik datozen immigranteen etengabeko fluxua eragiten dute, helmugako herrialdean enpleguak (irregularrak) bilatzeko asmotan. Alderdi demografiko hori eta hura txertatzen den lan-testuingurua ez dira batere egokiak etorkizuneko eredu gisa: lehenengoa eztabaidagarria da ordeko aukera gisa, eta ezin da aurreikusi, gertakari nazionalak eta globalek baldintzatzen dutelako; bigarrena, berriz, jasanezina da, etnien oinarritutako lan-merkatu bereizi eta diskriminatzaile bat sustatzen duelako. Hirugarrenik, langile horien soldata baxuek soldata-arrakalak azpimarratzen dituzte, baina, batez ere, diru-sarreraren desberdintasunak islatzen dituzte, ekonomikoki desorekatuta dauden gizarteetan gertatu ohi direnak. Laugarrenik, soldatapeko etorkinen kontratazioak generoan eta klasean oinarritutako egiturazko desberdintasunak uzten ditu agerian, hala nola kontratatzaileen eta kontratatuen artean sortzen den harremana eta «iraultza geldoa» deituaren ebidentzia, etxeko lanetan eta zaintza-lanetan gizonen eta emakumeen artean erantzunkidetasunik ez dagoelako. Zaintza genero femeninoari esleitzen dion estereotipoa indartzen dute batak zein besteak.

Kalitatezko zaintza-sistema bat zainketak jasotzen dituztenen gogobetetze-mailagatik berresten da, baina baita beren lanarekin lotuta zaintzen dutenek sentitzen eta helarazten duten motibazioagatik eta gogobetetasunagatik ere. Egoera horretan positiboki eragiten duten alderdien artean ditugu, soldata duinaz gain, prestakuntza eta gora egiteko aukerak izatea, lan-denborak eta beste lan-baldintza batzuk. Izan ere, horiek guztiak lagungarriak izan daitezke sektorea pertsona gehiagorentzako (besteak beste, gizonentzako) lan-eremu erakargarri bat izan dadin. Zaintzaileen lan-baldintzen hobekuntzak genero-berdintasuna bultzatzen du, soldata-arrakala eta lan-segregazioa murrizten direlako.

Botere publikoen esku-hartzea *sine qua non* baldintza da zaintza-sistema integral eta jasangarri bat garatu ahal izateko. Administrazio publikoek zainketen gizarte-antolaketan parte hartzea ezinbestekoa da mendeko biztanleen bizi-baldintzak hobetzeko eta irismen unibertsaleko eredu baterantz abiatzeko. Zerbitzuen horniduraz gain, iraupen luzeko zaintzara bideratutako gastua administrazio publikoen gizarte-konpromisoaren adierazle bikaina da. Zentzu horretan, esparru horretan aurrekontua murrizteak eragina izan dezake beharra duten biztanleek sistemara jotzeko dituzten aukeretan, eta familiei helarazten zaizkie lan-karga eta kostuak. Zaintzaileei bideratutako transferentzia ekonomikoek dagokienez, zerbitzuetara sarbidea errazteko edo ordaindu gabeko lana diruz laguntzeko ezinbesteko baliabidea izan arren, botere publikoek kontrolatu egin behar dituzte behar bezala erabiltzen direla ziurtatzeko. Zaintzaile ez-profesionalei dirulaguntzak emateko transferentzia ekonomikoen aurrean, zerbitzuen hornidurak eragin positiboa du lanbide-sektore horretan enplegua sortzeko orduan.

Zaintzen hornidurak gizarte-ongizatean laguntzen du. Haren funtzionamenduak banatu egin behar diren zenbait kostu sortzen ditu, eta kostu horiek zaintzaren emakumeen eta gizonen arteko banaketa eta familien, gizarte-eragileen eta zergadunen ekarpen haztatua eskatzen dute. Batzuetan talka egiten duten interesak koordinatzeko eta antolatzekeo behar-beharrezkoa da alderdi guztiak gogoan izatea eta horiekin hitz egin eta eztabaidatzea, horrela, berdintasuna eta gizarte-kohesioa bermatuko dituen zaintza-sistema bat finkatzeko eta balizko gizarte-arriskuei aurre egin ahal izateko. Politika publikoak eta horiek garatzen dituzten neurriak arduratzen dira sistemak behar dituen koherentzia eta baliabideak emateaz. Hori dela-eta, eskariari erantzuteko oinarrizko eta funtsezko baliabideak eskaini behar dira; zaintzaileen eskaintza bermatu behar da, lan-baldintza duinetan eta egokietan; eta zaintza garatzen den lekuak eta garaiak sistema integral, berdintasunezko eta jasangarri baten arabera egituratzen direla ziurtatu behar da.

Erreferentziak eta iturriak

Gizarte Zerbitzuetako Zuzendarien eta Kudeatzaileen Elkarte, Mendotasunaren Estatuko Behatokia (2020), XX Dictamen del Observatorio , otsaila. Eskuragarri, hemen:

[https://www.directoressociales.com/images/documentos/dictamenes/XX_Dictamen/INFO% 20GLOBAL% 20XX% 20DICTAMEN% 203-3-20_compressed.pdf](https://www.directoressociales.com/images/documentos/dictamenes/XX_Dictamen/INFO%20GLOBAL%20XX%20DICTAMEN%203-3-20_compressed.pdf)

Bizkaiko Etxeko Langileen Elkarte (ATH-ELE) (2020), *Estatistikak 2019*. Hemen: <https://drive.google.com/file/d/186LnL6s9Hh7VtbXiUNtlpYpHmPvtPWq/view>

Bettio, F., Simonazzi, A., Villa, O. (2006), «Change in care regimens and female migration: the «care drain» in the Mediterranean», *Journal of European Social Policy*, 16, 271-295. or.

Briñón García, A., Rodríguez Losada, M., De la Cámara González, C. (2020), *¿Quién me cuidará cuando sea mayor?*, XXIX. Politika Feministaren Tailerra 2019, Politika Feministaren Forum, Madril.

CIS (2012), *Familia y género* (International Social Survey Programme), 2942. azterketa.

CIS (2014), *Cuidados a dependientes*, 3009. azterketa.

Díaz, C., Jabbaz, M., Aguado, E., González, L. (2016), «Las brechas de género: brechas de cuidados, brecha salarial y brecha de tiempo propio». Hemen: Díaz Martínez, C. eta Simó-Noguera, C. X. (koord.), *Brecha salarial y brecha de cuidados*, Tirant humanidades, Valentzia, 19-38. or.

Durán, M. A. (2018), *La riqueza invisible del cuidado*, Valentziako Unibertsitatea.

EIGE (2019), *Indicators included in the domain of time, by EU Member State*. <https://eige.europa.eu/gender-equality-index/2019/domain/time/family>

Eustat (2019), Denbora Aurrekontuen Inkesta 2018. https://www.eustat.eus/bancopx/spanish/id_2374/indiceRR.html

- García Sainz, C. (2019), «El trabajo de cuidados y doméstico en la senda del desarrollo sostenible». Hemen: Alvaro Amieiro, M., Arias Careaga, S., Gamba Romero, A. (arg.), *Agenda 2030. Claves para la transformación sostenible*, Catarata, Madril, 61-82. or.
- Eusko Jaurlaritz (2019), Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. *Gizarte Zerbitzuen eskaerari buruzko estatistika. Gizarte Premiei buruzko Inkesta 2018*. Modulu Orokorra. https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/informe_ens_2018/eu_def/data/2018ko%20GPI-ren%20txostena_eu.pdf
- Himmelweit, S., Land, H. (2011), «Reducing gender inequalities to create a sustainable care system», *Kurswechsel*, 4, 49-63. or.
- IMSERSO (2005), *Cuidados a personas mayores en los hogares españoles. El entorno familiar*, IMSERSO, Madril.
- IMSERSO (2010), *Encuesta Mayores 2010*, IMSERSO, Madril.
- LANBIDE (2020), Kabinete Teknikoko Análisi, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. 2019an sinatutako kontratuak, Urtean metatua. Eskuragarri, hemen:
http://apps.lanbide.euskadi.net/apps/TP_MENU_PROFESION?LG=E&ML=&IDEM=91001018
- Legarreta Iza, M.; García-Díez, S. (2015), «El contexto internacional: La C. A. de Euskadi y su entorno», Legarreta Iza, M. (koord.). *Dos décadas de cambio social en la C. A. de Euskadi a través del uso del tiempo. Denbora-aurrekontuen inkesta 1993-2013*, Eustat, Gasteiz.
- Letablier, M. T. (2007), «El trabajo de «cuidados» y su conceptualización en Europa». Hemen: Prieto, C. (arg.): *Trabajo, género y tiempo social*, Hacer eta Complutense argitaletxeak, Madril.
- Martín Palomo, M. T. (2016), *Cuidado, vulnerabilidad e interdependencias. Nuevos retos políticos*, Ikasketak Politiko eta Konstituzionalen Zentroa, Madril.
- Mier Villarías, I., Romeo Pérez, Z., Canto Combarro, A., Mier Villarías, R. (2007), «Interpelando el cuidado. Por qué cuidan sólo las mujeres y qué podemos hacer para evitarlo», *Zerbitzuan*, 42, 29-38. or.
- Moreno-Colom, S., Recio Cáceres, C., Borràs Català, V., Torns Martín, T. (2016), «Significados e imaginarios de los cuidados de larga duración en España. Una aproximación cualitativa desde los discursos de cuidadoras», *Papeles del CEIM*, 2016/1 bol., 145. zk.
- Murillo, S. (1996), *El mito de la vida privada*, Siglo XXI, Madril.
- NAZIO BATUAK (2015), *Giza Garapenari buruzko Txostena, 2015. Lana giza garapenaren zerbitzura*, Nazio Batuen Garapen Programa, New York.
- Nogueira Domínguez, J., Zalacain Hernández, J. (2015), *La discriminación múltiple de las mujeres inmigrantes trabajadoras en servicios domésticos y de cuidados en la Comunidad Autónoma de Euskadi*, Emakunde, Gasteiz. Eskuragarri, hemen:

https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_bekak/es_def/adjuntos/beca.2014.2.mujeres.inmigrantes.trabajadoras.servicios.domesticos.pdf

LANE (2018). *El trabajo de cuidados y los trabajadores del cuidado para un futuro con trabajo decente*. Laburpen exekutiboa, LANE, Geneva. Eskuragarri, hemen:

https://www.ilo.org/wcmsp5/groups/public/---dgreports/---dcomm/---publ/documents/publication/wcms_633168.pdf

Razavi, S. (2007), *The Political and Social Economy of Care in a Development Context. Conceptual Issues, Research Questions and Policy Options*, United Nations Research Institute for Social Development, Geneva.

Rogero García, J. (2009), «Distribución en España del cuidado formal e informal a las personas de 65 y más años en situación de dependencia», *Revista Española de Salud Pública*, 83, 393-405. or.

Royo Prieto, R. (dir) (2012), *Erantzukidetasuna, balioak eta generoa*, Emakunde, 30. txostena, Gasteiz. Eskuragarri, hemen:

https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_informes/eu_emakunde/adjuntos/Valores_es_eu.pdf

San José, B. (2012), «No solo queremos cuidar ni queremos hacerlo solas», *Apuntes ciudadanos*, 1, 157-173. or.

Thomas, C. (2011), «Deconstruyendo los conceptos de cuidados». Hemen: Carrasco, C.; Borderías, C. eta Torns, T. (arg.), *El trabajo de cuidados. Historia, teoría y políticas*, Catarata, Madril.


Tobío, C., Agulló Tomás, M. S., Gómez, M. V., Martín Palomo, M. T. (2010), *El cuidado de las personas. Un reto para el siglo XXI*, La Caixa fundazioa, Bartzelona.

Torns, T., Borràs, V., Moreno, S., Recio, C. (2012), «El trabajo de cuidados: un camino para repensar el bienestar», *Papeles de Relaciones ecosociales y cambio social*, 119, 93-101. or.

Torns, T. (zuz.). (2014), *Nuevas profesiones para la organización social del cuidado cotidiano*, UAB, Bartzelona.

Wajcman, J. (2017), *Esclavos del tiempo. Vidas aceleradas en la era del capitalismo digital*, Paidós, Bartzelona.






Mendekotasun-egoeran
dauden pertsonen zaintzeak
zaintzaileen osasunean eta
ongizatean duen eragina

MAYTE SANCHO ETA ELENA DEL BARRIO

Aurkibidea

1. Hitzaurrea	65
2. Zainketak, osasuna eta ongizatea	66
3. Euskadin zaintzaileen osasun eta ongizatean zainketak duen eragina	67
4. Ekintzarako proposamenak eta aholkuak	70
4.1. Baimena ematen al diot neure buruari nire egoeran pentsatzeko?	72
4.2. Neuk bakarrik zainduko al dut? Eskubideak erabiltzea, laguntzak identifikatzea, laguntza eskatzea	72
4.2.1. Eskubideak erabiltzea	73
4.2.2. Zaintzaileen eskubideak	73
4.2.3. Informatzea eta laguntzak identifikatzea	74
4.2.4. Senideei laguntza eskatzea	74
4.2.5. Partekatu zainketak profesionalekin	75
4.3. Neure burua zaindu eta ondo sentitu	76
4.3.1. Osasun fisikoa	76
4.3.2. Osasun mentala	77
4.4. Ezetz esaten jakitea	78
4.5. Errudun sentitzea	78
5. Ondorio gisa	79
Erreferentziak eta iturriak	80
1. ERANSKINA. Zaintzaileei laguntza eta orri baliabidea emateko gidak	81
2. ERANSKINA. Baliabideak	83





1. Hitzaurrea

Historikoki emakumeei esleitutako zereginetako bat izan da familia-inguruneko zainketen erantzukizuna, baita zenbaitetan familia-ingurunetik kanpoko zainketena ere. Jarduera ikusezina, ordaindu gabea, etxeko eremuan, intimitatean gauzatzen dena eta funtzio natural gisa ulertua, gizarte- eta lan-aintzatespenik gabea, sentimenduei eta afektuei lotua; eremu arrazionala eta publikoa, aldiz, gizonen lotuta egongo litzateke (Comas, 2015).

Gizarteak, baina, eraldatu egiten dira pixkanaka; familiek kide gutxiago dituzte, eta gero eta belaraldi gehiago bizi dira denbora-tarte berean (familia bertikalak Abellan, Puga, Sancho, 2006), espazio txikitari bizi ere, baina zein bere etxean (urrutiko intimitatea, Walker, 1996), eta egunaren zatirik handiena ekoizpen-sistema elikatzen ematen dute, ordutegi amaigabeekin eta lantokietara joateko denbora asko behar izaten dute. Testuinguru horretan, emakumeak, etxeko eta familiako bizitzari eusteko ardura izateaz gain, ordainpeko lan-bizitzan ere sartu dira pixkanaka, eta gizon eta emakumeen artean lortu nahi den berdintasunera hurbiltzen ari dira egunez egun, lan-munduan parte hartuta; hala, etxetik kanpo egiten dute egunaren zati handi bat. Egoera horretatik abiatuz hasten dira zainketak intimitatearen eremutik ateratzen, gizarte-gaia eta erantzukizun partekatukoa bihurtzeko, eta botere publikoek, neurri batean behintzat, beren gain hartu behar dituzte. Ondorioz, zainketak politika publikoen eztabaidaren erdigunean kokatzen hasi direnez, alderdi anitzeko gai horri buruzko ezagutza sortu beharra dago, funtsezkoa baita pertsonen bizitzarako eta gure gizartearen sostengurako.

Bizitza-luzeraren iraultza esaten zaion horretan, bizi-itxaropena gora egiten ari da etengabe, baina, horrekin batera, zaintza-beharrak ere gora egiten du bizitzaren azken etapen, eta konplexutasun handiko egoerak sortzen dira, eta denboran luze jotzen dute, aurreikusi gabeko egoerak eraginda. Zainketa guztiak ez dira berdinak eta ez dute gizarte-errepresentazio bera (Saitua eta Sarasola, 1993:27). Desberdina da, emozio eta bizitzaren ikuspegitik, haurrak eta nerabeak zaintzea edo adineko pertsona bat zaintzea, «bizitzaren amaikortasuna, gainbehera eta heriotza ikusarazten baitizkigu. Era berean, desberdina da adineko osasuntsu bat zaintzea, bere kabuz baliatzen dena, edo beste pertsona bat, erabat besteen mende dagoena, baliabide materialak eta/edo giza baliabideak dituen edo bat ere ez duena» (*ibidem*).

Zainketaren erantzukizunak eztabaida ugari eragin du biztanleriaren zahartzearen esparruan, eta ondorio sakonak ditu gizarte-politiketan eta pertsonen eguneroko bizitzan. M. Daly eta J. Lewis egileek (Martín Palomo, 2009) adierazi dutenez, familiaren, estatuaren, merkatuaren eta gizarte zibilaren mugen arteko lurralde batean daude zainketak; gizarte-harreman mota desberdinak dituzte, zainketok nolakoak diren: borondatezkoak, ordainduak edo familiarakoak; eta, gainera, arlo profesionalaren eta ez-profesionalaren artean daude, eta eremu publiko, pribatu eta etxeakoaren arteko bereizketen eta harremanen mugak ere gainditzen dituzte. Baina, orain arte behintzat, «familiak osasun-zerbitzuak ematen dituen sektore bat dira, eta sektore horrek nabarmen gainditzen du gainerako erakunde sanitario guztien lan-bolumena» (Durán, 2018)

Era berean, azken urteetan, egiaztatu da biztanleen artean zainketen inguruko ikuspegi zabalagoa areagotu dela. Ikuspegi horrek gero eta indar handiagoa hartzen du zainketen lurraldeak eta hiriak aldarrikatzen dituzten planteamendu komunitarioetan (Madrid Salud, 2016), bizitzaren iraunkortasunerako eta gizarte orekatu, humanizatu eta berdinzaleak eraikitzeko funtsezko elementua baitira. Azken batean, planteamendu horiek, zainketak gaur egun eragiten dituen zeregin anitzen erantzukizuna eta sozializazioa zabaltzen dute inplikaturik dauden eremu guztietan, arreta berezia jarri hurbileko inguruneetan, horietan elkarlaneko eta elkarri laguntzeko mugimendu komunitarioak berriz agertu baitira indar apur batekin; betiere, laguntza behar duten pertsonen laguntza-premiei erantzuna emango dien gizarte-babes arduratsuko sistemaren eskaera inoiz ere alde batera utzi gabe (Solís, Buján eta Paredes Chauca, 2018). Nolabait, jarrera horiek sendotasuna ematen diote ikerketari, bai eta zaintzaileen artean zainketak daukan eragin positiboa sustatzen duen joera sozialari ere: erantzukizuna, elkarrekikotasuna, balio-transmisioa, afektua, hazkunde pertsonala, bizitzaren zentzua, etab. (Agulló, 2002; Pessoa de Oliveira eta Lima Caldana, 2012). Zainketan gertatzen den interdependentziaren kontzeptuak osatzen du analisi mota hori (Prieto, 2016, Martín Palomo, 2016), zaintzaileen eta zainketak jasotzen dituzten pertsonen egunerokotasunean gailentzen den harremanaren berezko gai gisa ulertuta.

2. Zainketak, osasuna eta ongizatea

Zainketak zaintzaileen osasunean duen eraginari buruzko ikerketa gehienek hark eragiten duen osasun fisiko eta mentalaren narriadura nabarmetzen dute. Eragin negatiboa nabarmenagoa izaten da alderdi emozional eta psikologikoan. Zainketak zaintzaileen osasun mentalean dituen ondorioak, funtsean, depresioa eta antsietatea dira, baita estres-maila handiak ere. Klase soziala, gizarte-babes funtzionala eta adina osasun mentalaren egoera okerragoari lotutako aldagaiak dira, laguntza horiek mendekotasuna duten adinekoentzat direnean. Hala ere, zainketen intentsitatea —hau da, zaintzan emandako ordu kopurua— da adierazlerik garrantzitsua (Vlachantoni, Robards, Falkingham eta Evandrou, 2016). Adingabeen zainketari dagokionez, egoera oso bestelakoa da.

Laburbilduz, zaintzaileen osasun mentalean zainketa-orduen kopuruak duen eragina laguntza behar duen pertsona motaren eta zaintzailearen sexuaren araberakoa da. Halaber, babes-elementutzat gi-

zarte-babesa izatea edo ez izatea ere kontuan hartu behar da, zainketa-denbora luzea denean murriztu egiten baita.

Zainketak zaintzaileen (gehienak emakumeak) osasunean duen eraginari buruzko ikerketa oso zabala da gaur egun. Eragin psikologikoak hainbat modutan agertzen dira (Zarit eta Edwards, 2008). Maiztasun handienarekin identifikatutako ondorioa zaintzailearen *burnout* edo gainkarga da, alderdi anitzeko ikuspegi batetik ondorio kaltegarriak sortzen baititu zaintzailearen bizitzan (Casado eta Sacco, 2012; Gratão *et al.*, 2012): isolamendu soziala eta osasun mental, emozional eta fisiko okerragoa (Pinquart eta Sorensen, 2003; Nardi *et al.*, 2012, Pickard, 2015). Gizonen eta emakumeen artean duen eragina desberdina da (Garcia Calvente *et al.*, 2011; Larrañaga *et al.*, 2008). Era berean, «Sandwich» belaunaldian, rol-gatazka eta lan-jarduera gauzatzeko zailtasunak maiz agertzen dira ikerketa-esparru horretan (Hoffman eta Rodrigues, 2010; Salgueiro eta López, 2010, IMSERSO, 2011).

Horrez guztiaz gain, ez da ahaztu behar gizarte- eta egitura-determinatzaileek izugarri aldatzen dituztela zaintzaren ondorioak: egoera ekonomikoa, gizarte- eta hezkuntza-maila, familia- eta gizarte-laguntzako sareak... Azken batez, beste behin ere, desberdinkeriak markatzen du zainketak pertsonen ongizatean duen eragina. (Durán, 1999 eta 2018).

3. Euskadin zaintzaileen osasun eta ongizatean zainketak duen eragina

2018ko Gizarte Beharren Inkestako datuen arabera (GBI, 2018, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, 2019), Euskadin 109 677 pertsonak zuten mendekotasun berezia; hau da, zainketak behar zituzten. Kopuru horrek esan nahi du biztanleriaren % 5,1 hirugarrenen mende daudela era partzial edo jarraituan, eguneroko bizitzako jardueraren bat gutxienez egiteko (eskolan eta/edo lanean laguntza berezia behar izatea barne). Urte horretarako EAeko Osasun Inkestan (EAEOI, 2018) (Martín, 2019) lortutako emaitzen antzekoak dira datu horiek; izan ere, pertsonen % 5ek beste baten laguntza behar dute eguneroko bizitzako jarduerak egiteko.

2018ko GBIn emaitzekin jarraituz, zainketa behar duten pertsonen kopurua desberdina da generoaren arabera. Gizonak % 3,8 dira, eta emakumeak, berriz, % 6,3. Egoera horretan dagoen biztanleriaren ehuneko handieneko adin-kohorte 75 urte edo gehiagokoa da, pertsonen % 30,5 zainketa-premian baitago.


2018ko EAEOIko kopuruek adierazten dutenez, gainera, egoera gehienetan, zaintzailea senide bat da, eta harekin bizi da, batez ere gizon bat zaintzen dutenean. Datuen arabera, gizonen % 73,2 etxeko senide batek zaintzen ditu; emakumeen kasuan, berriz, ehuneko hori % 57,3ra jaisten da. Gizonen eta emakumeen kopuruetan dauden aldeak adinak aurrera egin ahala ikusten dira batez ere. Hala, 75 urteko eta gehiagoko gizonak senideren batekin bizi dira kasuen % 66,1ean, eta egoera berean dauden emakumeen kopurua % 49,0ra jaisten da. Egoera horren arrazoi nagusietako bat emakumeen biziraupenean datza, luzeagoa baita gizonekoena baino; emakumeek beren senarrak zaintzen dituzte

laguntza eta arreta behar dutenean, baina alargunak izaten dira berek zainketa horiek behar dituztenean. Egoera horretan, beste bizileku batean bizi diren senideek garrantzi handiagoa hartzen dute (% 46,2), normalean, alabek.

Zainketa-lanak egiten dituzten biztanleen kasuan, Euskadin lan horiek egiten dituzten 60 414 pertsona zenbatu dira (GBI, 2018). Hau da, 15 urte edo gehiago dituzten biztanleen % 3,3. Beste behin ere emakumeak gehiago dira (% 3,7) gizonak baino (% 2,7). Adin-kohorteetan, nabarmentzekoa da 55-64 urte arteko taldea, 20 294 zainzaile baitaude eta intzidentzia % 6,4koa baita. Pertsona horien % 88,8 ez du prekaritate-arazo larririk. Dena den, nabarmentzekoa da azken urteotako bilakaeran gora egin duela beste nazionalitate bateko zainzaileen proportzioak eta gabezia-, langabezia- edo jarduerarik gabeko egoeran dauden etxeetako zainzaileen proportzioak. Profil horrek oso lotura estua du etxeko langile zainzaileekin (1 taula).

1. TAULA.

15 urte edo gehiagoko zainzaileak, sexuaren eta adinaren arabera, 2018



Iturria: GZEE-GBI, 2018. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOE. Egileek egina.

Inkesta honetan, gainera, zainketa-zeregin horiek bere gain hartzen dituzten pertsonen bizitzan dituen eraginetako batzuk aztertzen dira. Horrela, ikusten da zainzaileen % 22,6k hezkuntzari edo lanari uko egin behar izan diola. Lan-arloan, zehazki, pertsonen % 14,0k adierazi du lanari uko egin diola, eta % 8,4k denbora gutxiago lan egitea erabaki du. Ehunekoak handiagoak dira gizarte-bizitzako zerbaiti uko egin dioten galdetzen zaienean. Atal horretan, zainzaileen % 68,2k adierazi du bizitzako alderdi horretan zerbaiti uko egin diola (% 24,4k guztiz uko egin dio bizitza sozialari, eta % 43,8k kontu horietarako denbora gutxiago izan du). Era berean, % 57,6k adierazi du tentsioak dituela familia-bizitzan (% 18,5ek tentsio handiak; % 39,1ek tentsio txikiak).

2013ko Osasun Inkestako datuen arabera (Mosquera, Martín eta Larrañaga, 2018), zainketak osasunean eta ongizatean duen eragina aztertzean, nabarmentzekoa da osasun-egoera subjektiboan duen

eraginaren eragina; hala, adierazten dutenez, zainzaileek hautemandako osasun-egoera okerragoa dute lan horiek egiten ez dituztenek baino. Gainera, emaitza okerragoak lortzen dituzte etxe barruan zaintzen duten pertsonak, kanpoan zaintzen dutenen aldean, eta emakumeek, gizonen aldean; beraz, emakume zainzaileek osasun txarra dutela adierazteko probabilitatea % 30 handiagoa da zaintzen ez dutenena baino. Hautemandako osasun-egoeran eragiten duen beste aldagai bat zainketaren intentsitate da, eta intentsitate handiagoz zaintzen duten pertsonak dira osasun-egoera okerragoa hautematen dutenak. Egoera hori larriagotu egiten da etxean intentsitate handiz zaintzen duten emakumeen artean, osasun txarra hautemateko joera handiagoa baitute.

Txostenean (Mosquera *et al.*, 2018) zainketek osasunean duten eraginari buruz agertzen diren beste emaitza batzuetan, zainzaileen osasun mentala aipatzen dute. Azterlan horren arabera, etxeko zainzaileen heren batek depresio eta/edo antsietatearen sintomak ditu; zainzaile ez den biztanleriarenak baino zifra handiagoak dira. Emakumeen artean, sintoma horien presentzia ia % 50 handiagoa da etxean zainketa-lanak egiten badituzte, zaintzen ez dituztenekin alderatuta. Emakumeek, gainera, bizimodu sedentarioagoak dituzte zaintzan aritzen direnean, eta oso ariketa fisiko gutxi edo batere ez egiteko probabilitatea % 30 handiagoa da.

Gizonei dagokienez, nabarmendu beharreko datu bat dago: etxean mendekotasuna duen pertsona baten zainzaile direnek babes sozial gutxiago dute zainketa-lan horiek egiten ez dituztenek baino. Horrek esan nahi du emazteak zaintzen dituzten gizonak laguntza-sare ahuldua dutela, eta zainketa horren ondorioz izan daitekeela. Alde horretatik, egunero zainketa-lanetan diharduten gizonak gizarte-laguntzako sare txikia izateko probabilitate bikoitza dute, zainketa-lanetan aritzen ez direnen aldean. Emakumeen laguntza-sarean, aldiz, badirudi zainketak ez duela eraginik. Laguntza-eskaerari lotuta agertzen den anibalentzia- edo erru-sentimenduak ere azal dezake gizon zainzaileek gizarte-babes txikiagoa izatea. Aurretiazko esperientzia negatiboek edo eskura dauden baliabideei eta zerbitzuei buruz duten informazio eskasak eragin ditzake sentimendu horiek (Greenwood eta Smith, 2015 in Mosqueras, 2018).

Era berean, ezinbestekoa da CUIDAR-SE proiektuaren emaitza batzuk nabarmentzea (Andaluziako eta Euskadiko emakume eta gizon zainzaileen osasunaren eta bizi-kalitatearen jarraipena egiteko azterlanak), Andaluziako Osasun Publikoko Eskolaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren lankidetzatik sortua. Azterlan horretan, emaitza garrantzitsuak lortu dira zaintzari egotz dakizkiokkeen ondorioei dagokienez, hala nola nekea, medikamentuen kontsumoa edo gainkarga, batez ere emakumeengan (Mosquera, Larrañaga, Del Rio, Calderon, Machón eta Garcia-Calvente, 2019).

Azterlan batzuen arabera, emakumeen artean, zainketan rol desberdinak esleitzearekin eta horiei aurre egiteko moduarekin lotuta egon daitezke eragin nabarmenenak. Horren harira, Larrañaga *et al.*, (2009) egileen azterlan kualitatiboaren arabera, emakumeen zainketa-jarduera etxekoandre rolarnean dago, eta ama, alaba edo emazte funtzioaren parte da. Emakumeen zainketa-lanak naturalizatu egiten dira, genero-rolen iraunkortasuna oinarritzat hartuta. Zainketak emakume zainzaileen osasunean dituen ondorioak higadura fisikoa eta nekea dira; horrek tristurari, depresioari eta etsipenari lotutako gogo-aldarteak sortzen ditu, eta norberarentzako denborarik ez izatea ere badakar (Larrañaga *et al.*, 2009). Zainketaren faktoreak eragin zuzena du osasunean eta haien desberdinkerian (Mosquera, 2017). Behin baino gehiagotan aipatzen da beste pertsona batzuk zaintzeak norbere burua zaintzeari uztea dakarrela, eta gainkarga da gehien deskribatutako eraginetako bat (Mosquera, 2017).

Bestalde, ezin dugu berrikuspen labur hau amaitu aipatu gabe zainketa-lanak zaintzaileengan sortzen dituen onurak eta gogobetetzeak. Azterlanetan zaintzaileei galdetzen zaienenean ea zer onura eta arazo dakartzan zainketa-lanak, erantzun askotan onura emozionalak aipatzen dira; hala, % 84,1ek baliagarritasun-, elkarrekikotasun- eta gogobetetze-sentimendua aipatzen du, eta % 40,5ek, aldiz, gogo-aldartean ondoezak eta arazoak eragiten dizkiola (Del Barrio eta Sancho, 2016). Aipatutako beste azterlan batzuekin bat etorritik, arazoek, beste behin ere, aisialdiko onurak gaintzen dituzte; izan ere, % 50,9k adierazten du zainketak zailtasunak sortzen dizkiola aisialdiaren arloan, haien gozamen-denbora murrizten delako; % 33,6k, berriz, adierazten du, zainketak onurak eskaintzen dizkiola arlo horretan, zaintzen duten pertsonarekin aisialdiko jarduerak egin ditzakeelako, zaletasunak partekatu eta abar. (Del Barrio eta Sancho, 2016).

Laburbilduz, zaintzak zaintzaileen osasunean duen eraginak alde negatibo handia du gure lurraldeko emakumeentzat. Eraitza hori bat dator estatuko eta nazioarteko beste lurralde batzuetako emaitzeekin. Zeregin horiek bere gain hartu behar dituztenean, tradizionalki esleitutako rol guztiei gehituta, emakumeek bere burua zaintzeari uzten diote, eta, ondorioz, arrisku handiak izaten dituzte bere bizi-ibilbidean. Pobrezia, hezkuntza, etxebizitza eta pertsonen artean desberdinkeriak eragiten dituzten beste faktore erabakigarri batzuen ondorioz, handiagoa da intzidentzia.

Baina, zainketa-lana aztertzeko, ezin da mugatu pertsona baten ekintza aztertzeraz; zainketak ekosistema bat dira, eta oreka horri eusten diote zainketan esku hartzen duten alderdi guztien, zaintzaileen eta zainduaren arteko harremanek. Hainbat egilek interdependentzia-harremana agerian uztea eskatzen dute (Prieto, 2016; Martín-Palomo, 2016), zaintza-harremanetan «gutxienez mendekotasuna duen pertsona bat eta erabateko autonomiarik gabeko bi» baitaude (Prieto, 2016). Alde horretatik, zainketak ingurune oso bati eragiten dio, eta bi aldeek eguneroko esperientzia egituratzen du. Prietoren arabera (2016), zaintzaileari eta zaintza horien hartzaileari eragiten dien askatasun-galera da zaintza horren ondorioetako bat. Bi pertsonok mugak dituzte bizi-proiektu bat egiteko, eta horrek frustrazioa eta gogo-aldarte okerragoa dakar. Halaber, egile honek aztertzen du egoera hori nola egituratzen den esperientzia totalizatzaile partekatu gisa. Esperientzia horretan bi pertsonak jasan dezakete despertsonalizazioaren eragina eta zaintzaileak zein zainduak beren nortasuna galtzen dute, zaintza-harremanak ematen dien rola mesedetan. Ildo horretan, ezin da esku-hartze eraginkorrik egin, kontuan hartu gabe nolako eragina izango duten esku-hartze horiek ekuazioa osatzen duten pertsonengan (Prieto, 2016). Beraz, ildo horretan egiten den edozein esku-hartze diseinatzerakoan, zainketen berezko interdependentzia-harremana hartu beharko da kontuan.

4. Ekintzarako proposamenak eta aholkuak

Zaintzearen arrakasta zaintzailearen egoeraren menpe dago; hau da, zaintzaileek beren burua zaindu behar dute eta beren betebeharrak pertsonalei denbora eta arreta eskaini. (Senitarte zaintzaileentzako gidaliburua. Eusko Jaurlaritza, 2018).

Testuinguruaren egoera aztertu ondoren, hainbat proposamen partekatuko ditugu; zaintzaileen ongizatea sustatzen laguntzeko gomendioak dira, osasunaren esparrura mugatuta baina dimentsio horrek pertsonen bizitzan duen ikuspegi holistikoa kontuan hartuta. 1947. urtean, Osasunaren Mundu Erakundeak adierazi zuen osasuna «erabateko ongizate fisiko, mental eta sozialeko egoera» dela, «eta ez soilik gaixotasunik eza» (OME, 1947). Osasunaren kontzeptu hori asmo handikotzat jo bada ere, unibertsalki onartu da, hain zuzen ere, osasun indibidual eta zatikatuaren mugak gainditzen dituelako eta biztanleriaren ikuspegira hurbiltzen delako, beste batzuk zaintzen dituzten pertsonak osatutako talde zabalera, alegia.

Hurrengo orrialdeetan, ebidentzia zientifikoak zaintzaileen osasunerako garrantzitsutzat jotzen dituen alderdi garrantzitsu batzuk jorratuko ditugu. Hemen agertzen ez diren beste asko ikasgai, ikus-entzuzko edo liburuxka formatuko material didaktikoetan daude aztertuta eta ekintzarako proposamenak dituzte. Material horietako batzuk 1. eranskinean daude jasota. Orientazio-gida hauetan eta beste batzuetan topa daitezke: prestakuntza, zainketen antolaketa, etxean hobeto zaindu ahal izateko egin daitezkeen aldaketak, inguruko zeregina eta, batez ere, ondoezak, frustrazioak eta gehiegizko kargak saihesteko proposamen zehatzagoak.

Batez ere, administrazio publikoek eta irabazi-asmoko edo irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimenek eskaintzen dituzten baliabide erabilgarriak dagokienez, gaur egun EAEen indarrean daudenak jasotzen dira 2. eranskinean.

Intentsitate handiko zainketek sortzen dituzten ondorioen aurrean gure osasuna babes dezaketen alderdiak aztertu aurretik, garrantzitsua da berriz ere azpimarratzea zainketak pertsonari dakartzkien alderdi positiboen garrantzia. Alderdi hori berrikuspenean erakutsi dugu. Afektuzko harremana duen pertsona bat zaintzea aukera paregabea izan daiteke batzuetan zailak eta beste batzuetan emozio handikoak diren uneak ezagutzeko, adierazteko eta partekatzeko. Elkarrekikotasun-printzipioa aplikatzea, alderdirik hurbilena kontuan hartuta, ongizate-iturri bat da pertsonentzat. Hala ere, «eginkizuna bete izanaren» sentimenduak lasaitasun handia ematen digu zaintza-harremana amaitzen denean. Zaintzaile askok adierazten dute pertsona gisa «hazi» direla zainketari lotutako egoeren bidez, eta egoera horiek gertatu ez balira azaleratuko ez liratekeen alderdi pertsonalak identifikatzen laguntzen diela.

Zaintzaren balorazio positibo hori, gainera, izaki sozial gisa dugun existentziaren funtsa da eta bizitzaren iraunkortasuna bermatzen du; era berean, bateragarria da, nahitaez, beste zaintza eta laguntza profesional batzuk edukitzearekin, bai eta eremu komunitarioaren, adiskidetasunaren edo boluntariotzaren bidez eskuratu daitezkeen zaintza eta laguntzarekin ere. Besteak beste, batzuetan, familia-elkarrekikotasunaren eredu tradizionalak egoera gatazkatsua sortzen duelako, baldintza material urriak direnean gauzatu ezin diren igurikimenez bete, eta ez dira beti zuzenean adierazten. Horrek guztiak egoera horietan esku-hartzen dutenen isolamendua eta ezinegona eragiten du.

Zainketaren munduan badakigu inor ez dagoela soberan, eta beti behar dugula denbora gehiago eta esku gehiago elkarlanean aritzeko. Horrek balio dezala ideia, iruzkin eta baliabideei buruzko informazio multzoari heltzeko premisa gisa, ondo zaindu ahal izateko eta hobeto sentitzeko.

4.1 **Baimena ematen al diot neure buruari nire egoeran pentsatzeko?**

Bizi garen ingurune sozialaren indar kultural, moral eta erlijioso izugarriak eragotzi egiten digu, inplizituki, zaintzeko betebeharrari buruz erabakitzeko dugun gaitasunean pentsatzea. Bitxia bada ere, termino hori modu kategorikoan eta holistikoan erabiltzen da, eta oso egoera desberdinak biltzen ditu kontzeptu berean. Baina, lehen zatian adierazi dugun bezala, ez da gauza bera behin-behinekotasunari, hazkunderari eta bizi-proiektuari zuzenean lotuta doan haurren zaintza, edo mendekotasun larria duten adinekoena, bereziki ingurunearekiko deskonexioa dakarren demenzia baldin badute bizitzaren amaieran. Horietako edozeinen zainketaren duintasuna eta elkarrekikotasun-printzipioaren aintzatespena oinarritzat hartuz, bigarren egoera horrek izugarri zailtzen du zaintzailearen egoera: dedikazio-denboran, inplikazio emozionalean eta gogo-aldartean, ahalegin fisikoan, zaintzeko trebetasun eta gaitasunen eskuragarritasunean, etab.; betiere pentsatuta zaintzen dugun pertsonarekin izandako harremana ona izan dela eta gure bizitzetan eragin afektibo handia izan duela. Baina hori ez da beti horrela izaten. Familiarteko harremanen konplexutasunak ondorioak ditu, zalantzarik gabe, batez ere bere bizi-proiektua familiaren nahien aurka eraiki behar izan duten emakumeen belaunaldientzat, haien askatasuna arriskuan jartzen zuten etengabeko inposizioak jasan behar izan baitituzte. Horrenbestez:

- ◆ Eskubide bat izan beharko litzateke askatasunez pentsatzea zer-nolako zeregina bete nahiko nukeen mendekotasuna zaintzeko egoeraren aurrean.
- ◆ Gogoeta hori nire ingurukoekin partekatzea nire buruarekiko betebeharrak bat izango litzateke. Alaba edo bikotekidea naizen aldetik, hasiera batean zeregin horretan inplikaturik egongo liratekeen pertsona gehiago baleude, haiekin kezka, ideiak eta erabakiak partekatzea modu egokia litzateke urteetan egingo ditugun zainketak bideratzeko.
- ◆ Aukeran izanda zaindu nahi dudan edo ez, horrek gutxienez egoera honetan izango dudana rola argitzen laguntzen du. Eskubide bat izan beharko luke, baina eguneroko errealitatea askotan gailendu egiten da, horrek zaintzaileentzako eta zaintza jasotzen dutenentzat sortzen dituen ondorio gaiztoak kontuan hartu gabe. Egoera horietan, zainketak zeharkatzen duen interdependentzia-harremana indarrez agertzen da.

4.2. **Neuk bakarrik zainduko al dut? Eskubideak erabiltzea, laguntzak identifikatzea, laguntza eskatzea**

Gaur egun, mendekotasuna duen pertsona batek behar dituen zainketa-lanek denbora eta intentsitatearen aldetik duten konplexutasuna askoz handiagoa da pertsona bakar batek zeregin hori bere gain hartzeko daukan aukera eta gaitasuna baino.

4.2.1. Eskubideak erabiltzea

Gaur egun, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko Legea egoteak (abenduarien 14ko 39/2006 Legea) berrikuntza garrantzitsu bat dakar: gizarte-zerbitzuen esparruan, lehen aldiz, «herritartasun-eskubide subjektiboa» ezartzea, eskubide-kategoria emanez, eta ez graziazko edo karitatezko izaera duen laguntzarena. Horrela, beraz, zaintzaren zereginak etxeko edo familiako kontua izateari uzten dio, hau da, emakumeen kontua izateari. Mendekotasuna, azkenean, gizarteak ekitatez aurre egin behar dion erantzukizuna da, eta administrazio publiko guztiek esku hartu behar dute (Holgado, 2019). Lege honen aplikazioa oso eskasa izaten ari den arren, ez dezagun ahaztu hau: pertsonen *eskubidea* da. Emakume zaintzaileak ez lirakeke errudun sentitu behar «dena egin ezin dutelako». Botere publikoek erantzukizuna dute mendekotasuna duten pertsonen zainketan, alde batetik, ziurtatzeko pertsona horiek kalitatezko arreta nahikoa jasotzen dutela beren autonomia sustatzeko; eta, bestetik, bermatzeko arreta-lanaren zati handi baten ardura hartzen duten pertsonak erantzukizun hori betetzean ez dituztela galtzen bizi-kalitateko gutxieneko baldintza batzuk.

- ◆ Euskadin, zaintzaileentzako zerbitzuak eskaintzen dituzten gizarte-baliabideak eta baliabide sanitarioak daude (2. eranskinean daude jasota).

4.2.2. Zaintzaileen eskubideak

Nazioarteko, estatuko, lurraldeko eta tokiko eremuetan, jarrera ugari daude zaintzaileen eskubideei dagokienez. Eusko Jaurlaritzak (2008) dokumentu honetan adierazitakoak partekatu nahi ditugu, egokiak baitira oso: *Etxean zaintzen. Senitarteko zaintzaileentzako gidaliburua*:

- ◆ Geure buruari denbora eskaintzeko eta geure jarduerak egiteko eskubidea, horregatik errudun sentitu gabe.
- ◆ Gaixoa gaizki ikusten duzulako edo maite duzun pertsona bat galtzen ari zarela sentimendu negatiboak edukitzeko eskubidea.
- ◆ Ahal duguna geure kabuz konpontzeko eskubidea, eta ulertzen ez duguna galdetzeko eskubidea.
- ◆ Maite dugun jendearen eta gure buruaren beharri zehar egokitutako konponbideak bilatzeko eskubidea. Laguntza eta aholkua eskatzen dugunean, errespetuz trata gaitzate.
- ◆ Akatsak egiteko eskubidea eta horregatik barkatuak izateko eskubidea.
- ◆ Gure familiaren oinarritzko kide eta partaide baliotsutzat aitortuak izateko eskubidea, baita gure ikuspuntuak desberdinak direnean ere.
- ◆ Geure burua maitatzeko eta ahal dugun guztia egiten dugula onartzeko eskubidea.
- ◆ Ikasteko eta horretarako denbora izateko eskubidea.

- ◆ Sentimendu positiboak eta negatiboak onartzeko eta adierazteko eskubidea.
- ◆ Eskaera gehiegizko, desegoki eta irreali «ez» esateko eskubidea.
- ◆ Geure bizitzarekin jarraitzeko eskubidea.

4.2.3. *Informatzea eta laguntzak identifikatzea*

Europar hainbat azterlan konparatibo egin dira zaintzaileek duten baliabideen erabilerari buruz eta horrek laguntzei buruzko informazioa eskuratzeko aukerekin daukan loturari buruz. Aztertutako ia herrialde guztietan gabeziak ikusten dira informazioaren transmisioan eta erakunde arduradunen komunikazio-planetan (Willemse, Anthierens, Farfan-Portet, Schmitz, Macq, Bastiaens..., eta Remmen, 2016). Koordinazio faltaren eraginez, zaintzaileek batzuetan ez dituzte beren eskubideak ulertzen, eta erakundeak ez dira behar bezalako eraginkortasunez iristen behar dutenei beren eskubideen berri emateko xedera. Premiazkoa da ahaleginak bateratzea, konpondu gabeko betiko arazoa hobetzeko: gehien behar duten pertsonengana iristea informazioa; izan ere, beti baztertuta geratzen dira, ez dutelako informazioa ezagutzen.

Bestalde, zaintzaileen egoeren aniztasunak ikuspegi pertsonalizatua eskatzen du, laguntza-ekintzek benetan bien beharrei erantzun diezaieten. Ebidentziak erakusten du zaintzaileen eta profesionalen arteko kontaktu pertsonalak, ahal dela etxean eta kasuaren kudeatzaile profesionalak koordinatuta, ongizatea eta arreta pertsonalizatuaren pertzepzioa sortzen dituela, etxean bizitzen ari den egoerari egokitutako erantzuna emateaz gain. Beste pertsonaren lekuan jartzea (Prieto, 2016) da biderik onena zaintzen dituzten pertsonen laguntza eraginkorra bermatzeko.

4.2.4. *Senideei laguntza eskatzea*

Familiarteko zaintza-harremanetan esleitutako rolek historikoki emakumeak «seinalatzeaz» gain, arau inplizituak dituzte, eta azaletik baino ez dira berrikusi orain arte: emakumeek zaintzen dute; familian emakume ezkongabeak badaude, lehenengoak dira haiek; gizonak jarduera instrumentalekin eta etxebizitzaz kanpoko jarduerekin zerikusia duten arloetan laguntzen dute (bankuak, kudeaketak...). Eta, batez ere, oso presio handia dago alabengan. Presio hori haiek sakrifikatzeko eta beren esparruei uko egiteko daukaten ustezko naturaltasun ia genetikoan oinarritzen da, adineko senideen zaintza beren gain har dezaten.

Baina gizarteak eraldatu egiten dira, eta zainketa-lanetarako baldintzak ere bai. Eguneroko zereginak banatzeko eta familiako kide bakoitzaren rolak berrikusten joateko unea iritsi da, guztiok hobeto bizi ahal izateko. Bestalde, laguntza eskatzea zaintza onaren adierazle da, heldutasunarena. Inoiz ez da ahultasunaren seinale.

Beraz, zaintzailea bazara:

1. Aztertu ea zure inguruko zenbat pertsonak parte har dezaketen zainketa-lanetan.
2. Arrazoi argirik ez badago, ez baztertu zereginen banaketatik kanpo geratu ohi diren pertsona gazteenak. Zainketak jasotzen dituen pertsonarentzat lankidetzak duen garrantziaz gain, aukera bat da zaintzari, elkarrekikotasunari eta afektuari balioa emateko, bereziki zaindutako pertsona aitona-amona bada. Eguna luzea da, eta trebetasun berezirik eskatzen ez duen akonpainamendu beharra ia etengabea.
3. Elkarlanaren beharra eta horrek dakartzan zereginen banaketa aztertzeke modurik onena aukeratu. Banan-banan edo senideen arteko batzarrean izan daiteke. Nolanahi ere, saihestu gaitzespena eta haserrea. Eta aurretik identifikatu badituzu banatu behar dituzun uneak eta zereginak, askoz hobeto.
4. Ez ahaztu zaintzeak egoera aldakorrei aurre egitea esan nahi duela, eta egoera horiek batzuetan oso konplexuak direla; beraz, errealistagoa da «etengabe eraikitzen ari den» prozesu honetan parte hartzeke idea transmititzea, eta sorpresak saihesten ditu prozesu horretan aurrera egin ahala.
5. Beharrak argi adierazi ondoren, ideia ona da kontuan hartzea zainketa-lanak partekatuko dituzten pertsonen trebetasunak, lehentasunak eta mugak. Kontua da, ahal den neurrian, esku hartzen duten pertsona guztiak gustura egotea zeregin horretan.
6. Arreta jasotzen duen pertsonaren lehentasunak funtsezkoak dira. Batzuetan, harekin landu beharko dira zaintzailea aukeratzeko izaten diren mugak; normalean zaintzaile nagusia izaten da zainketaren ardatza. Egokitze-prozesu konplexua da, baina beharrezkoa. Beste behin ere, interdependentzia-harremanak oreka eta justizia bermatu behar ditu zereginak esleitzean.
7. Partekatu premia-uneak eta arreta- eta laguntza-uneak % 100ean ezin uztartzeak sortu ohi duen kezka. Batzuk errutina bihurtzen dira, higiena eta otorduak esaterako, baina beti sortzen dira ustekabeko egoerak, eta batzuetan ezin zaie erantzun premia sortzen den unean.
8. Hartu aintzat eta aitortu besteek egiten dituzten lanak. Badakizu begi kritikoz «aztertzeke» joera dugula beste batzuek egiten dutena gauzak bestela egiten dutenean. Ikasi ardura besteekin esku uzten, konfiantzan oinarrituta. Alde batera utzi besteek egiten dutena «kontrolatzeko» joera.
9. Erabili denbora librea zure burua zaintzeko eta ongi sentitzeko.

4.2.5. *Partekatu zainketak profesionalekin*

Gaur egun, familiarteko zainketaz gain, etxeko zaintza-eredu ohikoena gizarte-zerbitzuek eta, batez ere, etxeko enpleguaren eta zainketen sektoreak parte hartzen dutena da. Gipuzkoan, eredu hori pixka bat egituratuago dago, legean jasotako laguntzaile pertsonalen profil profesionala orokortu delako,

baina dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako baino ez da. Gipuzkoako esperientziak balorazioa oso positiboa du.

Ez da erraza zaintza partekatzea horretan lan egiten duen pertsona batekin, eta are gutxiago konfiantzan oinarrituta ardura besteren esku uztea. Baina posible ez ezik, ezinbestekoa ere bada kasu gehienetan. Komunikazio-ahalegina egin behar dugu zainketa bere gain hartzen duten pertsonak harreman ona izan dezaten, zereginak bana ditzaten eta, batez ere, zaintzen duten pertsonari mezu koherenteak helaraz diezazkioten. Berak behar ditu gehien koherentzia, egonkortasuna eta sendotasuna jasotzen dituen zainketetan.

Gizarte-zerbitzuetan kasuaren kudeatzailea/koordinatzailea badago, profil profesional horrek lagun egiteko, koordinatzeko eta orientatzeko eginkizuna har dezake, bai zaintza zehatzetan, bai kasuan parte hartzen duten pertsona guztien harremanean sor daitezkeen desadostasunetan.

4.3. Neure burua zaindu eta ondo sentitu

Zaintzeko zereginean ohikoa da alde batera uztea nekea eta eguneroko tentsioak arintzeko oinarrizkoak diren jarduerak eta, batez ere, ohiturak. Ondoen sentitzen diren zainzaileak bizi-ohitura osasungarriak dituztenak dira, beren osasun fisikoa, psikologikoa eta ingurunearekiko harremanak sustatzen dituztenak. Eta zainketa-lanak partekatzen dituztenak, noski.

4.3.1. Osasun fisikoa

Zainketa-jarduerarekin lotutako osasun-arazoak hainbat alarma-seinalarekin azaleratzen dira: nekea, energia falta, buruko mina, palpitzioak, lo egiteko arazoak, gorabeherak jateko gogoan, zorabioak... Horrelako bi egoera edo gehiago aldi berean agertzen badira, lehen mailako osasun-arretako gure medikuarengana joan beharko dugu, ahal den neurrian irtenbideak bilatzeko.

Horietako batzuetan esku hartzen saia gaitzke hasieratik.

- a) Elikadura. Ezarritako orduetan jateko ohitura alde batera uzteak edo janaria prestatu ordez «mokadutxo bat jateak» gehiegizko pisua eta nutrizio-gabeziak eragin diezazkizuke. Gozatu janaria prestatzeaz, gustuko baduzu, eta erabili jateko denbora deskonektatzeko eta erlaxatzeko. Zaindu zaitetz!
- b) Lo egitea. Aski ezaguna da atsedena funtsezkoa dela pertsonen osasunerako. Zaintzen duzun pertsonak gauez portaera-arazoak dituelako ezin baduzu lorik egin, esan medikuari. Egun, konponbide eraginkorrak daude horretarako.

Zuk lo egiteko arazoak badituzu, erraza da egoera horrek estresa eragitea. Hori ere esaiozu medikuari. Eta jarraitu beti lo osasungarriko ohiturak: ohea erabili lo egiteko; jaiki, ezin baduzu lorik egin; hartu

infusio lasaigarriren bat; ez egin afari oparorik; errespetatu loaren ordutegiak eta errutinak; eduki logela tenperatura egokian, eta abar.

- c) Ariketa fisikoa. Mendekotasuna duen pertsona bat zaintzen ari garenean, sasoi onean egoten eta lesioak saihesten saiatu behar dugu, bizkarrekoak bereziki.

Ariketa fisikoa, horretarako denbora larregi eduki ez arren, ezinbesteko ongizate-iturria da horrelako egoeretan. Lesioak prebenitzeaz gain, atsedean hartzeko lagungarria da, eta estresa kontrolatzen laguntzen du.

Badakizu ez dela beharrezkoa gimnasia joatea bizimodu osasuntsua izateko. Aire zabalean ibiltzea beti da ongizatearen eta nolabaiteko askapenaren iturri. Jarduera hori ariketa-taula erraz batekin osa badezakezu, hobeto sentituko zara eta zainketei energia gehiagoekin egingo diezu aurre.

4.3.2. Osasun mentala

Zaintzak osasun fisikoan dituen ondorio handiez gain, zaintzaileen alderdi emozional eta afektiboetan ere ondorio nabarmenak izaten ditu. Zainketa-prozesuan eraikitzen den interdependentzia-harremanak eragin saihetsezinak ditu protagonistengan, baina, beharbada, modu nabarmenagoan zaintzailearengan. Zaintzen dugun pertsonarekin lotura afektibo handia badugu, pertsona horri gehienetan sendatzen ez den narriadura-prozesu batean laguntzeak antsietatez betetako prozesu emozional bat sortuko digu, espezialisten arreta behar duten depresio-egoerak eragin ditzakeena.

Beharbada, lehenik eta behin, zaindu behar dugun pertsonaren *gaixotasuna* eta horrek bere jokabidean dituen ondorioak *ulertu* behar ditugu: gogo-aldartearen aldaketak, jokabide-arazoak (sarri gertatzen dira dementzia duten pertsonengan), jarrera zorrotzak eta beste batzuetan arduragabeak, bere kasakoak... Horretarako, medikuak edo erizainak lagundu eta azalpenak eman diezazkizuke. Baita gaixotasun jakin batzuk dituztenen elkartek ere: Alzheimerra, iktusa, parkinsona... Laguntza eta orientabidea emateko material didaktiko ugari dago, halaber.

Profesional sanitarioekin harreman ona izatea neurri beharrezkoa da: ezagutzen ez ditugun egoerak ulertzeko, baina baita esku har dezaketenei egoera horien berri emateko eta egoera horiek hobetzeko ere.

Asaldura emozionaleko prozesu hori bideratzea, ondoezak, antsietateak eta umore aldaketak identifikatzen jakitea ekintzarako bide ona da.

Gure egoera emozionalean gerta daitezkeen alarma-seinaleak ere badaude: umore aldaketak, tristura sentimenduak, suminkortasuna, oroimen eta kontzentrazio arazoak, erru sentimenduak, interes falta eta isolamendurako joera.

Horrelako bi seinale edo gehiago ikusten badituzu, hobe da medikuari galdetzea, lagunduko dizu-eta, ez izan zalantzarik. Nolanahi ere, bistakoa da seinale horiek ohartarazten digutela zerbait aldatu behar dela gure egoeran. Ezin dugu gehiago atzeratu gure eguneroko bizitza aldatzea, gure zaintza-jarduera

hobeto uztartzeko gure bizitza pertsonal eta sozialarekin, eta gure autonomia, askatasun eta duintasunaren babesarekin.

Adibidez:

- ◆ Zuretzat garrantzitsuak eta esanguratsuak diren gauzei uko ez egitea. Ez dezagun pentsa gauza handietan, une horretan agian mugatuta egongo baitira. Baina bai txikietan: kafe bat hartu etxean edo beheko kafetegian nik bakarrik, nire lagunik onenarekin egon edo hitz egin, paseo bat eman, ostiralean nire lagunekin atera.
- ◆ Maite ditudan pertsonekin komunikatu eta nire sentimenduak adierazi, baita negatiboak ere, penak, eta zergatik ez, egoera honek sortzen didan sumindura. Horrela errazagoa izango da amorrua saihestea, bidelagun txarra baita. Emozioak eta pentsamenduak partekatzeak lasaitasun handia sortuko du.
- ◆ Betebehar gisa ezarri behar dugu egunero zaintzatik deskonektatzea eta denbora bat ematea gure interes eta jarduera ludikoei. Gure mundua ez galtzea, babes handia eskain diezaguke eta.
- ◆ Erlaxazio teknikak praktikatzea ere lagungarria izaten da egoera kontrolatzeko eta umoretsu egotea ere beti izaten da beharrezkoa.
- ◆ Gure zainketa-lana mugak jartzen ikastea:
 - Batzuetan ez delako halako babesik behar, eta zaintzen dudan pertsonaren autonomia sustatu behar dudalako.
 - Beste norbaitek egin dezakeelako.

4.4. Ezetz esaten jakitea

Baina zainketaren denbora eta intentsitatea mugatzeko, baliabideak edukitzeaz gain, *ezetz esaten jakin behar da*, horregatik gaizki sentitu gabe. Ez da batere erraza, baina eskura dituzun gidak kontsulta ditzakezu, edo elkarteetan laguntza eskatu, eta, beharbada, gizarte-zerbitzuetan eta zerbitzu sanitarioetan. Modu egokian ezetz esaten jakitea, zaintza-harremanetarako jakin behar den zerbait izateaz gain, ezinbesteko gaitasuna da bizitzan, bereziki emakumeentzat.

4.5. Errudun sentitzea

Eta, zer egin dezakegu sarritan alboan izaten dugun erru-sentimendurekin? Badakigu erru-sentimendua maizegi agertzen dela gure bizitzan zehar, bereziki emakumeengan. Zainketa-prozesu batean gaudenean, esperientziak esaten digu batzuetan, zenbat eta inplikazio eta karga- eta neke-pertzepzio handiagoa izan, orduan eta erru sentimendu handiagoa izaten dugula: ezin dugulako dena egin, ahal

duguna baino gehiago geure gain hartu nahi dugulako, edo noizbait geure «onetik» atera garelako, eta zaintzen dugun pertsona nahi genukeen bezala tratatu ez dugulako. Halaber, zaintzak eragiten dituen familia-harremanak konplexuak direnez, noizean behin bertaratzen den norbait agertu ohi delako, eta ikuskatzaile papera hartzen duelako egiten dugunari eta egiten dugun moduari buruz. Jokabide hori ohikoa da une jakin batean zaintzaile-lana egiten duten neba-arreben eta senideen artean, baina ez dute ardua iraunkorrik hartzen zaintzan. Hau da, dena zorrotz aztertzen dute, eta frustrazioa eta amorrua eragiten diote zaintzaile nagusiari.

Beharrezkoa da analisirako eta autoebaluaziorako dugun gaitasunari eustea. Gu errudun sentitzeko arrazoi objektiborik baldin badago, barkamena eskatzeko unea da, bai gure aldetik jokabide desegokia jaso duenari bai geure buruari, aitortuta INOR EZ DELA PERFEKTUA, frustrazioaren, tristuraren edo autoexijentziaren aurrean amore eman gabe.

Saiatu gaitezen analisia ahalik eta objektibotasunik handienarekin egiten, eta azter dezagun ea erru-sentimendua benetan sentimendu objektiboa den, gehienetan ez baita hala. Askotan errudun sentitzen gara horretarako arrazoi nahikorik izan gabe. Eta, batez ere, gure gain ahal duguna baino gauza gehiago hartzen ari garela egiaztatzen dugunean, laguntza eskatzeko unea iritsi da, lehen ere esan dugun bezala. Eta ahaztu ditzagun «...egin izan banu» eta antzekoak. Begiratu diezaiogun etorkizunari, eta aprobeztatu ditzagun egoera horiek zaintzaren historian gure papera berrantolatzen.

5. Ondorio gisa

Lan honetan, zenbait ideia praktiko aurkezten saiatu gara, zainketari eta zainketa-lanak zaintzaileen osasunean duen eraginari buruzko ezagutza akademikoetan oinarrituta. Betiere zaintzak interdependentzia-harremantzat definitzen dituen esparrutik, kontuan hartuz zainketetan esku hartzen duten pertsonen bizitzan dakarren guztia. Berezi-bereziki emozioen arloan. Hori guztia lagungarri izango delakoan zaintzan parte hartzen duten sektore guztiek beren gain har dezaten zaintzaren arloan herritar guztiekin atseginagoa izango den gizarte bat eraikitzeko erantzukizuna. Kontuan hartuta, betiere, erabaki politikoek eraikitzen dutela honelako edo halako gizartea. Durán irakaslearen hitzetan:

Komunitateek zaintzaren zama modu ekitatiboan birbanatzea har dezakete helburutzat; edo, alderantziz, kontra egiteko gaitasun gutxiago duten talde sozial ahulengain jar dezakete lan hori zeharo, beste talde sozial batzuk zeregin horretaz arduratu ez daitezen.

Ez da erabaki teknikoa, politikoa baizik. Zainketaren beharra betetzeko modu bat edo bestea nagusitzea Espainiako gizartea eta haren autonomia-erkidegoak egituratzen dituzten eragile sozial eta ekonomiko bakoitzaren balioen eta antolatzen gaitasunaren mende dago (Durán, 2018).

Erreferentziak eta iturriak

- Abellán, A., Puga, D., Sancho, M. (2006). «Mayores y familia en la sociedad actual». Espainia Txostena 2006, 13. zk. Encuentro Fundazioa.
- Agulló Tomás, M. S. (2002). Mujeres, cuidados y bienestar social: el apoyo informal a la infancia y a la vejez. Emakumearen Institutua.
- Casado, B., & Sacco, P. (2012). Correlates of caregiver burden among family caregivers of older Korean Americans. *Journals of Gerontology Series B: Psychological Sciences and Social Sciences*, 67(3), 331-336.
- Comas, D. (2015). «Los cuidados de larga duración y el cuarto pilar del sistema de bienestar». *Antropología Social aldizkaria*, 24 bol., 2015, 375-404 orr. Complutense Unibertsitatea. Madrid.
- Del Barrio, E. eta Sancho, M.: (2016): Zainketa-lanetako igurikimen eta lehentasunei buruzko inkestaren emaitzak. La Caixa, Gizarte Ekintza.
- Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila (2019); Gizarte Beharren Inkesta 2018 Modulu orokorra Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Berezia Eusko Jaurlaritza.
- Durán, M. Á. (1999). Los costes invisibles de la enfermedad. Bilbo: BBV Fundazioa.
- Durán, M. Á. (2018). La riqueza invisible del cuidado (30. alea). Valentziako Unibertsitatea
- Holgado, M. H. (2019). Dependencia y derecho a los cuidados desde una perspectiva de género. *Lex Social: Revista de Derechos Sociales*, 9(1), 46-68.
- Gratao, A. C. M., Vendruscolo, T. R. P., Talmelli, L. F. D. S., Figueiredo, L. C., Santos, J. L. F., & Rodrigues, R. A. P. (2012). Sobrecarga e desconforto emocional em cuidadores de idosos. *Texto & Contexto-Enfermagem*, 21(2), 304-312.
- Larrañaga, I., Valderrama, M. J., Martín, U., Begiristain, J. M., Bacigalupe, A., & Arregi, B. (2009). Mujeres y hombres ante el cuidado informal: diferencias en los significados y las estrategias. *Osasun Publikoko Fakultate Nazionala*, 27(1).
- Martín, U. (2019): EAEko Osasun Inkesta. Datu nagusiak 2018 EAEOI18. Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz.
- Mosquera, I. (2017). El cuidado informal de mayores: impactos en la salud y calidad de vida de las personas cuidadoras (Doctoral dissertation, Euskal Herriko Unibertsitatea).
- Mosquera, I., Larrañaga, I., Del Río, M., Calderón C., Machón. M., eta García-Calvente, M. (2019). Desigualdades de género en los impactos del cuidado informal de mayores dependientes en Gipuzkoa: Estudio CUIDAR-SE. *Rev Esp Salud Pública*, 93(28), e13.

- Mosquera, I., Martín, U., Larrañaga, I. (2018): Zaintza informala Euskal Autonomia Erkidegoan Euskal Autonomia Erkidegoko Osasunari buruzko Inkestaren azterketa, 2013 Osasun Saila. Eusko Jaur-larritza.
- Palomo, M. T. M. (2009). El «care», un debate abierto: de las políticas de tiempos al «social care». Cuestiones de género: de la igualdad y la diferencia, (4), 325-355.
- Palomo, M. T. M. (2016). Cuidado, vulnerabilidad e interdependencias. Nuevos retos políticos. Centro de Estudios Políticos y Constitucionales.
- Pessoa de Oliveira, A. P., & Lima Caldana, R. H. (2012). Repercussions of care in the life of family caregivers of elderlies with Alzheimer's disease. Saúde E Sociedade, 21(3), 675-685.
- Pickard, L. (2015). A growing care gap? The supply of unpaid care for older people by their adult children in England to 2032. Ageing & Society, 35(1), 96-123.
- Prieto, D. (2016): Los cuidados en las relaciones de dependencia. Matia Institutu Gerontologikoa Donostia
- Saitua, A., & Sarasola, M. (1993). La insumisión. El cuidado como elección. Geu Emakumeok, 17, 27-29.
- Solís, C. V., Buján, R. M., & Paredes Chauca, M. (Argit.). (2018). Cuidado, comunidad y común: Eperiencias cooperativas en el sostenimiento de la vida. Traficante de sueños.
- Vlachantoni, A., Robards, J., Falkingham, J., & Evandrou, M. (2016). Trajectories of informal care and health. SSM-population health, 2, 495-501.
- Willemse, E., Anthierens, S., Farfan-Portet, M. I., Schmitz, O., Macq, J., Bastiaens, H., ... & Remmen, R. (2016). Do informal caregivers for elderly in the community use support measures? A qualitative study in five European countries. BMC health services research, 16(1), 270.
- Walker, A (1996). Actitudes europeas ante el envejecimiento y las personas mayores. *Reis*: 73. zenb., 17.-42. or.
- Zarit, S. H., & Edwards, A. B. (2008). Family caregiving: Research and clinical intervention.

1. ERANSKINA. Zaintzaileei laguntza eta orientabidea emateko gidak

Orientazio- eta aholku-tresna ugari daude formatu ezberdinetan: gidak, ikus-entzunezko materialak, liburuxkak, infografiak. Horietako batzuk bakarrik ekarri ditugu hona, nahiz eta hemen jaso gabeko beste batzuk ere kalitate eta balio handikoak izan.

- Barbier M., Moreno S. eta Sanz S. (2011). Guía de autocuidado y cuidado para personas cuidadoras familiares de personas mayores en situación de dependencia. Gizarte Zerbitzu Integratuak Bizkaia.
- Conselleria de Serveis Socials i Cooperació Direcció General de Dependència (2017). Guia para familiares que cuidan a personas con Dependencia. <http://www.caib.es/govern/rest/arxiu/2937102>
- Espainiako Gurutze Gorria (2014) La dimensión emocional de los cuidados Guía básica para la gestión de los pensamientos erróneos. www.SerCuidadora.org.
- EULEN-CEAFA (2019). Guía Alzheimer. Comunicación y Conducta. Familiares. <https://cuidadores.unir.net/images/pdf/Gua-Alzheimer-2019-de-comunicacin-y-conducta-para-familiares-EULEN-y-CEAFA.pdf>
- Reina Sofía Fundazioa (2011) Guía práctica para familiares de enfermos de Alzheimer. <https://www.fundacionreinasofia.es/Lists/Documentacion/Attachments/13/Guia%20practica%20familiares%20de%20enfermos%20de%20Alzheimerfinal.pdf>
- Salud y Comunidad Fundazioa (2019) Guía «Cuidar al que cuida» www.fsync.org/cuidarnet
- Kantabriako Gobernua (2008). Cuidar y cuidarte, es más fácil... SI SABES CÓMO. Guía para cuidadores no profesionales de personas en situación de dependencia.
- Eusko Jaurlaritz (2008). Etxean zaintzen. Senitarteko zaintzaileentzako gidaliburua. https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_ss/eu_publica/adjuntos/Guia%20E%20Cuidado%20familiar.pdf
- Eusko Jaurlaritz (2019). Zaintzaileentzako autozaintetarako eta oinarritzko zainketetarako gida Zaintzaileari laguntzeko telelaguntza-programa (ZLTP) Betion. https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/doc_sosa_betion_guiaautocuidad/eu_def/adjuntos/Guia_de_autocuidado_y_cuidados_basicos_BILINGUE.pdf
- López J, Crespo, M. (2008). Guía para Cuidadores de Personas Mayores en el hogar Cómo mantener su bienestar. IMSERSO.
- Rodríguez, P. R., Veiga, P. D., Rodríguez, T. M., & García-Mendoza, A. (2014). Cuidar, cuidarse y sentirse bien: guía para personas cuidadoras según el modelo de atención integral y centrada en la persona. Autonomia Pertsonalerako Pilares Fundazioa.
- Andaluziako Osasun Zerbitzua. Osasun eta Gizarte ongizate Kontseilaritza (2013) Guías de autoayuda. Aprender a relajarse. Andaluziako Junta. https://www.sspa.juntadeandalucia.es/servicioandaluzdesalud/sites/default/files/sinfiles/wsas-media-mediafile_sasdocumento/2019/23_guia_relajarse.pdf
- Espainiako Geriatria eta Gerontologia Sozietatea (2013) Manual de habilidades para cuidadores familiares de personas mayores dependientes.

2. ERANSKINA. Baliabideak

Jarraian, zahartzaroaren arloko araudiari, programa publikoei eta senitartekoen elkarte batzuei buruzko informazioa jaso da. Dena den, informazio hau oinarritzkoa da, badakigulako, jakin, askoz erakunde eta araudi baliagarri gehiago daudela.

Alzheimerra edo beste *dementziaren* bat duten pertsonen, haien senideen eta lagunen Arabako elkarte <http://www.afaraba.org/>

Gipuzkoako senitartekoen, lagunen eta alzheimerra edo beste *dementziaren* bat duten pertsonen elkarte <http://afagi.eus/es/>

Bizkaiko Alzheimer eta beste *dementzia* duten pertsona gaixoen senitartekoen elkarte <https://www.afa-bizkaia.com>

ASCUDEAN. Senide zaintzaileen eta mendekotasuna duten pertsonen elkarte. <http://www.ascudean.es/acerca-de-ascudean/>

Bizkaiko Foru Aldundiaren 192/2018 Foru Dekretua, abenduaren 26koa, zaintzaileen estatutua eta familia-giroan zaintzeko prestazio ekonomikoa arautzen dituena. <https://www.bizkaia.eus/home2/archivos/DPTO3/Temas/Pecef%20eus.pdf?hash=de9d38c471760233d2234971bd53e767&idioma=EU>

39/2006 Legea, abenduaren 14koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak artatzeari buruzkoa. <https://www.euskadi.eus/mendesatun-legea/web01-a2gizar/eu/>


Sendian programa Zaintzaileentzako laguntzak Gipuzkoako Foru Aldundia <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/gizartepolitika/zerbitzuak/programak-eta-zerbitzuak>

Arabako Foru Aldundiaren Zainduz programa. https://web.araba.eus/es/inicio/detalle-tramites/-/asset_publisher/VprrmVMlpj6w/content/beneficios-para-las-personas-cuidadoras

Zaintzaileak laguntzeko Programak Bizkaiko Foru Aldundia https://www.bizkaia.eus/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=11121&idioma=EU&dpto_biz=3&codpath_biz=3%7C7728%7C7734%7C11117%7C11121

Gizarte-zerbitzuak eta mendekotasuna Eusko Jaurlaritzan <https://www.euskadi.eus/gizarte-zerbitzuak-mendekotasuna-mendekotasun-arriskua/web01-a2gizar/eu/>





Etxeko zereginen eta
zaintza-lanen banaketa
EAEen:
luzetarako begirada (1993-2018)

MATXALEN LEGARRETA IZA



1. Hitzaurrea

Testu honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) etxeko zereginetara bideratzen den denbora aztertzea, horretarako luzetarako begirada oinarri hartuta. Hauxe da erantzun beharreko galdera nagusia: nolako bilakaera izan du EAEn etxeko zereginetako eta zaintza-lanetako inplikazioak generoaren arabera? Horrekin batera, lan horien bidezko banaketari dagozkion datuetan izan diren aurrerapenak eta mugak ere identifikatu nahi dira; izan ere, horrela, erantzukidetasun handiagoa lortzera bideratutako politika publikoak eta ekintzak diseinatzeko gomendioak eskaini ahal izango dira.

Helburua lortze aldera, Eustat-Euskal Estatistika Erakundeak Denbora Aurrekontuen Inkestaren birtartez jasotako datuak aztertuko dira, bosturtekotan banatuta, 1993. eta 2018. urteen artean¹. Arlo honetan, erakunde aitzindaria da Eustat nazioartean, ez baitago horrelako estatistikak egiten dituen organismo asko –duela 25 urtetatik eta halako aldizkakotasunaz–. Gogoan izan behar dugu Estatistika Institutu Nazionalak 2002-03 urtean egin zuela estatu mailan denboraren erabilerari buruzko lehenengo inkesta, eta 2009-10 urtean bigarrena. Edonola ere, gaur-gaurkoz oraindik ez da argitaratu hirugarren edizioa egiteko data. Gainera, Eurostatek (Europako Estatistika Bulegoa) zuzendutako harmonizazio metodologikorako prozesuaren parte da Eustat 2003. urteaz geroztik; hortaz, Europako beste herrialde batzuetako datuekin konparagarriak dira datu guztiak (Eustat, 2006a).

Azterketa osatzerako orduan, jarduera bakoitzera bideratutako batez besteko denbora soziala hartu da kontuan batez ere, nahiz eta, tarteka, parte-hartze tasei eta parte-hartzaileen batez besteko denborari ere erreparatu zaien. Hain zuzen ere, parte-hartze tasa esaten zaio jarduera bakoitzean aritu diren pertsonen portzentajeari, eta parte-hartzaileen batez besteko denbora gisa erregistratu da pertsona horietako bakoitzak jarduera jakin batean eman duen denbora. Batez besteko denbora soziala, aldiz, jarduera jakin bati biztanleria osoak ematen dion batez besteko denbora da, jarduera

¹ 16 urtetik gorako 5.000 pertsona ingururi egin zitzaion inkesta, 1993. eta 1998. urteen artean, eta 10 urtetik gorakoei 2003. eta 2018. urteen artean (Eustat, 2006a). Testuan jasotako datuak 16 urtetik gorako biztanleei dagozkie.

jakin hori egin zein ez. Neurri abstraktua da, eta ez du eguneroko bizitza deskribatzen maila indibidualean; baina denboraren erabileraren adierazle osagarri egokia da, jarduera eta biztanle talde ezberdinen artean konparatzeko aukera ematen duelako. Horregatik, neurri hori erabili da batez ere datuak aztertzeke orduan.

Testua lau ataletan bereizita dago. Lehenengoan eguneroko denboraren banaketa orokorra eta generoaren araberrako desberdintasunak aztertu dira. Bigarrena lan-karga orokorraren banaketan zentratzen da, bai maila sozialean bai emakumeen eta gizonen artean. Hirugarren ataletan, etxe-ko zereginetara eta zaintza-lanetara bideratutako denbora aztertu da sakon. Laugarren eta azken ataletan, Denbora Aurrekontuen Inkestari buruzko hainbat hausnarketa metodologiko jaso dira, eta emakumeen eta gizonen berdintasunera bidean aurrera egiteko politika publikoak eta ekintzak diseinatzeke aholkuak eskaini dira.

2. Egunaren egituraketa eta genero-desberdintasunak jarduera nagusietan

Etxeko zereginetara eta zaintza-lanetara bideratutako denbora bete-betean aztertzen hasi baino lehen, komeni da testuinguru zabalago baten barnean aztertzea, hala egunaren egituraketa nola lan-karga orokorra kontuan hartuta. Zentzu horretan, eguneko denboraren banaketari buruzko datuek agerian utzi dute aztertutako 25 urteetan mantendu egin dela denboraren banaketa orokorra, eta banaketa hori antzekoa dela mendebaldeko jendarte garaikide guztietan: egunaren erdia behar fisiologikoetara bideratuta dago, laurden bat lanera (lan ordaindura zein ez ordaindura), ia beste laurden bat aisialari eta gizarte-bizitzara, eta ordubete inguru mugikortasun eta joan-etorrietara (1. grafikoa).

Egituraketa hau ia erabat konstante eta unibertsala da mendebaldeko testuinguruan, batez ere, herriarren zati handi batek lanaldia ezartzen duelako eguneroko bizitza antolatzeke ardatz gisa. Adierazi behar da, hala ere, ez dela eguneroko esperientziarekin identifikatu daitekeen egun arrunt bat, ez dagoela pertsona jakin baten bizitzan oinarrituta. Fikzio estatistikoa baino ez da (Legarreta eta Sagastizabal, 2018): jarduera bakoitzera bideratutako batez besteko denbora, jarduera, asteko egun eta inkestatutako pertsona guztiak kontuan hartuta. Horrela, EAEko herritarren batez besteko egunerokoa islatzen ez badu ere, eguneroko jarduera bakoitzak denboran duen pisu erlatiboaren ikuspegi orokorra eskaintzen digu, eta, hala, baliagarria da, batez ere, maila sozialean ordaindutako lan-denboraren lehenetasuna erlatibizatzeke.

Aurretik aipatu denez, ikuspegi orokorrari erreparatuta, ez da transformazio handirik antzeman aztertutako mende laurdenean; baina bada aldaketaren bat. Dagokigun eremuari erreparatuta, joera kontrajarria antzeman daiteke etxe-ko zereginetara eta zaintza-lanetara bideratutako denboraren bilakaeran: lehendabizikoak behera egin du, eta bigarrenak, ordea, gora. Etxeko zereginetara bideratutako denbora 40 minutu murriztu da 1993tik 2018ra; 2 ordu eta 40 minutukoa izatetik 2 ordukora izatera. Beherakadarik nabarmenenak 1993tik 1998ra eta 2013tik 2018ra bitarteko tarteetan antzeman dira; eta 1998tik 2013ra, ordea, 2 ordu eta 24 minutu ingurukoa izan zen. Etxeko zereginetara

bideratutako denboraren beherakada orokorra azaltzeko hainbat arrazoi egon daitezke: zereginen zati bat kanpora ateratzea, ohiturak aldatzea (litzatezari uztea, jaki ez hain landuak prestatzea, ...), teknologia berriak erabiltzea (robot xurgagailuak edo sukaldeko robotak) edo garbitasun-maila txikitzea, besteak beste.


EAEko herritarrek etxeako zaintzera bideratutako denborak, ordea, gora egin du pixkanaka eta era iraunkorrean 1993. eta 2018. urteen artean; 19 minutukoa izatetik 34 minutukoa izatera pasa da². Al-daketa demografikoek azaldu lezakete, neurri batean, gorakada hori. Hogeitaz urtean, EAEn gizonen bi-zi-itxaropena sei urte luzatu da, eta emakumeena lau urte: 1990/91 urtean 72,1 urtekoa zen gizonen-gan eta 81,5 urtekoa emakumeengan, eta 2010/2011 urtean, berriz, 78,1 eta 85,4 urtekoa zen, hurrenez hurren (Eustat, 2020). Era berean, biztanleriaren egiturak, adin-tarteka sailkatuta, agerian utzi du 1991. urtean EAEko biztanleen % 25ek 19 urte baino gutxiago zutela eta % 12k 65 urte baino gutxiago (Eustat, 2017); 2002. urtetik aurrera, ordea, 65 urtetik gorako pertsonen portzentajea 19 urtetik beherakoe-na baino handiagoa da (Eustat, 2019a). Gainera, aztertutako urtaldian jaiotza-tasak ere gora egin zuten; 1993. urtean 1.000 biztanleko 7,5ekoa izatetik, 2008. urtean 9,9koa izateraino. 2018an, oster, 7,4ra jaitzi zen berriro (Eustat, 2019b). Horrek guztiak zaintza-lanen beharra areagotu du EAEko biztanleen artean. Horrekin batera aipatu behar da, beste egile batzuen arabera, amatasun-praktika intentsiboak direla eta aitatasun moduak erantzunkideagoak (Mittingly eta Sayer, 2006; Gonzalez eta Jurado-Guerrero, 2015; Sanchez-Mirea eta Muntanyo, 2020).

Jarraian ageri den grafikoan jasota daude denboraren eguneroko banaketari buruzko datu horiek:

² Zaintza-lanen denborak eguneko denboraren egituraketan duen presentzia txikia azaltzeko, neurri batean, jarduera horiek nola definitzen diren aztertu behar dugu. «Etxeko pertsonen zaintza» kontzeptuaren inguruan Denboraren Erabileraren Inke-tek jasotzen duten definizioa (ez soilik Eustatek egindakoa) murriztailea da, honakoak biltzen baititu: «haurren zaintza ma-terialak eta medikoak», «jolastea eta irakastea», «helduentzako zaintza materialak eta medikoak». Definizio horiek guztiek pertsonak beren etxeetan egiten dituzten zaintza-lanei egiten diete erreferentzia; pertsonak horiek, ordea, inkestatuaren ohiko bizilekutik kanpo egiten badira, «beste etxe batzuentzako laguntza informalak (lana hirugarren pertsonen zerbitzura)» esaten zaie, eta «gizarte-bizitza» kategoriari lotuta ageri dira (Eustat, 2006b).

1. GRAFIKOA.

Jarduera nagusietan emandako batez besteko denbora soziala. EAE, 1993-2018



Iturria: egileek egina, Eustat-en Denbora Aurrekontuen Inkesta oinarri hartuta.

Azaldu berri den egituraketa ez da berdina pertsona guztientzat; izan ere, generoan desberdintasun esanguratsu bat ageri da, eguneroko jarduera nagusietara bideratutako denboraren feminizazio-indizeetan bistakoa denez³ (2. grafikoa). Lehen begiratuan agerian geratzen da errealitatea: aztertutako urtaldi osoan, etxeko zereginetara eta zaintza-lanetara bideratutako denboran hautematen dira genero-desberdintasunik handienak. Gainera, horiek dira feminizazio diren jarduera bakarrak, emakumeen denbora neurri handiagoan bereganatzen dutenak.

Etxea/familia esparruko jardueretan daude desberdintasunik handienak. Hala eta guztiz ere, bilakaera ezberdina izan da jardueraren arabera: etxeko zereginei dagokienez, pixkanaka eta modu iraunkorrean murriztu dira desberdintasunak (azken bost urteetan izan ezik), eta zaintza-lanei dagokienez, berriz, desberdintasunak ez du hain joera argia izan, gorabeheratsua baizik. Etxeko zereginei eta zaintza-lanei lotutako genero-desberdintasunen bilakaera ezberdina izan denez, eremu biak elkarrekin nahiz bereiz aztertu behar dira.

³ Denboraren eguneroko erabilera islatzen diren desberdintasunak aztertzeko, feminizazio-indizeak erabiltzea proposatzen dute Sagastizabal eta Luxánék (2015). Izan ere, feminizazio-indizeek agerian uzten dute jarduera jakin bati zenbateko denbora-ratioa eskaintzen dioten emakumeek eta gizonek. Feminizazio-indizea 1 bada, emakumeek eta gizonek denbora-tarte bertsua eskaintzen diote jarduerari; 1 baino handiagoa bada, emakumeek gizonek baino denbora gehiago eskaintzen diote jarduerari; eta 1 baino txikiagoa bada, gizonek emakumeek baino denbora gehiago eskaintzen diote. Horrela, feminizazio-indizeek aukera ematen dute genero-desberdintasun handiena eta txikiena islatzen duten jarduerak identifikatzeko, jarduera jakin horri eskaintzen zaion denboraren arabera. Era berean, luzetarako begirada eginda, desberdintasun horien bilakaera aztertzeko aukera dago: zein jardueratan identifika daitezke emakumeen eta gizonek berdintasuna lortzeko aurrerapausorik handienak? Datuak argiak dira, eta galdera horri erraz erantzuten laguntzen dute.

Horrela, agerian geratzen da, alde batetik, 1993. urtean emakumeek gizonek baino lau aldiz denbora gehiago bideratzen zutela etxeko zereginetara (feminizazio-indizea: 4,1) eta 2018an bikoitza (feminizazio-indizea: 1,9). Garrantzitsua da adieraztea, hala ere, 2013. eta 2018. urteen artean ez dela batere aurrerapausorik eman berdintasunera bidean, feminizazio-indizeak 1,9an eusten baitio. Ebidentzia horren aurrean, egokia da honako galdera hau planteatzea: eman al du dagoeneko EAEko jendarteak bere onena berdintasun-arloan, etxeko zereginen banaketari dagokionez? Bestalde, zaintzari dagokionez, desberdintasunek apenas egin dute behera. Emakumeek gizonek baino 2,3 aldiz denbora gehiago bideratzen zuten zaintza-lanetara 1993 urtean, eta bikoitza zehazki 2018an. Bilakaera, gainera, ez da hain agerikoa izan, ezta hain lineala ere. Gorabehera horretan desberdintasun handieneko unea 2003. urtea izan zen (feminizazio-indizea: 2,4). Horregatik guztiagatik, genero-desberdintasunak jorratzeko orduan, garrantzitsua da arreta etxe/familia eremuan zentratzea, desberdintasunen gotorlekua izanik (Legarreta, 2008). Era berean, etxeko zereginak eta zaintza-lanak aztertzekeo garaian, ezinbestekoa da genero-ikuspegia txertatzea.


Alde batetik, lan ordaindua, aisia eta gizarte-bizitza, eta joan-etorriak jarduera maskulinizatuak dira; izan ere, gizonek emakumeek baino denbora gehiago ematen dute horietan (feminizazio-indizea: 1 baino txikiagoa). Aisiari, gizarte-bizitzari eta joan-etorriei dagokionez, desberdintasunek berdintsu eutsi diote aztertutako urtaldi osoan: gizonek emakumeek baino % 10-20 denbora gehiago bideratzen dute arlo horietara. Lan ordaindura bideratutako denborak, ordea, genero-berdintasunerako joera argi eta iraunkorri eutsi dio: gizonek emakumeek baino % 60 denbora gehiago bideratzen zuten lan ordaindura 1993. urtean, eta % 30 gehiago 2018. urtean (feminizazio-indizea: 0,4 eta 0,6, hurrenez hurren). Zentzu horretan, EAEko jendartean –baita Europa osoan ere–, bereziki nabarmena da *bizibidea ateratzen duen gizonaren bizi-ereduak erreproduzitzera bideratutako gizarte politiketan izan duen eragina* (Lewis, 2002); izan ere, emakumeek enpleguan parte hartzea sustatzen da, eta ez hainbeste etxean/familiartean banaketa orekatuagoa lortzea. Edonola ere, beste lan batzuetan ere agerian geratuenez, emakumeek lan-merkatuan parte-hartze handiagoa izateak ez du zertan esan etxeko/familiako zereginetara bideratutako banaketa handiagoa denik (Moreno-Colom, 2015).

Era berean, eredu berdinzaleak antzeman dira prestakuntzara bideratutako denborari dagokionez (feminizazio-indizeak: 1 edo handiagoak), baina ez da parekoa islatzen emakumeen eta gizonen lan ordainduaren-denborari buruzko datuetan. Beharrian fisiologikoetara bideratutako denboran islatu den berdintasunaren atzean ere, lanaren sexu-banaketak indarrean jarraitzen du EAEko jendartean. 2013. urtean, adibidez, loaldi laburregiak (6 ordu baino gutxiago) zituzten emakumeen eta gizonen portzentajea antzekoa bada ere, egoera horretan dauden gizonek biztanleria osoaren denboraren bikoitza bideratzen zuten lan ordaindura, eta ia % 80 denbora gehiago ematen zuten joan-etorrietan (ziur asko, lana dela medio). Egoera bertsuan zeuden emakumeek, ordea, biztanleria osoarekin alde-ratuta, 2,5 aldiz denbora gehiago bideratzen zuten zaintza-lanetara (bereziki umeen zaintza) eta % 77 gehiago etxeko zereginetara; eta, proportzio txikiagoan, lan ordaindura –% 39 gehiago– eta joan-etorrietara –% 24– (Martín eta Bacigalupe, 2015).

Feminizazio-indizeei buruzko datuak grafiko honetan jasota daude:

2. GRAFIKOA.

Jarduera nagusien feminizazio-indizea. EAE, 1993-2018.



Iturria: egileek egina, Eustat-en Denbora Aurrekontuen Inkesta oinarri hartuta.

3. Lan-karga osoaren banaketa

EAEko jendartean, lan ordainduak eta etxeko/familiako lanek antzeko proportzioa dute lan-karga osoan (3. grafikoa). Hortaz, baieztatu daitezke jendartearen behar diren ondasun eta zerbitzuak antzeko neurrian betetzen direla lan-merkatuaren eta etxeko/familiako lanaren bitartez⁴. Hala eta guztiz ere, datuek agerian uzten dute atzeraldi ekonomikoan neurri handiagoan betetzen direla ordaindu gabeko lanaren bitartez lan ordainduaren bitartez baino: 1993. eta 2013. urteetan etxeko zereginetara eta zaintza-lanetara bideratutako denborak lan-karga osoaren % 54 eta % 56 hartzen zuen, hurrenez hurren. Hala, beste egile batzuek ere adierazi izan dutenez, ezin uka daitezke etxeko jardunak izaera kontra-ziklikoa duela: goraldi ekonomikoan des-familiarizatu egiten da lana eta estualdietan, berriz, familiara itzultzen da lan-karga (Larrañaga eta Jubeto, 2009). Krisi garaietan familia da «azken babesa», biztanleriaren ongizateari eusteko ezinbesteko aringarri gisa jokatzeko duena (Perez Orozco, 2011).


⁴ Etxeko/familiako zereginen barnean biak biltzen dira: bai etxeko zereginak, bai etxeko zaintza-lanak. Denboraren erabilera-ekin lotuta erabiltzen denean, gainera, honakoak ere barnebiltzen ditu: etxeko zereginetara bideratutako denbora eta etxekoak zaintzera bideratutakoa.

Hala, etxeko produkzioaren diru-kalkuluak gorako bilakaera izan zuen 1993. eta 2013. urteen artean. Azken urte horretan 21.342 milioi eurokoa izan zen (Barne Produktu Gordinaren –BPGd– % 32). Hala, BPGd-an etxeko jarduna kontuan hartuko balitz, heren bat inguru haziko litzateke aztertutako urtaldian, 1993. urtean izan ezik, % 42 igoko bailitzateke⁵.

Karga osoaren banaketari buruzko datuak honako grafiko honetan jasota daude:

3. GRAFIKOA.

Lan-karga osoaren banaketa. EAE, 1993-2018.



Iturria: egileek egina, Eustat-en Denbora Aurrekontuen Inkesta oinarri hartuta.

Hala eta guztiz ere, sen onak eta izandako esperientziek argi erakusten dute enplegua duten biztanleek ez dutela denbora-tarte bera bideratzen lan ordaindura eta etxeko/familiako zereginetara. Lan-karga osoaren banaketa kalkulatzeko, batez besteko denbora soziala erabiltzen da: hau da, biztanleria osoak lan ordaindura zein ez ordaindura bideratzen duen denbora, asteko egun guztietan (asteburuak barne). Hala eta guztiz ere, jarduera bakoitzeko pertsonen portzentajeari (parte-hartze tasa) eta benetan jarduera hori burutzen duten pertsonen errepertorioak (batez besteko denbora biztanleko) aukera ematen du lan bakoitzaren ezaugarriak hobeto ulertzeko. Horrela, datuak azaltetik aztertuta ere agerian geratzen da hiru jardueren ezaugarri ezberdinak dituztela horietan parte hartzen duten pertsonen portzentajea, baita pertsonen jarduera bakoitzera bideratzen duten denboran ere (4. grafikoa).

⁵ Eustatek, Etxeko Lanari buruzko Kontu Satelitearen esparruan, egindako kalkuluetatik eskuratu dira datuak (2016). Testu hau idazten ari den unean oraindik ez daude 2018. urteari dagozkion kalkuluak eskuragarri.

Lehenengoz eta behin, lan ordainduak, batez besteko egun batean, EAEko 10 biztanletik 4 okupatzen du gehienez (2003. urtea); baina egunaren zati bat lan horretara bideratzen duten pertsonak (parte-hartzaileen batez besteko denbora), hala egiten dutenean, denbora-tarte garrantzitsua bideratzen dute: 7 ordu inguru. Kasu horretan, datuen bilakaerak agerian utzi du aldaketa handiagoa dagoela lan ordainduan parte hartzen duen pertsonen portzentajeari dagokionez hartara bideratutako denborari dagokionez baino. Alde batetik, parte-hartze tasari % 21eko alde dago balio maximoaren eta balio minimoaren artean. Bestetik, parte-hartzaileen batez besteko denborari dagokionez, % 6ko alde dago balio maximoaren eta minimoaren artean. Horrek pentsarazten digu lan-merkatuaren gorabeherak enplegua sortu eta suntsitzea eragiten dutela, eta ez lanaldiak aldatzea; hortaz, pentsa dezakegu krisialdian lanpostuak suntsitzea izan dela joera, ez hainbeste lana banatzea (ordu gutxiago lan egitea pertsona gehiago okupatzeko).


Bigarrenez, EAEko biztanle gehienek parte hartzen dute etxeko zereginetan: hiru laurdenek, gutxienez, baieztatu dute egunero bideratzen dutela denbora-tarteren bat horretara. Nolanahi ere, etxeko zereginetan aritzen diren pertsonak ez dute 3 ordu eta erdi baino gehiago inbertitzen. Gorabeherak izan arren, 1993. eta 2018. urteen artean, etxeko zereginetara bideratutako denboraren bilakaerak eremu honen «demokratizazioa» eragin du, neurri batean (García Sainz eta Legarreta, 2015). Oro har, parte-hartze tasaren gorakadarekin batera, parte-hartzaile bakoitzaren batez besteko denboraren beherakada ere hauteman da: hau da, gero eta pertsona gehiagok ekiten die egitekoei, eta, aldi berean, denbora gutxiago inbertitzen dute. Hala eta guztiz ere, 2008. eta 2018. urteen arteko bilakaera aztertuta, baieztatu dezakegu demokratizaziorako joerak porrot egin duela; izan ere, parte-hartze tasak behera egin du (8 puntu, ehunekoetan), eta parte-hartzaileko batez besteko denborak bere horretan eutsi dio. Horrek argi erakusten du, orokorrean, EAEko jendarte osoak etxeko zereginetara bideratutako denbora murriztu egin dela (1. grafikoa). Etxeko lanari lotutako parte-hartze tasaren beherakadak galdera bat planteatzen du ezinbestean: nork utzi dio eremu honetan inplikatzeari? Parte-hartzeari buruzko generoaren araberrako azterketak ematen du horren erantzuna (hurrengo epigrafean).

Hirugarrenez, biztanleriaren laurden batek baino gutxiagok bideratzen du bere denboraren zati bat zaintza-lanetara, baina horretan inplikatzeko diren pertsonak bideratutako denbora 2 ordu eta 25 minutukoa izan zen 2018. urtean; hau da, etxeko zereginetan diharduten parte-hartzaileen batez besteko denboraren antzekoa da. Kasu horretan, handitu egin dira bai inplikatzeko pertsonen portzentajea (1993. urtean % 20,2 izatetik 2018. urtean % 24,4 izatera), bai inplikatzeko diren pertsonak bideratutako denbora (1993. urtean ordu 1 eta 34 minutu izatetik, 2018. urtean 2 ordu eta 25 minutu izatera). Horrek agerian uzten du, oro har, EAEko jendartean zergatik areagotu den zaintza-lanetara bideratutako denbora (1. grafikoa). Hala eta guztiz ere, hazkundera handiagoa da parte-hartzaileen batez besteko denborari dagokionez (% 54ko gorakada) parte-hartze tasari dagokionez baino (% 21eko gorakada). Baieztatu daiteke, beraz, zaintza-lanak egiten dituzten pertsonak lan-karga handiagoa hartu zutela bere gain 2018. urtean 1993. urtean baino.

Aipatu berri diren datu guztiak grafiko honetan jasota daude:

4. GRAFIKOA.

Parte-hartzaileek lan ordainduan, etxeko zereginetan eta etxeko zaintzan emandako batez besteko denbora (orduak:minutuak) eta parte-hartze tasa (%). EAE, 1993-2018.



Iturria: egileek egina, Eustat-en Denbora Aurrekontuen Inkesta oinarri hartuta.

Lan-karga osoa kontuan hartuta, eta generoen arabera banaketa aztertuta, agerian geratzen da desberdintasunek bere horretan jarraitzen dutela: emakumeek gizonek baino karga handiagoa hartzen dute beren gain aztertutako urtaldi osoan (ordu bat eta erdi gehiago, gutxi gorabehera). Hala, baieza daiteke EAEko jendartearen beharrak asetzeko behar diren ondasun eta zerbitzuak emakumeek egindako lanetik datozela, eta ez hainbeste gizonek egindako lanetik. Hala eta guztiz ere, genero-arrakalak behera egin du nabarmen 2008. eta 2013. urteen artean, azken urtean izanik aztertutako urtaldi osoko txikiena. Oro har, gainera, emakumeen aldetik gorakada antzeman da lan ordaindura bideratutako denboran, etxean/familian inbertitutako denboraren murriztearekin batera. Gizonen artean, ordea, kontrakoa gertatu da, gora egin du etxeko zereginetan eta zaintza-lanetan emandako denborak, lan ordaindura bideratutako denbora murriztuta.


Kasu bietan, nabarmen antzeman da atzeraldi ekonomikoak eragina izan duela lan ordainduaren denboran. Beste egile batzuek adierazi dutenez, atzeraldiaren ondorioak gizonen artean antzeman izan dira lehendabizi (sektore maskulinizatuei eragiten baitie, eraikuntzari, adibidez) eta emakumeen artean gero (zerbitzu publikoetan egindako murrizketen ondorioz -sektore feminizatua-) (Larrañaga, et. al. 2011). Hala, gizonen lan ordaindura bideratutako denbora ia ordubete murriztu zen 2003. eta 2013. urteen artean (3 ordu eta 41 minutukoa izatetik 2 ordu eta 44 minutukoa izatera); eta emakumeen kasuan, ordea, 26 minutu murriztu zen 2008. eta 2013. urteen artean (2 ordu eta 16 minutukoa izatetik ordubete eta 50 minutukoa izatera). Oro har, denboraren erabilerari buruzko datuetan, krisialdiaren eragina handiagoa da -baina iraunkorragoa- gizonengan: bost urtean, lan ordaindura bideratutako denborak % 26 egin zuen behera gizonen artean eta % 19 emakumeen artean. Hala eta guztiz ere, bietako bat bera ere ez zen erabat berreskuratu 2018. urterako (krisialdia bukatutakoan), baina atzeraldi ekonomikoaren aurreko zifretatik urrunago geratzen dira gizonen zifrak emakumeenak baino.

Era berean, aztertutako 25 urteetan, emakumeek nabarmen eta era iraunkorrean murriztu dute etxeko/familiako zereginetara bideratutako denbora (2018an 1993an baino ordu 1 eta 23 minutu gutxiago), eta, gizonek, ordea, ordu erdian areagotu dute. Hortaz, genero-arrakalak behera egin du nabarmen: 1993. urtean 3 ordu eta 28 minutu, eta ordubete eta 36 minutu 2018. urtean. Hala ere, emakumeek bideratutako denboraren beherakada handiagoa izan da gizonen artean erregistratutako gorakada baino. Gainera, adierazi beharra dago 2013. eta 2018. urteen artean eten egin zela gizonek etxeko/familiako zereginetara bideratutako denboraren gorako joera, 2018an 2013an baino 14 minutu gutxiago bideratu zituzten eta (% 12 gutxiago).

Jarraian ageri den grafikoan lan-karga osoari dagozkion datuak jasota daude, hala gizonenak nola emakumeenak:

5. GRAFIKOA.

Lan-karga osoa, generoaren arabera (orduak:minutuak) EAE, 1993-2018.



Iturria: egileek egina, Eustat-en Denbora Aurrekontuen Inkesta oinarri hartuta.

Lan-karga osoa generoaren arabera nola banatzen den kontuan hartuta, pentsatzekoa da emakumeek lan horietan denbora gehiago ematen dutentez gero gizonek baino denbora libre gutxiago dutela. Eta, halaxe da. Datuek agerian uzten dute aztertutako mende laurdenean emakumeek denbora gehiago bideratu dutela lanera aisiara eta gizarte-bizitzara baino (norbere denbora), eta gizonek, ordea, lanerako baino denbora gehiago izan dutela eurentzat. Hala, emakumeek denbora gehiago bideratzen dute lanera aisia eta gizarte-bizitzara baino (% 29-% 14 bitartean), eta gizonek denbora gehiago aisia eta gizarte-bizitzara lanera baino (% 17-% 4 bitartean).


Hortaz, Denbora Aurrekontuen Inkesten bidez norbanakoen denboraren gaineko erabakitze-ahalmenari eta negoziazio-gaitasunari buruzko informaziorik ematen ez bada ere, ondoriozta dezakegu emakumeek gizonek baino *denbora-autonomia* txikiagoa dutela (Mückenberger, 2007); izan ere, Ās-en sailkapenari erreparatuta (1978), *denbora konprometitua*ren eta *kontratatuaren* bolumena handiagoa

da *denbora librearen* bolumena baino. Horrek eragin negatiboa dauka EAEko jendartearen *denbora-ongizatean* (Mückenberger, 2007), bai maila indibidualean bai kolektiboan. Maila indibidualean, emakumeek gizonek baino denbora-ongizate txikiagoa dute, denbora libre gutxiago dutelako eta, ondorioz, beren denboraren gainean erabakitze gaitasuna txikiagoa delako. Maila kolektiboan, lanerako denboraren eta denbora librearen banaketa desorekatuak eragin negatiboak ditu denbora-ongizatean; izan ere, denbora *guztiak* bidezko eran banatzea da denbora-ongizatearen funtsa.

Grafiko honetan jasota dago emakumeek eta gizonek lanera (lan-karga osoa) eta nork bere kontuetara (aisia eta gizarte-bizitza) bideratutako denboraren bilakaera

6. GRAFIKOA.

Lan-karga osoa eta nork bere kontuetara bideratutako batez besteko denbora, generoaren arabera (orduak:minutuak). EAE, 1993-2018.



Iturria: egileek egina, Eustat-en Denbora Aurrekontuen Inkesta oinarri hartuta.

4. Etxeko zereginetan eta etxe-koen zaintza-lanetan emandako denbora

Atal honetan, etxeko zereginetan eta zaintza-lanetan emandako denboraren azterketa xehea eskaintzen da, generoaren arabera azalduta. Horretarako, oro har, bereiz aztertu da zeregin horietara bideratutako denboraren bilakaera, aurreko epigrafeetan agerian geratu baitira lan bien arteko aldeak. Emakumeek eta gizonek, alde batetik, etxeko zereginetara eta, bestetik, zaintza-lanetara bideratzen duten denboraren bilakaerari erreparatzen badiogu, datuek agerian utzi dute genero-arrakalak nabarmen egin duela behera etxeko zereginei dagokienez, baina berdin eutsi diola eta, areago, gora egin duela zaintza-lanei dagokienez.


Etxeko zereginen kasuan, emakumeek gizonek baino 3 ordu eta 13 minutu gehiago bideratzen zuten 1993. urtean, eta ordubete eta 14 minutu gehiago 2018.ean: genero-arrakalak ia bi ordu egin du behera (% 62). Beherakada hori azaltzeko, kontuan hartu behar da adierazgarriagoa dela emakumeek jarduerari horietara bideratutako denboraren beherakada (ordubete eta 41 minutu gutxiago 1993. eta 2018. urteen artean) gizonek inbertitu duten denboraren gorakada baino (18 minutu gehiago 1993. eta 2018. urteen artean). Joera hori berdintsua da mendebaldeko beste testuinguru batzuetan ere (Gershuny eta Robinson, 1988; Sullivan, 2000; Bianchi, *et al.*, 2000). Gainera, gizonek etxeko zereginetara bideratutako denboraren gorako joera eten egin zen 2013. urtean, urte horretatik 2018ra nabarmen egin baitzuen behera (16 minutu). Horregatik guztiatik, beste muga bat identifikatu da berdintasunera bidean: gizonek etxeko lanetan duten inplikazioak lortu al du bere gorena?

Zaintzari dagokionez, emakumeek gizonek baino 15 minutu gehiago bideratu zituzten lan horietara 1993. urtean, eta 22 minutu gehiago 2018an. Oro har, genero-arrakala 7 minutu handitu da aztertutako urtaldian; hau da, 2018. urtean 1993an baino % 47 handiagoa da. Hala eta guztiz ere, bilakaera ez da lineala, gorabeherak ditu. Halaxe, 1993. eta 2018. urteen artean gora egin du zaintza-lanetara bideratutako denborak, bai emakumeen artean bai gizoneen artean: 18 eta 11 minutu gehiago, hurrenez hurren.

Jarraian ageri den grafikoan jasota daude aipatu berri diren datuak:

7. GRAFIKOA.

Etxeko zereginetan eta zaintza-lanetan emandako batez besteko denbora soziala (orduak:minutuak), generoaren arabera. EAE, 1993-2018



Iturria: egileek egina, Eustat-en Denbora Aurrekontuen Inkesta oinarri hartuta.

Etxeko zereginetan eta etxekoen zaintza-lanetan emandako denborari lotutako genero-arrakalen bilakae-rak azaltzeko, lan bakoitzaren sexuaren araberako banaketa aztertu behar da, jarduerari burutzen duten


pertsonen portzentajeari dagokionez (parte-hartze tasa) eta benetan jarduera horiek egiten dituzten pertsonen hartara bideratzen duten denborari dagokionez (parte-hartzaileen batez besteko denbora). Etxeko lanak emakumeei eragiten die era unibertsalean, hala islatu da aztertutako urtaldi osoan: 10etik 9k gutxienez jarduten dute lan horretan. Hau da, emakume izateak etxeko zereginetara denbora bideratzea dakar ezinbestean. Hala eta guztiz ere, emakumeek gero eta denbora gutxiago bideratzen dute etxeko zereginetara; 2018an 1993an baino ia ordubete eta erdi gutxiago (% 33ko beherakada). Gizonen artean, handitu egin da zeregin hauetan inplikatzeko direnen portzentajea, nahiz eta gorabeheratsua izan (12 puntu 1993 eta 2018 bitartean), eta handitu egin da, halaber, horiek egiten dituzten pertsonen inbertitutako denbora (10 minutu gehiago 1993an, 2018an baino). Hala eta guztiz ere, handiagoa da parte-hartze tasaren gorakada (% 21eko gorakada 1993 eta 2018. urteen artean) parte-hartzaile bakoitzeko batez besteko denbora baino (% 9ko gorakada 1993. eta 2018. urteen artean). Gainera, 2018. urtean, EAEko gizonen ia heren batek baieztatu zuen ez zuela egunean bost minutu ere bideratzen etxeko zereginetara.

Datuak agerian uzten dute bilakaera ezberdina dela etxeko pertsonen zaintza-lanei dagokienez: handitu egin dira bai emakumeen zein gizonen portzentajea, bai zeregin horietan aritzen diren pertsonen denbora. Hala eta guztiz ere, parte-hartze tasa baino gehiago areagotu da parte-hartzaile bakoitzeko batez besteko denbora. Alde batetik, emakumeek 2018an baino ia ordubete gehiago ematen zuten zaintza-lanetan 1993. urtean, eta gizonek 48 minutu gehiago (% 56ko eta % 64ko aldea, hurrenez hurren). Bestalde, emakumeen artean parte-hartze tasa 2 puntu hazi da 1993tik 2018ra, eta gizonen artean 5,5 puntu; horrek % 7ko eta % 36ko gorakada dakar, hurrenez hurren.

Etxeko zereginetara zein etxeko zaintza-lanei dagozkien datuak grafiko honetan jasota daude:

8. GRAFIKOA.

Parte-hartzaileek etxeko zereginetan eta etxeko zaintza-lanetan emandako batez besteko denbora (orduak: minutuak) eta parte-hartze tasa (%), generoaren arabera. EAE, 1993-2018.



Iturria: egileek egina, Eustat-en Denbora Aurrekontuen Inkesta oinarri hartuta.

Jarduera bakoitzaren asteko erritmoa aztertzeak informazio osagarria ematen digu etxeko zereginei eta zaintza-lanei lotutako genero-arrakalen bilakaera ulertzeko. Asteko erritmoak agerian uzten ditu zeregin bakoitzera bideratutako denboraren aldeak asteko egunaren arabera. Datuen arabera, ezberdintasun nabarmenak daude zeregin batzuen eta besteen artean, baita emakumeen eta gizonen jokabideetan eta horien bilakaeran ere.


Etxeko zereginetan erritmo markatua antzeman daiteke (Ramos, 2006), batez ere emakumeen artean, urteen poderioz homogeneizatzeko joera badu ere. 1993. urtean, emakumeek denbora gehiago bideratzen zuten astelehenetik ostegunera, eta arduraldi horrek behera egiten zuen asteak aurrera egin ahala, igandean denbora gutxien inbertitzen zutelako (4 ordu eta 33 minutu, eta 2 ordu eta 57 minutu, hurrenez hurren). Neurri batean, baieztatu daiteke emakumeek gero eta era orekatuagoan inbertitzen dutela denbora zeregin hauetan astean zehar eta igandeetan. Hala, 2018. urtean emakumeek asteko egunetan 1993an baino denbora gutxiago inbertitzen zuten arren, beherakada hori ez da hain nabarmena igandeetan. Gizonek, ordea, etxeko zereginetan denbora gehien ematen dute larunbatetan, egun horretan egiten baitituzte erosketak. Gainera, 1993. eta 2018. urteen artean, antzera egin du gora arduraldiak asteko egun guztietan.

Etxeko pertsonen zaintza-lanei dagokienez, asteko erritmoa oso bestelakoa da. Egunero ase beharrek beharizanak direnez, jarduera zurrunagoa da eta erritmo «egonkorra dauka aste-ziklo osoan» (Ramos, 2006: 25), gorabehera txikiekin. Hala eta guztiz ere, kasu honetan, aldeak hauteman dira emakumeen eta gizonen jokabideen artean. Aztertutako urtaldian, emakumeek denbora gehixeago bideratu izan dute zaintza-lanetara astean zehar larunbat eta igandeetan baino; baina, 1993an denbora-tarte handiena ostiraletan izaten bazen ere (36 minutu), inkestaren azken edizioetan islatu da joera irauli egin dela eta, hala, 2018an denbora-tarterik handiena astelehenetik ostegunera inbertitzen dela (50 minutu). Gizonek, beren aldetik, ez dute jokabide argirik etxekoen zaintza-lanen asteko erritmoari dagokionez, eta, 1993tik 2018ra, horretara bideratutako denborak antzeko neurrian egin du gora asteko egun guztietan: asteko egunaren arabera, 1993an 10-13 minutu bideratzen zituzten, eta 2018an 22-26 minutu.

Jarraian ageri den grafikoan jasota daude aipatu berri diren datuak.

9. GRAFIKOA.

Etxeko zereginetan eta etxekoen zaintza-lanetan emandako batez besteko denbora soziala, emakumeak eta gizonak bereizita, asteko egunaren arabera. EAE, 1993-2018.



***Oharra:** grafikoaren eskala gainerakoek ezberdina da, datuak argiago islatzen direla bermatzeko.

Iturria: egileek egina, Eustat-en Denbora Aurrekontuen Inkesta oinarri hartuta.

Era berean, denboraren erabilere iragarrituta, agerikoa da emakumeak eta gizonak etxeko/familiako jardueren ezberdinetan inplikatur direla. Aztertutako urtaldi osoan, emakumeek hartu izan dute beren gain etxeko zereginen «nukleo gogorra» (Sullivan, 2000; Bianchi, *et al.* 2000). Hau da, gizonak baino neurri handiagoan egiten dituzte etxeko ohiko zereginak (garbiketa, bazkaria eta erosketak), gogorragoak diren horiek, ez hain asebetegarriak, eta etxe barruan egin ohi direnak (gehienetan). Joera hori halakoxea da beste testuinguru batzuetan ere (Sullivan, 2000; Bianchi, *et al.* 2000; Moreno-Colom, *et al.*, 2018). Etxeko ohiko eta ezohiko zereginen feminizazio-indizeak alderatzen baditugu, Sagastizabal eta Luxánek (2015) proposatzen dutenez, antzeman daiteke desberdintasunak handiagoak direla lehendabizikoan bigarrenaren baino. Hala eta guztiz ere, nabarmentzekoa da kasu bietan behera egin duela. Gainera, beherakada nabarmenagoa da ohiko jardueretan ezohikoetan baino. 1993. urtean, emakumeek gizonak baino 7,5 aldiz denbora gehiago bideratzen zuten etxeko ohiko zereginetara eta, hogeita bost urte geroago, 2,6 aldiz gehiago. Feminizazio-indizeak, hortaz, % 65 egin du behera. Modu paraleloan, 1993. urtean emakumeek gizonen denboraren ia bikoitza bideratzen zuten ezohiko zereginetara (1,8 gehiago), eta 2018. urtean balantza ia orekatuta dago (emakumeek gizonak baino 1,1 gehiago). Beherakada, hortaz, % 39koa da.

Emaitza horiek ikusita, egokia da galdetzea zein den emakumeen eta gizonen inplikazioa egiteko bakoitzean, eta zein den inplikazio horren bilakaera. Sagastizabal eta Luxán⁶ sortutako *nolakotasun-indizea* baliagarri zaigu zentzu horretan. Datuek agerian uzten dute emakumeek nabarmen denbora gehiago bideratzen dutela etxeko ohiko zereginetara ezohikoetara baino: hirukoitza edo are gehiago. Gizonek, ordea, 1993. eta 2003. urteen artean denbora gehiago bideratzen zuten ezohiko zereginetara ohikoetara baino (% 10 eta % 20 bitartean). Joera irauli egin zen 2008. eta 2018. urteen artean: gizonak denbora gehiago bideratzen zuten ohiko zereginetara (1,3-1,4 gehiago). Etxeko ohiko zereginetan gizonak izandako inplikazioak, agian, maskulinitate hegemonikoaren eredia kolokan jartzea dakar berekin (Sagastizabal eta Luxán, 2015), etxeko zereginetan gizonaren presentzia izateak estatus maskulinoa galtzea baitakar berekin (Coltrane, 2000). Hala eta guztiz ere, joera hori eten egin da azken hamar urteetan: karakterizatze-indizea ez da aldatu. Baiezta daiteke, hortaz, gizonak etxeko zeregin gogor eta ohikoetan inplikatzea erronka dela oraindik berdintasunera bidean, azken hamar urteetan ez baitute aurrera egin.

Datuak feminizazio-indizeei zein nolakotasun-indizeei dagozkie, taula honetan ikus daitekeenez:

1. TAULA.

Etxeko ohiko eta ezohiko zereginen feminizazio-indizea eta nolakotasun-indizea, generoaren arabera. EAE, 1993-2018.

	Feminizazio-indizea		Nolakotasun-indizea	
	Ohikoa	Ezohikoa	Emakumeak	Gizonak
1993	7,5	1,8	3,3	0,8
1998	5,0	1,5	3,2	0,9
2003	5,3	1,4	3,0	0,8
2008	3,6	1,4	3,4	1,3
2013	2,6	1,1	3,3	1,4
2018	2,6	1,1	3,0	1,3

Iturria: egileek egina, Eustat-en Denbora Aurrekontuen Inkesta oinarri hartuta.

Emakumeak eta gizonak ez dira berdin engaiatzen etxeko pertsonen zaintza-lanei dagozkien egiteko ezberdinetan. Oro har, emakumeen portzentajea gizonena baino handiagoa da egiteko guztietan, eta, era berean, handiagoa da, halaber, egiteko horiek gauzatzen dituzten pertsonak bideratzen duten den-


⁶ *Nolakotasun-indizeak* (Sagastizabal eta Luxán, 2015) aukera ematen digu etxeko ohiko eta ezohiko zereginetara bideratutako denboraren arteko ratioa ezagutzeko, zeina honela kalkulatzen den: etxeko ohiko zereginetara bideratutako batez besteko denbora sozialen batuketa, zati etxeko ezohiko zereginetara bideratutako batez besteko denbora sozialen batuketa. Honela interpretatzen da: nolakotasun-indizea 1 bada, denbora-tarte bera bideratzen da ohiko eta ezohiko zereginetara; 1 baino handiagoa bada, denbora gehiago inbertitzen da ohiko zereginetan; eta 1 baino txikiagoa bada, ezohiko zereginetara bideratzen da denbora gehiago.

bora-tartea. Emakumeen eta gizonen portzentajerik handiena biltzen duen egitekoa umeen zaintza da, eta portzentajerik txikiena biltzen duena helduen zaintza. Gizonen artean, hala ere, azken horretan inbertitzen dute denbora gehien zaintza-lanetan aritzen direnek, eta haurren zaintzan denbora gutxien. 2018. urtean, berdindu egin zen helduak zaintzen dituzten gizonak hartara bideratutako denbora eta emakumeek bideratzen zutena, biak ala biak 2 ordu baino gehiagokoak. Emakumeen artean, parte-hartzaileen batez besteko denbora antzekoa da jolasean eta irakasketan zein helduen zaintzari dagokionez, haurrak zaintzeari dagokiona baino handiagoa. Kasu guztietan, 1993. eta 2018 urteen artean, parte-hartze tasak zein parte-hartzaileen batez besteko denborak behera egin zuen pixka bat (1,5 puntu), haurrak zaintzen dituzten emakumeen portzentajeak izan ezik. Beherakada horrek lotura izan dezake aurretik aipatutako jaiotza-tasekin. Horrekin guztiarekin, jarduera guztiak eta aztertutako urtaldi osoa kontuan hartuta, genero-desberdintasunak handiagoak dira egiteko bakoitzean aritzen den pertsonaren portzentajeari dagokionez, zereginak gauzatzen dituztenek bideratzen duten denborari dagokionez baino.

Grafiko honetan jasota daude aipatutako joerak:

10. GRAFIKOA.

Parte-hartzaileek etxeko zaintza-lanetan biltzen diren egitekoetara bideratutako batez besteko denbora (orduak:minutuak) eta parte-hartze tasa (%), generoaren arabera. EAE, 1993-2018.



Iturria: egileek egina, Eustat-en Denbora Aurrekontuen Inkesta oinarri hartuta.

Emakumeek eta gizonak, lan-merkatuarekiko harremanaren arabera, etxeko/familiako zereginetara bideratzen duten denborari buruzko datuak aztertuta, agerian geratzen dira genero-desberdintasunak, baina baita emakume batzuen eta besteen zein gizon batzuen eta besteen arteko desberdintasunak ere. Hala, etxeko zereginak eta etxeko zaintza-lanak batera aztertuta, oro har, emakumeek denbora

gehiago bideratzen dute horretara gizonak baino, lan-merkatuarekiko duten harremana edozein dela ere. Hala eta guztiz ere, agerikoa da gizonen artean arduraldia handitzeko joera dagoela, nahiz eta 2013. eta 2018. urteen artean bere horretan geratu dela dirudien (erretiratu/pentsiodunen artean izan ezik). Kasu horietan bietan, ikasle populazioa da salbuespena.

Era berean, datuek agerian uzten dute emakumeen jokabidearen bilakaera heterogeneoagoa dela gizonena baino: lanaldi osoko etxeakoandreen artean inplikazioa nabarmen eta era iraunkorrean murriztu da, emakume erretiratu/pentsiodunen inplikazioak behera egin du era gorabeheratsuan, emakume langabetuen inplikazioa handitu egin da (batez ere 1993. eta 2008. urteen artean), eta enplegua duten emakumeek zifrei eutsi egin diete. Enplegua duten emakumeen artean bere horretan jarraitzen du «presentzia bikoitzak» (Balbo, 1994) edo «presentzia hirukoitzak» (Sagastizabal, 2019); horrek iradoki dezake, berdintasun terminoetan, EAEko jendarteak «iraultza etena» bizi duela (Hochschild eta Machung, 2003 [1989]). Hau da, emakumeek lan-merkatuan gero eta parte gehiago hartzeak ez du esan nahi etxeko/familiako erantzukizuna beren gain hartzetik libratzen direnik, gizonen zifretan ez baita egiteko horietan antzeko inplikaziorik islatzen. Are gehiago, enplegurik ez duten gizonak eta erretiratu/pentsiodunek, lan-merkatutik kanpo egon arren, enplegua duten emakumeek baino denbora gutxiago bideratzen dute etxeko/familiako zereginetara.

Illo horri jarraituz, hainbat azterlanetan azaltzen denez, langabeziak ezberdin eragiten die emakumeei eta gizonari. Kasu batzuetan, emakumeek lan-merkatuan presentzia izateak jokabide erantzunkideak sustatzen ditu eta, hortaz, parte-hartze handiagoa eragiten du etxeko/familiako eremuan, horrela genero-rol tradizionalak kolokan jarrita (Abril, et. al., 2015). Beste batzuetan, ordea, genero-rol tradizionalak indartu egiten dira, etxean diru-sarreraren hornitzaile izateari uzteak gizonari eragiten dien desbideratzea konpentsatzeko (Greenstein, 2000). Hala eta guztiz ere, datuek islatzen dutenez, emakumeak «etxeakoandre bilakatzea» eragiten du (Ramos, 2006); izan ere, enplegurik ez duten emakumeek erretiratu/pentsiodunen eta lanaldi osoko etxeakoandreen antzeko denbora-tartea bideratzen dute etxeko zereginetara eta etxeakoen zaintza-lanetara, 5 ordu inguru. Halaxe, baieztatu dezakegu, emakumeen kasuan, ikasle izan gabe lan-merkatutik kanpo egoteak klase sozial berri bat osatzen duela: *zaintzaritza (cuidadoriado)* (Durán, 2018). Eguneko denboraren bostena bideratzen dute aitortzarik eta balio sozialik gabeko lanera, eta horrek, era berean, eskubide sozialik gabe uzten ditu. Are gehiago, lan-indarrari buruzko datuak ekoizten dituzten estatistika ofizialek, Biztanleria Aktiboaren Inkestak kasu, ez-aktibo gisa sailkatzen ditu oraindik ere (INE, 2017).


Aurretik adierazi denez, ikasleek gainerako biztanleen joera ezberdina dute bi arrazoirengatik: bate-tik, emakume ikasleek enplegua duten gizonak, enplegurik ez dutenek edo erretiratu/pentsiodunek baino denbora gutxiago bideratzen dute etxeko zereginetara, eta, hortaz, gizon ikasleak dira etxeko/familiako eremuan arduraldia areagotu ez duten gizon bakarrak. Horrekin guztiarekin, genero-desberdintasunek eutsi egin diote urtaldi osoan ikasleen artean, berdintasun formalean oinarritutako testuinguru batean gizarteratu diren arren. Era berean, datuek agerian uzten dute, oro har, 1993. eta 2018. urteen artean gero eta denbora gutxiago bideratzen dutela egiteko horietara. Joera hori mendebaldeko testuinguru guztietan antzekoa bada ere, begirada biztanle nerabeengan zentratuta, beste lan batzuek ohartarazten dute alde handia dagoela pertsona batzuen eta besteen inplikazioaren artean, eta generoak jarraitzen duela desberdintasun horiek baldintzatzen (Miler, 2012). Hala, maila sozialean, belaunaldi arteko ezberdintasuna nabari da etxeko zereginetan eta etxeakoen zaintza-lanetan: biztanle helduek eta adinekoek gazteek baino karga handiagoa hartzen dute beren gain. Horretatik ondoriozta

daiteke ikasle gehienak familiaren etxean bizi direla eta, gainera, beste egile batzuek adierazten dutenez, genero-desberdintasunak nabarmendu egiten direla emantzipatu egiten direnean ere, *seme-ala-bak eta bikotekide heterosexuala* motako familia eratuta (Callejo eta Prieto, 2015).

Jarraian ageri den grafikoan jas ota daude etxeko zereginetan eta etxeko zaintza-lanetan emandako denboraren bilakaerari buruzko datuak, generoaren arabera eta lan-merkatuarekiko duten harremanaren arabera.

11. GRAFIKOA.

Emakumeek eta gizonak etxe^oko zereginetan eta etxeko zaintza-lanetan emandako batez besteko denbora soziala, lan-merkatuarekiko duten harremanaren arabera. EAE, 1993-2018



5. Azken gogoetak eta hainbat gomendio

Gomendioei heldu aurretik, komeni da Denbora Aurrekontuen Inkestaren metodologiari buruzko ohar bat egitea, azaldu berri diren datuak hobeto ulertzeko, baita tresna honen potentziala eta mugak zeintzuk diren ezagutzeko ere. Aurreko hainbat lanetan adierazi denez (Legarreta, 2008; Ramos eta Legarreta, 2015, besteak beste), horrelako inkestak denbora-nozio kuantitatibo sekuentzial eta linealean oinarrituta eraikitzen dira, «erloju-denboran» oinarrituta (Adam, 1995, 1999). Hortaz, biztanleriak batez beste egun batean egiten dituen jardueri buruzko informazioa ematen dute, baita horien iraupena ere, ordu eta minututan neurtuta. Ez dute inolako informaziorik ematen pertsona bakoitzak jarduera horiei ematen dien esanahiari buruz, ezta denbora bakoitzari esleitzen zaion intentsitateari buruz ere.

Aldiberekotasunaren gaineko informazioa (hau da, jarduera bat baino gehiago aldi berean egitea) ere ez da zehaztasunez jasotzen Denbora Aurrekontuen Inkestaren bidez, bigarren mailako jardueri buruzko datuek agerian utzi dutenez (Legarreta eta Sagastizabal, 2020). Hala eta guztiz ere, beste egile batzuen arabera, aldiberekotasuna kontuan hartuz gero, lan ez ordaindura bideratutako urteko bolu-
mena ia hirukoitza da, aldiberekotasuna kontuan hartzen ez duten datuekin alderatzen badugu. Lan ordainduari dagokionez, ordea, emaitzak apenas aldatzen dira (Durán, 2006). Ildo horretan, denbora librearen kalkulua berraztertzeko proposamena luzatzen dute hainbatek, eta ohartarazten dute aisia-jarduerak eta zaintza-lanak aldi berean gauzatzen direnean (haurrekin zinemara joatea, adibidez) «kutsadura» antzeko bat sortzen dela (Bittman eta Wajcman, 2000). Gainera, galdetegietan (eguneroko formatua dute⁷) jarduera nagusiaren zein aldi berean egiten denaren inguruan galdetu da, baina, nola erabaki zein den jarduera nagusia eta zein bigarren mailakoa? Eta, aldi berean bi jarduera baino gehiago gauzatzen badira, zein utzi jaso gabe? Baliteke erabaki horiek *desiragarritasun sozialak* baldintzatuta egotea; hau da, galdetegia betetzen duen pertsonak aitortza-mailaren eta balio sozialaren arabera hierarkizatzen ditu jarduerak, nahiz eta balorazio subjektibo eta pertsonalarekin bat etorri ez.

Era berean, Denbora Aurrekontuen Inkestek jardueren *–egiten denaren–* iraupena neurtzen dute, baina ez plangintza eta antolakuntzak dakarren lan mentala, *familia-management* delakoa (Torns, 2008), ezta *arreta* ere, beste pertsona baten beharrezanezi adi egon behar izateak dakarren kezka. Horrek guztiak osatzen du etxeko/familiako lana. Beste lan batean adierazita dagoenez, «zenbatu daiteke zenbat kamiseta lisatu diren, zenbat ordu eta minutu behar izan diren guztiak lisatzeko, baina nola neurtu irribarre bat? Edo pixoihala zer nolako maitasunez (edo asperduraz) aldatzen den?» (Molinier eta Legarreta, 2016: 10). Nola neurtzen da jaki gozo bat prestatzeak behar duen esfortzua? Eta, erretzen bada, berdin baloratuko da? Kuantitatiboki ordu eta minutu kopuru bera behar bada ere, subjektiboki batera eta bestera bideratutako denborak ez dauka balio bera. Ez da berdina haur bat zaindu eta hazten ikustea, edo pertsona bat bizitzako azken egunetan laguntzea. Hortaz, galdera hau datorkigu gogora: nola baloratzen da egunean momentu libre bat edukitzea? Tresna kuantitatiboan bitartez, ez da posible etxeetan eguneroko denboraren banaketari lotuta gertatzen diren negoziazio-prozesuak neurtzea, ezta nork bere denboraren gainean erabakitzeko zer nolako gaitasuna duen neurtzea ere. Ezin da eza-gutu etxe barruko harremanak zer testuingurutan garatzen diren, botere-gehiegikeriarik dagoen, edo tratu txarrik edo indarkeriarik dagoen, besteak beste. Oso kontuan izan behar dira gai horiek guztiak Denbora Aurrekontuen Inkestaren potentziala ulertzeko; izan ere, Valerie Brysonnek ohartarazten duenez (2008), tresna hau oso baliagarria da feminismorako, baldin eta mugak kontuan hartzen badira.

Horrekin guztiarekin, zein da horrelako kalkuluen potentziala? Maila sozialean biztanleria jakin baten eskariei erantzuteko gauzatzen den etxeko/familiako lan bolumenari buruzko informazio estatistikoa eskaintzen dute Denbora Aurrekontuen Inkestek, baita lan-bolumen horren generoaren araberrako banaketa ere (beste ezaugarri soziodemografiko batzuk ere kontuan hartuta, adina edo lan-merkatuarekiko harremana, kasu). Frogatu egin da tresna erabilgarria dela etxeko/familiako lanaren banaketan

⁷ Eustat-ek, denboraren erabilerari buruzko inkestak egiten dituen organismo nagusi gisa, bi galdetegi baliatzen ditu informazioa eskuratzeko: familiaren galdetegia eta norbanakoaren galdetegia (egunerokoa). Familiaren galdetegiak etxe berean bizi diren pertsona guztien ezaugarri soziodemografikoak jasotzen ditu. Egunerokoa etxeko pertsona batek betetzen du, eta bertan jasotzen ditu eguneko 24 orduetan egiten dituen jarduerak, 5 minutuko denbora-tarteka. Galdetegi biak Eustaten webgunean eskuratu daitezke: https://eu.eustat.eus/estadisticas/tema_173/opt_0/tipo_8/temas.html Kontsulta: 2020ko apirilaren 12a.

barnebiltzen diren genero-desberdintasunak kuantifikatzeko eta berdintasunera bidean eman beharreko aurrerapausoak identifikatzeko, baina baita oztopoak eta atzerapenak identifikatzeko ere. Horrelako inkestak baliagarriak dira, halaber, jarduera bakoitzaren pisu erlatiboa neurtzeko, bai egunaren egituraketari dagokionez, bai lan ordainduari dagokionez, eta zalantzan jartzen dute, bizitzaren jasangarritasunerako beharrezkoak diren ondasun eta zerbitzuak ekoizteko, lan ordaindua bide gailena izatea. Horrela, agerian geratzen da etxeetan emakumeek nagusiki egiten duten lanaren bolumena, zeina ikusezin geratu den lan-indarra eta aberastasuna ikuspegi produktiboan oinarrituta soilik neurtu izan duten beste estatistika ofizial batzuetan, hala nola, Biztanleria Aktiboaren Inkestan edo Barne Produktu Gordinari buruzkoan. Gainera, inkestetan denbora-serieak barne hartzen badira, posible izango da analisi horietan guztietan luzetarako begirada txertatzea, denboran zehar izan diren balizko transformazioak aztertzeko. Modu paraleloan, Eurostat-en metodologiak harmonizatzeko prozesuak aukera ematen du hainbat herrialdetako emaitzak alderatzeko.

Zentzu horretan, EAEko eguneroko denboraren erabilerei buruzko datuek argi erakusten dute EAEko jendarteak aurrerapauso garrantzitsuak eman dituela emakumeen eta gizonen berdintasunera bidean, baina, aldi berean, hainbat erronka geratzen dira agerian. Hainbat eremutan, desberdintasunek bere horretan eutsi diote aztertutako hogeita bost urteetan; eta, beste batzuetan, geldialdia hauteman da, aurrerapausoak eten egin baitira azken bost urteetan.

Etxeko zereginetara eta enplegura bideratutako denboraren desberdintasunak nabarmen murriztu dira 1993. eta 2018. urteen artean. Hala eta guztiz ere, kasu bietan lehen hogeita bost urteetan erregistratu da beherakada, azken urtaldian feminizazio-indizeek bere horretan jarraitu baitute. Etxeko zereginetara dagokienez, emakumeen inplikazioa txikitzeak eragin du desberdintasunen murrizketa, ez hainbeste gizonen inplikazioa handitzeak. Gainera, emakumeek era unibertsalean parte hartzen dute etxeko zereginetan; hartara bideratutako denbora izan da murriztu egin dena. Gizonen artean, ordea, handitu egin dira bai parte-hartze portzentajea bai inplikatzeko direnek hartara bideratutako denbora, baina gorakada ez da argia ez iraunkorra izan, gorabeheratsua baizik. Gainera, 2018. urtean, gizonen ia heren batek baieztatu zuen etxeko zereginetan parte-hartzetik salbuetsita zegoela. Modu paraleloan, zeregin gogor eta ohikoenak emakumeen esku egoten jarraitzen dute batez ere, eta, gizonek gero eta denbora gehiago bideratzen badute ere, gorako joera etenda ageri da azken bost urteetan. Hori guztia kontuan hartuta, berdintasunera bidean aurrera egiteko hainbat erronka identifikatzen dira.

Etxekoen zaintza-lanei dagokienez, desberdintasunek bere horretan eutsi diote aztertutako mende erdian, emakumeek zein gizonak gero eta gehiago inplikatzeko baitira lan horietan. Hau da, pertsona gehiago inplikatzeko dira, eta inplikatzeko direnek denbora gehiago eskaintzen diote egitekoari. Alde batetik, zaintza-lanen eskariaren gorakadak ezinbesteko lotura dauka aldaketa demografikoekin (biztanleriaren zaharkitzea eta jaiotzaren gorakada). Eta, bestetik, zaintza mota guztietan (haurren zein helduen zaintza-lanetan) izandako inplikazioaren gorakada azaltzeko, garrantzitsua da aipatzea amatasun/aitatasun moduak aldatu egin direla, amatasuna intentsiboagoa eta aitasuna erantzunkidea goa bilakatuta.

Lan-merkatuan erregistratutako parte-hartzeak jarraitzen du etxe/familiara bideratutako denboraren joera markatzen. Hala eta guztiz ere, arlo horretako parte-hartzea gorabehera, emakumeek gizonen baino denbora gehiago bideratzen dute etxeko zereginetara eta etxekoen zaintza-lanetara, ikasleen artean izan ezik. Emakume ikasleek enplegua duten gizonen, enplegurik ez duten eta erretiratu/pentsiodunek baino denbora gutxiago bideratzen dute, baina gionezko ikasleek baino denbora ge-

hiago. Gainera, ikasleek gero eta denbora gutxiago bideratzen dute arlo honetara, eta horrek belaunaldien arteko banaketa desorekatua betikitzen du. Berdintasunera bidean aurrera egiteko beste erronka bat da hori. Nabarmentzekoa da enplegua duten emakumeek etxeko/familiako zereginetara bideratutako denbora antzekoa dela urtaldi osoan, eta langabezia dauden emakumeen arduraldiak gora egin duela. Azken horiek emakume erretiratu/pentsiodunen eta lanaldi osoko etxekoandreen antzeko denbora bideratzen dute etxeko zereginetara (bost ordu inguru).

Horrekin guztiarekin agerian geratzen da, oro har, emakumeek gizonek baino lan-karga handiagoa hartzen dutela beren gain, eta, hortaz, gizonek baino denbora libre gutxiago izaten dutela. Are gehiago, gizonek ez bezala, emakumeek denbora gehiago bideratzen dute lanera aisiara eta gizarte-bizitzara baino. Emakumeek beren buruarentzat denbora gehiago hartzea da berdintasunera bidean geratzen diren erronketako bat.

Horregatik guztiagatik, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko politika publikoak eta ekintzak diseinatzeko gomendioak bi norabidetan bideratzea komeni da: alde batetik, etxeko/familiako lanaren banaketari dagokionez; eta, bestetik, datu estatistikoek kudeaketa, ekoizpen eta zabaldundeari dagokionez. Bi adar horiek garatzeko, beharrezkoa da erreferentzia-esparrua aldatzea eta zabaltzea; hau da, ezinbestekoa da etxeko zereginen eta zaintza-lanen balioa handitzea, edo, bestela esanda, bizitzaren jasangarritasuna erdigunean jartzea (Carrasco, 2001, 2017; Pérez-Orozco, 2006, 2011).

Lehendabiziko jardute-ildoak etxeko zereginen eta zaintza-lanen banaketa berria ezartzera bideratuta dago, generoen eta belaunaldien arteko desberdintasunak murrizteko bide gisa. Horretarako, premiazkoa da arlo honetan gizonen inplikazio handiagoa sustatzea, batez ere zeregin gogor eta ohi-koenetan; izan ere, horrela bakarrik jarriko dira zalantzan maskulinitate hegemonikoaren ereduaren oinarri diren pribilegioak. Zentzu horretan, funtsezkoa da azken urteetan Emakunderen Gizonduz⁸ programaren bitartez egindako lana sustatzea.

Horrekin batera, zaintza-lanen eskariak gora egin duenez, ezinbestekoa da adineko pertsonen zein haurren beharrezkoak asetzea bideratutako zerbitzu publikoak garatzea. Biztanle guztien espazio eta denborak eta enplegua egokitu behar dira lehenbailehen, kontziliazioa ez baita emakumeen kontua. Era berean, enplegu gabeek etxeko/familiako eremuan duten inplikazioa aztertu eta kolokan jarri behar da; izan ere, langabeziak etxeko arduradun nagusi bilakatzea daramatza emakumeak eta, gizonen kasuan, berriz, ez dakar beti inplikazio handiagoa.

Ezinbestekoa da, halaber, belaunaldien artean etxeko/familiako lana gehiago eta hobeto banatzea. Horretarako, hainbat ekimen gara daitezke hezkuntza-arloan, besteak beste, bizitzaren jasangarritasuna bermatu ahal izateko etxeko eta zaintza lanak duen garrantziaren gainean kontzientziatzeko eta lanen banaketan diren genero-desberdintasunak ohartarazteko. Zentzu horretan, garrantzitsua

⁸ 2007. urteko azaroan jarri zen martxan Gizonduz ekimena. Webgunean jasota dagoenez, «sentsibilizatzearen, prestakuntzaren eta etxeko lanetan erantzunkidetasuna lortzearen eremuan neurri multzoa osatzen duen ekimena da Gizonduz», eta haren helburua da «gizonen emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez parte-hartze eta inplikazio handiagoa izatea, aipatutako helburua lortzeko efektu biderkatzailea izango duen nahikoa masa kritikoa sortzeko». Informazio gehiago eskuragarri hemen: <https://www.emakunde.euskadi.eus/gizoneus/-/informazioa/gizonduz-sarrera/>. Kontsulta: 2020ko apirilaren 14a.

da haur, lehen zein bigarren hezkuntzako ikastetxeetan hezkidetza programak lantzea eta gai horiek jorratzea.

Oro har, etxeko/familiako lana birbanatzeko jardute-ildoari dagokionez, nabarmentzekoa da, adibidez, Bartzelonako Udalak egindako lana, Denborari eta Zaintzaren Ekonomiari buruzko programen birtarte⁹. Bizitzaren jasagarritasuna erdigunean jartzen duen ikuspegi batean oinarrituta, hainbat ekimen barnebiltzen ditu programak, denbora kolektibo eta indibidualen egokitzapena bultzatzeko eta herritarren artean *denbora-ongizate* hobea sustatzeko. Garatutako ekintzak bost multzotan sailkatzen dira: 1) denbora auzoan: zaintza-ekimen komunitarioak, dibertsitate funtzionala duten pertsonen zaintzaileei bideratutako ekimenak, lan egin edo ikasten ez duten gazteei zuzendutako esku-hartzeak, denboren erabilerak hobetzeko ekintzak, haur eta nerabeentzako espazio hezigarriak; 2) denbora lanean: enpresetan kontziliazioa eta zaintza-lanen balioa handitzera bideratutako neurriak; 3) partekatze denbora: elkarrekikotasunean oinarrituta, denborak, ezagutzak, informazioa, ondasunak eta zerbitzuak trukatzeko baliabideak; 4) informazioa eta baliabideak: dirulaguntzei eta denboraren erabilerari lotutako ekimenei buruzko informazioa eskaintzen du (sareak, jardunaldiak, kongresuak...); 5) denboraren laborategia: ikerlanak, argitalpenak eta bestelako baliabideak (bideoteka, jardunbide egokien gidak...), Bartzelonako Udalak zein bestelako organismoek finantzatutakoak.

Bigarren jardute-ildoak datu estatistikoek kudeaketa, ekoizpen eta zabalkundeari egiten dio erreferentzia, eta aurretik ere aztertu da sarri (Legarreta eta Sagastizabal, 2020). Denbora Aurrekontuen Inkesten bidez ekoizten dira etxeko/familiako zereginak eta horiek dakartzaten genero-desberdintasunak buruzko datuak; hortaz, agerian geratzen da behar-beharrezkoa dela horrelako eragiketarako erregulari garatzea. Horrela soilik bermatu ahal izango da luzetarako azterketa, eta zehaztu ahal izango da jokabide batzuen eta besteen iraunkortasuna edo iraunkortasun eza. Zentzu horretan, txalogarria da Eustat-Euskal Estatistika Erakundeak inkesta bost urtean behin egiteko hartu duen konpromiso instituzionala. Era berean, azken urteotan erakundeak mundu akademikoarekin izan duen lankidetzak estuari esker, galdetegian aldaketak txertatu ahal izan dira. Horien bitartez, eta datuen seriea eta konparagarritasuna arriskuan jarri gabe, aurretik aztertu gabeko hainbat eremuri buruzko informazioa eskuratu ahal izan da (etxeko/familiako zereginak kanpora ateratzeko joera edo denboraren dimentsio subjektiboak, ongizate pertsonalarekin lotutakoak).

Hala eta guztiz ere, datuak era aberasgarriagoan ustiatze aldera, bigarren mailako jarduerari buruzko informazio-bilketari arreta handiagoa eskaintzea komeni da. Era paraleloan, adierazle berriak diseinatzen eta garatzen jarraitzea komeni da, baita aurretik dauden horiek erabiltzen jarraitzea ere; izan ere, horien guztien bitartez, informazio argia eta interpretatzeko erraza eskura daiteke, genero-desberdintasunen bilakaera aztertzeko baliagarria. Era berean, estatistiketan erabiltzen diren kategoriak berrikusi behar dira, etxeko/familiako lanak ezkutuan jarrai ez dezan, eta lan horiek era intentsiboan egiten dituzten pertsonen inguruko estereotipoak elikatu ez daitezten. Halaxe xedatzen du Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 3/2007 Legeak, martxoaren 22koak.

⁹ Bartzelonako Udalean sortu zen ekimena 2003. urte bukaeran, Denboraren Erabilera Sozial Berrien Zinegotzigoaren eskutik (NUST). Denboraren poderioz, eboluzionatu eta hainbat izen hartu ditu. Garatzen diren ekintzei buruzko informazioa eskuragarri dago webgunean: <https://ajuntament.barcelona.cat/tempsicures/es>. Kontsulta: 2020/4/14.

Etzeko/familiako zereginak banatzera eta datu estatistikoak ekoitzi, zabaldu eta kudeatzera bideratu-tako neurri eraginkorrek diseinatu eta martxan jartzeko, ezinbestekoa da lehentasun berriak ezarriko dituen esparru zabalago bat sortzea (maila ekonomikoan, politikoan zein sozialean), hala geure tokiko testuinguruan nola eskala globalean. Bizitzaren jasangarritasuna ez da emakumeen kontua, ez da etxeetan era pribatu eta indibidualean ebatzi beharreko kontua ere: arazo politikoa da, eta, hortaz, arazo kolektibo eta publikoa, eta horrela jorratu behar da.

Erreferentziak eta iturriak

- Abril, Paco et. al. (2015). «*Ideales igualitarios y planes tradicionales: análisis de parejas primerizas en España*». Revista Española de Investigaciones Sociológicas, 150: 3-22
- Adam, Barbara (1995). «*Timewatch: The social analysis of time*». Cambridge: Polity Press.
- _ (1999). «*Cuando el tiempo es dinero: racionalidades de tiempo conflictivas y desafíos a la teoría y la práctica del trabajo*». Sociología del Trabajo, 37, 5-39.
- Ås, Dagfinn (1978). «*Studies of time-use: Problems and prospects*». Acta Sociológica, 21(2): 125-141.
- Balbo, Laura (1994). «*La doble presencia*», Cristina Borderías, Cristina Carrasco eta Carme Alemany; «*Las mujeres y el trabajo: rupturas conceptuales*». Bartzelona: Icaria, 505-513.
- Bianchi, Suzanne M., et. al. (2000). «*Is anyone doing the housework? Trends in the gender division of household labor*». Social Forces, 79(1): 191-228.
- Bittman, Michael eta Wajcman, Judy (2000). «*The rush hour: The character of leisure time and gender equity*». Social Forces, 79(1), 165-189.
- Bryson, Valerie (2008). «*Time-use studies: a potentially feminist tool*». International Feminist Journal of Politics, 10(2): 135-153.
- Callejo, Javier eta Prieto, Carlos (2015). «*Distribución y organización de los tiempos de trabajo, cuidados y ocio con una perspectiva de género*», Carlos Prieto (ed.); «*Trabajo, cuidados, tiempo libre y relaciones de género en la sociedad española*». Madril: Biblioteca Ciencias Sociales. 53-86.
- Carrasco, Critsina (2001). «*La sostenibilidad de la vida humana: ¿un asunto de mujeres?*» Mientras Tanto, 82: 43-70.
- (2017). «*La economía feminista. Un recorrido a través del concepto de reproducción*». Ekonomiaz, 91, 1º semester: 52-77.
- Coltrane, Scott (2000). «*Research on household labor: Modeling and measuring the social embeddedness of routine family work*». Journal of Marriage and the Family, 62 (azaroa): 1208-1233.

Durán, María Angeles (zuz.) (2006) «*La cuenta satélite del trabajo no remunerado en la Comunidad de Madrid*». Madril: Madrilgo Erkidegoko Emakume eta Enplegu Saila.

_ (2018). «*La riqueza invisible del cuidado*». Valentzia: Valentziako Unibertsitatea.

Eustat (2006a). «*Metodologia eta Kalitatearen adierazleak*». DAI. Eskuragarri hemen: Kontsulta: 2020/4/11.

_ (2006b). Eguneroko bizitzako jarduera pertsonalen izena (DAI). Eskuragarri hemen: https://eu.eustat.eus/estadisticas/tema_173/opt_0/tipo_9/temas.html Kontsulta: 2020/4/11.

_ Eustat (2016). «*Euskal Autonomia Erkidegoan ordaindu gabeko etxeko lana BPGd-aren % 32,4 bestekoa izan zen 2013an*». Prentsa oharra. https://eu.eustat.eus/elementos/ele0013200/ti_Euskal_AEko_ordaindu_gabeko_etxeko_lana_BPG-aren_324_izango_zen_2013an/not0013261_e.html Kontsulta: 2020/4/11.

_ (2017). «*Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria, lurralde eremuaren, adin betearen talde handien eta sexuaren arabera*» (1981-2016). Eskuragarri hemen: https://eu.eustat.eus/bankupx/pxweb/eu/euskara/-/PX_2212_ep06.px. Kontsulta: 2020/4/11.

_ (2019). «*Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria, lurralde eremuaren, adin betearen talde handien eta sexuaren arabera*» (2001-2017). Eskuragarri hemen: https://eu.eustat.eus/bankupx/pxweb/eu/euskara/-/PX_2212_ep06b.px. Kontsulta: 2020/4/11.

_ (2019b). «*Bizirikjarioak eta jaiotza-tasa, 1.000 biztanleko, lurralde historikoaren arabera*». 1975-2018. https://eu.eustat.eus/elementos/ele0005700/ti_Nacidos_vivos_y_tasa_de_natalidad_por_1000_habitantes_por_territorio_historico_1975-2018/tbl0005708_e.html Kontsulta: 2020/4/11.

_ (2020). «*Bizi-itxaropena jaiotzean, Euskal Autonomia Erkidegoan, heriotza-kausaren, lurraldearen eta eskualdearen arabera, sexuari eta urteari jarraituz*». 1975-2018. Eskuragarri hemen: https://eu.eustat.eus/elementos/ele0000000/ti_Esperanza_de_vida_al_nacimiento_en_la_CA_de_Euskadi_por_causa_de_defuncion_territorio_historico_y_comarca_segunsexo_y_ano_1975-2018/tbl0000031_e.html. Kontsulta: 2020/4/11.

Gershuny, Jonathan eta Robinson John P. (1988). «*Historical Changes in the Household Division of Labor*». *Demography*, 25(4): 537-552.

González, María José eta Jurado, Teresa (ed.) (2015). «*Padres y madres corresponsables: Una utopía real*». Madril: La Catarata.

Mattingly, Marybeth J. eta Sayer, Liana C. (2006). «*Under pressure: Gender differences in the relationship between free time and feeling rushed*». *Journal of Marriage and Family*, 68(1): 205-221.

Martín, Unai eta Bacigalupe, Amaia (2015). «*El ámbito del sueño*», Matxalen Legarreta (Koord.); «*Dos décadas de cambios social en la Comunidad Autónoma de Euskadi a través del tiempo*». Denbora Aurrekontuen Inkesta, 1993-2013. Vitoria-Gasteiz: Eustat. 215-238.

Moreno-Colom, Sara (2015). «*The gendered division of housework time: Analysis of time use by type and daily frequency of household tasks*». *Time & Society*. 26 (1): 3-21.

- Moreno-Colom, Sara et. al. (2018). «*La masculinización del tiempo dedicado al trabajo doméstico rutinario*». Revista Española de Investigaciones Sociológicas, 163: 41-58
- Mückenberger, Ulrich (2007). «*Metrónomo de la vida cotidiana. Prácticas del tiempo de la ciudad en Europa*». Gijón: Trea.
- Hochschild, Arlie R. eta Machung, Anne (2003). «*The second shift: Working families and the revolution at home*». Londres: Penguin Books. [1989]
- EIN (2017). Biztanleria Aktiboaren Inkesta, Metodologia 2005. Inkestaren deskribapen orokorra. Madril: EIN. Eskuragarri hemen: <https://www.ine.es/inebaseDYN/epa30308/docs/resumetepa.pdf>. Kontsulta: 2020/4/13.
- Larrañaga, Mertxe eta Jubeto, Yolanda (2009). «*¿Calma tras la tormenta financiera? reflexiones desde la perspectiva de género*». Lan Harremanak, 20(21): 31-50.
- Larrañaga, Mertxe; Jubeto, Yolanda eta de la Cal, María Luz (2011). «*Tiempos de crisis, tiempos de des-ajustes, tiempos precarios, tiempos de mujeres*». Investigaciones Feministas, 2:95-111.
- Legarreta, Matxalen (2008). «*El tiempo donado en el ámbito doméstico. Reflexiones para el análisis del trabajo doméstico y los cuidados*». Cuadernos De Relaciones Laborales, 26(2): 45-69.
- Legarreta, Matxalen eta García Sainz, Cristina (2015). «*Las familias y el reparto del trabajo doméstico*», Matxalen Legarreta (Koord.); «*Dos décadas de cambios social en la Comunidad Autónoma de Euskadi a través del tiempo*». Denbora Aurrekontuen Inkesta, 1993-2013. Vitoria-Gasteiz: Eustat. 107-143.
- Legarreta, Matxalen eta Sagastizabal, Marina (2018). «*Haciendo visible el trabajo invisibilizado (que no invisible): Las encuestas de usos de tiempo*». Dossieres Economistas sin Fronteras, 29:25-29.
- Lewis, Jane (2002). «*Gender and welfare state change*». European Societies, 4(4): 331-357.
- Miller, Pavla (2012). «*Do Australian Teenagers Work? Why We Should Care*». Feminist Economics, 18:4, 1-24.
- Molinier, Pascale eta Legarreta, Matxalen (2016). «*Subjetividad y materialidad del cuidado: Ética, trabajo y proyecto político*». Papeles Del CEIC, 1, Aurkezpena, 1:14.
- Pérez Orozco, Amaia (2006). «*Perspectivas feministas en torno a la economía: el caso de los cuidados*». Madril: Kontseilu Ekonomiko eta Soziala.
- _ (2011). «*Crisis multidimensional y sostenibilidad de la vida*». Investigaciones Feministas, 1: 29-53.
- Ramos, Ramón (2006). «*La situación general del empleo del tiempo en la Comunidad Autónoma de Euskadi: Estructura, dinámica y comparación*». Denbora Aurrekontuen Inkesta. 2003. Monografi-koak. Vitoria-Gasteiz: Eustat. 18-49.

- Ramos, Ramón eta Legarreta, Matxalen (2015). «*Tiempo y estructura social*», Matxalen Legarreta (Koord.); «*Dos décadas de cambio social en la Comunidad Autónoma de Euskadi a través del uso del tiempo*». Denbora Aurrekontuen Inkesta, 1993-2013. Vitoria-Gasteiz: Eustat. 21-44.
- Sagastizabal, Marina (2019). «*La triple presencia. Estudio sobre el trabajo doméstico-familiar, el empleo y la participación sociopolítica*». Bilbao: EHU.
- Sagastizabal, Marina eta Luxán, Marta (2015). «*Género y uso del tiempo*», Matxalen Legarreta (Koord.), «*Dos décadas de cambio social en la Comunidad Autónoma de Euskadi a través del uso del tiempo*». Denbora Aurrekontuen Inkesta, 1993-2013. Vitoria-Gasteiz: Eustat. 385-423.
- Sanchez-Mira, Núria eta Muntayola, Dafne (2020). «*Attachment parenting among middle-class couples in Spain: gendered principles and labor divisions*». *Journal of Family Studies*. 1-18.
- Sullivan, Oriel (2000). «*The division of domestic labour: Twenty years of change?*» *Sociology*, 34(3): 437-456.
- Torns, Teresa (2008). «*El trabajo y el cuidado: cuestiones teórico-metodológicas desde la perspectiva de género*». *EMPIRIA. Revista de Metodología de Ciencias Sociales*, 15:53-73.





Zaintza, zaugarritasuna
eta interdependentziak.
Aro berri baterako erronkak

MARÍA TERESA MARTÍN PALOMO

Aurkibidea

1. Sarrera	117
2. Zaurgarritasun partekatuak	118
3. Behar diren zainketak	119
4. Tokian tokiko politikak: zaintzen duten hiri, udalerrri, erkidego eta inguru- neak	122
4.1. Hiri zaintzaileak, zaintzen duten udalerrriak	123
4.1.1. Madril, Zainketen Hiria	123
4.1.2. Berriozar, Zaintza Ardatz	124
4.2. Ingurune «zaurgarrietan» esku-hartzeko erkidego-programak	125
4.2.1. Hiri zaintzaileen diseinuak	125
4.2.2. Zaintzen duen erkidegoa zaintzea	127
4.2.3. Medikazio teknologikoen eta denbora partekatuen programak	128
4.3. Zaintzen duten komunitateak: politika ikusezinerantz	129
4.3.1. Eskailera baten istorioa	129
4.3.2. Komunitate zaintzaileak landa-ingurunean: El Panal eta el Colle- tero	130
4.1. Elkarlaneko etxebizitzaren esperientziak	131
5. Ondorioa	133
6. Erreferentziak eta iturriak	135



1. Sarrera*

Ikerketarako eremu zabala dugu zaintza, gaur egun; izan ere, garrantzi sozial handiko gaia bihurtu da, lan-merkatuan, etenik gabe, gero eta emakume gehiagok parte hartzen dutelako, ongizate-estatuaren atribuzioak murriztu egin direlako, globalizazioaren testuinguruan migrazioak areagotu direlako, biztanleria gero eta zaharragoa delako eta prozesu horiei lotutako arriskuak ugaltu egin direlako.

Politika publikoen helburu eztabaida ezin bilakatu delarik, zaintza lehen mailako erronka politikoa da gaur egun, Autonomiarako eta Mendetasunaren Arretarako Sistema laugarren zutabea baita gure ongizate estatuan. Hala ere, gure gizartean –bizi-itxaropen luzea dela-eta, beste arrazoi batzuen artean–, hainbeste dira zaintza-premiak, ezen ez baita nahikoa erakundeen erantzuna; aldiz, gizarte-eragile guztiek daukate inplikatu beharra –izatez, paper garrantzitsua jokatzen dute jada, beti aintzatesten eta balioesten ez bazaie ere–. Horregatik, zaintzaren horniduran gertatzen diren krisi egoeren aurrean –oso adierazgarria da covid-19 pandemiak eragindakoa, zeinak agerian utzi baitu beharrian horien premia larri bezain neurri gabea–, presazkoa da aztertzea nola inplikarazi eragile sozial eta politiko guztiak, bai eta proposamenak planteatzea ere, nola banatu eta partekatu erantzukizunak Estatuaren, merkatuaren, familien eta gizarte zibileko erakundeen artean, ikusteko zer forma hartuko duen etorkizuneari zaintzaren ereduak Euskadin.

Ildo horretan, nolabaiteko bira epistemologiko bat proposatzen dugu lan honetan, EAEko gizartean abian dauden zinketen tamaina eta aniztasuna ikusarazteko, ikuspegi jakin batetik: nork nor eta nola zaintzen duen, hau da, zaintzaren arloa zeharkatzen duten desberdintasun-ardatzak kontuan hartuta. Horrela, zaintza norabide bakarreko prozesu modura pentsatu ordez (mendekotasuna duen pertsona bat zaintzen duen norbait autonomoa), hainbat norabidetan trukitzen diren zinketen konplexutasunari eta aberastasunari buruzko informazioa sortzeko gonbita egiten da, ez beti autonomiatik mendekotasunerantz, baizik

* Eskerrak eman nahi dizkiot María Ángeles Durán-i monografiko honetan parte hartzera gonbidatzeagatik eta bere iradokizun egokiengatik; José María M. Terron-i, berriz, arretaz irakurri izanagatik eta testu honi egindako iruzkinengatik. Hala ere, emaitza nire erantzukizuna da

eta interdependentziako harremanak ezarriz eta mantenduz, eta hainbat eskalatako diseinu politikoetan. Horretarako, berezko giza zaugarritasun baten nozioa aintzat hartzeak dakartzan inplikazioak hartuko ditugu abiapuntu —pertsona guztion zainduak izateko beharra— ez daitezen soilik kontuan hartu mendekotasuna duten adinekoen, haurren edo dibertsitate funtzionala duten pertsonen zaintza, eta bai beste pertsona helduei, oro har, eta nork bere buruari eskaintzen dion zaintza ere, adineko pertsonak edo dibertsitate funtzionala dutenek beste batzuei —edo beren buruari— ematen diotena barne (Martín Palomo, 2010b).

Zaintza prozesu sozial oso konplexua da, eta zainketako praktika material zehatz eta jakin bat gauzatu baino askoz ere lehenago hasi eta askoz ere geroago amaitzen da; izan ere, esan daiteke zaintza gauzatu, gertatu egiten dela, zaintza bera eratzen duen harremanean. Beraz, harreman-jarduera bat da, eta dimentsio bat baino gehiagokoa, zaintzaren zeregin eraginkorra ez ezik —hau da, zaintzaren dimentsio *materiala*—, dimentsio *emozionala* (afektuak, emozioak, zaintzan inplikaturako sentimenduak), eta dimentsio *moral*a ere barnean hartzen dituena (norberaren gain hartzen den erantzukizuna, nor sentitzen den zaintzera deitua, eta nola egiten den). Alderdi horiek guztiak kontuan hartzean, oso zaila gertatzen da sortzen eta erreproduzitzen den desberdintasun-egitura behar bezala neurtzea, batez ere zainketen ohiko hornitzaileak direnen eta, oro har, zaintza ematekoa baino jasotzeko ohitura handiagoa dutenen artean, baina baita beste zaintza-truke askotan ere, pertsona horiek zainketen hartzaile izan baitaitezke, nahitaez «mendekoak» edo «gaitasun urrikoak» izan gabe, edota gaixorik egon gabe, eta alderantziz ere bai, mendekotasuna izanik edo gaitasun urrikoak izan arren, zaintza-lanak egitea.

Horrela bada, zaintzari buruz hitz egitea pertsonaren berezko zaugarritasuna eta berorren ezaugarri diren interdependentziak aipatzea da, alegia, elkar txirikordatutako mendekotasun-egoeren barietate ia mugagabea, bizitzako mota guztietako inguruabarretan. Zaugarritasuna eta mendekotasuna, giza izaerari atxikitako ezaugarriak diren neurrian (Paperman, 2005), inplikazio politikoak zamatutako mendekotasun-sare delikatu eta sotil batean adierazten dira, zaintzaren kasuan. Zaintzaren aberastasun ikusezin hori guztia kontuan hartuta pentsatu behar dira politika publikoak, María Ángeles Duránek (2018) adierazi duen bezala.

2. Zaugarritasun partekatutak

Beraz, hemen jorratuko dugun zaugarritasuna, gizatalde sozial jakin batzuen —talde zaugarriak deitzen zaien horiek— ezaugarritzat baino gehiago, hasteko behintzat, giza existentzien ezaugarri anbigualentzat landuko da, gorputz kapaz eta hauskorak, bizidunak eta hilkorak garen aldetik (Muñoz Terrón, 2012). Ondorioz, zaintzak zaugarritasunetik abiatuta pentsatu behar dira, eta ez alderantziz; izan ere, zaintza-politikak diseinatzeko orduan, eredu dikotomiko bat hartu ohi da oinarri: autonomoak, alde batetik, eta mendekoak, bestetik. Hala ere, bizitza «errealan» dikotomia hori lausoagoa da, eta bi kategorien arteko muga oso nolabaitekoa; izan ere, pertsona guztiok zeharkatzen ditugu, gure bizitzan, hainbat mendekotasun eta burujabetza maila, autonomia- eta zaugarritasun-fase. Gizakiaren bizitzan eta izaeraren independentzia- eta autonomia-faseak soilik hartzen badira aintzakotzat, gure esperientziaren parte handi bat baztertzen da, eta badago hori ezkutatzeko joera, adibidez, bizitza publikoa eta pribatua zurrunki bereizten direnean (Tronto, 1993). Horregatik, hainbat teoria feministak nabarmendu dute, behin

eta berriz, zalantzan jarri behar dela arlo publikoaren eta pribatuaren arteko bereizketa hori, ezkutuko unibertso hori guztia azalerratu ahal izateko, hain zuzen; izan ere, izozmendiaren erpina baino ez dugu ikusi, denbora-erabilerei buruzko inkestei (ikus, adibidez, María Ángeles Duránen lanak) eta zaintzari lotutako lanaren zati handi bat ikusarazi diguten beste estimazio ekonomikoko batzuei esker.

Giza existentzian zaintzaren ikusezintasun sistematiko horrekin estuki lotuta dago, bestalde, eremu pribatura mugatuta, ahanzten den beste alderdi bat: inor ezin dela besteak gabe izan, denok garelako elkarren mendekoak. Zaila da elkarren mendekotasun hori onartzea, ziur aski horrek norbanakoaren edo subjektu subirano eta burujabearen zenbait nozio zalantzan jartzea esan nahi duelako, Modernitateak marraztu duenaren kontrara (Molinier, Paperman & Laugier, 2009), denok beste pertsona batzuen mende gaudela onartzera igarotzeko, eta ez bakarrik gure premia oinarritzkoenetan, baizik eta, era batean edo bestean, gure izatearen eremu guztietan. Egia esan, Norbert Eliasek (1990) adierazi zuen bezala, gizaki oro, txikitatik, interdependentzien sare batean bizi da. Gure bizitzak eta proiektuak, hain zuzen ere, bizirik eusten digun eta geure eta beste hainbat pertsonaren zaintza-sare zabal batean oinarritzen dira, egunez egun. Zaintza eskatzea eta ematea, hortaz, pertsona guztiek egin dezaketen zerbait da, beren bizitzetako uneren batean. Zaintza –beste bat edo norbera–, zaindua izatea, gizakiaren izaera zaurgarri beraren aurpegiak dira, eta, beraz, «beste batzuen zaintza jasotzen dutenen» eta «beren burua eta beste batzuk zaintzen dituztenen» artean diferentzia zorrotzak ezartzeak nahasmen handiak dakartza (Martín Palomo & Muñoz Terrón, 2015); askoz zentzuzkoagoa da gure bizitzak ehotzen dituzten elkarren mendekotasun ugariak kontuan hartzea. Horregatik, beharrezkoa da berrikustea zaintza-harremanaren kontzepzio asimétriko hori, hau da, eredu lineal bat, non pertsona bat zaintzailea den eta besteak zaintza jasotzen duen, politika publikoetan eredu hori nagusi bada ere. Sinplifikazio hori hautsi egiten da, adibidez, dibertsitate funtzionala izanik, eguneroko bizitzako jardueretan laguntza behar badute ere, pertsona horiek egiten dituzten zaintza lanak kontuan hartzen direnean (Venturiello, Gómez Bueno & Martín Palomo, 2020). Hemen planteatutako berezko zaurgarritasunaren ideiak zalantzan jartzen du dikotomia hori, eta pertsona guztien erantzukizun sozialak birpentsatzeko gonbita egiten digu. Hala ere, ez dugu ahaztu behar talde sozial batzuetan ahulezia espezifikoko sakonagoak egon daitezkeela edo zaurgarritasun-prozesu larriagoak jasan ditzaketela, gero eta desberdinagoa den gizarte honetan. Covid-19ren pandemiak eragin dituen krisiak nola abian jarri diren ikusita, aurreikus daiteke, tamalez, arrakala hori handitu egingo dela. Puntu honetan, beharrezkoa da besteen zaintzan aritu ohi diren pertsonengan pentsatzea (Nakano Glenn, 2000), bai eta zaintza-lanak atxikita daraman zaurgarritasunean ere, ez da alferrik beheko gizarte-taldeek, pribilegiatuak ez direnek, egin ohi duten lana, zaintza-eskaeretik axolagabe sentitu ezin direnek egin ohi dutena, eta beste pertsona batzuen zaintza-beharrizanei erantzuteko interpelatuta sentitzen direnek gauzatu ohi dutena; beste batzuek, bien bitartean, beharrian horien aurrean soraio geratzeko aukera dute (Gilligan, Hochschild & Tronto, 2013).

3. Behar diren zainketak

Onarturik, bada, pertsona guztiok garelako zaurgarriak eta mundu guztiak duela zainketa premia, zenbait galdera sortzen dira: Baina nola ulertu «premia»? Eta nola premia edo beharrian horri eman beharreneko «erantzuna»? Hasteko, bai beharrianaren definizioa, lehenik, eta bai beharrian horiei erantzuna

emateko moduak erabakitzea ere, zeregin politikoak dira. Oso orokorra den arren, egokia eta nahikoa iruditzen zaigu zaintza ulertzeko modu hau: funtsezko giza jarduera bat «gure mundua mantendu, iraunarazi eta konpontzeko, bertan ahalik eta ongien bizitzeko modua izan dezagun. Mundu horretan sartzen dira gure gorputzak, nortasunak eta gure ingurunea, eta bizitzari eusten dion sare konplexu bategan mantentzen saiatzen gara» (Fischer & Tronto, 1990: 40); labur esanda, konplexutasun ikaragarriko gizarte- eta harreman-prozesu bat, jarraian argudiatzen den bezala.

Joan Trontoren (1993) proposamenari jarraikiz, zaintzan lau «fase» bereizten dira. Zaintzea da: (1) *kezkatzea*: beharizan bat artatzeak eta aitortzeak eskatzen du besteei laguntzeko prest egotea, hau da, beharizana agertu zain egotea, erantzuna emateko modua abian jarri ahal izateko edo zuzenean erantzuteko¹; (2) *arduratzea*: beharizana asetzeko bitartekoak bilatzea esan nahi du; identifikatutako beharizanari dagokionez erantzukizuna norberaren gain hartzea²; (3) *zaintza egitea*, hau da, zaintza-lan eraginkorra eta materiala gauzatzea. Zaintzaren xede den pertsonarekin zuzeneko harremana izatea dakar, eta horretarako gaitasun jakin batzuk izatea³; eta (4) *erantzutea*, pertsona onuradunak jasotako zainketari erantzuteko duen gaitasuna, bestela esanda, zaintza ona egiaztatzea, zainketa jaso duenaren partetik⁴. Hala ere, beste nonbait adierazi den bezala (García Selgas & Martín Palomo, 2021), zaintza ez da lineala, ez eta norabide bakarrekoa ere, baizik eta zirkularra, eta zirkulartasun hori da, hain zuzen, sortzen duen elkarren mendekotasun- eta botere-harremanaren oinarri. Hori guztia ikaragarri konplexua bihurtzen da politikarekiko erlazioan.

Nola jarduten duen hobeto jakiteko eta zaintzaren konplexutasuna argituz joateko, xehetasun handiagoz azter ditzakegu aipatutako zaintzaren hiru dimentsioak: materiala, emozionala eta moralala (Martín Palomo, 2008). Izatez, dimentsio banaezinak dira, baina bereizketa horrek bide ematen du zaintza historikoki ikusezin bihurtu dutela ohartzeko, eta «gizarte-arazo» gisa hamarraldi gutxi batzuetatik hona tratatzen dela ulertzeko. Oraindik oso gutxi garatutako ikuspegia da hau, nahiz eta guztiz osatua izan. Hedapen handiagoa izan du zaintza-lanaren dimentsio emozionalean zentratutako analisiak, Arlie R. Hochschilden (2008) planteamenduen eskutik. Hala ere, azpimarratu behar da hemen, hain zuzen ere, hiru dimentsio horiek elkar lotzearen ondorioz, zaila dela «lan emozionala» identifikatzea, dimentsio emozionala eta moralala, praktikan, oso nekez bereizten baitira, zaintza-

¹ Batzuetan, deskuiduak egon daitezke zaintzan, norbait adi ez egotearekin zerikusia dutenak, hurbileko arreta horren faltarekin, alegia, adibidez, pertsona bat bere etxean bakardadean hiltzen denean.

² Pasieran edo mandatu bat egiten dabilela, norbaitek pertsona bat ikusten badu, kalean bizi dena, zer janik gabe eta bakarrik, hartaz ahaztu eta bere bidea jarrai lezake, edo behartsuen aldeko Gurutze Gorriaren programa batera dei dezake, eta gero bere zereginekin jarraitu. Ezer gutxi da keinu hori, baina horri esker, zaintzaren zirkulazio horretara beste norbait gehitzea lortu da, ustekabean aurkitutako beharizan bati erantzungo dion prozesu bat abian jartzeaz arduratu baita. Horixe da, hain zuzen, komunitateekin eta auzoekin lan egiteko argudioetako bat, horrela, hemen lantzen ditugunak bezalako hiri zaintzaileak erakitzen lagundu baitaiteke.

³ Fase hau, eskuarki, «zaintza-lan» modura identifikatu, neurtu, balioetsi eta aitortu ohi da, etxekotze-proposamenetik zalantzan jar daitekeen lan-idea batetik abiatuta (Martín Palomo, 2008).

⁴ Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak zaindua izateko eskubide subjektiboa aitortzen badu ere, berorren kudeaketa instituzionalaz arduratzen diren administrazioen praktikan gehiago jotzen da erantzun estandarizatu bat ematera, eguneroko bizitzako oinarriko jarduerak egiteko zainketa- eta arreta-premia jakin batzuk dituztenen lehentasunak aintzat hartzera baino. Irtenbide pribatuen kasuan, nola eta zer nahiago den erabakitze gaitasuna gehiago hedatzen eta gauzatzen da, adibidez, elkarlaneko etxebizitza-eredu jakin batzuetan, edo merkatuan laguntza pribatua kontratatzen denean (Martín Palomo *et al.*, 2018).

ren materialtasuna bera bezala, harreman batean eta harreman baten bidez gertatzen den jarduera batez ari garela kontuan hartzen badugu.

Dimentsio *materiala*. Zaintzak badu ezaugarri paradoxiko bat: ia ikusezin bihurtzeko joera du. Izan ere, zaintza kalitatekoa izango bada, badirudi bereziki diskretua izan behar duela eta zerbaitek huts egiten duenean soilik geratzen dela agerian, norbait adi ez dagoenean, edo beharizan edo eskari jakin bat behar bezala ase gabe geratzen denean (Molinier, 2005), hau da, deskuidoa dagoenean. Pascale Molinierrek dioenarekin bat eginez, zainketek aitortpen-defizit kronikoa dutela esan dezakegu; horregatik, gaineratu daiteke dudarik gabe, benetako erronkak direla gizarte-politikak diseinatzeke eta ezartzeko orduan. Kontuan eduki behar da, nolana ere, zaintzaren materialtasuna duela gutxi bihurtu dela ikusgarri, edota neurgarri, gizarte-zientzietan estandarrak diren magnitudeetan, hala nola denbora edo dirua (Durán, 2018). Hala ere, zaintzan erabilitako denboraren neurketak baditu bere mugak zereginen aldiberekotasuna (Legarreta, 2008) zein beste alderdi batzuk aztertu ahal izateko, hala nola bestearekiko kezka, afektuak, erabilgarritasuna, aurrea hartzea, edo erantzukizuna. Jarduera bati eskainitako denbora, gainerakoan, iraupen soila baino zerbait konplexuagoa da, besteak beste, gizakiok gorputz-izakiak garelako (Ramos, 2006); horregatik, denbora modu desberdinetan kateatzen da gure gaitasunak eta funtzionalitateak nolakoak diren, eta aldatu egiten da gure esperientzien eta bizitako uneen arabera.

Dimentsio *emozionala*. Afektuei, emozioei eta sentimenduei dagokienez, berriz, Torregrosaren eskutik (1984) azpimarratu behar dugu horiek guztiak ere tresna kulturalak direla, testuinguruan existitzen direnak. «Lan emozionalaren» eta «kudeaketa emozionalaren» nozioak –adibidez, Hochschildek (1983) lan-tresna gisa deskribatutako irribarre hori– funtsezkoak dira zaintzaren barneko dimentsio emozional hori ulertzeko. Emozioak gorputzean sortzen, hautematen eta adierazten dira. Esate baterako, bai familia-sareko pertsonak eta bai zaintza-arloko profesionalek emandako zainketa-lanetan agertu ohi den nazkak ahalbidetzen digu emozioak zenbateraino sozialak izan daitezkeen ulertzea. Hala, nazkarekin lotutako genero-arauak nabarmen aldatu dira: adineko gizonetakoek –gaur aitona– ezin zizkieten pixoihalak aldatu beren hurrei ezin zutelako usaina jasan; gaurko aitek, ordea, arazorik gabe egiten dute; kasu honetan nazka ez da emozio «pertsonala», baizik eta «belaunaldiari» lotua (Martín Palomo, 2010a). Horrek egundoko garrantzia du zaintza-politikak bideratzeko orduan; izan ere, emozio horien eduki soziala landu behar baita, baldin eta gizonak gehiago inplikatu nahi badira zaintza-lanetan.

Dimentsio *moral*. Zaintzaren inguruko alderdi etiko eta moralek garapen handia izan dute genero-ikasketetan, batez ere, Carol Gilliganek (1985 [1982]) idatzitako obrak eragindako eztabaidatik abiatuta. Moralak ondo zer dagoen eta zer gaizki definitzen duten eraikuntzetara igortzen du: zuzena zer den, zer den egokia bizitza zuzen baterako, eta jokabide-printzipio oinarrikoak zein diren, zeinen bidez jarduten dugun edo dihardugula uste dugun. Baina gure gizarteko pertsona guztiak ez gara neurri berean interpelatuak sentitzen beste pertsona batzuk zaintzeko. Nork definitzen du ongi zaintzea zer den? Zeri irizten zaio zaintza on bat? Nori dagokio zaintza hori egitea? (Martín Palomo, 2016).

Beharrezkoa da praktikak aztertzea, baita praktika horiei buruzko negoziatioak eta haiei buruz esaten dena ere. Badira gure gizartean pertsona pribilegiatuak, zainketa asko –baina ia ikusezinak– jasotzen dituztenak; eta askotan pertsona horiek ez dute zaintza horien kontzientziarik, naturala hori dela uste baitute. Urrunago joan gabe, hurrekin gertatzen da, baina ez hurrekin bakarrik, heldu asko ere zainketak jasotzen ohituta daude, baina ez dira ohartzen eta ez dute balioesten. Horren adibide dira etxe askotako misterio edo enigma handi batzuk, hala nola arropa garbiarena, egun batean arropa

zikinaren saskian utzi eta, egun batzuetara, armairuan garbitua eta lisatua agertzen baita, edo guztia primeran doan etxe batekoa, harik eta bat-batean dena paralizatzen den arte, mantenu-lanez arduratzen zena gaixotu delako.

Dimentsio moralari dagokionez, aipatzekoa da, era berean, beste pertsona batzuk zaintzearen erantzule egiteak berarekin dakarrela zenbait arrisku geure gain hartzea, adibidez, erratu gaitzkeen arriskua. Hauskortasun handiko pertsonak gure kargu ditugunean, zama handia izan daiteke gauzak ondo ez egite hori jasatea: izan daiteke janari desegokia ematea, gaixorik dagoen norbaiten osasunerako arrisku larriak ekar ditzakeena, edota zainketan profilaxi ona ez edukitzea. Eta horrek oso kaltebera egiten du zaintzailea bera; izan ere, bere balizko akatsen edo zabarkerien ondorioak jasan baititzake. Akats edo zabarkeria horiek, zenbait kasutan, borondate ona izan arren, pertsona bakoitzaren beharrizan espezifikoerantzuteko behar adina ezagutza tekniko ez edukitzeagatik sor daitezke, dela beharrak hartaratu duelako, edota zeregin jakin batzuetarako behar diren gaitasunak edonork dituela uste izaten delako. Arrisku horiek, adibidez, ez dira arriskugarritasun-plus modura kontsideratzen, emandako zaintzak ordaindutako enplegu baten barruan sartzen direnean.

Laburbilduz, zertzelada hauen bidez adierazi nahi dugu beharrezkoa dela zaintzaren kontzeptio bat-harremanetan oinarritutako prozesu sozial konplexu gisa-integratzea zaintza-politiken diseinuetan, beren artean konektaturiko dimentsio materialak, emozionalak eta moralak barne direla.

4. Tokian tokiko politikak: zaintzen duten hiri, udalerri, erkidego eta inguruneak

Zaintzaren harreman-izaera konplexu eta dimentsio anitzekoak eskatzen du, beraz, politika publikoetako diseinuetan eta esku-hartzeek oso hurbil egon behar dutela pertsona batzuen eta besteen beharrizan gorpuztu, kokatu eta aldakorretatik. Zentzu horretan, garrantzitsua da zaintza-politikak hainbat konfigurazioaren ikuspegitik planteatzea, pertsona jakin batzuen espazio eta denbora zehatzei lotuta baitaude, eta dituzten beharrizanak eraldatuz joaten baitira haien eguneroko bizimoduan. Horren ondorioz, zaintza-politikak tokiko esparrutik pentsatzeko gonbidapena egin nahi dugu, zaintza-konfigurazioetatik hurbilago egon daitezkeen eta beharrizanak nola sortzen edo aldatzen diren adi egon ahal izateko. Hiru bidetara hurbiltzea proposatzen da hemen, gaur politika horiek sustatzeko xedez. Bata, goitik bultzatutako politikak; bestea, behetik asmatzen diren politikak; eta hirugarrena, goitik eta behetik sortutako ekimenen nahasketa bat izango litzatekeena. Zehatzago esanda, lehena, hiri eta udalerri zaintzaileen proposamena; bigarrena, erkidego zaintzaileen (eraikin, auzo) proposamenak; eta hirugarrena, elkarlaneko etxebizitza edo *cohousing* proposamena. Aipatutako proposamen horiek aztertzeko perspektiba modura, hiru eragile, abiarazle edo bultzatzaile posible hauek hartuko dira kontuan: Administrazio publikoak, gizarte- eta elkarte-ehuna, ekimen pribatuak edota horien guztien konbinazio bat.

4.1. Hiri zaintzaileak, zaintzen duten udalerriak

Hiria eraikuntza kultural eta politiko gisa, espazio sozial eta publiko modura, antzinatik ikusi izan da esparru pribatu edo etxeoari kontrajarrita. Horrela, bada, familiaren, arlo pribatu eta partikularreko toki eta espazioekin lotu izan da zaintza. Bereizketa horrek genero-zatiketa bat eraman du atxikita: hiri, arlo publikoa eta politikoa, *hiritar gizonezkoaren* espazioa da; etxea eta arlo pribatua, aldiz, emakumezkoena, hiritartasunetik *baztertuak* izan direnena (Murillo, 1996). Hiri zaintzaileez mintzatzeak, beraz, hori guztia nola berrantolatu pentsatzea esan nahi du. Ildo horretan, duela ia ehun urte, Robert E. Parkek (1925) funtsezko argibide bat eman zigun: hiri bat antolaketa moral bat da; jarrera, ohitura eta sentimenduen sare bat; eta bertan bizi direnen bizi-prozesuetan inplikaturik dago. Horregatik, leku pribilegiatua da bizitzaren zaintzak, mantentzeak eta ugalketak behar besteko zentraltasuna izango duten esku-hartze erduetan pentsatzeko. Erronka horretara bultzatzen dute, hain zuzen, hiri zaintzaileen eta zaintzen duten udalerrien proposamenek.

Ikuspegi hori onartzeak, egia esan benetako iraultza dakar. Hiriak eta udalerriak, biztanleen zainketa –hiritar guztiek gauzatuko dutena– antolatzearen ikuspegitik planifikatzea oraindik ia esploratu gabeko arloa da, baina,aldi berean, M. A. Duránek (2017) adierazi duen bezala, lan zaila izango da honako hauei aurre egin beharko dien neurrian: a) tokiko aurrekontuen mugak; b) erakunde batzuen eta besteen funtzioak erabaki eta mugatzeko zailtasunak; eta c) erakunde berrien eta lehendik daudenen arteko tentsioa, kudeaketa ekonomikoa eta administratiboa aurrera eramatean. Nolanahi ere, oraindik sortu berriak izan arren, proposamen eta proiektu horiek seriotasun osoz hartu dute zaintzaren oinarrizko garrantzia, guztiei dagokien arazo modura, eta, zalantzarik gabe, herritarren funtsezko gaitzat daukate, hasieran adierazi dugun bezala. Eta ahots berriz egiten dute.

4.1.1. Madril, Zainketen Hiria

Jada abian den mende honen hasieran, badugu «hiri zaintzaile» gisako esperientzia aitzindarien bat edo beste gure esparru hurbilenean, beste batzuei bultzada emateko erreferentzia izan daitekeena. 2004an, araudi bat sortu zen Bartzelonan, denborari buruzkoa, eta, bertan, zaintza udal-politiken erdigunean ipini beharra jaso zen. Hala ere, dezente itxaron behar izan da orduetik, zeren eta, orain dela gutxi arte, 2017an, ez baitu onartu Bartzelonako Udalak plan bat zaintza duintasunez jasotzeko eta eskaintzeko eskubidea bermatzen zuena. Madrilen, 2015ean, «Madril, zainketen hiria»⁵ kanpaina jarri zuen abian hiri horretako Udalak. Bi proposamenetako elementu batzuk ezagunak ziren lehendik (osasunaren sustapena, zaintzako gizarte-zerbitzuak, auzoetako banakako arreta), María Ángeles Duránek (2017) azaldu duen bezala. Beste batzuk, ordea, berritzaileagoak ziren, bereziki, Madrilgo kasuan: diagnostiko sozialak, hirian oinezkoiei leku handiagoa egitea eta bizikletaz mugitzea bultzatzea, gizarte-ekonomiako proiektu jasangarriak, kultura-ekitaldi irisgarriak, elikagai-bankuak, kontsumo-taldeak, zaintza kolektiboan jartzen zen enfasia. Azken batean, apustu argia egin zen kaleak, auzoak, eta hiriaren bilbe osoa pertsonen eta haien

⁵ Ikusi linean: http://madridsalud.es/que_es_mcc/

ingurunearen zainketarako berreskuratzearen alde, lelo honetan laburtzen zelarik: «axola dio guztionak». Kutsu berriko helburu politiko horien atzean, hainbat proposamenek utzitako lorratza igartzen da, hala nola Jane Jacobsena ([1961] 2011), zeinak 1960ko hamarraldia artean hasi berria zela, interakziorako eguneroko espazioak zituzten hiriak eraikitzea planteatu baitzuen, adibidez, lankidetzaren sareak indartzea ahalbidetzen zuten negozioz eta jardueraz betetako espaloiak; edota Daphne Spaine (2002) zaurgarritasun bereziko taldeen bizi-baldintzak hobetzera bideratutako egintzen alde egindako apustua. Beste hainbat emakume ere izan dira hirigintzaren eta genero-berdintasun/desberdintasunen arteko lotura birpentsatu dutenak (ikus, Rico eta Segovia, 2017: 45-46). Ekimen mota horrek beren ezaugarria izan den ikusezintasunetik «agerira» ateratzen du zaintza, gai publikoen agendan sartzen du, hiri- eta gizarte-espazioetan mugitzen diren pertsona guztiei eragiten dien neurrian.

Aurreko proposamenetan ez bezala, «Madril, Zaintzen Hiria» kanpainan zaintza-zerbitzuak ez dira bereziki bideratu bazterketa-arriskuan dauden populazioetara; aitzitik, pertsona guztiei zuzenduta daude, eta hori bat dator goian planteatutako kontzeptioarekin: gizakiaren zaurgarritasun erkidearekin eta partekatutako interdependentziekin, eta, beraz, argi eta garbi erakusten du zaintzaren planteamendu unitibertsal bat egiten dela. Segur aski, kanpainak asmatu duen puntuetako bat izan da herritarren presentzia hurbila eta egunerokoa duten auzoetako osasun-zentroetatik hartu duela bultzada. Madril hiriburuko udal-gobernua 2019ko udaberrian aldatu ostean, galdera asko geratu dira airean bai proposamen horren jarraitutasunari buruz, bai posible bezain desiragarriak liratekeen zehaztapen gehiagoren inguruan.

4.1.2. *Berriozar, Zaintza Ardatz*

Beren gizarte-berezitasun propioekin –biztanle gutxiago dituzten espazioak eta, segur aski, elkarren arteko harreman eta ezagutza handiagoa dutenak–, landa-eremuetan ere badaude intereseko ekimenak, udalerriz zaintzaile eta bizitza erkidea zaintzatik abiatuta pentsatzeko tresnak lortzen saiatzen diren horien ildoan. Landa-ingurunean kokatzen da, adibidez, *Berriozar, Zaintza Ardatz* izeneko ekimena. 2018an sustatu zuen ekimen hori Nafarroako herri horretako Berdintasunerako Udal Zerbitzuak, eta, gizarte-eragileen parte-hartzea bitarteko dela, zaintzari buruzko hausnarketarako eta lanerako gune bat sortzea bilatzen du, zaintzen garrantzi erabakigarriaz herritarrak sentsibilizatzeko xedearekin, esandako ekimenaren aurkezpen publikoan adierazi zen bezala, non azpimarratzen baita, guztiok elkarren mendekoak eta zaurgarriak izanik, beharrezkoak direla zaintzari garrantzia eta balioa eman-go dieten horrelako esku-hartzeak:

Pertsona zaharren zainketa, haurrena, mendeko pertsonena, pertsonen arteko zainketa, bizitzaren etapa desberdinetako zainketak, nork bere burua zaintzea, zainketa partekatua, zainketa osasungarria, zainketa iraunkorra, berdintasunezko zainketa edota zainketa balioetsia. [...] Gure bizitzako edozein unetan beharko ditugu zainketak, izaki zaurgarriak baikara. Gure bizitzan zehar, pertsona guztiok beharko ditugu noizbait beste batzuen zaintza eta arreta, ez bakarrik gaixotasunagatik edo bizitzako faseagatik, baizik eta zainketak harremanak, afektuak, loturak, etab., direlako⁶.

⁶ Ikusi linean: <http://revistaberriozar.com/berriozar-pueblo-que-cuida-berriozar-zaintza-ardatz/>

4.2. Ingurune «zaugarrietan» esku-hartzeko erkidego-programak

Hirien barruan, auzoak dira eguneroko bizimoduaren garapenerako hurbileneko inguruneak. Tokian tokiko zaintza-politikak bultzatzeko orduan izandako esperientzia «arrakastatsuek» zerikusi handia dute, dudarik gabe, toki horietan lehendik abian zegoen elkarte- eta erkidego-ehunarekin. Ildo horretan, hemen azaldu nahi diren ekimenak –sakontasun handietan sartzeko asmorik gabe, adibide gisa baino ez–, beren kontzepzioagatik eta, orobat, oso eredu parte-hartzaile eta integratzaileak direlako, auzoetan hainbat hamarralditan aurrez egindako lanetik abiatzen ziren.

Tokiko Administrazioek sustatutako auzoetako lan-esperientzia komunitarioen artean, nabarmentze-koak dira Madrilgo Vallecás auzoko (autoretza kolektiboa, 2019) edo Zaragozako San Pablo auzoko (Escartín eta Gimeno, 2019) osasun-arloko zainketa komunitarioen proiektuak edota zaintza-hirien edo zaintzen duten hirien eredu globalagoetan txertatzen diren auzo zaugarrietako esku-hartze programak. Iruñekoa edo Zumarragakoa (Gipuzkoa) bezalako ekimenek auzo zaugarrienetan esku-hartze lokalizatuak egitea bilatzen dute, baina, hori bai, unibertsala izan nahi duen logika baten barruan. Iruñeko edo Zumarragako kasuetan, zaintza-hirien artean sartuko litzatekeen eredu baten plangintzaren bitartez; eta Vallecás edo San Pablo auzoetan, berriz, lan komunitarioa jada errotuta zuen osasun-zentro batetik emandako bultzadari esker.

Esperientzia horietako batzuk berrikusiko ditugu, eta alderdi interesgarri batzuk aztertzen saiatuko gara, kapitulu honen lehen zatian aipatutako ikuspegi hori gehituz joateko; horrela, pertsona guztion zaugarritasunetik abiatuak, zaintzan, zaintza-premietan eta horri buruzko erantzun politikoen definitioan pentsatzen ahaleginduko gara.

4.2.1. Hiri zaintzaileen diseinuak

Badira zenbait diagnostiko-esperientzia «bizitza erdigunean jartzea» helburu duten garapen komunitarioko programak abian jartzeko, Iruñekoa edo Zumarragakoa, esate baterako, non planteamendu oso zabalarekin, zaintzari protagonismo handiagoa ematea bilatzen baitute garapen komunitarioko programetan. Hala ere, oso zaila da zaugarritasuna ulertzeko bi moduren arteko tentsioa leuntzea: bata, guztion giza baldintza unibertsal gisa ikusten du; besteak, berriz, ikuspegi sozialagoa izanik, talde ahulenetan jartzen du arreta. Paradoxa hori ebatzi ezean, erkidegoko esku-hartzeak bi abiaduratan planteatzen dira, eta hori ikuspegi unibertsalista batetik soilik konpon daiteke. Hala ere, aurrerapen handiak egin dituzte, beste arrazoi batzuen artean, abiapuntutzat izan duten egoeraren diagnostikoan herritarrek parte hartu dutelako.

Gipuzkoako Zumarragan, ibilbide-orri gisa, zainketan oinarritutako gizarte-eredu batera igarotzea erabaki dute; horretarako, gizarte-dibertsitatearen eta zaurgarritasunaren diagnostiko bat⁷ eskatu zuten, herritar guztien zaurgarritasuna aitortzen duen zaintzaren ikuspuntu orokor batetik abiatuta, bai eta interdependentzia eta eko-mendekotasuna ere, perspektiba intersektionalarekin, estrategia inklusibo bat abian jartzea bilatuz, ikerketa/parte-hartze/egintza metodologia baten bidez, «herritarren parte-hartzea tresna gisa erabiliz, zaintza eta garapen komunitarioa landuko dituen ekimen batean» (Arkadia, 2018: 5). Prozesuaren emaitza gisa, garapen komunitarioko lau proiektu proposatu dira, txosten honetan bertan azaltzen den bezala: a) hiri-baratze komunitarioak, non hainbat belaunalditako pertsonak ahaleginak eta ezagutzak batzen dituzten baratze edo lorategi txiki bat lantzeko, aldi berean, beren harremanak sendotuta⁸; b) elkarrekin kudeatutako erkidego-espazioa, hau da, norbanakoen eta erakundearen artean kudeatutako topagune edo zentroa⁹; c) cakardadearen aurkako bideak, batez ere adineko emakumeei begira; behatzaile arretatsuen sare bat sortu nahi da, batik bat osasun-arloko, gizarte-zerbitzuetako, elkarteetako edo auzoetako negozio txikietako profesionalen osatua, bilatu gabeko bakardade-egoerak hautemateko¹⁰; eta, d) komunitate barruko komunikazioa, ulertzen baita informazioaren eta komunikazioaren teknologiak funtsezkoak direla bizi garen gizarteetan, eta ate ireki bat izan daitezkeela herritar batzuen eta besteen artean elkar eragiteko. Besteak beste, Instagram edo YouTube sareetan kontuak irekitzearen bidez, herritarrengandik administrazio publikoetara etengabeko fluxua duen informazio-kanal bat egon dadin, «behetik gorakoa», alegia¹¹. Zumarragan diseinatutako diagnostiko eta eredu hau, beraz, bai kanpoko beste esperientzia batzuetatik bai udalerriko biztanleek egin dituzten ekarpenetatik elikatu da (Aguado-Peláez eta Martínez-García, 2019).

⁷ «Zumarraga. Proposamenak eraikiz. Zaintzan oinarritutako gizarte-eredu baterantz» txostena Zumarragako Udaleko Gizarte Zerbitzuen, Berdintasunaren eta Aniztasunaren Arloaren enkarguz egin zen, eragile politikoen, teknikarien eta herritarren inplikazioarekin. 2018ko abenduan aurkeztu zuen ARCADIA Coop.-ek.

⁸ Horrelako ekimenak hainbat tokitan jarri dira abian, esate baterako, Vitoria-Gasteizeko Hiri-baratze ekologikoen programa (ikusi linean: https://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/was/contenidoAction.do?lang=eu&locale=eu&idioma=eu&uid=u7aa80ad4_14868c61a75__7f95), Bartzelonako Baratze komunitarioen sarea (ikusi linean: https://huertosurbanosbarcelona.wordpress.com/00_huertos-urbanos-cultivando-barcelona/25-red-de-huertos-comunitarios-de-barcelona/), edota Sevillako Miraflores parkea (ikusi linean: <https://www.urbanismosevilla.org/areas/planeamiento-des-a-urb/ficheros/pdfs/red-de-huertos-urbanos-en-la-ciudad-de-sevilla/huertos-urbanos-existentes>).

⁹ Proposamen horien adibide dira Plazara Komunitate Zentroa, Iruñean (ikusi linean: <https://www.pamplona.es/ayuntamiento/varios/instrucciones-de-uso-del-centro-comunitario-plazara>), edo Plaza de la Cebada proiektua, Madrilen, bere orrialde propioa duena Wikipedian (ikusi linean: https://es.wikipedia.org/wiki/Campo_de_Cebada).

¹⁰ Horren adibide da «Bilatu gabeko bakardadearen prebentzioa» programa, Madril Zainketen Hiriaren barruan. Proiektu pilotu gisa jarri da abian Chamberí auzoan, nahi gabeko bakardade eta isolamendu sozialeko egoerak hautemateko (ikusi linean: <http://madridsalud.es/prevencion-de-la-soledad-no-deseada/>). Bartzelonako Radars proiektuak ere antzeko planteamendu batekin lan egin nahi luke (ikusi linean: https://ajuntament.barcelona.cat/personesgrans/es/noticia/proyecto-radares-la-soledad-de-las-personas-mayores_540006).

¹¹ Hor dugu, adibidez, *Falame de San Sadurniño* proiektua. YouTube kanala bat sortu ondoren, emakumeek beren esperientziak eta ezagutzak hedatzen dituzte bertan, eta, aldi berean, ahaldundu egiten dira: *Tehno una horta en San Sadurniño* (ikusi linean: <https://www.youtube.com/channel/UCgYziuQ0VFEO0XRjhZy9gNQ>); edo *Pasión de Palomares*, Sevillako Palomares del Río komunitate sortutako telenobela bat, non herriko arazoei buruzko gogoetak egiten diren, modu kolektiboan (ikusi linean: <http://ilusionismosocial.blogspot.com/2015/12/maria-paloma-pasion-de-palomares-una.html>). Eta auzotarren arteko komunikazioa dinamizatzearen etsenplu modura, liburu bat: *Historias y reflexiones de la gente de Órgiva* (ikusi linean: https://pasos.coop/Hablamos%20de%20%20C3%93rgiva-PASOS_R.pdf).

*Zaintza-lanak Iruñean. Zaintzen egoerari buruzko diagnostikoa*¹² 2019ko irailean aurkeztu zen eta zaintzen egoerari buruzko «mapa» zabal bat garatzen du. Diagnostikoak honako hauek ezagutu nahi ditu: nork eta nola zaintzen duen, botere-harremanak, kolektibo ahulenak eta zaintza premia handienerakoak, zer baliabide dauden eta zer lege- eta erakunde-markotan ematen diren zaintzak. Laburbilduz, zer neurritan pentsa daitekeen Iruñea zaintzarako gune modura, edo zer egin beharko litzatekeen norabide horretan eraldatu dadin, hau da, zer hobekuntza-proposamen egin daitezkeen. Zumarragan bezala, kasu honetan ere diagnostikoa metodologia parte-hartzaile, kokatu, feminista eta intersektionalarekin egin da. Proposamen horren asmoa zaintza joko-zelaiaren erdian kokatzea da, baina kontuan hartu nahi ditu, orobat, hiri-antolamendua eta herritarren parte-hartzea, erkidegoaren biziberritzea, eta gizarte-zerbitzuetatik datozen baliabideak, besteak beste, bai eta herrian garatutako beste programa batzuk ere, hala nola Adinekoen Hiri Lagungarrien Sarera atxikitzea, 2017an, 2030erako Hiri Plan Estrategikoaren garapena¹³, Eskola-bide seguruak programa¹⁴, eta, horiekin batera, Iruñeko Colectivo Urbanas elkartetik egindako proposamenak, adibidez, hiri horretako ibilaldiak Jane Jacobsen eskutik¹⁵.

4.2.2. Zaintzen duen erkidegoa zaintzea

Madrilgo Puente de Vallecas barrutian, San Diego auzoko Vicente Soldevilla Osasun Zentroaren esperientzia ez zatekeen ulertuko 1950eko hamarraldiaren erdialdetik aurrera aita Jose Maria Llanosek bultzatutako lan komunitariorik egon ez balitz, izan ere, auzo elkarteekin batera –Palomeras Bajaseko elkarte tarteko–, auzoan ura, argindarra eta estolda-sarea lortzeko borrokatu baitziren. Vallecako elkarte-mugimendua ospetsua da, ikusgarritasun handia lortu du. Lehen fokua Alto del Arenaleko San Pablo parrokia izan zen. Han, emakume talde txiki bat –Madres contra la Droga– beren artean antolatu eta haien seme-alaba askok bizi izan zuten marjinaltasun- eta heriotza-errealitatea salatzen hasi ziren; gero, San Karlos Borromeo parrokia izan zen higikundearen erdigune nagusi (Hainbat egile, 2011).

Behetik bultzatutako politikaren adibide garbia da, Jane Jacobsek esango lukeen bezala; auzotarren mugimenduak bultzatutako hiri-birmoldaketa prozesu bat gauzatu zen, txabolismoarekin amaitu zue-na, eta esperientzia hura belaunaldi bat baino gehiagoren oroimenean iltzatuta geratu zen, Luis Pastoren kantuari esker: «¡Vamos! No lo pienses más, ¡únete a tus vecinos!, ¡que te pilla el plan parcial!» Esperientzia horien ondorioz, auzoak espiritu komunitarioa bizi izan du, auzotarren lan parte-hartzailea ekarri duena. 80ko hamarraldiaren erdialdetik aurrera, lan hori osasun-zentrotik garatu da, zerbitzu sanitario publiko konplexu bat txertatu baita auzoan, lehen mailako arretako osasungintzako langi-

¹² Arcadia Coop.-ek egindako diagnostikoa, ikusi linean: <https://www.pamplona.es/sites/default/files/2019-09/ARADIA%20Diagnostico%20Pamplona%20EnClave%20de%20Cuidados%2025-5-2019.pdf>

¹³ Herritarren parte-hartzearekin zehazten ari diren gai estrategikoak honako hauek dira: 1. Hiri metropolitarra eta polizentrikoa; 2. Kudeaketa publiko berritzaile eta efizientea; 3. I+G+B eta espezializazio adimenduna; 4. Hurbileko merkataritza-eredu berria; 5. Nazioartekotzea eta turismo-eredu jasangarria; 6. Kultura eta industria sortzaileak; 7. Etxebizitza, oreka urbanoa eta paisaia; 8. Kolektibo zaurgarrien inklusioa, kultura dibertsitatea, bizikidetzeta eta bizi-kalitatea; 9. Mugikortasun-paradigmaren aldaketa; eta 10. Trantsizio ekologikoa (ikusi linean: <https://erabaki.pamplona.es/processes/peu?locale=es>).

¹⁴ Hiri atseginagoa eraikitzeko, ikusi linean: <http://www.movilidadpamplona.es/caminos-escolares/>

¹⁵ Jane Jacobsen eskutik Iruñean zehar (Ikusi linean: <https://janeswalkpamplona.wordpress.com/acerca-de/>).

leetan oinarrituta. Heroinak, GIBak eta olio toxikoaren sindromeak ondorio izugarriak utzi zituzten; horren aurrean, erantzun soziosanitarioa auzora eta haren problematika sozialera irekitako lan komunitarioa garatzea izan zen, osasuna zentzu zabalean ulertuta, hau da, arlo sanitarioarekin, sozialarekin eta elkarte-sarearekin –auzo-elkarteekin, bereziki– bat eginik. Komunitate-lana auzoko beste baliabide batzuekin lankidetzan estuan gauzatzen da: Radio Vallekas, Tele K, gizarte-zerbitzuak eta beste elkarte eta kolektibo asko. Hala, «eredu bio-psiko-soziala, osasunaren baldintzatzaileen esparru soziala eta osasuneko eta gaixotasuneko arazoei buruzko lan integral sustatzailea, prebentiboa, sendagarria, zaintzailea eta birgaitzailea» garatzen saiatu dira (Egiletza kolektiboa, 2019:110).¹⁶

Zaragozako San Pablo auzoko programa komunitarioa ere arlo kolektiboa zainduz arlo pertsonala ere zaintzen den ideiatik abiatzen da. Proposamen horrek honela identifikatzen ditu Osasun Zentroak: generoaren, adinaren, klase sozialaren, erlijioaren, sexu-aukeraren, dibertsitate funtzionalaren edo ideologiaren arabera egunero pertsona gehien eta askotarikoenak igarotzen diren auzoko gunek dira. Eta irizten dio zentro horietatik abiatu daitezkeela zaintzaren inguruko ekimen komunitarioak:

Auzoa zaintzea hari bizia ematen dioten prozesu kolektiboetan arreta jartzea ere bada, entzuteko jarreran eta lankidetzan apalean oinarrituta. Osasun txarra eragiten duten, prekaritatearen, etxebizitzetako gabezien, langabeziaren, genero-desberdintasunen, edo kutsaduraren kausei jarri behar zaie arreta, baina, era berean, osasun ona sustatzen duten dinamikak ere bultzatu behar dira: ekonomia sozialeko sareak, elkarren laguntzarako taldeak... [...] Auzoan gertatzen denaz ohartzeak aukera ematen digu osasuna egunero zaintzen duten gainerako gizarte-eragileak ezagutzeko, entzuteko eta haiekin nahasteko: auzo-elkarteak, guraso elkarteak, gizarte-zerbitzuak, festa-batzordeak, dendariak, bitartekotza-zerbitzuak, kaleko hezitzaileak, laguntza-taldeak, elkarteak... baina antolatu gabeko gizarte-ehuna ere laguntza bazterrezina da, zainketei dagokienez. (Escartín eta Gimeno, 2019: 175)

4.2.3. *Medikazio teknologikoen eta denbora partekatuen programak*

Euskadin, *Goierrri-Urola Garaia* eskualdeko *Lan partekatu soziosanitarioko denbora* (2019)¹⁷ programa pilotua osasun-zentroek sustatu dute, gizarte-zerbitzuekin lankidetzan, eta dagoeneko behin betikoak diruditen teknologien ezinbesteko sostenguearekin; hala, zaintza behar duten pertsonen eguneroko bi-

¹⁶ Euskadin, OSALDEK –Osasun eskubidearen aldeko elkarte– oso antzeko ildoan lan egiten du: osasunaren mugatzaile sozialak aztertzen ditu, lehen mailako osasun arreta lantzen du oinarritzko aktibo gisa, eta osasunerako eskubidea aldeztu du, hau da, eredu sanitario publiko indartsu bat: «Lehen mailako osasun-arreta sendo, irisgarri eta erabakigarriaren aldeko apustua egiten dugu, sistema sanitarioaren barruan pazientearen biografia kudeatzen duena, eta, komunitatearen gainerako baliabideekin batera, gaixotasuna prebenitzen, sendatzen eta arintzen lagunduko duena» (ikusi linean: <https://osalde.org/quienes-somos-2/osalde-nuestro-compromiso/>)

¹⁷ Bioef, 2019ko abendua, ikusi linean: https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/doc_sosa_proyect_tcscs/es_def/adjuntos/Informe_PTCCS_v10.pdf

zitzan ematen zaien arreta arindu eta malgutu daiteke, beste leku batean agerian geratu den bezala (Martín Palomo eta Gómez Bueno, 2020). Proposamen horrek mikro mailako koordinazio soziosanitariorako oinarriak ezartzen ditu diziplinarteko taldeekin, inplikaturik dauden esparru guztien artean partekatutako informazio sistema bakarra jartzen baitu abian, erabiltzaileak koordinazio horren partaide egiten dituen. Aipatutako programa horri esker, egoeraren hasierako diagnostikoa ezagutzeaz gainera, jarraipena egin eta funtzionamenduaren ebaluazioa ere ezagutu daiteke, bai eta egoerari aurrea hartu ere, premia berriak sortzen direnean identifikatu ahal izateko eta arreta integrala zein zainketen jarraikitasuna bermatzeko. Ekimenak beharko ditu: a) alde batetik, esandako eredu dinamikoaren euskarri izango den garapen informatikoa, plataformak eta informazio-iturriak konektatzeko gai izango dena, norbanakoaren beharrezan neurketa bat egiteko eta diagnostiko soziosanitario bat (InterRAI CA) ez ezik, gizarte-arloko eta arlo sanitarioko profesionalentzat hizkera erkide bat sortzeko, eta b) bestetik, inplikaturik profesionalen artean partekatutako diren arreta-denborak. EAEko lurraldea osorik hartuta, koordinazio soziosanitarioa egituraturiko duen plataforma bat sortu nahi da¹⁸.

4.3. Zaintzen duten komunitateak: politika ikusezinerantz

4.3.1. Eskailera baten istorioa

Hirietan, eskuarki, jendeak bizimodu estuagoa izan ohi du, eta, oro har, denbora gutxi izaten da auzoko bizilagunekin uneak partekatzeko edo, besterik gabe, elkarrizketa bat hasteko. «Eskailera»¹⁹ izeneko proiektuak bizilagunen artean elkarri laguntzeko sareak sortzea du helburu, elkartasuna sustatzea eta komunitate batuagoak eratzea. Ideia 2016an sortu zen, Madrilgo Udaleko Parte-hartze Arloak finantzaturako parte-hartze egintzei buruzko ikerketa-proiektu baten esparruan. Proiektua [Medialab-Pradon](#) jarri zen abian, eta Rosa Jiménez du ideologo eta lider²⁰.

Espazio soziokomunitarioak dinamizatzeko ekimen partikular bat da eta hainbat prozesu sustatzea bilatzen du non pertsonak –bizilagunak– beren inguruneak eta errealitateak eraldatzeko protagonista izango diren. Eskailera proiektuaren helburua, hain zuzen ere, eraikin bereko bizilagunen arteko topaketa erraztea da, haien arteko harremanak sendotzea. Horrek oso proiektu berezia bihurtzen du, bai espazio publikotzat hartzen dugunetik eta bai espazio pribatu gisa ulertzen denetik kanpo geratzen den bizitzaren eremu batean zentratzen baita: bizilagunen komunitateetan. Hala, eremu pribatuaren –norberaren etxea sartuko litzateke hor– eta eremu publikoaren –kalea– arteko muga horretan eskai-

¹⁸ Arretaren ikuspegi komunitarioa garatzen duen Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2000 Legeak errazten du prozesu hori.

¹⁹ Ikusi linean: <http://www.proyectolaescalera.org/>

²⁰ Rosa Jiménez: una escalera hacia la política invisible (I), 2011ko abenduaren 12an *Ciudadano Político*n argitaratutako elkarrizketa. Ikusi linean: <http://politico.cc/entrevista-a-rosa-jimenez-una-escalera-hacia-la-politica-invisible>

lerak okupatzen duen espazio erkidea dugu sozializatzeko eta elkarri laguntzeko toki gisa balia daitekeena; beraz, birdefinitu daiteke esparru partekatatu horren esanahia.

Nahikoa da etiketa *kit* soil bat eskuratzea –proiektuaren webgunetik jaitsi eta inprimatu daiteke– hainbat bizilagun-komunitatetan abian jartzeko. Edonork ipini ditzake bere atarian kartel bat eta lau eranskailu xume (bat ezer idatzi gabe): «ureztatuko dizkizut landareak», «wifia partekatzen dut», «igoko dizkizut erosketak», «kafe batera gonbidatzen zaitut». Pare bat komunitatetan hasi zen guztia, baina hogeita hamarreraino iritsi ziren laster, eta lan-bolumena izugarri igo zitzairen; izan ere, ideia komunikabideetara zabaldu zenean, orientazio- eta laguntza-eske asko iritsi zitzairen, haietako batzuk oso urrunetik –Australia, AEB...– Hala, webgunera eta aipatutako *kit*-era igortzen zituzten. Ustekabeko arrakasta horrek, nolabait ere, amaieraren hasiera markatuko zuen, proposamena *Madril, Zaintzen Hiria* programan txertatu baitzen, euskarri instituzional bat behar zuten bezala. Ahalegindu dira proiektua berriro indartzeko, 2019an inplementatu zuten beste batekin: *Ataritik auzora*, lankidetzan egina La Escalera elkartearen, Indaga kooperatibaren eta Trastería de ideas elkartearen artean, La Caixa Gizarte Ekintzaren sostenguekin²¹.

Proposamen hori bizilagunen artean –eta bizilagunei begira– auto-antolatutako ekimen bat delako berreskuratu nahi izan dugu, ez hain pribatu eta ez hain publiko diren etxebizitza-komunitateetako espazio erkide horietan pentsatuz; batetik, covid-19ari aurre egiteko Osasun Larrialdiei buruzko Dekretuan «ez etxe» gisa arautuak izateko bezain ez-pribatu; baina, aldi berean, berrietara sartzeko giltza bat behar izateko eta, kudeaketarako barne-antolaketa premiazkoa izateko bezain pribatu. Adibide horrek erakusten du arlo pribatuaren eta publikoaren arteko mugak oso iragazkorra direla. Gainera, behetik eraikitako ekimena da, bizilagunek bizilagunentzat sortua, eta, ildo horretan, tokiko politika publikoek «bizirik irauteko» erronkari aurre egin behar diote, eta adi egon bultzada baliatzeko, horrelako ekimenen freskotasuna errespetatzeko, eta babes instituzionala emateko, ez daitezen agortu edo arrakastaz hil.²²

4.3.2. *Komunitate zaintzaileak landa-ingurunean: El Panal eta el Colletero*

Nabarmenezkoa da landa-ingurunean ere garatzen direla sareko lan komunitarioa bultzatzen duten esperientzia pribatuak, hala nola lan elkartuko kooperatibak sortzen dituzten eta nazioko zein nazioarteko lan-sareetan integratzen diren zenbait elkarte. Hor daude, adibidez, Errioxako Naldan, El Colletero eta Panal elkarteak, landa-ingurunearekin lotu ohi dugun zuzeneko elkartasuna eta elkarrekiko laguntza bultzatu nahi dituztenak, bai eta ekitatean oinarritutako garapen jasangarria, kontsumo arduratsua, nekazaritza ekologikoa edo mendia basoberritzeko proiektuak ere (Naldako El Colletero eta Panal elkarteak, 2019). Partekatzen duten filosofia batetik abiatzen dira: lurraldean bizi diren pertso-

²¹ Ikusi linean: <http://www.proyectolaescalera.org/2019/04/06/del-portal-al-barrio/>

²² Rosa Jiménez: una escalera hacia la política invisible (II), 2017ko abenduaren 19an *Ciudadano Político*n argitaratutako elkarriketa. Ikusi linean: <http://politico.cc/rosa-jimenez-una-escalera-hacia-la-politica-invisible-ii>

nek ondarearen berenganatze soziala gauzatzen dute, pertsonak zein ingurunea zaintzetik hasita. Honela deskribatzen dute filosofia hori:

Ibarra eta mendia zaintzea, klima aldaketaren aurkako proiektuekin, hainbat praktikan oinarrituta (berrantolatzea, birformulatzea, murriztea, berrerabiltzea, birziklatzea, energetikoki birbalorizatzea, birdiseinatzea, saritzea...), eta, geuk erasten ditugun beste batzuk, nekazaritza, erresilientzia, basoberritzea, etab. Garai bateko nekazarien jakintza berreskuratzen ere lan egiten dugu, praktika haiek aztarna ekologiko arinagoa uzten baitzuten, adibidez, fruituak eguzkitan lehortzen zirenean. (187. or.)

«Komunitate zaintzailearen» kontzeptua hainbat erakunde eta pertsonaren artean, hogeitau hamar urte baino gehiagoz herrian garatu den gizarte-prozesu baten fruitu eta emaitza gisa sortu da Naldan. Eraikuntza-prozesuan dagoen proiektua da, esku-hartze sozialaren, osasunaren –zentzu zabalean ulertuta– eta erkidego-espirtuaren artean mugitzen dena.

4.1. Elkarlaneko etxebizitzaren esperientziak

Elkarlaneko etxebizitza edo *cohousing* deitua etxeetan edo bizitegi-eremuetan bizikidetzaren parte-hartzeari esatean zaio, eta bizikideten bizimodu erkidea indarberritzea bilatzen du. Badira horiek izendatzeko beste modu batzuk ere, hala nola parte-hartze habitata, etxebizitza partekatua, etab. Guztiak ere modalitate batzuen eta besteen askotarikotasuna islatzen ahalegintzen diren izendapenak dira. Esperientzia asko daude Europako hainbat txokotan, batzuk ekimen pribatukoak, besteak publikoak, besteak finantzaketa pribatukoak baina lurzoru publikoan eraikiak, etab.; batzuk adinekoentzat, beste batzuk adineko emakumeentzat soilik, beste batzuk belaunaldi artekoak. Publiko-pribatu banaketa dikotomikoa zalantzan jartzen duen bizikidetzaren ereduak da; izan ere, diseinutik hasita berraurkitzen eta berregiten dituzte eremu komunitarioak; eremu baten eta bestearen arteko trantsizio hutsa baino askoz gehiago dira, bizitza erkidea ulertzeko beste modu bat, tarteko benetako espazioak sortzen baitituzte. Nabarmenezkoa da zaintza-sistemak kudeatzeko beste eredu batzuk esploratzeko duten ahalmena: komunitateei auto-arautzeko protagonismo eta autonomia handiagoa ematen diete, eta elkarri laguntzeko eta elkarrekikotasuna lantzeko ekimenak gauzatzeko inguruneak sortzen dituzte. Horren ondorioz, zenbait emakumezko ikertzailek aipatu dute «zaintzaren arkitektura» berriak direla elkarlaneko etxebizitzak (Mogollón eta Fernández, 2019); izan ere, zaintza agertzen baita, hain zuzen, pertsonak etxebizitza partekatuko proiektu baterantz bultzatzen dituzten kezka eta interesen erdigunean, batez ere, bizitzako etapa seniorra bizi dutenen artean. Bistakoa denez, esperientzia horiek badiutuzte beren zailtasunak; izan ere, etxe barruko bizitza pribatutasunaren espazioa da, kaleak eta plazak, berriz, espazio publikoa, eta komunitateko tarteko mundu hori elkarrizketa bidez eta inplikazioz eraiki behar da, eta beharrezkoa da talde-harremana lantzea ez ezik, sentimenduen eta iritzien arteko desberdintasunak integratzea. Beraz, ondo diseinatuta eta landuta egon behar du, ikuspegi erkide batekin eta nahikoa baliabide ekonomikorekin, esperientzian murgildu ahal izateko.

Elkarlaneko etxebizitzak nola, non eta norekin bizi aukeratu dezaketen pertsonen arteko bizikidetzaren proiektuak dira. Apartamentu pribatuen egitura modura eraiki ohi dira, baina espazio eta zer-

bitzu erkideak dituzte, eraikinean edo urbanizazioan bizi diren beste pertsona batzuekin partekatzen dituztenak, bai eta barne-lankidetzak eta espazio erkideen mantentze-zereginak sustatzeko antolaketak sistema horizontalak ere. Beharrezkoa da kolektiboak nortasun juridikoa edo formala izatea, kudeaketa-modu espezifikoekin eta bizilagunek «burujabetza» dutelarik erabakiak hartzeko²³. Badira adinekoei zuzendutako elkarlaneko etxebizitzak (gutxieneko adin-mugak ezartzen dituzte, adibidez, 55 eta 65 urte artean), emakumeei zuzenduak (Babayagas proiektua, Frantzia, edo Beginak, Alemanian), lesbiana edo gayentzakoak, edo belaunaldi artekoak (hainbat hamarraldiz funtzionamenduan dauden batzuk, adibidez). Mogollónek eta Fernandezek (2019) idatzi duten bezala, badirudi horrelako proposamenen hastapenak 60ko hamarraldikoak direla Danimarkan. Lehenengoa 1965ean sortu zen, eta garapen handia izan zuen XX. mendearen bigarren erdian. Herrialde hartan, hain zuzen, elkarlaneko etxebizitzak benetako aukera dira adinekoentzat: 55 urtez gorako danimarkarren % 1 inguru bizi dira halakoetan. Erreferentziako ereduak bat Stockholmen jarri zen martxan 1987an, *Kollektivhuset Färdknäppen*²⁴, baina garapen handia dute Suedian edo Alemanian ere (Mogollón eta Fernandez, 2019). Alemanian, belaunaldi arteko proiektuak edo emakume soilez eratuak indar berezia hartzen ari dira: Beginez gainera (Beginenhof), emakumeen 80 etxebizitza-proiektu inguru daude (adinekoak, lesbianak, ama ezkongabeak,...).

Torremocha del Jaramako (Madril) Trabensol Adinekoentzako Bizikidetzak Zentroa aitzindaria izan da zahartzaroko etxebizitza-eredu komunitarioen garapenean (Artiaga, 2015). 2002an hasi eta 2013an eraiki zen eta erreferente bat da, alde askotatik, geroztik Espainian inplementatu diren beste proposamen askorentzat²⁵. Euskadira etorrita, Ametsak Sortzen elkarteak *cohousing*, elkarlaneko etxebizitza, etxe partekatu eta erabilera lagatzeko kooperatibaz osatutako sare bat da. 2018ko urtarrilean sortu zen eta etxebizitza komunitarioaren eredua zabaltzeko, bultzatzeko eta garatzeko interesa duten pertsonak, familiak, proiektuak eta profesionalak biltzen ditu. 26 Elkarte horrek eraginkortasuna, baliabideen aprobetxamendua eta harreman pertsonalen eta lankidetzaren sustapena integratzen dituen eredu gisa definitzen du *cohousinga*, etxe partekatua edo elkarlaneko etxebizitza. Hala ere, Mogollónek eta Fernandezek (2019) adierazi duten bezala, elkarlaneko etxebizitzek, Espainian, hainbat oztopo dituzte: laguntza publikorik eza, epeak eta bestelako zailtasun administratiboak eta lurzorua-ren prezio

²³ Badira esperientziak, hala landa-eremuan, nola hiri-ingurunean, hainbat mugimendu sozial eta politikoetatik datozenak eta bizimodu alternatiboak, ekologikoak eta jasangarriak sustatzen dituztenak. Lakabeko Ekoaldea, adibidez, zeina biztanle gabe geratu ondoren, gazte-talde batek okupatu baitzuen gune alternatibo eta eraldatzaile gisa antolatu zirelarik. 2020an beteko dute berrogeigarren urteurrena (ikusi linean: <https://www.lakabe.org/sobre-lakabe/>). Alemanian, gaur egungo elkarlaneko etxebizitza asko ezkerreko ekimenetatik datoz, mugimendu ekologista, feminista edo okupa higikundetik; hala, 80ko hamarraldiko etxebizitza okupatu asko gaur elkarlaneko etxebizitzak dira (Mogollón eta Fernández, 2019).

²⁴ Ikusi linean: <http://fardknappen.se/in-english/>

²⁵ Hona erreferentziako beste proiektu batzuk: Brisas del Cantábrico (Kantabria), La Muralleta (Tarragona), Residencial Santa Clara (Malaga), Convivir (Cuenca), Los Portales (Sierra Morena), La Vereda (Errioxa); Nazioarteko proiektuak: La Borda (Bartzelona), Entrepatis (Madril), Axuntase (Asturias) eta Ametsak Sortzen (Euskadi); Adineko LGBTI pertsonetan espezializatutako egoitza proiektua (ikusi linean: <https://www.fundacion26d.org/ya-tenemos-residencia-especializada-lgtbi-en-madrid/>). Azpimarratzekoak dira, halaber, COVER kolektiboa, Arabako diziplina eta espezialitate askotako profesionalen talde bat, zeinak etxebizitza lortzeko aukerak ikertu, planteatu, proposatu eta sustatzeko interesa baitu, lankidetzaren ikuspegitik (ikusi linean: <https://colectivocover.wordpress.com/>), Madrilgo Jubilares elkarte, adinekoentzat mota horretako ekimenak sustatzen dituen (ikusi linean: <http://www.jubilares.es/>), Egunsentia Aurora, gisa honetako ekimen bat Bizkaian abian jartzeko lanean ari dena (ikusi linean: <https://egunsentiaurora.wixsite.com/egunsentia>), Mendikoartea (Bidaurreta, Nafarroa), eta Houskide (Donostia) (Ikus Mogollón eta Fernández, 2019, 48. or.).

²⁶ Ikusi linean: <https://www.ametsaksortzen.eus/>

garestia. Eredu hori garatzeko eta gizarte-talde zabalagoetara heltzeko, etxebizitza-enpresa publikoek sustatzen dituzten etxebizitzaren parte izan daitezkeen neurrian, Euskadiko Etxebizitza Legearen barruan (3/2015 Legea), erregelamendu bat taxutu behar litzateke elkarlaneko etxebizitzetarako sarbidea erraztuko duena, landa-lurzorua birkalifikatzearen bidez edota hiri-lurzorua lagata, hori egiten baita, duela ehun urte baino gehiagotik hona, eskandinaviar herrialdeetan, Alemanian edota Latinoamerikako zenbait tokitan.

Mota honetako ekimenak garatuko badira, hiru motatako baldintzak sustatu behar dira (Mogollón eta Fernández, 2019):

- a) juridikoak, jabetzatik hasi eta alokairura arte, Europako beste herrialde batzuetan gertatzen den bezala, arlo publikoaren eta herritarraren arteko lankidetzaren modalitate aldakorrekin, orubeak eta lurzorua esleitzea erraztuz, modu arin eta irisgarrian, administrazio-izapideak erraztearen bidez;
- b) ekonomikoak; izan ere, ez da apartamentu-bloke soil bat, batera bizitzeko etxebizitza-proiektu bat baizik, apartamentu pribatuekin, eta, beraz, azpiegitura ekonomiko bat eduki behar da horiek bideragarri egiteko; titulartasuna guztiz publikoa den kasuetan, askatasun handiagoa dago inplikatzeko, probatzeko, eta hartutako aukerarekin gustura egon ezean, konpromisoa desegin ahal izateko, hau da, eredu itzulgarriak izan ahal izateko, proiektua erabiltzailearen itxaropenekin eta beharrezanekin bat ez badator. Gaur egun, izan ere Espainian horrelako aukera egiten duten gehienek diru-inbertsio handia egin dute, horietako askok zuten etxebizitza saldu eta aurrezkiak elkarlaneko etxebizitzan inbertitu baitituzte; beraz, gero ez badute proiektuan jarraitu nahi, zailtasun handiak daude atzera egiteko.
- c) kulturalak, parte-hartzea, elkarrekikotasuna, erkidetasunaren kontzientzia; horiek guztiak bizikideek eurek aurre egin beharreko erronkak dira.

Tarteko espazioak, korridoreak, pasabideak eta espazio erkideak egoteak arlo publikotik pribaturako trantsizioa mailakatzea ahalbidetzen du, hau da, elkarren laguntzarako mekanismoak inbaditzaileak ez izatea pertsonen pribatutasunerako.

5. Ondorioa

Itxuraz utopikoak diruditen arren, hemen aurkeztutako proposamenen atzean esperientzia zehatzak daude; hainbat lekutan jarri dira abian, eta arrakasta handiagoa edo txikiagoa izan dute, iraupenari dagokionez, beharrezan, momentu edota sentimentera hobeto edo okerrago egokitu izanaren arabera. Ekimen horietako batzuk Euskadin daude. Hala, hiri, auzo, ingurune eta komunitate zaintzaileak amesteko, abiapuntu gisa, ondorengo gogoeta hauetatik abiatu behar genuke:

- ◆ Zaintza beharrezan unibertsala da. Izan ere, giza izaera partekatuak berezkoa duen zaugarritasunaz gainera, aldi berean, zaugarritasun zehatzak eta bereziak baitaude, pertsonengan

kokatuta eta gorpuztuta daudenak, eta, beraz, ikaragarri aldatzen direnak denborarekin eta une jakin batean okupatzen den gizarte-posizioaren arabera.

- ◆ Politika publikoek, gizarte-politikek –zaintza politikak barne direla– finkoak izateko joera dute; pertsona bakoitzaren beharrak, aldiz, desberdinak eta dinamikoak dira, etengabe aldatzen dira, astiro edota bat-batean. Arreta pertsonalizatuko diseinuak berak, batzuetan, zurrunegiak gertatzen dira, bai zaintzaileentzat eta bai zaintzak jasotzen dituztenentzat.
- ◆ Nork nor, nola eta non zaintzen duen pentsatzea etengabe egin beharreko zeregina da; zaintzak, izan ere, loturak, estekak sortzen ditu, eta harremanak ezartzen, botere-harremanak, askotan. Berorietan, desberdintasun sozialak gurutzatzen dira, besteak beste, generoaren, gizarte-klasearen, jatorriaren, adinaren, dibertsitate funtzionalaren edo sexu-orientazioaren arabekoak.
- ◆ Hirigintza- eta arkitektura-diseinuek protagonismo handiagoa eman behar diete tarteko espazioei, eremu publikoaren eta pribatuaren artean bisagra-lana egiten dutenei, arlo erkidea eta komunitarioa azaleratu eta garatu dadin. Protagonismoa kale eta espaloiei, arlo komunitarioa ehuntzeko espazioak izan daitezen, baita bi metroko «pertsona arteko tartea» mantendu behar dugunerako ere.
- ◆ Hiri-azpiegiturak ere, mota guztietakoak, zaintzan pentsatuta planteatu behar dira, zaintzaren hiru dimentsioak berariaz kontuan harturik: materiala, emozionala eta morala.
- ◆ Hitz gutxitan esanda, hiriak, udalerriak, komunitate zaintzaileak eta elkarlaneko etxebizitzak amestea eta planifikatzea, hain zuzen ere, hiria eta bizi garen inguruneak (bir)pentsatzea da, *kontu handiz*, zentzu guztietan: arta, ardura, kezka, arreta, afektuak aintzat hartuta, norbere bere buruaz, beste pertsoenez eta inguruneaz arduratzea.

Eta, amaitzeko, esango dugu, Joan Trontorekin (2004) batera, gizarte benetan demokratiko batean hiru betekizun hartu behar liratekeela kontuan:

- i. Mundu guztiak du bere bizitzan zaintza egokia jasotzeko eskubidea;
- ii. mundu guztiak du bere bizitzari zentzua emango dioten zaintza-harremanetan parte hartzeko eskubidea;
- iii. mundu guztiak du gizarteak esandako bi premisa horiek nola bermatu behar lituzkeen ebazteko prozesu publikoan parte hartzeko eskubidea.

Beraz: «Herritar demokratikoen jarduera, interes eta bizimoduan zaintza sartzea izan daiteke, egiaz, demokraziaren teoriak zeharkatu beharreko hurrengo frontera (eta azkenekoa, beharbada)» (Tronto, 2009:42). Zaintzaren gizarte demokratiko honetan, zaintza ematearen eta jasotzearen esperientzia bikoitzaren bitartez, pertsona guztiok izan gaitzke herritar hobeak, gogoeta zaleagoak, inklusiboagoak, besteen premiei adi gaudenak, nork bere burua pentsatzen eta sentitzen duen moduan arreta jarrita, alderdi horiek, hain zuzen ere, herritartasun demokratikoaren nozioarekin lotzen baititugu.

Kontu handiz pentsatu behar dugu nola txertatu zaintza, zaugarritasuna eta interdependentziak hiri-plangintzan eta hirietako eguneroko bizimoduan, giza bizitzako ekitate eta duintasunerako


funtsezko alderdi gisa. Hori da hiriak, auzoak, komunitateak, etxebizitzak eta ingurune zaintzaileak –eta beren burua zaintzen dutenak– amestearen potentzialtasun eskerga, pertsonak eta haien inguru-nea zaintzearen bidez.

6. Erreferentziak eta iturriak

- Aguado-Peláez, D. eta Martínez-García, P. (2019). 'Gestionando la vulnerabilidad desde los cuidados comunitarios en la política local. La experiencia de Zumárraga.' *Zerbitzuan*, 68, 37-46
- Artiaga, A. (2015). *Producción política de los cuidados y de la dependencia: políticas públicas y experiencias de organización social de los cuidados*. Doktorego-tesia. Madril: Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
- El Colletero eta Panal de Nalda elkarteak (2019): «Comunidad cuidadora en el medio rural». In Pérez, E., Girón, A. eta Ruíz-Giménez, J. L. (koord.), *Los cuidados. Saberes u experiencias para cuidar los barrios que habitamos* (185-189). Madril: La Sandunga Transmedia/Libros en Acción.
- Askoren artean (2019): «Un centro abierto a la comunidad: la experiencia colectiva en Vallecas». In Pérez, E., Girón, A. eta Ruíz-Giménez, J. L. (koord.), *Los cuidados. Saberes u experiencias para cuidar los barrios que habitamos* (99-130). Madril: La Sandunga Transmedia/Libros en Acción.
- Durán, M. A. (2018). *La riqueza invisible del cuidado*. Valentzia: Valentziako Unibertsitatea.
- Durán, M. A. (2017). Ciudades que cuidan. In Rico & Segovia (Arg.), *¿Quién cuida en la ciudad? Aportes para políticas urbanas de calidad*. CEPAL: Santiago, Txile, 91-116 or.
- Elias, N. (1990). *La sociedad de los individuos*. Bartzelona: Península.
- Escartín, P. eta Gimeno, L. (2019): «Cuidar los barrios que habitamos». In Pérez, E., Girón, A. eta Ruíz-Giménez, J. L. (koord.), *Los cuidados. Saberes u experiencias para cuidar los barrios que habitamos* (173-178). Madril: La Sandunga Transmedia/Libros en Acción.
- Fisher, B. & Tronto, J. C. (1990). Toward a feminist theory of caring. In E. Abel & M. Nelson (arg.), *Circles of Care: Work and Identity in Women's Lives*. Albany, USA: State University of New York.
- García Selgas, F. & Martín Palomo (2020). Repensar los cuidados: de las prácticas a la onto-política. (ebaluazioan)
- Gilligan, C. (1985). *La moral y la teoría: psicología del desarrollo femenino*. Mexiko: FCE.
- Gilligan, C., Hochschild, A. R. & Tronto, J. (2013). *Contre l'indifférence des privilégiés. A quoi sert le care*. Paris: Payot.

- Hochschild, A. R. (2008). *La mercantilización de la vida íntima: apuntes de la casa y el trabajo*. Buenos Aires: Katz.
- Hochschild, A. (1983). *The managed heart: Commercialization of human feeling*. Berkeley: University of California Press.
- Legarreta, M. (2008). El tiempo donado en el ámbito doméstico: reflexiones para el análisis del trabajo doméstico y los cuidados. *Cuadernos de Relaciones Laborales*, 26. lib., 2 zk., 45-69 or.
- Martín Palomo, M.T. (2016). *Cuidado, vulnerabilidad e interdependencias*. Nuevos retos políticos. Madrid: CEPC.
- Martín Palomo, M.T. (2010a). *Los cuidados en las familias. Estudio a partir de tres generaciones de mujeres en Andalucía*. Sevilla, Andaluziako Estatistika Institutua.
- Martín Palomo, M.T. (2010b). Autonomía, dependencia y vulnerabilidad en la construcción de la ciudadanía. *Zerbitzuan* 48, 57-69 or.
- Martín Palomo, M.T. (2008). 'Domesticar' el trabajo: una reflexión a partir de los cuidados. *Cuadernos de Relaciones Laborales* 26 (2), 13-44 or.
- Martín Palomo, M.T. & Gómez Bueno, C. (2020). Geometría fractal del cuidado. [Atlánticas. Revista Internacional de Estudios Feministas](#), 4 (1). (prentsan)
- Martín Palomo, M. T., Olid García, E., Muñoz Terrón, J.M. & Zambrano Álvarez, I. (2018). Challenges in the professionalization of care: an analysis from the perspective of Andalusia. *Österreichische Zeitschrift für Soziologie*, 1/18: 31-47.
- Martín Palomo, M.T. & Muñoz Terrón, J. M. (2015). Interdependencias. Una aproximación al mundo familiar del cuidado. *Argumentos. Revista de Crítica Social*, 17, 212-237.
- Molinier, P. (2005). Le care à l'épreuve du travail. Vulnérabilités croisées et savoir-faire discrets. In Paperman, P. & Laugier, S. (arg.), *Le souci des autres, éthique et politique du care*, Paris: EHESS, 299-316.
- Molinier, P., Laugier, S. & Paperman, P. (2009). Introduction. In Molinier, P., Laugier, S., & Paperman, P. (zuz.), *Qu'est-ce que le care?* Paris: Payot, 7-31.
- Mogollón, I. eta Fernández, A. (2019). *Arquitecturas del cuidado. Hacia un envejecimiento activista*. Bartzelona: Icaria.
- Muñoz Terrón, J. M. (2012). Cuidar del mundo. Labor, trabajo y acción «en una compleja red de sostenimiento de la vida». *Isegoría* 47, 461-480.
- Murillo, S. (1996): *EL mito de la vida privada. De la entrega al tiempo propio*. Siglo XXI, Madrid.
- Nakano Glenn, E. (2000). Creating a care community. *Contemporary Sociology* 29, 84-94.
- Paperman, P. & Laugier, S. (2005). Présentation. In Paperman & Laugier (arg). *Le souci des autres, éthique et politique du care*. París: EHESS, 9-22 or.

- Ramos, R. (2006). La situación general del empleo del tiempo en la C.A. de Euskadi: Estructura, dinámica y comparación. In *Denbora Aurrekontuen Inkesta. 2003*. Gasteiz: Eustat, 17-49.
- Rico, M. N. & Segovia, O. (Arg.) (2017). *¿Quién cuida en la ciudad? Aportes para políticas urbanas de calidad*. CEPAL: Santiago, Txile.
- Torregrosa, J. R. (1984). «Emociones, sentimientos y estructura social». In Torregrosa, J.R. eta Crespo, E. (arg.), *Estudios básicos en psicología social*. Madril: Hora-CIS, 185-199.
- Salazar Parreñas, R. (2001). *Servants of Globalization: Women, Migration and Domestic Work*. Stanford: Stanford University Press.
- Tronto, J. (2009). Préface à l'édition française. In Tronto, Joan, *Un monde vulnérable, pour une politique du care*. París: La Découverte, 11-22 or.
- Tronto, J. (2004). Cuando la ciudadanía se cuida: una paradoja neoliberal del bienestar y la desigualdad. SARE 2004 Nazioarteko Kongresua: zein herritartasun eredurantz? Donostia, azaroaren 10 eta 11.
- Tronto, J. (1993). *Moral Boundaries. A Political Argument for an Ethic of Care*. London, Ingalaterra: Routledge.
- Venturiello, P., Gómez Bueno, C., Martín Palomo, M.T. (2020). Interdependencias y autonomía en los cuidados a la diversidad funcional. *Papeles del CEIC* (edizioan).
- Hainbat egile (2011). *Para que no me olvides Madres Unidas contra la Droga*. Madril: Editorial Popular.





ZAINZARI BURUZKO POLITIKA LATINOAMERIKAN

Ahazturiko sektorea: 6 eta 17
urte bitarteko gazteak

MERCEDES PEDRERO NIETO¹

¹ Eskerrak eman dizkie María Ángeles Duráni eta Edith Pachecori lehen zirriborroari egindako ohar baliotsuengatik.

Aurkibidea

1. Sarrera	141
2. Zaintzak, Latinoamerikan	141
3. 6 eta 17 urte bitarteko herritarrak	148
3.1 Herritar horien espezifikotasuna	148
3.2 Nork egin behar ditu zaintza-lanak?	150
3.2.1 Familia	150
3.2.2 Estatua	152
3.2.3 Merkatua	153
3.2.4 Komunitatea	153
3.3. Arrisku berezien araberako beharrak	154
3.4 Arriskurik ohikoenak	156
3.4.1 Cyber-jazarpena	156
3.4.2 Suizidioa eta bullying-a	156
3.4.3 Elikadura-ohituren trastorno patologikoak	157
3.4.4 Nerabeen haurdunaldiak	158
3.4.5 Ezkongaien arteko indarkeria	158
3.4.6. Krimen antolatuak kooptazioa egitea edo bahitzea	159
4. Politika publiko baten proposamena, 6 eta 17 urte bitartekoei zuzendua	159
4.1. Proiektuaren oinarriak	162
4.2 Helburuak	162
4.3 Eraginkortasuna	163
4.4 Zentro komunitario bakoitzean eskain daitezkeen jarduerak	163
5. Azken gogoeta	164
Erreferentziak eta iturriak	164



1. Sarrera

Latinoamerikako eskualdeari buruzko aipamen labur bat egin ondoren, 6 eta 17 urte bitarteko gazteen berezitasunari heltzen zaio, zaintza bereziak behar baitira bizitzaren etapa horretan. Hala, bada, zer erakundek artatu behar dituzten aipatzen da, eta, horretaz gain, gazte horiek dituzten arrisku bereziak azaltzen dira. Amaitzeko, proposamen bat aurkezten da, prebentiozaintzaren bidez biolentziaren gurpil eroa apurtzea egon dadin, gaur egun hura nagusitzen baita ia eskualde osoan.

2. Zaintzak, Latinoamerikan

Latinoamerika izeneko eskualde geografikoa kontzeptu etniko-geografiko bat da, XIX. mendean definitu zena. Amerikako 20 herrialde hartzen ditu bere baitan, non hizkuntza erromantzeak hitz egiten diren (gaztelania, 18 herrialdetan; portugesa, batean; eta frantsesa, beste batean). Herrialde horiek guztiak batzen dituen kontu ugari dauden arren, eskualdea ez da uniforme beste zenbait kontutan, hala nola dimentsio geografikoetan, garapen ekonomiko eta sozialean, baliabide naturaletan, aberastasunaren banaketan eta populazioan, biztanle kopuruari dagokionez, baita trantsizio demografikoaren² arabera bakoitza dagoen etapari dagokionez ere. Horrenbestez, aldeak daude zahartze-prozesuan. Izan ere, herrialde batzuk jada prozesu horretan daude sartuta, eta beste batzuek, berriz, populazio-egitura gaztea dute oraindik, eta horrek erronka desberdinak planteatzen ditu zaintzei dagokienez.

Desberdinkeria ekonomikoetan, hezkuntza-mailan eta praktika demokratikoetan ere desberdintasun handiak daude. Gainera, ez dira homogeenok kulturalki, haien osaera etnikoa ez da berdina, eta talde

² Ugalkortasun- eta heriotza-tasa handiak maila txikietara igarotzea deskribatzen du prozesu honek.

desberdin horiek ez daude maila berean integratuta nazio-kontsentsuan³. Latinoamerika eta Kariberako Batzorde Ekonomikoak eta Nazio Batuen Erakundeko eskualdebatzordeak (CEPAL), modernizaziora bideratutako trantsizio sozialeko etapetan sailkatu zituen herrialdeak, 1980an; urte asko igaro diren arren, bere horretan jarraitzen dute hierarkiek. Hala, bada, 5 taldetan banatu zituen. I.a: Modernizazio goiztiarreko herrialdeak: Argentina, Txile eta Uruguai (Txilen daude desberdintasun handienetarikoak diru-sarrereren banaketari dagokionez; Brasilen baino ez da handiagoa desberdintasun-maila hori). II.a: Modernizazio aurreratua berriki izan duten herrialdeak: Costa Rica, Panama eta Venezuela. Haiei Kuba gehitzen zaie, hango bilakaera demografikoa eta eskolatze-maila direla-eta. III.a: Modernizazio partzial bizkorreko herrialde handiak: Brasil, Kolonbia eta Mexiko. IV.a: Modernizazio partzial bizkorreko eta desorekatuko herrialde ertainak: Ekuador, Paraguai, Peru eta Dominikar Errepublika. Eta V.a: Modernizazio hasiberriko herrialdeak: Bolivia, El Salvador, Guatemala, Haiti, Honduras eta Nikaragua.

Zaintzaren kontzeptualizazioa serie honen beste argitalpen batzuetan lantzen da. Hemen, zaintza zuzeneko politika publikoak baino ez dira kontuan hartzen, hau da, zaintza hori eskatzen duten pertsonen eguneroko jarduera fisikoetara edo gorputz-jardueretara zuzendutako laguntzak.

Oro har, zaintza-instituzioak eskualdeko zenbait herrialdetan hasi ziren, XX. mendearen erdialdean, haur txikiei dagokionez, Gizarte Segurantzako institutuak ezarri zirenean. Hala ere, 1980eko hamarkadara arte, eskualde osoan pentsatzen zen mendekotasuna zuten adinekoen zaintza eremu pribatuan baino ezin zela konpondu (Florito, 2018). Ikuspegi hori, ordea, aldatu egin da Nazio Batuek Adinekoen Giza Eskubideei buruz egindako lanen ondorioz. Hala, Adinekoen Giza Eskubideak Babesteko Amerikako Herrialdeen arteko Konbentzioa («Costa Ricako San Jose Ituna» ere esaten zaio) onartu izana, 2015eko ekainaren 15ean, aurrerapauso bat izan zen. Amerikako Estatu Erakundea izan zen hura onartu zuen lehena munduan, Latinoamerikako herrialde guztien botoei esker. Kanada eta Estatu Batuak aurka agertu ziren, eta Amerikako herrialde txikiak ere bai (ez latinoamerikarrak). Agerikoa da, bada, erakunde multinazional horrek kontinente osoa biltzen duen arren, herrialde anglofonoen interesak ez datozela bat, askotan, Latinoamerikako herrialdeen interesekin.

Jarraian, Argentinari, Costa Ricari eta Uruguairi buruzko kontu batzuk aurkezten dira, haurrak eta mendekoak diren helduak zaintzeari dagokionez. Herrialde horien planteamenduak eta ekintzak eskualdeko aurreratuenak dira; Mexiko⁴ gehitzen zaie, baina hango politikak atzeratuta daude herrialde horien politikekin alderatuta. Eskualdeko beste herrialde batzuetan –batzuetan soilik– 2016a arte ez zen hasi zaintzak aintzat hartzen; beste batzuetan, 2019an hasiberriak ziren kontu horretan. Zalantzarik gabe, Uruguai da eskualde horretan zaintzen gaineko legea eta sistema integratu aurreratuena duen herrialdea. CEPAL erakundea bera ere herrialde horren esperientziatik abiatu da bere planteamendua egiteko.

Uruguaiako Zaintzen Legearen arabera (2015), 12 urte arteko haurrek, desgaitasuna duten pertsonak eta mendekotasuna duten adineko guztiek zainduak izateko eskubidea dute. Hala ere, Latinoame-

³ Herrialde batzuetan, bere identitatea duten herritar indigenak dira nagusi, Bolivian, esaterako; beste batzuetan, berriz, modu natural batez integratzen dira gaztelarazko kultura eta kultura indigena, esaterako, Paraguaiako kultura guarania; Hondurasetan, berriz, afrikar ondorengo kulturak bere identitateari eusten dio (garifunak deitzen dira). Ia guztietan, etnien eta baliabideen eta zerbitzuen arteko kontrastea nagusitzen da; jatorrizko herriak desabantailan geratzen dira.

⁴ Mexikotik idazten ari baikara.

rikako planik aurreratuena izan arren, ez ditu 12 eta 17 urte bitarteko gazteak aintzat hartzen, idazki honen planteamenduaren azken helburua direnak, hain zuzen ere.

Uruguaiako legearen helburu nagusia izan da familien, Estatuaren, komunitatearen eta merkatuaren arteko zaintza-eredu erantzunkidea sortzea, babes sozial global eta integralaren ikuspegiarekin, eta eskubideen, generoaren eta belaunaldien ikuspuntutik betiere. Halaber, adierazten du politika berrantzez eraldatzailea izango dela, soilik baldin eta eraikuntza kolektibo gisa egiten bada.

Uruguaiako Zaintzen Sistema Nazional Integratuak sexuaren araberako lanaren banaketaren egungo jarraibideak aldatu nahi ditu, eta ordaindu gabeko zaintza-lana behar bezala baloratu. Elkartasuna, autonomia eta erantzukidetasuna egon behar direla planteatzen du.

Zaintza jendarteko eragile guztien artean banatzean datza elkartasuna, hau da: belaunaldien arteko nahiz belaunaldi-barruko finantzaketarekin lotu beharra dago. Autonomiak osagai arrazional bat du: pertsona bakoitzak beste pertsona batzuk behar izaten ditu bere bizitza-plana aurrera eramateko, baina, horretaz gain, komunitatean eta jendartean protagonista eta eragile eraldatzaile izateko gaitasuna ere izan behar du. Erantzunkidetasuna, zaintzei dagokionez, ordaindu gabeko lanaren egungo sexu-banaketa aldatzean datza, eta enplegumerkatuan lan ordaindu hori bera balioestean ere bai.

Helburu espezifikoetariko bat da zaintzan lan egiteko prestakuntza-eskaintza garatzea, zaintza-zerbitzuak ematen dituztenek zerbitzu horien estaldura handitzea eta kalitatea hobetzea izan dezaten. Era berean, zaindua izateko eskubidearen aitortpen publikoa orokortzea ere bada helburua –eskubideen agendaren konkista berria–, zeina komunikazio-estrategia bat baliatuz egin behar baita, erantzunkidetasun sozialaren aldeko kultura-erlidaketa bat lortzen laguntze aldera.

Zaintzen Sistema Nazional Integratua ezartzeko, erakundearen arteko lan-eredu bat behar da, ikuspegi desberdinak integratuz (eskubideak, generoa eta belaunaldiak) mendekotasuna/autonomia binomioari heltzeko gai izan behar duena. Haren dokumentuak sistemaren osagaiak eta joerak definitzen ditu, honako hauek barne hartzen dituztenak: *zerbitzuak*, *erregulazioa*, *prestakuntza*, *informazioa*, *komunikazioa* eta *kudeaketa*. Titulu horiek oso modu propositiboan deskribatzen dira; espazio-arrazoiengatik ezin dira hemen errepikatu, baina zalantzarik gabe, beste herrialde batean zaintza-politika integralen bat planteatzen bada, sakon aztertu beharko da. Gure helburuetarako, 6 urte eta 17 urte bitarteko herritarren zaintza espezifikorako behar diren neurriak kokatzen dira titulu bakoitzean, eta nabarmentzen da, batetik, 6 urte eta 11 urte bitarteko adingabeen espezifikotasuna (Uruguaiako sisteman aintzat hartzen da adin-tarte hori), eta, bestetik, herrialde horretan kontuan hartzen ez den 12 urte eta 17 urte bitarteko adingabeen espezifikotasuna ere bai.

Uruguaiako dokumentutik abiatuta, proposatzen da, prestakuntzari dagokionez, nerabeak artatzeko behar diren profesionalen profil bereziak gehitzea, ezin baitute beste adintalde batzuen zaintzaileen prestakuntza berbera izan.

Gorago adierazi den bezalaxe, Costa Rica eta Argentina dira Uruguaiako sistematik hurbil dauden Latinoamerikako beste herrialdeak.

Costa Rican, 2010a eta 2014a bitartean eraikitzekeko prozesu gisa planteatu zen Costa Ricako Zaintza Sare Nazionala (Guzmán León, 2014): agenda publikoan sartu zen, eta haurren eskubideei eta haien

garapen integrala bultzatzeko politikai buruzko ikuspegi garrantzitsua biltzen du. Gaur egun, bigarren eskola-ziklora artekoak (10 urte eta 12 urte bitartekoak) eta desgaitasuna dutenak artatzen ditu.

Nazioko Presidentetzak bultzatu zuen sare hori, 2010a eta 2014a bitarteko ekitaldian. Zaintza Sareak bere estaldura handitzeko erronkak ditu, eta oraindik oso mugatua da. Zaintza instituzionalizatzeko ahalegina nabarmentzekoa da, batetik, lege bidez onartu delako, eta, bestetik, aurreikus daitekeen aurrekontu bat ezarri zaiolako. Haren erronka nagusia bikoiztasunak saihestea da. Bestalde, erakundeen arteko koordinazioa falta da, eta, horren ondorioz, baliabide publikoen erabilerean eraginkortasunik eza⁵ dago; baina aurrerapen teknologikoari esker bikoiztasunak saihestu ahal izango dira, datu-baseak gurutzatuz, zerbitzuak homologatzeaz gain, instantzia guztiek antzeko kalitatezko zerbitzuak eskaini ditzaten.

Helburu nagusia unibertsalizazioa da, osasunari eta hezkuntzari dagokienez; haurren zaintza 12 urtera artekoa da. Ez da integratzen biztanleria zahartua zaintzen duten instantziekin; biztanleria horrek proportzio garrantzitsua du herrialde horretan, Hegoaldeko Konoko eta Kubako herrialdeek soilik gainditzen dutena. Horren harira bada [Heldu Nagusien Kontseilu Nazionala](#) (CONAPAM)⁶, Costa Ricako zaharkitzearen eta zahartzaroaren arloko zuzendaritza-organoa, adineko helduen bizi-kalitatea hobetzea bermatu nahi duena, bizikalitate hobea izateko baldintzak eta aukerak sortuz; estaldura oso mugatua du, ordea, eta hasi berriak dira hura garatzen.

Argentinan, haurrak eta adineko helduak ditu helburu zaintzak. Azken urteotan aurrera egin da haurren eskubideak zabaltzeari dagokionez. Hala ere, programek oraindik ere arrakalak dituzte zuzenbide formalean eta eskubide hori gauzatzearen artean. Araudiari buruzko aurrerapenekin batera, lanketa integrala egiteko joera duten aurrerapausoak egin dira. Erakundeen eta sektoreen arteko koordinazioa indartu beharra dago, politiketan osotasuna lortzeko. Erronka horiek gainditzeko, zaintza-zerbitzuen eskaintza indartu behar da; gainera, lehenetsua eman behar zaio zerbitzuen kargura dauden zainzaileen eta hezitzaileen profesionalizazioari, haien enpleguen kalitatea kontuan hartuta (Sebastián Waisgrais, 2018).

Nazioarteko araugintzan eta orain arte lortutako legeetan oinarritzeaz gain, Argentinak zenbait erronkari egin behar die aurre. Horietako bat da, hain zuzen, ez egotea sektoreen eta gobernumailen arteko egituraketarik, kalitateestandarrik igotzeko zerbitzuetan (publikoak zein pribatuak); beste bat da, beraz, monitorizazio- eta informazio-sistema integratuaren falta. Planteatutako estrategia Uruguain dagoenaren antzekoa da, familia, Estatuak, komunitatea eta merkatua kontuan hartuta, eta politikaren instituzionalizatzearen bidez integratu behar da hori. Tradizionalki, familiak izan dira zaintzaz gehien arduratu direnak, arduradun nagusiak. Komunitatearen eta gizarte zibilaren erakundeak garrantzitsuak izan dira adineko helduei zaintzak emateko. Merkatua da beste zaintza-instantzia bat adinekoen zaintzarako, baina erosteko ahalmen handiko jendearentzat soilik. Azkenik, Estatuak zenbait erronka ditu aurrean, zerbitzuen hornitzaile gisa, baina, batez ere, beste eragileek ematen dituzten zerbitzuak eta prestazioak arautzeko duen eginkizunagatik (UNICEF *et al.*, 2018). Kontua da aurrerapen handiak egin dituzten arren, oraindik ez dutela sistema bat osatzen.

⁵ Hori aipatutako dokumentuan jasotzen da, baina gauza bera esan daiteke Mexikoren kasuan, non Gizarte Segurantzaren onuradunen estaldura oso eskasa baita, baina, aldi berean, pertsona berak bi erakundetara jo dezake.

⁶ Ikusi: <https://www.conapam.go.cr/inicio/>

Mexiko atzeratuago dago zaintzaren arloan lehen aipatutako herrialdak⁷ baino. *Haurrak Artatzeko, Zaintzeko eta Haien Garapen Integrala Bermatzeko Zerbitzuak Emateko Lege Orokorriari eta Haurren eta Nerabeen Eskubideen Lege Orokorriari* buruzko oharra argitaratu ditu Amezcua Ornelasek (2017). Hala ere, zenbait kontu argitu gabe uzten ditu: Nola eman jarraipena xedapenei? Dena orokorrean geratzen da; ez dago argi zer bide dauden zaintzan egondako anomaliari buruzko keak egiteko eta zer prozedura jarraitu behar diren kea horiek aintzat hartzeko. Alde on bakarra zera da: lege-mailan ari direla lanean, adingabeak eskubideen subjektuak izan daitezten.

Bestalde, Villa Sánchezek (2019) zaintza-politikei buruzko lege-baliabideen esparruan sakondu du. Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa aipatzen du, eta argitzen du oraindik hark hedatu dituen politika publikoak urriak eta prekarioak direla, eta bakarrik arautresna batzuen baitan dagoela zaintza-rako eta zaintzak jasotzeko eskubidea, baina oraindik asko falta dela arauok aplikatzen hasteko. Egi-leak zaintza-eskubideari eta zaintza-prestazioei buruzko *esparri juridikoa* biltzen duen koadro bat aurkeztu du; hona guri dagozkigunak:

- ◆ Haur eta Nerabeen Eskubideen Lege Orokorra.
- ◆ Haurrak Artatzeko, Zaintzeko eta Haien Garapen Integrala Bermatzeko Zerbitzuak Emateko Lege Orokorra.

Aipatutako lehenengo legeak haurrei eta nerabeei aitortutako gutxieneko eskubideak ezartzen ditu, eta tratatu txar, abusu eta esplotazio mota ororen aurkako babesa arautzen du, bai familiaingurunean, baita komunitatean eta eskolan ere. Horrez gain, laguntza ematen die desgaitasunen bat duten seme-alabak dituzten gurasoei. Bigarrenak, berriz, haurrak artatzeko, zaintzeko eta haien garapen integrala bermatzeko zerbitzuak kalitatez eta berotasunez jasotzeko eskubidea ezartzen du. Zoritxarrez, erakundeen zatiketa, onuradunen segmentazioa eta bikoiztasuna dira zerbitzu horien ezaugarriak.

Gobernu Federalak haurrentzat eta nerabeentzat zuzentzen duen aurrekontuaren % 80 osasun- eta hezkuntza-arloetan inbertitzen da. Jolas- eta/edo kultura-programetan egindako inbertsioa ez da nahikoa (UNICEF, 2011), eta hori tamalgarria da, programa horiek arriskuogorak prebenitzeko baliatzen direlako, baita prestakuntza-etapetan adingabeak behar bezala garatzeko laguntza emateko ere.

Hasiera batean (50eko hamarkadan), soldatapeko ama langileen seme-alabentzat baino ez ziren planteatzen zaintza-zerbitzuak. Duela gutxi zabaldu egin dira, baina pobrezia aurre egiteko politiken barruan beste elementu bat bezala baino ez dira ematen. Arazoa, ordea, maila sozial guztientzat izaten da, eta, horrenbestez, gobernuaren agendan sartu beharra dago. Izan ere, estratu sozial guztietan daukate arriskuak gazteek, eta aberatsenek ere arrisku gehigarriak izan ditzakete ekonomikoki esplotatuak izateko; guztiek nozitu ditzakete belaunaldien arteko familiagatazkak, edo denbora-eskasia dela-eta, guztiek sufritu dezakete gurasoen arretafaltarengatik.

Beste alde batetik, mekanismo instituzionalek zaintzen erantzukizuna feminizatzen laguntzen dute. Izan ere, programa publikoek emakumeei inposatzen diete haiek izatea tramiteak bete behar di-

⁷ Aipatu gabeko Latinoamerikako gainerako herrialdeen antzekoa, Kuba izan ezik, bere haurtzarorako estaldura ona baitu, eta osasun-zerbitzuetan estaldura unibertsala.

tuztenak, haurrak zerbitzuetara eraman behar dituztenak, eta abar. Ikuspegi maternalista da, oso kontsumitzailea denborari dagokionez, eta jasanezina, Galindo Vilchis eta beste egile batzuek (2015) planteatu duten bezala. Villa Sánchezek dioenez (2019: 13. or.), horri zera gehitzen zaio: «kontu kulturala, beste erronketariko bat dena, zaintza-sistema familia-erantzukizun partekatuen berdintasunezko ikuspegitik eraikitzeke erronka, hain zuzen».

Adingabeak eskola-sistematik kanpo zaintzeko zerbitzu publikoek ematen duten estaldura ez da nahikoa (eta ebaluatu egin behar da), edo ez dago Mexiko Hirian eta herrialde osoan. Villa Sánchezek dioenez (2019:11), «oro har, erakundeen zatiketa handia, onuradunen segmentazioa eta programen bikoiztasuna dira programen eta zerbitzuen ezaugarriak». Mexikon ezin da programen gaineko ikuspegi argirik izan, ez baitago horren berri ematen duen katalogorik programen estalduren eta ezaugarrien berri izateko. Batzuk desagertzeko edo eraldatzeko bidean daude, 2018. urtearen amaieran izandako Gobernu-aldaketa dela-eta, gobernu berriak asko aldatu baitzituen subsidioen estrategiak. Ohikoa da hori gertatzea Administrazioan izaten diren aldaketen ondorioz; ez Mexikon bakarrik, gauza bera gertatzen baita Latinoamerikako herrialde askotan. Esan daiteke Mexikon ez dela programen jarraitutasuna bermatzen duen zaintzaren inguruko instituzionalitaterik garatu.

Adikzioen aurkako prebentzio- eta arreta-programa bat dago egoera ahulean dauden 12 eta 17 urte bitarteko nerabeentzat. Osasun publikoaren ikuspegitik ezartzen da, arreta medikoan soilik oinarrituta, eta ez die arreta osoa ematen adikzioen prebentzioan eta tratamenduan eragiten duten gainerako osagaiei, krisi-egoeretako arretatik harago. Arretazentroei zuzenduta daude, tratamenduan dagoen biztanleria aktiboki inplikatzeko duten neurriak kontuan hartu gabe.

Denbora Osoko Lehen Hezkuntzako Eskolen Programa: hara hor zaintzan eragiten duen beste programa bat. Horren bidez, 6 eta 11 urte bitarteko adingabeak babestuta geratuko lirateke, Lehen Hezkuntzako eskoletako ordutegi orokor murriztetik harago. Dena den, oso estaldura urria du.

Beste alde batetik, Menkesek eta Sosak (2016) nerabegaroko haurdunaldiari buruz egindako analisiak ditugu, antisorgailuen estaldurari buruz, nahi gabeko haurduntzari buruz, eta pobreenen artean –emakumeek ez baitute aukerarik amatasunaz harago– maizago izaten diren nahitako haurduntzen zergatari buruz.

Villa Sánchezek (2019) ondorioztatzen du erakundeen arteko beste konponbide instituzional bat eman behar dela jendartearen ongizatea hornitzen dutenen artean (Estatua, merkaturia, familiak eta komunitatea), eta erantzukidetasun berri bat lortze aldera, zaintza ez dadin familiaren esku soilik geratu.

Mexikon egiten den kudeaketari dagokionez beste alde bat ere hartu behar da kontuan: ustelkeriaren mehatxua, baliabide publikoak interes pribatuetara desbideratzen duena. Krimen antolatuen infiltrazioarekin ere kontuz ibili behar da, gazteak laguntzaile edo kontsumitzaile izateko harrapatzen saiatzen baita; batzuetan, harrapakariak ere infiltratzen dira zaintzaileen edo gida espiritualen artean (kultu-ministroen artean gertatu den bezala).

Bada, hauek dira ustelkeria saihesteko jorratu beharreko hiru ildoak: aurrekontua kontrolatzeko kontabilitatea, jardueren eta jomuguen monitorizazioa eta kalitatearen jarraipena. Era berean, zehapen gogorrak aplikatu behar dira ustelkeria-ekintzak egiten dituztenen zigorgabetasuna saihesteko; zoritxarrez, halaxe gertatzen baita, zigorrik gabe geratzen dira-eta, ustelkeria-maila txikian dabilzanekin (existitzen ez diren haurren identitateak asmatzen dutenak haurrei dagozkien subsidioak jasotzeko, 2019an Errepublikako erakunde askotan agerian geratu zen bezala), baita oso antolatuta dauden sareekin ere.

Laburbilduz, *zaintza-sistema integral* bat ezarri behar da herritar kaltebera guztientzat (18 urtetik beherakoak, desgaituak eta mendekoak diren hirugarren adinekoak), gainbegiratzea, laguntza, monitorizazioa eta ebaluazioa barne hartuta. Litekeena da etorkizunean ildo horretan aurrerapausoak lortzea, gaur egun zenbait instantzia hori eskatzen ari direlako. Hala ere, asko falta da sistema hori *politika publiko* bilakatzeko.

Gizarte zibiletik ez ezik, akademiatik ere arazoa agerian uzten duten analisiak egiten ari dira. Mexikon berandu hasi bazen ere, Latinoamerikako beste herrialde batzuekin alderatuta, garrantzitsua da Mexikoko Zaintza-Sarea⁸ sortu izana 2017. urtearen erdialdean. OXFAMen ekimenez sortu zen, eta erantzun gogotsua jaso zuen Mexikoko erakunde, kolektibo, aktibista feminista, zaintzaile, akademiko eta zaintzaren antolamendu bidezkoagoan interesa duten pertsona independenteen aldetik. Sare horrek Estatuaren, komunitateen, familien eta enpresa pribatuen arteko erantzunkidetasun soziala eskatzen duen giza eskubidetzat jotzen du zaintza.

Azkenik, garrantzitsua da aipatzea nazioarteko arau-esparru bat sortu dela erakunde multinazionalen eskutik, gaia ikusgai bihurtzetik abiatuta. Izan ere, akademiatik sortutako jakintzak bultzatuta sortu zen hasiera batean. Horren barruan, María Ángeles Duránen lana nabarmentzen da, 80ko hamarkadaz geroztik etengabe argitaratu baititu lan garrantzitsuak gaiari buruz. Ez dago haren ekarpen guztiak azaltzerik dokumentu honetan, baina gaiari buruz nolako lan zabala duen adierazteagatik soilik, esan beharra dago haren liburu batean, *La riqueza invisible del cuidado* (2018) izenekoan, haren 61 lan aipatzen direla. Lan horretan parte hartzen duten beste emakume egile espainiar batzuek ekarpen garrantzitsuak egiten dizkiote gaiari, eta haien bibliografiak asko aberastu gaitzake. Latinoamerikan ere ekarpen garrantzitsuak egin dira familiari eta zaintzari buruzko ikasketetatik abiatuta. Espazioa dela-eta, pertsona batzuk baino ez ditugu aipatuko: Rosario Aguirre, Irma Arriagada, Karina Batthyani, Carlos Echarri, Brígida García, Elizabeth Jelin, Celia López, Nelson Florez, Edith Pacheco eta askoz gehiago.

Atal honi amaiera emateko, 6 eta 17 urte bitarteko herritarren zaintza-beharra aztertu aurretik, herrialde batzuetako biztanle-talde handien proportzioak erakutsiko ditugu taulan, Trantsizio Demografikoaren etapa desberdinetan bereiztuta. Hala, 6 eta 17 urte bitarteko taldearen proportzioa biztanleria osoaren ehuneko 19tik 29ra bitartekoa da. Kopuruagatik garrantzitsua izateaz gain, haren garapen osasuntsua jendarte osoaren etorkizuneko onurako da.

Biztanleriaren proportzioak talde handietan, 5 herrialdetan, 2019*					
	% 0-5	% 6-11	% 12-17	% 6-17	% 65 y+
Uruguay (2011)	8.10	8.97	9.69	18.66	14.08
Costa Rica (2011)	9.43	9.98	11.06	21.04	7.25
México (2010)	11.44	12.01	11.91	23.92	6.25
Ecuador (2010)	12.08	13.08	12.11	25.18	6.50
Honduras (2013)	14.09	13.81	14.86	28.67	4.95

* CEPALek 5 taldetan sailkatu zituen herrialdeak, garapen-mailaren arabera; talde bakoitzeko herrialde bat hautatu zen.
Iturria: CEPAL/CELADE Redatam+SP 12/13/2019

⁸ Ikusi: <https://reddecuidadosenmexico.wordpress.com>

3. 6 eta 17 urte bitarteko herritarrak

Gure bizitzan zehar, denok behar izaten dugu zainduak izatea. Ezin ditugu inoiz zeharkako zaintzak alde batera utzi (elikadura, besteak beste), baina bizitzako zenbait etapatan autozainketaren bidez lor daitezke. Beste etapa batzuetan, berriz, ezinbestekoa izaten da beste batzuek gu zuzenean zaintzea; beraz, garrantzitsua da politika publikoek lehentasunezko hartzea zaintzaren gaia beren agendan, arreta jarritz, batez ere, muturreko adinei, eta muga fisiko edo mentalen baten mende daudenei, edozein adinetakoak izanik ere.

Hala ere, hurrengo lerroetan, orain arte «premiakotzat» jotako zaintzaren politika publikoetan ikusi ez den beste herritar-talde baten problematika jorratuko da (izan ere, politika horiek ez dituzte garrantzitsuak diren guztiak barne hartzen). Hain zuzen ere, 6 eta 17 urte bitartekoak dira. Aurreko atalean azaldu bezala, Latinoamerikako herrialdeetan, baita zahartuen dauden herrialdeetan ere, biztanleria osoaren ia bosten bat osatzen dute, eta zaintza bereziak behar izaten dituzte.

3.1 Herritar horien espezifikotasuna

Izan ere, 6 eta 17 urte bitarteko haurren eta nerabeen zaintzak zenbait premia planteatzen ditu, zeharkako zaintzaz haratago. Oro har, beraiek ez dute zaintza eskatzen. Horrek oso muga delikatuak planteatzen ditu haien autonomiarekiko errespetuaren eta hazteko aukeren artean, eta baliteke arriskuak egotea haien osotasun fisiko eta mentalerako. Baliteke arreta horrek denbora gutxiago eskatzea, kantitateari dagokionez, ez dutelako zuzeneko zaintzarik behar; baina arretaren egokitasunaren eta kalitatearen aldetik, ordea, zorrotza da, eta adi egotea eskatzen du portaera-aldaketei dagokienez.⁹

Gorago azaldu den bezala, adin-tarte horietan autonomia dute eguneroko bizitzarako, baina haien heldutasun-maila dela-eta, ezin dituzte zenbait arrisku aurreikusi. Izan ere, 6 eta 11 urte bitarteko haurrek zenbait arriskuren pean egon daitezke, istripuak ez aurreikusteagatik. Gainera, kalteberak dira pertsona heldu harrapakarien abusuen aurrean; 12 eta 17 urte bitartekoek arrisku bereziak dituzte euren bizi-zikloko etapa berri batera igarotzean, eta horrek zenbait egoera anbiguo planteatzen dizkie (aurrerago azalduko dira).

Menkes-ek eta Sosak (2013) diotenez, «nerabeen kategoriaren barruan dibertsitate izugarria sartzen da, problematikoa, dinamikoa eta etena, eta, beste edozein biztanleriasektoretan bezala, onartu beharra dago nerabeek beti ez dituztela egitura sozialean txertatzeko moduak partekatzen». Hori dela-eta, egile horiek Morduchowicz, R. (2004) egilean lanari berrekin diote, zeinak hau dio: «Horrela, proposamen eta espazio material eta sinbolikoak sortzeko beharra sortzen da, euren ahots eta beharretatik abiatuta (sexu- eta ugalketaalderdietatik haratago), eta euren ibilbidearen subjektu izateko eskubidea aitortzen zaie».

⁹ Duela gutxi, Mexikon, komunikabide masiboen bidez, gazteen portaera-aldaketen inguruko kontuei buruzko kanpaina bat egin da, ordutegiei, lagunei, elikagaiei, haien gauzen ordenari eta abarri dagokienez.

Norma Fuller antropologoak (2003) gizonezko nerabeen eta arau sozialen urraketaren arteko harremana aztertu du. Egileak batez ere gizonei egiten die erreferentzia, nahiz eta aipatzen duen badiruela orain dela gutxi neskak ere maskulinoa hartzen hasiak direla, eta hori emakumeak sartzen ari diren bizitza sozialeko alde guztiekin lotzen da. Gazteen kulturaren geratzen da agerian hori: kultura hori zabaltzen ari baita lehen gizonekin soilik lotzen ziren soziabilitate-, kontsumo- eta balio-moduak sortzeko, gero eta gehiago emakumeenak ere badirenak. Aldaketa horien ondorio kaltegarrietako bat da alkoholaren eta beste droga batzuen kontsumoa areagotu izana emakume gazteen artean. Gainera, emakumeentzat, nerabezaroaren, lehen gaztaroaren eta emakumeen heldutasunaren definizioak berrikusten ari dira, besteak beste, honako faktore hauek direla-medio: sexualitatea eta ugalketa berriro definitzea, emakume gazteek familiaren aurrean autonomia handiagoa izatea, gizonen eta emakumeen arteko harremanetan berdintasun handiagoa izateko joera, eta, batez ere, euren bizi-proiektuetan amatasunak beste leku bat hartzea (Fuller, 2003: 80-82).

Oro har, haurtzaroaren eta helduarroaren arteko trantsizio-etapa anbiguotzat jotzen da nerabezaroa. Jada ez da mendekoa bizi-funtzioekiko, baina bai, ordea, ekonomikoki mantentzeko; agian ez da sexualki aktiboa, baina badu gogoan bere sexualitatea. Nahitaez, hausnarketa-etapa bat da. Bizitzaren esanahiaren bila dabiltza. Hutsune existentzian erori daitezke, eta galdera hauek planteatzen dizkiete beren buruei, besteak beste: «Zer helburu du nire bizitzak? Zergatik nago hemen? Zer egin nahi dut neure buruaz?».

Bestalde, iraganean, identitateak lanbideetatik ondorioztatzen ziren, neurri handi batean, eta hori izugarri aldatu da azken ehun urteetan; lan-eremuan apurketa bat egon da, egitura ekonomikoaren aldaketak eta aldaketa teknologikoak direla-medio¹⁰. Horrek lardaskatu egin ditu belaunaldien arteko harremanak. Izan ere, lehen produkzio-sistemaren arlo askotan jarduten zuten, eta lanbideen bidez ezartzen ziren gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak, baita maisu-maistraren eta ikastunaren artekoak ere, eta, horren ondorioz, hierarkia ekonomiko argia sortzen zen, lortutako esperientzia aintzat hartuta. Orain, berriz, bai nekazaritza tradizionala, baita artisau-manufaktura ere, izugarri murriztu dira. Lanbide asko desagertu dira; gaur egun, txandakatze handiko aldi baterako lanpostuak dituzten operadoreak dira langileak. Gazteek abantaila argia dute, zaharren aldean, teknologia elektronikoetan; izan ere, zaharrak, askotan, gazteen mende geratzen dira, baita eguneroko bizitzako gaiak konpontzeko ere, hala nola banku-kontuak erabiltzeko, kontu horiek jada ezin baitira bestela baliatu. Gurasoak eta aitonaamonak gazteen mende daude. Hierarkiak aldatu egiten dira.

Nerabezaroa bizi-zikloaren etapa bat da, non genero-identitatea bere arau propioekin eratzen den –arau horiek, neurri batean, helduen munduaren aurkakoak dira– eta non lehentasunak eta harremanak berriz definitzen diren. Izan ere, helduen arauari aurre egiteko ekintzak izaten dira nerabeen artean prestigio handiena dutenak (Fuller, 2003:74). Horrenbestez, etapa arriskutsua da (askotan, beste nerabe batzuek ezarritako trantsizio-errituen mende egoten dira). Bereziki gizonak probatzen du etxeko ordena urra dezakeela eta helduei aurka egin diezaiekeela, parekoen taldeak onar dezan eta gizonezko indartsu izatearen ospea eman diezazion, autosuntsitzeko arriskua izanda bada ere. Egia

¹⁰ Hemen ezin da gazteei eragiten dieten lan-merkatuaren eraldaketei buruz sakondu; Reguillo, R. (2013) izenekoan kontsulta daiteke, belaunaldien arteko harremanak baino ez dira aztertzen.

esan, gazte guztiek ez dute oinazez igarotzen aldi hori; badira ere eskolak eta familiak transmititutako balioekin identifikatzen direnak, eta batzuk baita elizarekin ere. Beste batzuek sentsibilitate desberdinak dituzte, eta ez daude ados parekoen taldearen kulturak proposatzen duen gizotasun-ereduarekin; beste batzuk, berriz, baztertuta geratzen dira (Fuller, 2003:75). Bestalde, helduekin modu akritikoan lerrokatzen direnak ez dira helduak izatera ailegatzen, eta ez dute asertibitaterik lortzen ezta helduaroan ere; are gehiago, desabantailan daude prozesu konplexuetatik igarotzen direnen aurrean, azken horiek sendoago bilakatzen baitira, beren buruarekin segurtasun handia izanda, sufritu dutena dela-eta erresilientzia-prozesu bat bete eta arrisku handien eraginpean egon ondoren, edo, besterik gabe, aurrez ezarritakoaren aurka egin ondoren.

Esquivel, Faur eta Jelin egileek (2012:12) haurtzaroari buruzko aipamen bat egin dute, hemen aintzat hartutako adinetara zabal daitekeena. Honako hau diote: «Defizitek eta une jakin batean asebate gabe geratutako eskaerek markak uzten dituzte etorkizuneko garapenean, eta ondorioak izango dituzte gaur egun zaindu gabe dauden haur horien bizitzan zehar». . . «Gainera, justifikazio instrumental bat dago, oso modan dagoena, eta zaintzak hazkunde eta dinamismo ekonomikorako duen esanahia azpimarratzen duena, 'inbertsio sozialaren' ardatz gisa ikusitako giza kapitalari egindako ekarpen gisa, hain zuzen. Ildo horretan, bide bikoitzeko prozesu bat dago: alde batetik, berez da beharrezkoa pertsonak zaintzea, eta, beste alde batetik, beren komunitateen garapen ekonomikoan eta sozialean hobeto parte hartzeko ere bai».

Bestalde, garrantzitsua da aukerak gaztaroan indartu behar direla kontuan izatea, hau da, ikasteko gaitasuna eta sormena betebetean daudenean; horrenbestez, haien garapenerako elementuak eman behar zaizkie, ez bakarrik gazteen onurarako, baizik eta jendarte osoaren onurako ere bai.

3.2 Nork egin behar ditu zaintza-lanak?

Razavik (2007:31) zaintzan esku hartzen duten ongizatearen lau instantzia nabarmentzen ditu: familia, Estatua, merkatua eta komunitatea¹¹. Horietako bakoitzak eginkizun aldakorra dauka. Zenbait egilek aipatzen dituzte instantzia horiek, nahiz eta, oro har, ez den argi eta garbi definitzen instantzia bakoitzaren zeregina eta lotura. Zehazten ahaleginduko gara berehala.

3.2.1 Familia

Familia mendeko pertsonak zaintzeaz arduratzen den erakunde sozial nagusia dela defendatu da. Oro har, halaxe da bizitzaren hasieran; horregatik, toki askotan, ideia hau nagusitzen da: familia-loturek beti ematen dituzte kalitatezko zaintza-harremanak, harreman afektiboetan eta erantzukizunaren zentzu sendoan oinarrituta daudelako.

¹¹ Eta hori bat dator Uruguai proposatutakoarekin.

Ez da, ordea, beti horrela izaten: familien egitura aldaketak izan direla ere kontuan hartu behar da, baita ingurune sozialean, helduen jardueretan, eta denboraren banaketan ere. Iraganean, zenbait belaunaldi bizi ziren elkarrekin, egitura zabalak zituzten familien barruan, eta haietan zaintza modu natural batez egiten zen haien arteko harremanetan, hau da, elkar zaintzen zuten. Gaur egun, familia nuklearrak dira ohikoenak, seme-alaba gutxi dituztenak, eta anaiarreben eta ahizpa-neben arteko bizikidetzak eta elkarrekiko zaintza murriztu egin da, edo ez dago horrelakorik.

Zaintzak familiaren esku egoteko beste arazo bat da helduek adingabeak zaintzeko denborarik ez izatea. Izan ere, familia-dinamika aldatu egin da, emakumeek merkatuan duten partaidetza handitu egin da, eta lehen zabala zen familia-egitura orain nuklear bihurtu denez, ez dago etxean zaintzan denbora nahikoa ematen duen inor. Mexikoko Hiri osorako egindako azterlan batean ikusi zen helduek (18 eta 64 urte bitartekoak) zenbat denbora eman dezaketenean, batez beste, 6 eta 17 urte bitarteko adingabeak zaintzen, beren denbora librean erabiliz. Hona emaitzak, estratu sozialen arabera: 45 minutu, estratu oso baxuan; 56 minutu, behekoan; ordu 1 eta 9 minutu, erdikoan; eta ordu bete eta 27 minutu, goiko mailan (Pedrero eta beste batzuk, 2016).

Iraganean, emakume baten ardurapean egon ohi zen zaintza-lana, baina gaur egun, etxeetan bi hornitzaile egoteko beharra dagoenez, batzuetan nerabeak izaten dira haurrak edo adinekoak zaintzen dituztenak, eta egoera horrek mugatu egiten du nerabe horien garapena.

Etzeko kideen denborarik faltari ez ezik, familiak beste muga batzuei ere aurre egin diezaieke, hala nola belaunaldi-aldaketak edo bizi-zikloaren eraldaketak ulertzeko gaitasunik ezari. Horrek oso muga delikatuak planteatzen ditu etxekoen autonomia errespetatzearen eta hazteko aukeren artean, haien osotasun fisiko eta mentala zaintzeko beharrezkoak diren mugekin. Beste muturrean dago erabateko permisibitatea, seme-alabek helduen aurka eragindako indarkeria bihur daitekeena. Horregatik, biztanleria hori zaintzeko aukerak planteatu behar dira, familiarik kanpo zein familiaren barruan.

Hau da, familia zaintzaren protagonistatzat jotzen duen ikuspegia ez da jada aukera bakartzat hartzen, nahiz eta praktikan hura den nagusitzen dena, Díaz-Fernándezek, Montserratek eta beste egile batzuek adierazten duten bezala (2018:45): «Zuzenbideari eta zaintzaren erantzukizunei buruzko legeria gehienetan, gurasoek –eta batez ere amek– haurrak artatu behar dutela jasotzen da, horretara murrizten da dena, eta ez dugu inolako aurreikuspenik aurkitzen, berriz, jendarteko gainerako kideek bete dezaketen zereginari buruz».

Zalantzarik gabe, ezin da familia alde batera utzi; familia baita ziurtasunik handiena eman dezakeena prestakuntza- eta hazkunde-etapak behar bezala garatzeko, betiere baldin eta sendoa bada eta sostengu emozionala ematen badu. Familiaren baldintzarik gabeko maitasuna zorientasun pertsonalaren iturria da; familia-harreman onek autoestimua eragiten dute. Hala ere, zoritxarrez, familiaren baitan ere izaten dira, kasu batzuetan, adingabeen kontrako mehatxurik txarrenak; horregatik, garrantzitsua da alarma-seinaleak detektatzea, eta gazte horiek babesteko mekanismo alternatiboak sortzea.

Familiak ematen duen maitasuna idealizatzea arriskutsua da, eta familian izaten diren gehiegikeriak eta indarkeriak ez dira hain salbuespen. Izan ere, nahiz eta gutxiagotan gertatu, oso larriak izaten dira, dakartzaten ondorioengatik. Askotan, isiltasunezko konspirazioa egoten da; etxe- eta familia-barruko abusuak eta tratu txarrak oso fenomeno ezagunak dira, eta kontuan hartu behar dira zaintza «onak»

nola ziurtatu pentsatzerakoan, familiako kideek eskainitako eta jasotako zaintzaren kalitatea monitorizatzeko moduak aurkituz.

Badirudi familiak ematen duen zaintza, maitasunean oinarritutakoa, zaintza berezia dela, bakarra, eta desberdina diru-trukea dakarren zaintzaren aldean. Hala ere, muturreko kasu batzuetan, familiaren maitasuna, benetakoa izan arren, arriskutsua da, pertsonen garapena mugatzen duelako, gehiegizko babesa edo xantaia morala izaten baitira tartean. Era berean, kontuan izan behar da helduak ez daudela beti prestatuta nerabeen premiei erantzuteko, maitasun handia dizkieten arren. Prestakuntza-falta orokorragatik edo gurasoen edo tutoreen heldutasun emozional faltagatik gertatzen da hori. Askotan ez dute onartzen seme-alabak hazten ari direla, eta euren espazio propioa errespetatu behar zaiela, eta gazteek arrisku batzuei bakarrik aurre egiten ikasi beharko dutela. Seme-alaben independentzia onartzea bereziki zaila izan daiteke beren bizitza familiari eskaini dioten etxeko andreentzat (baita beren bizi-proiektua horixe izan den andreentzat ere), baita seme-alaben portaera batzuk ezin onarturik (beraiek markatu ez dituztelako) dabiltzan aita autoritarioentzat ere.

Laburbilduz, gorago adierazitakoagatik, askotan familia ezin da izan zaintza ematen duena, ezta helduek ezarritako boterea ordezkatzeko duen edozein eremu ere. Beraz, aukerak bilatu behar dira gazteei erantzunak eskainiz eta haien erantzukizun-zentzu handia sustatuz. Familia eta eskola beti dira garrantzitsuak portaera arriskutsuak detektatzeko, baina hantxe ere egon daiteke arazoa: horregatik, batzuetan, hirugarrenengana jo behar izaten da premia horiek artatzeko, eta hirugarren horiek horretarako behar den prestakuntza profesionala izan behar dute, baita azpiegitura ere. Horri buruzkoa da, hain zuzen, amaieran azaltzen den politika publikoetarako proposamena.

3.2.2 *Estatua*

Zerbitzu-hornitzailea edo sorospenen eta finantza-transferentzien administratzailea baino gehiago da Estatua. Estatuak eginkizun espezifikoa du zaintza-harreman guztien gutxieneko estandarrak arautzeari eta monitorizatzeari dagokionez –etxean eta eskolan, komunitate-erakundeetan eta merkatuan–, bai eta ordaindutako edo ordaindu gabeko zaintzaileekin lotutako gaietarako ere. Muturreko egoeretan, zuzenbide penalak definitzen du atalasea: indarkeria fisikoa, sexu-abusua, abandonua edo baita heriotza ere.

Estatuak eta giza eskubideen nazioarteko zuzenbideak zeregin garrantzitsua dute horri dagokionez; antolaketa sozial baten zati bat bezala ulertu behar da zaintza; alderdi mikrosozialei ez ezik, arreta jarri behar zaio politika publikoek aktoreei esleitutako zaintzaren arloko harremanak, jarduerak eta erantzukizunak hornitzeari eta arautzeari dagokionez duten rolari ere. Kalitate-maila batzuk eta bete beharreko eskubideak bermatu behar ditu. Kasu guztietan, politikek printzipio eta kasu jakin batzuei erantzuten diete, eta biztanleriaren «behar» gisa definitzen dira¹².

¹² Fraserren (1997) «premiak» definitzeko eztabaida interesgarri bat ikus daiteke, eztabaida politikoa, postsozialismoaren eta ongizate-estatuen eraispenaren garaian.

3.2.3 *Merkatua*

Zaintzen hornitzaile bilakatu zen merkatua, soldatapeko ama langileen seme-alaba txikiak eta adinoko helduak (besteak beste, kotizaziopeko pentsioak dituzten erretiratuak) zaintzeko premiaren ondorioz. Premia horiek alde batera utzita, laneko egoeratik aparte, Gizarte Segurantzak ematen ez dituen zaintzazerbitzuen eskaera dago. Merkatuak erantzun beharko lioke eskaera horri. Hala ere, desberdintasun handiak ditu Latinoamerikako jendarteak, non maila sozioekonomiko altuek soilik eska ditzaketen ordaindu beharreko zerbitzu instituzionalak. Batez besteko estratu sozialek etxeko zaintza informaleko zerbitzuak eskura ditzakete; oro har gaizki ordainduak dira, eta lan-baldintza prekarioak dituzte, eta zerbitzu merkeak dira, klase ertainetara iristeko modukoak.

Interesatzen zaizkigun adinetarako, merkatuan jarduera ludikoen edo artistikoen eskaintza bat dago, eta zati batean zaintzatza har liteke, denbora-tarte horietan haurrak eta gazteak lagunduta egoten direlako eta orientazio profesionala dutelako, jarduera bat egiten ari diren bitartean. Neska-mutilak gainbegiraturata daude kontratatutako jardueren ordutegiaren barruan; baina haietatik kanpo, ez. Garrantzitsua da jarduera horiek asmo handiagoko programetan sar daitezkeela aipatzea, aurrerago ikusiko dugun bezala.

3.2.4 *Komunitatea*

Komunitate bat (latinetik, *communitas*, -ātis) pertsonen osatutako talde bat da, elementu jakin batzuk partekatzen dituen, hala nola hizkuntza, ohiturak, balioak, zereginak, munduaren ikuspegia, adina, kokapen geografikoa (auzo bat, adibidez), estatus soziala edo rolak¹³.

Herri txikien kasuan, ez zegoen zalantzarik komunitate bat zer zen; jendeak bazekien pertsona bakoitza zertan aritzen zen, zein leku betetzen zuen jendartean. Beraz, komunitate osoak egunero zaintzen zituena gazteak. Hori orokortuta zegoen iraganean, baina gaur egun guene gutxitan gertatzen da hori, baita herri txikietan ere. Kontrol hori ez da gertatzen, eguneroko mugikortasuna dagoelako haien perimetrotik kanpo, eta jatorrizko komunitatearen kontrol sozialetik kanpo geratzen da. Hau da, gaur egun, urbanizazio-prozesuen ondorioz, ezinezkoa da hiri-kokagune bat *per se* jotzea komunitatetzat.

Horrenbestez, komunitate bakoitza erreferente geografiko batekin definitu behar da, lurraldetasuna garrantzitsua delako identitatean. Dena den, hori ez da nahikoa, beste atributu batzuetan ere oinarritu behar da, esaterako, interes komunean, komunitateko kideak automatikoki identifika daitezen, eta eguneroko topaketa fisikoa egon dadin, ez birtuala soilik. Hitz egiteko, egunero elkarrekin bizitzeko, interes komuna bilatzeko aukera eman behar du komunitateak. Horrenbestez, funtsezkoa da lurraldearen kontzeptua berriz formulatzea, tokikoaren ideia identitate soziokulturaleko elementu gisa sartuz. Ildo horretan, honako hau adierazi da: «lurraldea eremu esanguratsua da bertan bizi den taldearentzat (heterogeneoa eta askotarikoa dena, sozialki eta kulturalki), eta gizabanakoek harreman bat sortzen

¹³ Wikipediaren definizioa. <https://es.wikipedia.org/wiki/Comunidad>

dute harekin kontzientziamaila sakon batean» (PNUD, 2012:34). Ziccardiren arabera (2012:187): «Espazio batzuetan non herri-sektore ugari bizi diren, sektore horiek aurre egin ahal izan diete lurraldesegregazioko eta bazterketa sozialeko prozesuek eragiten dizkieten ondorio kaltegarriari, antolatzen duten gaitasunari esker» ... «Gobernuaren erantzukizuna da auzo herrikoietan espazio publikoak erakitzea edo suspertzea (elkartzeko eta jolasteko tokiak birgaitzea edo sortzea, bai eta zaintza-zerbitzuak emateko lekuak ere) gizarte-, kirol-, kultura eta jolas-jarduerak egin ahal izateko oinarritzko baldintza materialak sortzeko, tokiko eremuan bizikidetzako komunitario hobea garatzen laguntzeko eskubidea gauzatzeko modu bat bezala».

Horrela, bada, barne-elkartasuneko potentzial batek mugatzen duen espazio geografikotzat jo daiteke interes-komunitatea, eta, aldi berean, barne-elkartasuneko potentziala duena, askotariko dimentsiokoa. Horretarako onartu behar da lurralde horretan elkarreragiten dutela identitate sozialek eta historikoez, eta haien arteko intersekazioa gertatzen dela, non subjektuak erlazionatzen diren eta erakunde publikoek eta pribatuek esku hartzen duten (NBGP, 2012). Beraz, elkarbizitzan elkar zaintzeko jarduerak egin daitezke modu naturalean komunitatean; eremu horretan zaintza eta zaintza zerbitzu kolektiboak gara daitezke, istripuak saihestu eta eguneroko bizitza erraztuko duen azpiegitura bat izan dadin.

3.3. Arrisku berezien araberrako beharrak

Politikari dagokionez, Latinoamerikako herrialde gehienek ezaugarriak dira jarraitutasunik eza eta gorabehera handiak izatea politika sozialean. Bereziki, gaur egun, gazteek zenbait arriskuri egin behar izaten diete aurre, artatuak izan gabe, eta arrisku horien biktima direnean ez bada konponbide egokirik bilatzen, arriskuok zoritxar bilakatu daitezke adingabearentzat berarentzat, haren ingurunearentzat, eta, oro har, jendarte osoarentzat. Batez ere ezbeharra nozitu duen pertsonaz arduratu behar duenari eragingo dio (normalean amari edo beste emakume bati), hori egitea larrutik ordaintzen delako, batez ere denborari dagokionez.

Bete gabeko oinarritzko premia askoren testuinguruan, ez da arraroa 6 eta 17 urte bitarteko herritarrek «talde ahaztua» izatea zaintzei dagokienez, «premia handiagoko» beharren aurrean, nahiz eta inbertsio handia egin behar den, ez hainbeste denborari dagokionez, baizik eta arretaren kalitateari dagokionez, batez ere arrisku-praktikak saiheste aldera.

Adin horietako gazteen zaintza aintzat hartzekotan, bigarren mailan jartzen da¹⁴. Oro har, zaintzak ez dira beharrezkotzat jotzen haur nagusientzat eta desgaitasunik ez duten nerabeentzat, zeharkako zaintzatik harago, haietarako adin jakin batean autonomia lortzen baita. Hala ere, zaintza espezifikokoak behar izaten dira, eta zaintza horiek gutxietsi egiten dira. Gogo-aldartearen eta arriskuen zaintza alde batera uzten dira, eta, askotan, ez da kontuan hartzen arreta merezi duten gaiak direla.

¹⁴ Badaude gazteei zuzendutako instantziak, batez ere entretenimendukoak, baina ez dute prebentziozaintzarako planteamendurik aurrean dituzten arriskuei aurre egiteko.

Goian adierazi bezala, ezbehar batek zuzeneko biktimarengan izaten ditu ondorioak, hari ezintasun iraunkorraren arrastoak uzten dizkionean, baina, horretaz gain, bizitza osoan eragiten dio ezbeharra jasan duen pertsonaren zaintzaz arduratu beharko denari (erantzuleztat ere jo ohi da). Oro har, pertsona hori odolkidetasunagatik edo ezkontza-ahaidetasunagatik hurbilen dagoen emakumea izaten da (ama, lehenengo kasuan). Lanerako eta prestakuntzarako aukerak mugatuta izango ditu zaintzaileak, eta aisialdia murriztuta; haren osasun fisiko, mental eta emozionalean eragingo du egoera horrek guztiak. Ezbeharrak familiarremanak lardaskatzen ditu, nahitaez, eta baliteke, gainera, aurretik ere familia-bizikidetzat txarra egotea. Hori areagotu egingo da aparteko lan-kargarengatik eta erruak erabiltzeagatik ezartzen diren kargengatik, ez bakarrik zaintzailearen eta zaintzailearen artean, baita familiarako kide guztien artean ere.

Prebentzio-politikak eta ohiturak zuzentzeko politikak bilatzea da proposamena, ezbeharrak saihesteko; ezbehar horiek oso garestiak izan baitaitezke, ez soilik ekonomikoki, baita bizi-kalitateari dagokionez ere, batez ere ezintasun iraunkorren bat tartean dagoenean. Osasunari kalte eragiten dioten ohiturak dira, esaterako: adikzioak gaztetan; nerabeen haurdunaldia edo ezkontza; suizidio-saiakera, elikadura-ohitura patologikoak; sexuabusua neskaten eta mutikoen aurka, eta helduek (familiarakoak zein familiarakoak ez izan), baita zaintzaileek ere, eragindako beste indarkeria-modalitate batzuk.

Planteamendua zera da: prebentzio-estrategiatzat hartzea zaintza adin horretan. Xede den biztanleriari buruzko diagnostiko batetik abiatu behar da, eta prebentzio-programak egin behar dira gazteak babesteko eta bizitza beteagoa eskaintzeko. Eta Alicia Ziccardik (2012) adierazi duenez, horretarako, giza baliabideez gain, baliabide ekonomikoak, instituzionalak (juridikoak, esaterako) behar dira, besteak beste.

Haurren eta gazteen parte handi bat arrisku batzuen eraginpean daude, neskek zein mutilak izan, haien adinaren ondorioz. Kalteberatasun horiek klase sozial guztiei eragiten diete, eta beti egon dira (bizitza babestea, sexu-jazarpena). Batzuen inguruan aspalditik jabetu gara, eta beste batzuk, berriz, orain duela gutxi hasi dira aitortuak izaten, hala nola eskolako bullynga, edo adingabeak pornografia edo droga-salmenta bezalako merkatu espezifikotzat hartzen dituzten negozioen hedapena. Gainera, teknologia berriak sartzetik ondorioztatzen diren beste batzuk ere sortzen ari dira, bereziki Internetekin lotutakoak; errealitate hori saihestezina da, eta egunez egun hedatzen doa, batez ere gazteen artean. Baliabide hori okertzat jo eta mugatzen edo kontrolatzen saiatu beharrean –hori lortzea ezinezkoa dela ematen baitu–, baliabide bera erabili beharko da gure gazteekin komunikatzeko eta haiei deialdiak egiteko, xedebiztanleria horrentzat modernoak eta erakargarriak diren teknikak erabiliz. Egingarria dirudi horrek, Morduchowicz (2013:81) autoreak dioen bezala: «Nerabeek aisialdirako duten lehen aukera lagunekin irtetea da, nahiz eta etxean denbora asko ematen duten baliabide horiek erabiliz, baina aukeratzea izango balute, aisialdian lagunekin bizitza soziala egitearen alde egingo luketeki».

Antzemandako arriskueta batzuk eta haien alde espezifikokoak hurrengo atalean aurkezten dira, Mexikori erreferentzia eginez. Biktima izatearen arriskuak eta ondorioak generoaren arabera bereizten dira, eta mutilentzat eta neskentzat modu espezifikotan heldu behar zaio haien prebentzioari.

3.4 Arriskurik ohikoenak¹⁵

3.4.1 *Cyber-jazarpena*

Cyber-jazarpena edo *cyberbullying*-a indarkeria-mota berri bat da, pertsona bati interneten bidez eraso psikologikoa eragiten diona edo abusu fisikora ere iristen dena, eta mugikor bat, bideokamera bat eta web-atari bat erabiliz egiten dena.

Mexikon, maila ertaineko ikasleekin egindako azterlan batek zera detektatu zuen: % 24k sentitu zuen noizbait interneten bidez sexu-jazarpena jaso izana (López eta Sánchez, 2011). Zifra horiekin lotuta, internet erabiltzen duten adingabeak estortsioaren, abusuaren, haurpornografiaren eta interneteko beste indarkeria-modu batzuen biktimak izan daitezke. Zyber-jazarpena (Ibarra, 2014; Smith *et al*, 2008; Kiriakidis eta Kavoura, 2010), sexting-a eta grooming-a daude, besteak beste, indarkeria-mota horien artean. Internet baliatuta, jazarpena edo exhibizionismoa egitea, iraintzea, deskalifikatzea, sare sozialetan inbaditzea edo identitatea ordeztzea: hara hor modurik ohikoenak. Bestalde, Komunikazio Teknologien Institutu Nazionalaren arabera, *sexting*-a da «ikusizko eduki sexualak zabaltzea edo argitaratzea, horretarako telefono mugikorra edo beste edozein gailu teknologiko erabiliz» (Ibarra, 2014:85). Helduek adingabearen konfiantza lortzeko eta kontzesio sexualak lortzeko interneten bidez garatzen dituzten estrategiak dira *grooming*-a. Indarkeria-mota berri horiek are mehatxagarriagoak bihurtzen dira kontuan hartzen bada gailu mugikorretarako multimediaedukien geolokalizazio-aplikazioek adingabeen kokapen fisikoaren berri lortzea errazten dutela.

Indarkeria-mota horren biktimek sintoma hauek izaten dituzte: estresa, antsietatea, depresioa, amorrua, inpotentzia, nekea, gaixotasun fisikoa, beren buruarekiko konfiantza galtzea (besteak beste), eta horrek praktika suizidak edo abusua gauzatzea ekar dezake (Smith et beste egile batzuk, 2008).

3.4.2 *Suizidioa eta bullying-a*

INEGIren zifren arabera, mende honetako lehen hamarkadan behera egin du biztanleriak oro har egindako suizidioen kopuruak. Hala ere, Psikiatriako Institutu Nazionalak % 74ko igoera erregistratu zuen, Mexikon, 15 eta 24 urte bitartekoen suizidio-kopuruan, eta horrek esan nahi du gazteak gero eta errazago bihurtzen direla arazo horren jomuga (Jiménez eta Cardiel, 2013).

Telebistako elkarrizketa batean (2018), Juan Ramón de la Fuente psikiatrak, zeina Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoko (UNAM) 16 errektore ohia baita, kasu bat kontatu zuen, non pertso-

¹⁵ Atal hau Pedreroren eta beste batzuen lanetik hartu zen batez ere, eguneratuta, eta eranskinak txertatuta.

¹⁶ Canal 11 katearen «México Social» saioan izan zen, Mario Luis Fuentesek gidatua, 2018an.

na batek bere buruaz beste eginarazten ahalegindu baitziren, interneten bidez. Eta bere buruaz beste egiten saiatu zen paziente nerabe bat artatzerakoan, gaztea aipatutako bitartekoaren biktima izan zela egiaztatu zuen. Haien eraginkortasuna ezagutzeko, De la Fuente doktoreak berak identitate faltsua sortu zuen, nerabea zelako itxura eginez, eta, horrela, bere pazientearen zirkuituan sartu zen. Modu horretan egiaztatu zuen beren buruaz beste eginarazten zituztela, sistematikoki: «ustezko gazteak» bide suntsitzaitetik irteteko bide bat asmatzen zuen bakoitzean, sistemak «berbideratzen» zuen bere buruaz beste egiten saiatzen jarrai zezan. Aduaren esanetan, indukzio hori psikiatriako profesionalek gidatzen zuten (ez batek, talde batek baizik), gazteak nola maneiatu bazekitelako. «Zeren bila ote dabilzan» galdetzen zuen, ez baitzegoen dirurik tartean. «Portaera maltzurra» da, benetako mehatxua.

Aldi berean, Mexikon, beste herrialde batzuetan bezala, *bullying*-ari lotutako heriotzak ugartzen ari direla iradoki da. Duela gutxi hasi dira *bullying*-praktikak (*in situ* eta internet bidez) lotzen 10 eta 19 urte bitarteko pertsonen suizidioek eragindako heriotzekin¹⁷, suizidio horiek nazioko guztizkoaren % 28 direla (Arroyo eta Bertomeu, 2012).

3.4.3 *Elikadura-ohituren trastorno patologikoak*

Bulimia- eta anorexia-arazoak ezagunak dira nerabe batzuen artean, heriotza eragin dezaketen patologia psikologiko gisa. Batez ere emakumeek izaten dituzte arazo horiek, jendartean eta komertzioan presio handia egiten delako, emakumeen gorputz-irudia asko baloratzen diren kanon jakin batzuetara egokitzeari ematen zaion garrantzia dela-eta. Arazo horiek artatzeko zenbait erakunde daude: besteak beste, Anorexiaren eta Bulimiaren aurkako Elkarte¹⁸.

Elikadurarekin lotutako beste arazo psikologiko bat «jatun konpulsiboena» da, herritarren artean diabetesaren gorakada handia eragin duena. Mexiko da pertsona diabetesadun gehien dituen zazpigarren herrialdea, eta haurren eta gazteen ehuneko handi batek pairatzen du gaixotasun hori. Adibidez, Osasunari eta Nutrizioari buruzko Inkesta Nazionalak (ENSANUT, 2012) erakusten duenez, Mexikoko helduen % 70ek baino gehiagok gehiegizko pisua edo obesitatea dute; nerabeen artean, berriz, zifra hori % 35ekoa da, eta haurren artean, berriz, ehuneko horretara iristen da ia. Kopuru kezkarriak, gazteen artean diabetesa larriagoa delako; gainera, jarduera fisikorik eza adierazten du, eta hori bereziki negatiboa da hazkunde-etapetan.

¹⁷ Suizidioaren estatistika ofizialetan erregistratzeko eta identifikatzeko zailtasuna adierazi da, suizidioak heriotza-kausa gisa ez sailkatzeko joera dagoelako; izan ere, batzuetan, familiek heriotza-mota hori ezkututzen dute, istripu bidezko heriotza-diagnostikoaren pean (Jiménez eta Cardiel, 2013).

¹⁸ Ikusi: www.acab.org/es/documentación/que-son-los-trastornos... /

3.4.4 *Nerabeen haurdunaldiak*

Nerabegaroko haurdunaldia da beste arrisku handienetariko bat (Menkes, eta beste egile batzuk 2016). Nerabegaroko haurdunaldiak Mexikon duen eragina arazo garrantzitsua da, ez soilik osasunarena –eta ugalketa-osasunarena–, baizik eta sexu-, ugalketa- eta giza eskubideena ere. Datuek erakusten dute, nahiz eta Mexiko trantsizio demografikoaren etapa aurreratuan egon, azken hamarkadan areagotu egin da nerabeen haurduntza eta ugalkortasuna. Dinamika Demografikoaren Inkesta Nazionala (ENADID, 2014) datuak aipatu dituzte, eta lehen harreman sexuala lehenago izan ohi dela iradokitzen dute. 2014rako, kalkuluen arabera, nerabeen % 55,1ek baino ez zuten antisorgailuren bat erabili lehen harreman sexualan (Menkes, eta beste batzuk, 2016). Nerabeen haurduntza-tasak nazio-mailako haurdunaldi guztien % 16 inguru izan ziren. Proporzio horrek ez du behera egin 1991tik, eta 2009tik gora ere egin du.

Mexikon gaiari buruz egindako azterlanek adierazten dute lotura bereizezina dagoela nerabegaroko haurduntzaren eta bizi-baldintza objektiboen artean. Oraindik ere alde handiak daude baldintzatzaile sozialen arabera, bai ugalkortasun-mailan, baita haurdunaldi-mailan ere. Herralde horretan, haurduntza eta ugalkortasun-maila handiena duten nerabeen ezaugarriak hauek dira: elkartze librean bizi dira (legeztatu gabeko senar-emazteen bizikidetzan), eskolatze txikiagoa dute, ez dute diru-sarrereren truke lan egiten, maila sozioekonomiko baxuenetik datoz, landaeremuetan bizi dira, eta neska indigenak dira. Eredu nazionalan, nerabeen haurdunaldien proportzioak behera egiten du, kide-tza-geruzak hobera egiten duen heinean; nesken proportzioa % 40era iristen da behe-mailan, eta % 3,8ra, goi-mailan (Menkes, eta beste egile batzuk, 2016). Haurdunaldi horietako asko ez dira nahi gabe gertatzen, emakumeek beraien haurdun geratu nahi izaten baitute, amatasuna oso baloratuta dagoelako, eta oso ingurune pobrea izanik beste bizitzaproiektu batzuk egiteko aukera mugatuak dituztelako.

Oro har, nerabeen haurdunaldia ama ezkongabeekin lotzen da; hala ere, adingabeen ezkontza ohikoa da Mexikon, eta hura desagerrarazteko lehen oztopoa izaten da ez direla jabetzen hori arazo bat dela (Pérez Amador eta beste egile batzuk, 2015), nahiz eta gertaera horrek ondorio negatiboak izan adingabeen bizitzan.

3.4.5 *Ezkongaien arteko indarkeria*

Zoritxarrez, nahikoa ohikoa izaten da indarkeria ezkongai-harremanetan, Mexikon (Castro eta Casique, 2010)¹⁹. Gai horri buruzko estatistika-indizeen balioak aldatu egiten dira sexuaren eta adinaren arabera, jakina. Zifrek adierazten dute arazoak zer dimentsio duen Mexikoko gazteen artean. Bikote gazteen arteko abusuzko -jokabideek –noranzko bakarrekoak, batzuetan, eta elkarrekikoak, beste batzuetan– ondorio negatibo ugari izaten dituzte, aldi baterakoak edo bizitza osokoak; eta ez bakarrik kalte fisikoaren potentzialagatik (lesio arinak, oso larriak edo heriotza), baita biktimarentzat arazoak

¹⁹ Ezkongai-aldiko Indarkeriari buruzko Inkesta Nazionala (ENVINOV 2007) aztertzen dute egileek. Inkesta hori 15 eta 24 urte bitarteko gazteei –gizonei eta emakumei – egin zitzaion.

dakartzatelako ere, hala nola autoestimua murriztea, arazo kognitiboak, zereginak eta jarduerak egiteko zailtasunak, depresioa, suizidioa, antsietatea, haserrea, adikzioak eta nahigabeko haurduntzak.

3.4.6. *Krimen antolatuak kooptazioa egitea edo bahitzea*

Askotan, krimen antolatuaren biktimak izaten dira etorkizunerako alternatiba argirik ez duten gazteak, kidego-talde batean identitaterik ez dutenak, jakin-mina eta bakardadea dutenak; izan ere, erakarri egiten dituzte ez soilik droga-kontsumitzaileak izateko, baizik eta droga-saltzaileak eta droga jendearen artean sartzen direnak izateko ere («txikikazko narcoak»). Bestalde, argi dago sikario edo agente gisa erabiliak izaten direla pertsonen salerosketarako, sexu-zerbitzurako eta pornografiarako biktimak lortzeko helburuarekin. Hori guztia dirusarreraren desberdintasun sakonaren testuinguruan gertatzen da; izan ere, biztanleriaren sektore handi bat muturreko pobrezian bizi da, eta luxuzko kontsumoaren eraginpean, baina arazo hori, dena den, ez da soilik gazte pobreena.

Emakumeak ere biktimak izaten dira, batez ere sexu-salerosketa edo -merkataritzarako. Zoritxarrez, antolatutako krimenetik kanpo ere ikusten da adingabeen sexu-erabilera, adingabearen hurbileko zirkuluetan (eskola, eliza, auzokoak eta familia bera).

4. **Politika publiko baten proposamena, 6 eta 17 urte bitartekoei zuzendua²⁰**

Proposamenaren xede-populazioa 6 eta 17 urte bitarteko pertsona guztiak dira, eskolara joan zein ez, lan egiten duten ala ez, eta edozein maila sozialetakoak izanik ere. Adin kritiko horietan, guztiek behar izaten dute arreta, nortasuna sortzen ari baitira, baita pertsona eta langile gisa etorkizuna eraikitzen ere. Batzuek besteek baino arreta gehiago behar izaten dute. Bazterreko baldintza ekonomikoak direla-eta, batzuk egoera ahulagoetan daude, baina beste estratu sozial batzuetakoek ere, egoera ekonomiko pribilegiatuan egon arren, arreta behar izaten dute, eta konpainia, eta ulertuak izateko beharra ere badute. Guztiek sustatu behar dute beren gaitasunen garapena; pertsonak bezala loratuko direla ziurtatu behar dute, baita beren osotasun fisikoa, psikologikoa eta emozionala ere.

Talde horrentzat, ezin da politika publikoaz hitz egin helburu espezifikorik gabeko programa isolatuak garatzeko asmoz bakarrik, hori entretenimendu-jardueretan amaituko litzateke-eta. Benetan *politika publiko*a osatzeko, helburu argiak izan behar dituzte. Helburu horiek ongizatearen eraikuntza gisa planteatzen

²⁰ Aurretiazko bertsio bat egin zen Mexiko Hirirako, Pedrero eta beste egile batzuen (2016) dokumentuari dagokiona. Nahitaez berrikusi zen, eta aldaketak egin ziren esperientzia berrien ondorioz.

dira hemen, gazteek honako tresna hauek baliatuta gauzatu dezaten beren garapena: autozaintza, autoestimua, autoeraginkortasuna, asertibitatea eta autodeterminazioa. Horixe da, hain zuzen, ongizatearen teoriaren planteamendua, eta hori guztia oso positiboa da helburuei dagokienez, ezinbestekoak baitira ongizatea lortzeko. Hala ere, planteamendu indibidualistak direnez, proposamen honetan gizarte-sarea berreraiki nahi da, eta horregatik gehitzen zaio haien ekintzek jendarteak duten erantzukizun-zentzua eraikitzea.

Ongizatea gizakiaren baldintza bat da, haurtzarotik eraikia, ingurumenarekin, familiarekin eta jendearekin interakzioan eraikia ere, eta bere buruari jarraitutasuna eta indarra ematen dio bizitzako zenbait gertakariri aurre egiteko. Haur eta nerabe guztiek istorio bat dute, zeina eraikitzen baita haien gurasoek izan dituzten aukeren, eman dizkieten zaintzen eta gurasoen eta seme-alaben artean sortu ahal izan duten komunikazioen bidez.

Ongizatearen eraikuntzak zenbait osagai ditu, haurrekiko eta nerabearekiko eguneroko esperientzian ezagutu eta garatu daitezkeenak (Orama, Santana eta Vergara, 2006). Hori haurren eta nerabeen aisialdia sormenez eta osasuntsu eraikiz lor daiteke, eta, horretarako, monitorizazio-sistema iraunkorrak dituzten kualifikazio handiko profesionalak eskatu behar dira.

Kontuan hartutako adinetan, identitatea dago premien artean, eta erreferentziazko talde bateko kide izatearen sentimendua, familiarik haratago, eta, hain zuzen ere, etapa horretako premietako bat familiarengandik urruntzea da, heldutasuna lortzeko.

Belaunaldi horri arazo bat planteatu zaio Interneterako sarbidearen ondorioz. Izan ere, milaka ate irekitzen dizkie harremanetan jartzeko, informazio-altxor kalkulazina eskainita, eta informazio hori kalitate-estandar handikoa izan daiteke, baina, halaber, minik eman diezaiekete, jasotzen dituen edukiak edo pertsonetikiko kontaktuak direla-eta. Gurasoentzat zaila izaten da seme-alabek mugikorrean, ordenagailuan eta telebistan ematen duten denbora kontrolatzea, baita baliabide horiek ematen dituzten edukiak kontrolatzea ere. Eduki horiek instantzien burutik sortu dira, tresna tekniko, sortzaile eta ideologiko guztiak erabilia horretarako. Askotan, haurrak oso istorio bortitzen eta zailen eraginpean egoten dira, eta istorio horiek esaten diete «horrelakoa da mundua», beraiek ezagutu, sortu edo imajinatu zezaketen mundua mugatuz.

Bizikidetz-espazioak behar dira, adingabeek jasaten dituzten arriskuak saihesteko, hain zuzen ere, aurreko atalean aipatutako arriskuak saihesteko.

Hezkuntza-erakundeek ezin dituzte premia horiek bete. Lehenik eta behin, eskolaurreko, lehen hezkuntzako eta maila ertaineko hezkuntzako ordutegiak oso mugatuak dira, eta oso gutxitan egiten dute bat gurasoen lan-ordutegiarekin. Horrek eragina izan dezake adingabeek dituzten arriskueta²¹, eskolatik etxera bakarrik joaten direlako edo eskolara denbora luzez egon behar izaten dutelako gainbegiratuak izan gabe, batez ere txikieneen kasuan (6 eta 11 urte bitartekoak), zeinak ez baitira jabetzen arrisku jakin batzuek.

²¹ Duela gutxi, ordutegi luzea duten eskolak izateko beharraz jabetu gara. Baina estaldura zabalarekin ezartzea proiektu bat baino ez da oraindik.

Horregatik, denbora librea gainbegiratuta erabiltzeko proiektu bat planteatzen da, haurrentzat eta nerabeentzat aukera handia dena, hazteko, elkar errespetatzeko eta konpainia osasungarria izateko espazio bat, alegia; gainera, gurasoek jarduera sortzaileak eskaintzeko duten beharrari erantzuten dio. Ez da denbora pasatzea besterik gabe, ez da entretenitzea baino ez, filosofia positiboa dakar-eta berekin batera. Horren zati bati hezkuntza bereziaren bidez erantzuten zaio, merkatuan eskaintzen diren jardueren bitartez, askotan gurasoen aurrekontutik ateratzen direnak.

Haien ongizatean laguntzen duen espazioa da, autozainketa, autoestimua, autoeraginkortasuna eta autodeterminazioa bultzatzen dituen, betiere genero-ekitatearen nagusitasuna zainduz, baita komunitateko kide izatearen sentimendua ere. Adin bereko neskautilen arteko bizikidetzak sustatzen da, errespetuzko eta adiskidetasunezko giroan. Morduchowicks-ek (2013) adierazitako horixe nahi dute gazteek, eta haren azterketak erakusten du nahiago izaten dutela lagunekin egon, denbora telebista, bideo-jokoak edo mugikorra ikusten pasatzea baino.

Auzoetan eta bizilagunekin lan egiteko estrategiek ibilbide luzea dute²², ez bakarrik indarkeria murrizteko helburuz, baizik eta kohesio soziala handitzeko, bakearen kultura sustatzeko eta xede-biztanleei programa horiek gabe nekez eskuratu ahal izango lituzketen jarduerak eskaintzeko ere bai. Estrategia nagusietako bat, hain zuzen ere, haurrak eta nerabeak helburu dituzten ekimenak hornitzea, haien aisialdia erabiltzeko alternatibak eskaintzen saiatuz, biltzeko egoitzak eta lekuak gaituz. Ildo horretan, ebidentzia empirikoek iradokitzen dutenez, auzoko hezkuntza informaleko lanen bidez (kirolak, jolas-praktikak, arte eszenikoak, musika, komunikabide komunitarioen ekoizpena, tailerrak eta abar), haurrentzako eta nerabeentzako aukerak ireki ditzakete, jendartean baloratuta dauden helburuen inguruan, eta, horrela, beren komunitatearen onarpena jaso ahalko dute (Abad, 2006). Aitorpen soziala dagoenean, trebetasun soziokognitiboak indartu eta areagotu egiten dira, eta interakzio sozial positiboak handitzen dira, eta pertsonen arteko konfiantza ere, baita gatazkak indarkeriarik gabe konpontzea ere, eta, modu horretan, haurren eta nerabeen autoestimuari laguntzen zaio.

Programa arrakastatsuak aurkitu dira Mexikon eta nazioartean, hemen iradokitako proiektua ezartzeko gida gisa balio dezaketenak. Adingabeen garapen integrala bilatzen dute. Aurkitu direnen eta proposamen honekin bat datozenen artean, Matthew Lipmanena dago (2010), *Haurrentzako Filosofia* (FPN) izenekoa, eta UNESCOren proposamena (2011), Gizarte Eraldaketarako Arte Irakaskuntzari buruzkoa. Trebetasunak sortzeko aukerarik ematen ez duen informazioa metatzeko prestakuntza teknokratikoari aurre egiten diote, garai honetan, non, hain zuzen ere, pertsonen erabateko garapenerako berrikuntza- eta sormen-gaitasuna beharrezkoak baitira.

Haurrentzako Filosofiaren planteamenduen helburua da adimenaren dimentsio guztietan indartzea umeak, txikitatik: sormen-gaitasunean, espiritu kritikoan, pentsamenduindependentzian, koherentzian eta logika mentalean. Hala, besteak beste, beste ikaskide batzuekin batera ikerkuntza-komunitate batean izandako esperientziaren ondorioz dimentsio horiek finkatzen eta eraldatzen dituzten

²² 1950eko hamarkadatik, ikuspegi hori Holandan, Belgikan eta Britainia Handian agertzen da, enpleguko, hezkuntzako eta jarduera soziokulturaletako arazoei lotuta (Abad, 2006).

balioak eta oinarriak esploratzea sustatzen du. Besteen ideiak aintzat hartzeko eta aztertzeko gai izatea, eta abar (Peña, 2013).

Bestalde, «Eraldaketa Sozialerako Artea» da erakunde batzuen planteamendua; haien helburu nagusia izanik artearen eta kultura-jardueren bitartez lortzea kohesio soziala, herritartasun eraginkorra, giza eskubideen sustapena, kulturartegintza eta jasangarritasuna (Johnson, 2006). Ekintza horien emaitzak, gehienetan, hasiberriak dira, baina etorkizun handikoak, esperientzia arrakastatsu batzuek erakusten duten bezala. Medellinen (Kolonbia), kultura-jardueren sustapena oso arrakastatsua izan zen indarkeria murrizteko.

2018. urtearen amaieran, Administrazioa aldatu zen, Mexiko Hiriko gobernuan. Guztira 300 *zentro komunitario* sortzea izan zen Mexiko hiriko gobernuburuak (emakumea bera) planteatutako programa garrantzitsuetako bat²³, bereziki bazterketa handieneko eremuetan. «Zutabeak» deitzen diote, gazteentzat oinarritzko lau garapen-zutabe kontuan hartzen dituztelako: *Berrikuntza, Askatasuna, Artea, Hezkuntza eta Jakintzak*. Indarkeria-egoerak identifikatzen, bitartekotza egiten eta prebenitzen lagunduko duten trebatzaileak, psikologoak eta gizartelangileak izatea planteatzen da. Oraindik ezin da haren garapenaren berri izan. Seriotasun handiz egin da haren planteamendua. Komenigarria litzateke hemen aurkezten den proposamenaren filosofia kontuan hartzea, edo hurbileko alternatiba bat, indarkeria prebenitzeaz gain, gazteen garapen osoa zainduko duten gazteen artean inpaktua izan dezaten. Arrakastatsua eta iraunkorra izango ahal da.

4.1. Proiektuaren oinarriak

Oso garrantzitsua da pertsona bat umea denetik jakitea zer talentu dituen, bere gaitasun pertsonalak erabat garatzea izan dezan. Adingabeek beren komunitateko kide direla sentitu behar dute, eta horren barruan beren trebetasunak eta talentuak garatzeko aukera aurkitu. Hau da, daukaten denbora ondo erabili behar dute, eta jarduerak *per se* egiteaz gain, bizikidetzat aberasgarria ere izan behar dute, gazteen potentzialtasunen garapena motibatzen duten elkarrizketen bidez. Horrek guztiak galdera hau planteatzera daramagu: posible al da espazio horiek eraikitzea?

4.2 Helburuak

- ♦ Haurrentzako eta nerabeentzako guneak diseinatzea, aisialdian jarduera osasungarriak egin ahal izan ditzaten, jarduera kolektiboetara lehentasuna emanez, komunitateko kidea izatearen sententzia berreraikitzeke edo hari eusteko, baita gizarte-sarea ere.

²³ Claudia Sheinbaum.

- ◆ Zentrora joaten den haur eta gazte bakoitzarengan osasun-giroa, hazkundera eta trebetasunen eta talentuen aurkikuntza bultzatzea.
- ◆ Adeitasunezko eta laguntzako giroa sustatzea, bai belaunaldi artekoa, irakasleekin, baita neska-mutilen arteko errespetuzko giroa ere.
- ◆ Aukera ematea, espazio horrek familia-gurasoen artean komunitatea eratzea bultzatzea.
- ◆ Garapen pertsonalean eta familia-bizikidetzan lagunduko dieten gaietarako hitzaldiak eskaintzea komunitateari.

4.3 Eraginkortasuna

Jarduera guztietarako elementu hauek guztiak hartu behar dira kontuan: espazio fisikoa, langile profesionalak eta laguntzaileak, eskakizun materialak eta proiektuaren instituzionalizatzea. Jarduera kolektiboetarako lehentasuna eman behar zaie, komunitateko kide izatearen sentimendua eta gizarte-sarea berreraikitzeko. Horretarako, hau guztia behar da: espazio fisikoa (segurua, garbia eta atsegina); *koordinatzailea, lanaldi osoko izendapena duena* (proiektuaren filosofian gaitutako pertsona); *familia-psikologoa edo komunitarioa, profil espezifiko bat bete behar duena*: profil kognitiboa, gizarte-trebetasunak, taldean nahiz banaka lan egiten jakitea; maisumaistrak, beren eskumenarloan irakasle izateaz gain, programaren printzipioak ondo maneiatu behar dituztenak; laguntzako langile iraunkorrak (administrazio-laguntza, intendentziakoa eta segurtasunekoak); gutxieneko eskakizun material orokorrak (jarduera bakoitzeko maisu-maistren soldatak ordaintzeko aurrekontua eta gutxieneko aurrekontua koordinazioaz arduratzen denarentzat eta jardueretarako behar den materialerako, erabileraren bermea).

4.4 Zentro komunitario bakoitzean eskain daitezkeen jarduerak

Jarduera guztiek orientazio egokia izango dute, autozainketa, autoestimua, autoeraginkortasuna, autodeterminazioa, genero-ekitatea, elkartasuna eta erantzukizun zentzua sustatzeko. Kulturari eta arteari dagokienez, orain arte egokitzat jotako jarduerak funtsezkoenak honako hauek izango dira: *komunitateko horma-pintura, gazteentzako abesbatza eta orkestra, musika eta orkestra eskolak, antzerkia, zereginen kluba, irakurketazirkulua, zinema, dantza-eskolak*. Parte-hartzaileek taldeko jarduerak batean parte hartu beharko dute gutxienez. Horrez gain, kirolak eta tailerrak ere eskain daitezke. Kirolerako: *pingpong-a, tae kwondo* edo *capoeira* eskolak eta esleitutako espazioek ahalbidetzen dituztenak. Honako tailer hauek ere planteatu dira: *Baratz zaintza, Zurgintza, Nola egiten den eta nola funtzionatzen duen, Bustintza edo Eskultura, Konputazioa*.

Berriazko jarduerak gain, proiektuak dibulgazio-diseinu ona izan behar du, gazteak erakartzeko eta komunitate osoaren onarpena bultzatzeko (gurasoak komunitate horretako kide dira). Hori abesbatzaren eta orkestraren kontzertuen, kirol-gaitasunen, dantza komunitarioen eta antzerki-lanen aurkezpenaren bidez egin daiteke.

5. Azken gogoeta

Zentro komunitarioek aukera ematen diete gazteei beren bizitzaren eta beren denboraren erabilera onaren funtsezko zati bihurtzen diren jardueretan parte hartzeko. Horrenbestez, hori guztia ZAINZTA bera da. Zentro komunitario bat auzo baten identitatearen zati izatera iristen da, eta, askotan, haren bihotza izatera ere.

Haurrentzako eta gazte nerabeentzako espazio komunitario bat sortzea aukera paregabea izaten da gizarte-sarea berreraikitzeke zereginera hurbiltzeko. Lan hori egitea premiazkoa da Mexikon (eta Latinoamerikako beste herrialde askotan), zoritxarrez mota guztietako indarkeriazko egoera oso larriak bizi baititu. Askotan, etxean bertan, ezkongaiharremanetan, eskolan, lanean, kalean agertzen da indarkeria hori. Egiaztuta geratu da indarkeria baliatzeak indarkeria gehiago ekartzen duela; gazteak artatzeak zurrumbilo hori iraultzeko estrategia baten parte izan behar du, gaur egun dagoen gorpil eroa apurtze aldera. Nerabearoa bizitzaren etapa bat da, non mota guztietako aldaketak gerta daitezkeen; aldaketa horiek positiboak izatea da, hain zuzen ere, hemen proposatzen dena.

Erreferentziak eta iturriak

Abad, J. (2006). Estado del arte de los programas de prevención de la violencia en jóvenes. basados en el trabajo con la comunidad y la familia con enfoque de género. OPS, Lima.

Amezcuca, N. (2017). «Ley General de Prestación de Servicios para la Atención, Cuidado y Desarrollo Integral Infantil». *Opiniones*. PAF Sistema de Información Legislativa de la Secretaría de Gobernación. Mexiko. Iturria: <http://sil.gobernacion.gob.mx/portal>

Arroyo; A. eta A. Bertomeu (2012). «Métodos suicidas e Internet». *Rev Esp Med Legal*.38(4).

Castro, R. eta Casique, I. (2010). Violencia en el Noviazgo entre los Jóvenes Mexicanos, Centro Regional de Investigaciones Multidisciplinarias de la UNAM (CRIM-UNAM) eta Instituto Mexicano de la Juventud (IMJUVE), Mexico D.F.

Díaz, M. eta Llorente, M., Dema, S. (2018). «Tratamiento económico y modelización del cuidado». *Convergencia*, bol.: 25, zk: 76, Urtarrila-Apirila, orr.: 37-56. Universidad Autónoma del Estado de México, Red de Revistas Científicas de América Latina y el Caribe, Espainia eta Portugal.

Durán, M. A. (2018), *La riqueza invisible del cuidado*, Valentziako Unibertsitatea.

Esquivel, V.; Faur, E. eta Jelin, E. (2012). «Hacia la Conceptualización del Cuidado: Familia, Mercado y Estado»: *Las Lógicas del Cuidado Infantil. Entre las Familias, el Estado y el Mercado*. Argitaratzaileak: Ides, UNFPA, Unicef. Buenos Aires.

Florito, J. (2018). «El Cuidado de Adultos Mayores». *LAS POLÍTICAS DE CUIDADO EN ARGENTINA. AVANCES Y DESAFÍOS*. (Unicef, PNUD, CIPPEC, OIT). Argitalpena: Chapar... / www.thisistender.com. Argentina

- Fraser, N. (1997). *Iustitia Interrupta: Reflexiones críticas desde la posición «postsocialista»* (1997) Siglo del Hombre Editores, Universidad de los Andes, Bogotá, Colombia.
- Fuller, N. (2003) «Adolescencia y riesgo: reflexiones desde la antropología y los estudios de género». *VARONES ADOLESCENTES: GÉNERO, IDENTIDADES Y SEXUALIDADES EN AMÉRICA LATINA*; José Olavarría (Editorea). FLACSO-Chile; FNUAP; Red de Masculinidad/es- Santiago, Txile.
- Guzmán, J. Koord. (2014). *Red Nacional de Cuido y Desarrollo Infantil en Costa Rica. El proceso de construcción 2010-2014*. CEPAL eta Cooperación Alemana, Seriea: Políticas Sociales (203). Santiago. Txile.
- Ibarra Sánchez, Ernesto. (2014). *Protección de niños en la red: sextig, cyberbullyng y pornografía infantil*. Instituto de Investigaciones Jurídicas; UNAM.
- Jiménez, R. eta Cardiel, L. (2013). «El suicidio y su tendencia social en México: 1990-2011. [Papeles de Población](#) 19(77).
- Johnson, C, (2006). «El arte como herramienta para la transformación social». <https://bloglacasamari-lla.files.wordpress.com/2012/05/arte-como-transformacion-social.pdf>
- Junta Nacional de Cuidados, Uruguai (2015). Plan Nacional de Cuidados. Sistema Nacional Integrado de Cuidados (SNIC): 2016-2020. Montevideo.
- Kiriakidis, S and Kavoura A. (2010). «Cyberbullying: a review of the literature on harassment through the Internet and other electronic means», *Fam Community Health*. 33(2):82-93.
- Lipman, Matthew. (2003) *Thinkin in education*. England: Cambridge.
- López, L y J. Sánchez (2011). «Citas a ciegas y otras conductas de riesgo en Internet: el *grooming* en estudiantes del nivel medio superior en México», XI Congreso Nacional de Investigación Educativa / 17. Convivencia, Disciplina y Violencia en las Escuelas / Ponentzia.
- Menkes, C. eta Sosa, I. (2016). «Características del Embarazo y de la Fecundidad de las Adolescentes En México». *Retos del cambio demográfico de México*; J. L. Ávila, Hernández, H., López M. (koord..). Facultad de Medicina. UNAM. Orr.: 179-210.
- Menkes, C. eta Sosa, I. (2013). «Pacto Social, Subordinación Política y Derechos Reproductivos y Sexuales de los Adolescentes». *Iberofórum*. Revista de Ciencias Sociales de la Universidad Iberoamericana. Urtea: VIII; Zk.: 16; orr.: 153-166. ISSN: 2007-0675. Mexiko Hiria.
- Morduchowicz, R. (2004), *El capital cultural de los jóvenes*. Buenos Aires, FCE.
- Oramas, A., Santana, S. eta Vergara A. (2006). El bienestar psicológico un indicador positivo de la salud mental. *Revista cubana de trabajo* 7 (1-2), orr.: 34-39. http://bvs.sld.cu/revistas/rst/vol7_1-2_06/rst06106.pdf
- Pedrero, M., Arias G., Serrano, O. eta Sosa I. (2016). Partaidetza berezia: Durán M. A. (CSIC). «EL TIEMPO DE MADRES HIPOTECADO: DESIGUALDAD DE GÉNERO Y CRIANZA. Desarrollo de Alternativas Sociales de Cuidado de Personas entre 6 A 17 Años en la Ciudad de México» *El Descuido de los cuidados*, 2. bol. *INMUJERES, Mexiko Hiria*.

Peña, J. (2013). *Supuestos teóricos y prácticos de los programas de «filosofía para niños»*. Doktoretzako tesia. Unibertsitate Konplutentsea. Madril.

Pérez, J. eta Hernández, R. (2015). «El matrimonio de menores de edad en México». *COYUNTURA DEMOGRÁFICA*, zk.: 8. SOMEDE. Mexiko

PNUD (2012). *Modelo de intervención para el fortalecimiento del capital social de adolescentes y jóvenes vulnerables tras una catástrofe: diseño, implementación y casos exitosos*. Nazio Batuak. Santiago (Txile).

Red de Cuidados (2017) <https://reddecuidadosenmexico.wordpress.com/acerca-de/>

Razavi, S. (2007). *The Political and Social Economy of Care in a Development Context. Conceptual Issues, Research Questions and Policy Options*, Gender and Development Programme, Paper Number 1», United Nations. Geneva.

UNESCO (2011). *La filosofía una escuela para la libertad. Enseñanza de la filosofía y aprendizaje del filosofar: la situación actual y las perspectivas para el futuro*, ONU: Frantzia.

UNICEF (2011). *La adolescencia Una época de oportunidades. Estado mundial de la infancia*. Mexiko

UNICEF, 2018. Las políticas de cuidado en Argentina: avances y desafíos. OIT, UNICEF, PNUD, CIPPEC, 2018 Mexiko. ISBN: 978-92-2-328400-8 (web pdf).

UNICEF (2012). *Inversión pública en la infancia y la adolescencia en México. Bertsiogaurkotua: 2008-2011*. Mexiko

Reguillo, R. (2013), «Jóvenes en la encrucijada contemporánea: en busca de un relato de futuro», *Debate feminista*, 24. urtea, Bol.:

Smith P, Mahdavi J, Carvalho, M., Fisher S, Russell S, Tippett N. (2008) «Cyberbullying: its nature and impact in secondary school pupils», *Child Psychol Psychiatry*, 49(4):376-85.

Vilchis, L. M., García, G. eta Rivera, P. (2015). *El trabajo de cuidado en los hogares: ¿un trabajo sólo de mujeres?. Cuaderno de Trabajo 59. INMUJERES*. Mexiko

Villa, S.. (2019). *Las políticas de cuidados en México. ¿Quién cuida y cómo se cuida?* Friedrich Ebert Fundazioa. Mexiko

Waisgrais, S. eta Aulicino, C. (2018). «El Cuidado y la Primera Infancia». *Las Políticas de Cuidado en Argentina. Avances y Desafíos*. (Unicef, PNUD, CIPPEC, OIT). Argitalpena: Javier Chapar... / www.thisistender.com; Argentina.

Ziccardi, A. (2012). «Espacio público y participación ciudadana El caso del Programa Comunitario de Mejoramiento Barrial de la Ciudad de México». BOLUMEN TEMATIKOA, *Gestión y Política Pública*; PP. Mexiko

Anorexia y la Bulimia (2020): www.acab.org/es/documentación/que-son-los-trastornos.../

Comunidad (2020): <https://es.wikipedia.org/wiki/Comunidad>.



ZAINZA, PANDEMIA GARAIETAN

MARÍA ÁNGELES DURÁN

Ikerketa Zientifikoen Goi Mailako Kontseilua

Aurkibidea

1. Epidemia, pandemia, sindemia, endemia	169
2. Zaintzaren erakunde-arkitektura, pandemian	172
2.1. Erabakitze eta betearazteko lurralde-mailak	172
2.2. Zaintzaren alde anitzak, eta bere protagonistak hurrenez hurren sartzea agertokian	173
2.3. Nahitaezko autozainketa: behatzea, derrigortzea eta ez betetzeagatik zigortzea	175
2.4. Urruntze soziala eta konfinamendua, norberaren burua zaintzeko modu nagusiak: tentsioa enpresa pribatuen eta sindikatuen artean, kostuaren banaketagatik	176
3. Ikastetxeak ixtea eta haurrak eta nerabeak zaintzeko eta hezteko eginkizuna etxeetara eramatea	177
4. Konfinamendu orokorra, zaintzarako ezinbesteko baldintza: funtsezko jarduerak eta ordaindutako baimenak, alarma-egoeran	178
5. Etxeak: babeslekuak eta babesik gabeko lekuak, zaintzaren gaineko kanpo-presioa areagotzearen ondorioz	180
6. Haurrak zaintzeko denbora	185
6.1. Neurtzeko zailtasunak	185
6.2. Haurrak eta nerabeak zaintzea. Ezin badira bakarrik egon, norekin gertuko dira?	187
7. Alarma-egoeraren luzapenak eta zaintzak eragiten duen nekea	188
8. Pandemia-garaiko zaintzaren gune beltza	190
9. Zahar-etxeetako tragediatik berritzeko asmora	191
10. Pandemia osteko garairako ikuspegiak	193



1. Epidemia, pandemia, sindemia, endemia*

Artikulu hau hasi nuen koronabirusaren *epidemia* Espainian zabaltzen hasi zenean, termino hori erabiltzen baitzen gaixotasunaren hedadura azaltzeko. *Pandemia* terminoa 2020ko martxoaren 11tik aurrera hasi zen erabiltzen, Osasunaren Mundu Erakundeak (MOE) onartu zuenean gaixotasunak mundu osoan zuela eragina¹.

Aldaketa semantikoa aringarria izan zen, arrisku eta larritasun handiagoa suposatzen bazuen ere; nola-bait, eramangarriagoa zen bai herritarrentzat bai Espainiako osasungintzako agintari arduradunentzat erakustea ez zela Espainiako estatuan bakarrik gertatzen ari zen fenomeno. Pandemia deklaratu ondoren, hedapena eragozteko gai ez izatearen ondoriozko erruduntasun inplizitua, indibiduala eta kolektiboa murrizten ziren. Semantika erantzukizunekin dago lotuta, eta hori ez da huskeria covid-19arena bezalako egoera batean. Giza bizitzetaz gain, pandemiak interes politikoak, sozialak, ideologikoak eta mota guztietakoak jartzen ditu jokoan. «Hondamendi naturala» dela esan edo esaten ez bada ere, legeek erantzukizun desberdinak ematen dizkiete batzuei eta besteei². Edonola ere, hasieran espero zen hilabete gutxiren buruan gaindituko zela.

* Eskerrak eman nahi dizkiot EMAKUNDEri, zaintzari eta pandemiari buruzko artikulu hau idazteko mandatu emateagatik. Zortzi hilabetez aztertu dut gaixotasunaren bilakaera, eta egunero nuen bukatuko zelako esperantza, nire azterketa amaitutzat eman ahal izateko. Ez da horrela izan, eta orrialde hauek itxiko ditut jakin gabe bigarren olatuaren ondoren lasaitasuna iritsiko den edo ziurgabetasunean harrapatuta jarraituko dugun.

¹ OME. www.who.int >...> OMEren zuzendari nagusiaren hitzaldiak: zuzendari nagusiaren irekierako hitzaldia; 2020ko martxoak 11.

² Baca Baldomero, Enrique. «*Las epidemias como catástrofes. Algunas reflexiones prospectivas sobre la pandemia de coronavirus*». Emerituen Elkargo Librearen dokumentuak, 1 zk.; 2020ko maiatza.

Pandemian informazio fidagarria bilatzea ohi baino zailagoa izan da. Egoera berri bat zen, ez zegoen horren inguruko ezagutzarik, eta ez zegoen denborarik, ezta ere, diseinatzeko, datuak biltzeko eta aztertzeko ohiko prozedurak jarraitzeko^{3 4}.

Komunikabideak ikerketa-zentroak baino bizkorragoak izan ziren gaurkotasuneko informazioa lortzeko, kalitate okerragokoa eta, batzuetan, ez oso kontrastatua bazen ere. Pandemian zaila izan da informazio serioak eta informazio-zarata sortzen zutenak bereiztea, hain zuzen ere, zenbat eta deigarriagoak izan, orduan eta gehiago zabaltzen zirelako komunikabideetan. Blog pertsonal batzuek ospe handia eta merezitako prestigioa lortu dute iritzi publikoan.

Birusaren eragina neurtzeko aurretiko adierazlerik ez zegoenez, eta ikerketak eta estatistikak egiteko gaitasunaren zati handi bat erkidegoetara transferitu zenez, zaila izan da adierazle homogeen egitea Espainiako estatu osorako. Zaintza jarduera intelektuala eta afektiboa da nagusiki, eta bere helburu bakarra ez da egitea, baizik eta subjektuarentzat ondorio txarrak ekarriko dituen zerbait negatiboa gertatuko dela aurreikustea eta hori ekiditea⁵.

Zaintzari buruzko ezagutzak izateko tresna erabilgarrienetako bat denboraren erabilerari buruzko inkestak dira. Inkesta horiek, baina, diseinu konplexuak behar dituzte, eta, konfinamendu-egoeretan, ez dira bat-batean egiten. Egoera normaletan ere, inkesta askok ez dute aukerarik ematen aldibereko hainbat jarduera edo gertakari aztertzeko; aukera ematen dutenen artean ere, ez da oso ohikoa adieraztea, eta oso gutxitan argitaratzen dira aldibereko denboren emaitzak.

Covid-19ri dagokionez, autonomia-erkidego batzuk bereziki uzkurak izan dira informazioa argitaratzeko, eta zaintzarako hain garrantzitsuak diren gaixotze- edo heriotza-tasen adierazleek ere ez dute irizpide homogeenorik izan erkidegoen arteko konparazioa egiteko. Metodologia-desadostasunik garrantzitsuena hildakoen kopuruaren zenbatespena da; izan ere, erregistro-datuekin, aurreko urtearekin konparatuta espero diren heriotzen kalkuluarekin edo beste prozedura batzuekin egiten bada, % 60ko aldea egon daiteke⁶.

Hain datu garrantzitsu batean horrelako desadostasunak sor badaitezke, horrek erakusten du zuzhurtziaz tratatu behar direla zaintza bezalako hainbat motatako jarduera bati buruzko datuak. Aldi horretan ez da etxe barruko zaintza-lanari buruzko inkesta adierazgarri handirik egin estatu mailan, eta azterlan gehienek pandemiaren aurreko garaiko estatistikak erabili behar izan dituzte. Aldi honetako ia ikerketa guztiak argigarriak dira, baina ez adierazgarriak, azterlanetako egile edo dibulgatzaile guztiek argi eta garbi aitortu ez badute ere.

³ Durán Heras, Maria Angeles. «Urgencia vs. fiabilidad. El desafío de las fuentes en época de pandemia». Genero Estatistiken Nazioarteko XXI. Topaketa; 2020ko irailaren 10a, Mexiko (prentsan).

⁴ Giménez, Elea eta Lafuente, Antonio. «Publicación científica urgente: Los cambios en la comunicación científica», in CSIC, Plataforma Temática Interdisciplinar Salud Global. «Una visión global de la pandemia covid-19: qué sabemos y qué estamos investigando desde el CSIC» txostena, 2020ko abuztua, 256-259. or.

⁵ Durán Heras, Maria Angeles. «La riqueza invisible del cuidado». Valentziako Unibertsitatearen argitalpenak; 2020.

⁶ MoMo (Eguneko Hilkortasuna Monitorizatzeko Sistema). Sistema honek beste urte batzuetako heriotza-tasarekin alderatuta erregistratutako heriotzen soberakina kalkulatu du. Gehiegizko hilkortasunaren ondoriozko heriotzen kopurua 44 285 zen uztailaren 6an, covid-19ari zuzenean egotzitakoa baino % 60 handiagoa. https://momo.isciii.es/public/momo/dashboard/momo_dashboard.html

Lerro hauek ixteko orduan (2020ko urria) pandemiak hitz egiten jarraitzen da, baina baita *sindemiaz* eta *endemiaz* ere. *Sindemiak* esan nahi du egoera konplexuagoa dela, ez baita gaixotasun bakar batera mugatzen; izan ere, covid-19ak bere kabuz jarduteaz gain, aurretiko edo ondorengo beste gaixotasun batzuk larriagotu eta eragin baititzake. *Endemiak*, aldiz, esan nahi du, ziurrenik, gaixotasuna ez dela erabat desagertuko eskualde edo eremu sozial batetik; luze iraungo duela erreserborioetan, gripearen birusaren antzera, andui berrien agerraldiekin eta aldizkako gorakadekin. J. Rodríguez Baño Gaixotasun Infekziosoen Europako Elkarteko presidente ohiak ohartarazi zuenez (2020ko maiatzaren 22an), berragerraldien arriskua oso handia da⁷. Patogenoa birus endemiko bihurtuko den ustea ez da iritzi isolatu bat; Osasunaren Mundu Erakundeko Osasun Larrialdietako zuzendariak adierazi zuen (2020ko maiatzaren 14an)⁸.

Ikertzaile batzuen ustez, H. Legido-Quigleyren ustez, adibidez, Europa bigarren kutsatze-bolada bat jasaten ari da abuztutik⁹. 2020ko urriaren 9an, Madril eta Espainiako beste hiri batzuk 15 egunerako alarma-egoera berrian sartu ziren. Lehenengo alarma-egoeran baino murrizketa gutxiago ezarri dira, baina, orain, tirabira politiko gehiago daude, herritarrak nekatuago daude, eta ekonomia, ahulago¹⁰.

Europako beste herrialde batzuetan, hala nola Italian, Frantzia, Erresuma Batuan, Alemanian eta Txekiar Errepublikan, kutsatze kopuru handiak izan dira berriro; potentzia handietako buruzagi politikoek, berriz, berehalako oneratzek ikuskizun bihurtzen dituzte, diagnostikatu eta ospitaleratu eta egun gutxira itzulita lanera. Ziurgabetasuna eta desadostasunak dira nagusi, oraindik ere.

Itxaropen handiena txerto baten garapenean eta teknika terapeutiko berri edo hobeetan dago jarritan. Diskurtso politikoetan epeak laburragoak diren arren, ikertzaileek nabarmendu dute txertoen erabilera masiboa urtebete baino gehiago geroratu daitekeela. Txinan –bertan hasi zen gaixotasuna–, gaitzaren eman dute ia. Abuztuaren 15etik ez da kutsatze lokalik izan, eta ia normaltasunez ari dira igarotzen urriaren hasierako «urrezko asteko» oporrak¹¹.

Guztira 425 milioi txinatarrek herrialde barneko turismoa egin dute; aurreko urtetik, % 25 edo % 30 besterik ez da murriztu. Ez dirudi birusaren ondorioekin kezkatuta daudenik (oraindik ez ditugu ondo ezagutzen, baina zainetak beharko dituzte). Giro baikor eta fidakor hori Espainiakoaren oso bestelakoa da. Koronabirusagatik ospitaleratutako 3500 pazienterekin egindako aurretiko azterlan batek (beraz, kasu larriak bakarrik barne hartzen ditu) ondorioztatu du pazienteen erdiek baino gehiagok anomalien espektro zabala garatu dutela nerbio-sisteman, baina oraindik ezin da jakin

⁷ J. Rodríguez Baño Gaixotasun Infekziosoen Europako Elkarteko presidente ohiaren adierazpenak, *El País* egunkarian, 2020ko maiatzaren 22an.

⁸ Osasunaren Mundu Erakundeko Osasun Larrialdietako zuzendariaren adierazpena, 2020ko maiatzaren 14koa.

⁹ www.dw.com > [entrevista-con-helena-legido-quigley](#), 2020ko. abuztuaren 4a.

¹⁰ Estatuko Aldizkari Ofiziala, 900/2020 Errege Dekretua, urriaren 9koa, alarma-egoera deklaratzeko duena, SARS-CoV-2 birusak eragindako infekzioen kontrolik gabeko transmisioaren ondoriozko arrisku bereziko egoerei aurre egiteko.

¹¹ CGTN. «*Semana dorada en China*». 2020ko urriaren 8an egina.

arazoen zenbat irauten duten, ezta larriak diren eta pazienteek epe luzera sendatzeko gaitasuna duten ere¹².

Beste azterlan batek erakutsi duenez, herritarrak, oro har, txertoen aldekoak dira, baina covidaren txertoa laster iritsiko balitz ere, elkarrizketatuen % 40k txertoa hartzeko errezeloak ditu, ustekabeko albo-ondorioen beldur direlako¹³.

2. Zaintzaren erakunde-arkitektura, pandemian

2.1. Erabakitze eta betearazteko lurralde-mailak

Covid-19aren eta zaintzaren arteko harremana hasieratik egon da gaixotasunaren nazioarteko dimentsioak eta dimentsio politikoak baldintzatuta¹⁴. 2020ko urtarrilean, oraindik ere uste zen koronabirusaren arazoa –OMEk 2019ko abenduaren 31n jakinarazi zuen lehen aldiz– Txinako Wuhan eremura mugatzen zela. Dena den, herrialde askotan, zenbait neurri hartzen hasi ziren*. Otsailean, Italiak ondorio sanitario eta ekonomiko handiak izan zituen birusaren kutsatzeen ondorioz, artean herrialdearen iparraldera mugatuta zeudenak. Nazioarteko salaketa gurutzatuen gerra piztu zen, honako gai hauen inguruan: birusa non, nola eta zergatik sortu zen; informazio-iturrien fidagarritasuna; medikuen edo herritarren salaketen zentsura; gobernuek osasun-babesaren mesedetan askatasunak eta oinarriko beste eskubide batzuk murrizteko duten gaitasuna eta legimitatea; eta nazioarteko merkataritzan eta Estatu Batuen eta Txinaren arteko munduko lidergoaren aldeko borrokaren geopolitikan duen eragina.

Pandemia-aldiko zaintzari buruz hitz egiteko, 2020ko urtarriletik urrira bitartean *Espanian erabakiak hartzeko eta zaintza-zerbitzuak benetan emateko erantzukizuna izan duten erakundeen nahaspila konplexua* nabarmendu behar da, bai eta pandemia gainditu osteko «normaltasun berria»

¹² Neurologiako Espainiako Elkarteak. Espainiako «Albacovid» erregistroan bildutako datuetan oinarritutako txostena. *REPÚBLICA* aldizkarian aipatua (2020/07/16). Txosten horren arabera, «[koronabirusagatik ospitaleratutako pazienteen % 57k arazo neurologikoak garatu dituzte](#)». Hauek dira jasotako zeinu neurologiko ohikoenak: nahasmendu-sindromea edo entzefalopatia arin-moderatua, iktusa, anosmia/hiposmia, zefaleak eta epilepsia.

¹³ Zientziarako eta Teknologiarako Espainiako Fundazioa (FECYT). *Txertaketarekiko jarrerari buruzko inkesta*, 2020ko ekaina eta uztaila bitartean egin. % 32k ez du covid-19aren aurkako txertorik hartu nahi, eta ez dute txertoa hartzen lehenak izan nahi; % 12,7 osasunerako ondorio negatiboen beldur dira.

¹⁴ www.mscbs.gob.es/documentos/Actualizacion_13_2019-nCoV_China

* Urtarrilaren amaieran, Santiagoko aireportuan (Txile), bertatik bertara ikusi ahal izan nuen aireportuko langile guztiak maskarak zeramatzatela, baina ez bidaiariak. Espainiara itzultzeko hegazkinean, familia batek bakarrik zerabiltzan. Barajasera iristean, inork ez zeraman maskararik, eta Txileko familiak hartutako neurriek gehiegizkoak eta lekuz kanpokoak ziruditen.

zaintza bermatzeko proposatutako irtenbideak ere. Zaintza baliabide urria denez, eta pertsona batek jasotzeko, beste norbaitek eman behar duenez, *covid-19ari buruzko erabaki guztiek berehalako eragina izan zuten zaintzaren kantitatean, motetan, kalitatean, ekoizpenaren banaketan eta eskararen baldintza berrietara egokitzeko betebeharra duten erakundeek edo pertsonak eska ditzaketen kontrapartidetan.*

Otsailaren 12an, Espainiako Segurtasun Departamentuak komunikatu ofizial bat kaleratu zuen, esanez urtarrilaren 31n baieztatu zutela lehen kasua Espainian, Kanarietan zegoen alemaniar bat, eta, gero, Mallorcan zegoen britainiar bat¹⁵.

Gaixotasuna kanpotik inportatu zen, baina, jada, gaixoak bakartzeko eta haien ingurunea zaintzeko neurri bereziak behar ziren (hori guztia, ia esklusiboki, osasun-eremuan). Komunikatuaren arabera, «*Osasun Ministerioa etengabe dago harremanetan autonomia-erkidegoekin, Epidemiologiako Zentro Nazionalarekin, Mikrobiologiako Zentro Nazionalarekin eta nazioarteko erakundeekin (OME, Gaixotasunak Kontrolatzeko Europako Zentroa eta Europako Batzordea), egoeraren arriskuak ebaluatzeko eta horiei aurre egitera bideratutako neurriak koordinatzeko*». Gaixotasunari aurre egiteko eta kudeatzeko estrategia argi eta garbi ezartzen zen dokumentu honetan: batetik, *estatu mailan, Osasun Ministerioa*, arduradun eta betearazle politiko gisa, eta, bestetik, *autonomia-erkidegoak, osasun-funtzioak transferituta dituzten erakunde administratibo eta politiko gisa*. Lurralde-erreferentziako hirugarren maila gisa, *lotura osasunari buruzko mundu-erakunde gorenarekin (OME)* –ez du botere betearazle eta politiko zuzenik, baina aginte zientifikoa dute, eta, zeharka, aginte politikoak– *eta Europako bi erakunderekin* (Europako Gaixotasunak Kontrolatzeko Zentroa eta Europako Batzordea). Hori guztia, Espainiako ikerketa mediko eta biologikoko bi zentro publiko handiren laguntzarekin¹⁶.

Laburbilduz, *erabakitze eta betearazteko hiru lurralde-maila, eta, funtsean, zientziaren eginkizun erabakigarria onartzea.*

2.2. Zaintzaren alde anitzak, eta bere protagonistak hurrenez hurren sartzea agertokian

Osasun Ministerioak egoeraren jarraipena egiteko batzorde bat eratu zuen; egunero egiten zituzten bilerak, egoera ebaluatzeko, autonomia-erkidegoen jarduketak koordinatzeko eta erakundeekin, herritarrekin eta komunikabideekin harremanetan egoteko. Alerta eta Larrialdi Sanitarioen Koordinazio Zentroan (CCAES) kokatutako alerta azkarreko sare batek agerraldien bilakaerari buruzko informazioa eman behar zuen, eta informazio hori guztientzat egongo litzateke eskuragarri, esteka informatiko baten bidez¹⁷.

¹⁵ www.dsn.gob.es>actualidad>sala-prensa>coronavirus-covid-19-12-feb...(sobre covid-19)

¹⁶ 2020ko urtarrilaren 31 - <https://www.mscbs.gob.es/gabinetePrensa/notaPrensa/pdf/13.05130520204528614.pdf>

¹⁷ Ikusi: www.mscbs.gob.es > profesionales > saludPublica > ccayes

Horrela, estatu mailako osasun-krisiko hiru protagonista berri agertu ziren, eta zuzeneko eta zeharkako erantzukizunak izango zituzten, kutsaduraren prebentzioarekin eta jarraibide medikoak praktikan jartzearekin lotutakoak, baita osasun-zaintzarekin eta etxeko zaintzarekin lotutakoak ere:

- a) *erakundeak;*
- b) *herritarrak;*
- c) *komunikabideak.*

Horiek guztiak, nolabait, osasungintzako agintaritzaren mende zeuden, ordura arte, hark baliozkotzen baitzituen informazio-zirkulazioak, eta hark erabakitzen zituen jarraitu beharreko politikak. Komunikabideei laugarren botere politikoaren izaera aitortu zitzairen inplizituki.

Erreferentziak, ia eskusiboki, osasun-arlokoak ziren arren, aste horietan argi eta garbi ikusten hasi ziren epidemiak ekarriko zituen ondorio sozial, ekonomiko eta politiko izugarriak, eta lehia erabatekoa hasi zen, boterea eta sortuko ziren kostuak eta etekinak banatzeko¹⁸.

Berehala ikusi zen gaixotasunari eman behar zitzaion erantzuna ez zela nolana hiko eta zaila zela. Birusa suntsitzeko botikarik eta prebenitzeko txertorik ez zegoela onartu ondoren, epidemia geldiarazteko neurriak, funtsean, higieinarekin eta urrutze sozialarekin zeuden lotuta. 2020ko otsailaren 25ean, komunikabideek albiste hau zabaldu zuten: Kanarietako hotel batean, han emaztearekin zegoen mediku italiar batek positibo eman ondoren, mila bat turista konfinatu zituzten, baita hoteleko langileak ere¹⁹.

Probak egingo zizkieten bezeroei eta langileei, eta emaitzaren arabera hartuko zituzten erabakiak. Argazkiek aurpegi serioak erakusten zituzten kristalen atzean. Komunikabideek behin eta berriz esaten zuten, beren geletan itxita bazeuden ere, ongi zaintzen zituztela turistak, eta ahalik eta erosotasun handiena ematen zirela. Konfinamenduaren helburu nagusia zen birusaren hedapenari eustea, eta, gainerako establezimenduetan, jarduera ekonomikoaren jarraipena bermatzea. Hain zuzen ere, hurrengo asteetan, birusaren hedapena geldiarazi zuten uhartean.

Espainiako Segurtasun Sailak komunikatu ofizial hori kaleratu zuen egun berean (2020ko otsailaren 25ean), *La Vanguardia* egunkariak bere irakurleen artean egindako iritzi-inkesta baten emaitzak argitaratu zituen, Espainia koronabirusaren epidemiari aurre egiteko prest ote zegoen jakiteko²⁰.

Emaitzek ezkortasun nabarmena islatzen zuten: % 23k uste zuen baietz, eta, % 77k, ezetz. Iritzi hori ez zen soilik osasun-sistemari eta erakundeen edo agintarien gaitasunari buruzkoa, baizik eta ia dena ezezaguna zen gaixotasun batek eragindako erronkari buruzkoa ere bai; ziurrenik, erantzuna ez zen

¹⁸ Ikusi: www.infosalus.com > actualidad > noticia-coronavirus-El Defensor del Pueblo traslada un millar de quejas.

¹⁹ Ikusi: www.hosteltur.com > Hoteles y Alojamientos > Actualidad hotelera

²⁰ www.lavanguardia.com > Participación > Encuestas . 2020ko otsailaren 25a.

oso desberdina izango galdera Europako beste edozein herrialderi buruzkoa izan balitz (Eurofound, 2020).²¹

Eta munduko herrialde gehienei buruz galdetu izan balitzaie baino hobea izango zen, baina, nolana ere, iritzia ezezkoa zen, argi eta garbi.

2.3. Nahitaezko autozainketa: behatzea, derrigortzea eta ez betetzeagatik zigortzea

Semantikak garrantzi handia du gizarte-harremanetan. Sentikortasunik ez larriagotzeko, hasierako komunikatuek behin eta berriz esaten zuten «*behaketa*» zela, eta ez «*berrogeialdia*», baina baita ere esaten zuten, hotelak berak emandako aginduez gain, «*Estatuko segurtasun-indar eta kidegoek*» zaintzen zutela establezimendua. Hotela zigilatu zuten, ingurua hesitu eta sarbideak itxi zituzten, ez sartzeko eta ez ateratzeko.

Horrek esan nahi zuen laugarren gizarte-eragilea sartu zela agertokian, oso garrantzitsua, gainera: *ordena mantentzeaz arduratzen ziren erakundeak* lehian sartu ziren, eta, ondorioz, *hertsapen-neurriak eta hainbat indarkeria eta zigor mota ezarri zituzten*. Beraiekin, pandemia osoan itzali ez den eztabaida bat piztu zen; alegia, askatasunaren eta segurtasunaren, eta pribatutasunaren eta erantzukizun publikoen arteko gatazkarena²².

Maskara edo eskularruak erabiltzea edota etxean geratzea nork bere burua zaintzeko moduak ziren, eta desobeditzeak zigorrak zekartzan; nahitaezko zaintza moduak ziren, hertsagarriak. Aste batzuk geroago, beste lurralde batzuetan, autonomia-erkidegoetako segurtasun-indarrak eta armada batu ziren, baina, zaintzeko bainoago, arrisku handiko lanetarako edo ekipamendu espezializatuak behar ziren lanetarako (egoitza geriatrikoak eta eraikin publikoak desinfektatzea, gaixoak eta hildakoak lekuak aldatzea, etab.)²³.

²¹ Eurofound (2020), «*Living, working and COVID-19*», COVID-19 series, Publications Office of the European Union, Luxembourg. 2020ko irailaren 28a. Txosten horren arabera, «*Trust in the EU increased in July while trust in national governments declined. The largest increase was in Italy and Spain who were hard hit by the pandemic. Trust in both national governments and the EU is significantly higher among EU citizens that received financial support during the pandemic*».

²² PNAS (Proceedings of the National Academy of Sciences of the United States of America) Cornelia Betsch, Lars Korn, Philipp Sprengholz, Lisa Felgendreiff, Sarah Eitze, Philipp Schmid, and Robert Böhm. «*Social and behavioral consequences of mask policies during the COVID-19 pandemic*». 2020ko irailak 8. 117 (36) 21851-21853. Laburpena: inkesta-datuen bidez ondorioztatu dute eraginkorragoa dela maskararen erabilera beharrezko egitea eta, horri lotuta, kurba leuntzeko eta birusaren transmisioa prebenitzeko onuragarria den ideia jendarte zabaltzea, erabilerarena gomendio huts izatea baino; izan ere, justizia-zentzu handiagoa, estigmatizazio txikiagoa eta erabilera-tasa handiagoak eragiten dituelako.

²³ www.efe.com › Edición España › Política El ejército mantiene 4.000 militares desplegados por la pandemia

2.4. Urruntze soziala eta konfinamendua, norberaren burua zaintzeko modu nagusiak: tentsioa enpresa pribatuen eta sindikatuen artean, kostuaren banaketagatik

Hainbeste zabaldu ez bazen ere, probak Madrilera bidali zituztela ere jakinarazi zuten, herrian bertan ez zegoelako baliabide teknikorik proba horiek aztertzeko. Herritarrak, eta, batez ere, zuzenean kalte-tuek arnasari eusten zioten, eta beren buruari galdetzen zioten zer proba egingo zituzten, mingarriak edo arriskutsuak izango ote ziren, noiz eta nork egingo zituen, nork ordainduko zituen, eta nork hartuko zuen bere gain hoteleko egonaldia-aren kostua (aurretik hitzartutakoaz gain). Inork ez zuen horri buruzko informaziorik ematen, dena zalantzezkoa zelako, eta, jakina, ez zekiten nork hartuko zuen bere gain itzulerako bidaiak bertan behera uzteak eta konfinatutako pertsonak beren herrialdeetara eta lanbideetara itzultzea eragozteak eragingo zuen kostua. Galdera horien erantzunen inguruko gatazka gero eta agerikoagoa zen, eta, pixkanaka-pixkanaka, lege-gatazkak hasi ziren horiek guztiak ebazteko. Albiste horrekin, krisian funtsezkoak izango ziren bi protagonista berri sartu ziren eztabaidan: enpresa pribatuak eta langileen sindikatuak.

Merkatu libreko ekonomia batean, enpresak dira lanpostuei eta monetarizatutako ekonomiari eustearen arduradun nagusiak²⁴.

Espainiako ekonomian, tamaina ertaineko eta txikiko enpresak (enpresa-familiak) dira nagusi, baina sindikatuak enpresa handietan dute indar handiena. Hurbileko zerbitzu-enpresak (jatetxeak, ostalaritza, elikaduraz bestelako saltoki txikiak, garraioa, zerbitzu sanitarioak eta pertsonalak, aisialdia, etab.) bat-batean geratu ziren beren zerbitzuetarako eskaririk gabe, eta porrot egiteko zorian. Industria-enpresetan eragina ez zen hain larria eta berehalakoa izan, baina ekoizpen- eta salmenta-arazoak izan zituzten, baita ere. Birusaren hedapena geldiarazteko, errepideak ixten bazituzten edo langileak eta bezeroak establezimenduetara sartzeari debekatzen bazuten, enpresek beren funtzio ekonomikoa galtzen zuten, eta berehala pentsatzen zen *nork hartu behar zuen bere gain enpresa ixtearen ondoriozko faktura: enplegatzaileek, enplegatuek, bezeroek edo herritarrek, oro har, Estatuaren bitartez*.

Langileen Estatutuak enpresako batzordeei ematen diete laneko arriskuen prebentzioan esku hartzeko gaitasuna, eta sindikatuak krisiaren aurkako borrokaren eragile nagusi bihurtu ziren, bai osasun-arloan, bai osasun-arlokoak ez diren zainketetan. Sindikatuak eskatuta, berehala argitu zen legez nola hartu behar zen kontuan nahitaezko konfinamenduagatik edo instalazioak ixteagatik lanpostuan ematen ez zen denbora. Hein handi batean, enplegua zuten langileen zaintza ez-sanitaria –etxekoa–, estaldura ekonomiko espezifikoko batek babesten zuen: gobernuak martxoaren 10eko 6/2020 Errege Lege Dekretua onartu zuen. Horren bidez, koronabirusarekiko esposizioak eragindako gaixotasun edo bakartze prebentibo guztiak lan-istripuarekin parekatutako egoeratzat hartzen ziren, aldi baterako ezintasunaren prestazio ekonomikorako soilik.

²⁴ José Ignacio Goirigolzarri Bankiako zuzendariaren adierazpenak: españamadrid.com > Economía. «La crispación no salva vidas ni crea puestos de trabajo». 2020ko ekainaren 13a.

2020ko martxoaren 12an, Langile Komisioak sindikatuak «SARS-CoV-2 koronabirusaren agerraldiari enpresek erantzuteko planen garapenean sindikatuak parte hartzeko orientabideak» izeneko dokumentua argitaratu zuen (2020ko martxoaren 12ko bertsioa). Bertan, nabarmentzen zen koronabirus berriarekiko (SARS-COV-2) esposizio-egoeratarako laneko arriskuen prebentzioko zerbitzuetarako jarduketa-prozedura, zerbitzu sanitarioen hainbat eremutako prebentzioaren aldekoa (larrialdiak, lehen mailako arreta, etxeko arreta, etab.), gizarte-eragileei kontsultatu zitzaizela, eta Langile Komisioak eta Langileen Batasun Orokorra sindikatuaren babesla lortu zuela. Batez ere lan-eremuari begira, etxeetan zaintza behar zuten egoera ugari jasotzen ziren *orientabideetan*, jarraian ikus daitezkeen bezala. Besteak beste, norbere burua zaintzea (1., 2. eta 5. puntuak) eta beste pertsona batzuk zaintzea (3. eta 4. puntuak):

1. *Gaixotasunaren sintomak izanez gero, etxean geratu, eta larrialdi-zerbitzuetara deitu behar da; beraz, lanera ez joatea ekar dezake.*
2. *Jardunean dauden pertsonak beren etxeetan geratu behar dute, bakartze prebentiboko aldi-dietan.*
3. *Langile batzuek etxean geratu behar dute, gaixotasuna duten lehen mailako senideak zaintzeko.*
4. *Ikastetxeak epo eguneko zentroak ixten badituzte, langile batzuek seme-alabak edo adinekoak zaindu behar izan dezakete.*
5. *Agintariak hirigune jakin baterako ezartzen dituzten mugikortasun-murrizketek (konfinamendua) langile batzuei eragin diezaizkete.*

3. Ikastetxeak ixtea eta haurrak eta nerabeak zaintzeko eta hezteko eginkizuna etxeetara eramatea

2020ko martxoaren 6an, osasun-agintariak ikastetxeak ez ixteko aholkatzen zuten jendaurrean. Herri-tarren kezka eztabaida sozial eta politikoaren erritmo berean areagotu zen. Besteak beste, eztabaida mediatiko handia sortu zen martxoaren 8rako aurreikusitako manifestazio masiboak bertan behera uztearen edo egitearen inguruan, eta eztabaida txikiagoa eremu irekietako (zeinu politikokoak edo beste mota batzuetakoak), erdi-irekietako (futbol-estadioak, etab.) eta itxietako (kontzertuak, erlijio-ospakizunak, hiletak, etab.) beste biztanle-kontzentrazio batzuen inguruan. Osasun-agintariak esan zuten ez zegoela arriskurik, baina besarkadak eta musuak saihesten ziren eta eskularruak erabiltzea gomendatzen zen. Egun horietan, ekitaldi publiko jendetsu asko izan ziren, baina kutsu politikoa izan zutenak –hala nola manifestazio feministak eta VOX alderdi politikoaren kontzentrazio bat– sarritan gogoratu ziren komunikabideetan, birusa hedatu zuten bektore gisa. Gutxi hitz egin zuten garraiobide publikoetan –metroan, adibidez– kutsatzeko arriskuari buruz; askoz ere garrantzitsuagoak dira hi-

rietako eguneroko bizitzako arrisku-faktore gisa, eta saihesten zailak dira. Nork bere burua zaintzeko elementu nagusia urrutze soziala bazen, garraioaren erabilera masiboa zaintzaren antitesia zen, eta, gainera, okupazioaren eta gizarte-mailaren aldagaiak argi eta garbi ageri ziren. Biztanleriaren sektore handienek ezin zuten ez saihestu egunero bagoi edo autobus beteetan ibiltzea, zirudienez, hobe zen gai horren inguruan ez sakontzea.

Martxoaren 12an, zaintza-premia pribatuetan eragin larria izan zuen lehen gertaera izan zen. Aurreko irizpidea aldatuta, osasun-agintariek Espainia osoko ikastetxeak eta unibertsitateak ixtea gomendatu zuten; ez haurren eta gazteen osasunerako arriskuagatik, baizik eta gaixotasunaren transmisore izan ez zitezen eta hiri-mugikortasuna murrizten laguntzeko. Ikastetxeak ixtearen ondorioz, *etxeetara itzuli ziren ordura arte ikastetxeek eta unibertsitateek beren gain hartzen zituzten eginkizunak, espazio publikoetatik familia-guneetara aldatzen baitziren. Unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako zortzi milioi ikasleri baino gehiagori eman beharreko arreta haurren eta nerabeen zaintzarekin lotutako milioi ordu asko ziren egunean.*

Zenbait hilabete geroago arte ez zen jakin hezkuntza-sistema ixteak –milioika ikasleren eta, bereziki, hezkuntza-maila apalagoko familietako ikasleen prestakuntzari kalte egin zion neurri oso kaltegarria–zaintzaren zama handitu zuela etxeetan, eta arriskuan jarri zuela milioika langile gazteren enplegua edo bizitza profesionala, batez ere emakumeena; gainera, ez zuen asko lagundu pandemia geldiarazten (Biologia Konputazionalako Taldearen txostena, Kataluniako Unibertsitate Politeknikoa, 2020ko urriaren 7a)²⁵.

4. Konfinamendu orokorra, zaintzarako ezinbesteko baldintza: funtsezko jarduerak eta ordaindutako baimenak, alarma-egoeran

Martxoaren 14an, Osasunaren Mundu Erakundeak beste txosten batzuk egin ondoren, eta kutsatzei buruzko datuek eta emakumeen eskubideen aldeko manifestazioaren buru izan ziren pertsona ospetsu batzuk, besteak beste Gobernuko hainbat ministro, gaixotu zirelako albisteek sortutako ekaitz mediatikoaren erdian, *alarma-egoera deklaratu zen, konfinamendua ekarri zuena, funtsezko jardueretarako izan ezik*. Indarraldia laburra zen, herritarrak gehiegi ez beldurtzeko eta eskatutako sakrifizioak errazago onartzeko.

²⁵ Biologia Konputazionalako taldea, Kataluniako Unibertsitate Politeknikoa, *Europako Batzordearentzako txostena*. (2020ko urriaren 7a). www.elnacional.cat/salud/scuela-no-extender-virus-informe_544851_1...

Martxoaren 14ko dekretuaren jarraipen gisa, BOEk funtsezko jardueren zerrenda argitaratu zuen martxoaren 29an, eta barne hartzen zuen oinarritzko jarduerak alarma-egoerari buruzko dekretuaren arabera garatzea. Zaintzarekin duen loturaren arabera, funtsezko jarduerak honela sailka daitezke:

- a) *zainketa sanitarioarekin* zuzenean edo zeharka lotuta dauden jarduerak (erabilera sanitarioko zerbitzuak eta ondasunak, osasun-materialaren inportazioa eta hornidura);
- b) *herritar guztiak, mendeko pertsonak eta egoera ahulean zeudenak etxean zaintzearekin zuzenean edo zeharka lotutako jarduerak* (premia biziko ondasunak eta zerbitzuak, mendeko pertsonentzako arreta eta hileta-zerbitzuak, animalientzako arreta, genero-indarkeriaren aurkako arreta, errefuxiatuentzako eta etorkinentzako arreta);
- c) *zaintzarekin zuzeneko lotura ez badute ere, espazioen bizigarritasun-baldintzak mantentzearekin lotuta dauden jarduerak; batez ere, zaintza gauzatzen den etxeetakoak* (matxurak konpontzea eta hondakinak kudeatzea, ur-hornidura, ostalaritza eta etxez etxeko jantaria);
- d) *zaintzarekin zuzeneko lotura ez badute ere, industriako eta zerbitzu publikoetako azpiegiturak mantentzeko jarduerak* (funtsezko jardueretarako beharrezkoa den industria, alarma-egoerako garraioa, kartzelak, suhiltzaileak, polizia eta segurtasuna, komunikabideak eta albiste-agentziak, bankuak eta aseguruak, telekomunikazioak eta informatika-zerbitzuak, abokatuak eta justizia-administrazioa, gestoriak eta laneko arriskuak, notariotzak eta erregistroak, meteorologia-zerbitzuak, posta).

Funtsezko jardueretako langileentzat, lanean jarraitzea kutsatzeko arrisku handiagoa zen, alde batetik, eta langabeziari aurre egiteko bermea, bestetik. Osasun-langileen kasuan, hasieran norbera babesteko ekipamendurik (NBE) ez zegoenez eta lanaldiak luzeak zirenez, akidura- eta estres-egoerak sortu ziren maiz. Funtsezko langile guztiek oso ongi zaindu behar zuten beren burua, senideak arriskuan ez jartzeko. Funtsezkoak ez diren langileentzat, alarma-egoerak osasun-babes handiagoa ekarri zuen, baina lan-arrisku aldakorra. Gainera, konfinatu egin behar izan zuten, eta eguneroko bizitza eten. Soldata bere horretan utzi zien enpresak, «*baimen ordaindu berreskuragarri*» gisa. Dekretuaren arabera, egin gabeko lanorduak pixkanaka berreskuratuko zituzten, eta enpresarekin eta langileen legezko ordezkariarekin adostuko zuten nola. Arauak alderdi ugari uzten zituen argitu gabe –kasuistikakoak–, baina bistakoa zen «suspertzea» zaila izango zela alarma-egoera luzatzen bazen.

2020ko apirilaren 2an 950 hildako izan ziren koronabirusagatik. Ezkortasun kolektiboak hondoa jo zuen. Pandemiak ia herrialde guztietan zuen eragina, eta nazioarteko merkatuetan ez zegoen behar

adina mediku-ekipamendurik, ezta horiek inportatzeko finantza-baliabiderik ere. Pandemia eta bere ondorio sozial eta ekonomikoak ziren nazioarteko erakundeen jomuga^{26 27 28 29}.

Pandemiaren kudeaketan parte hartzen zuten erakundeen arteko tirabirek krisiari azkar eta adostasunez erantzutea eragotzi zuen. Kasu batzuetan, erakundeen arteko gaitzespenak akusazio larri bihurtu ziren, eta instantzia judizialek heldu ziren. Beste batzuetan, erreakzio kolektiborako ezintasunagatik bainoago arrazoi faltagatik, tentsioak ia isilean mantendu ziren. Apirilaren 3an, Herriaren Defendatzailerak osasuneko, ogasuneko, barne arazoetako, gizarteratzeko, gizarte-segurantzako eta migrazioko eta kanpo arazoetako Europar Batasuneko eta lankidetzako ministroei zuzendu zitzaizkien, herritarrek osasun-krisiarekin lotuta zituzten arazoak helarazteko, bere ustez, konponbideak aipatutako ministerio eta erakunde guztien arteko lankidetzaren sendoa behar baitzuten³⁰.

Maiatzaren 13an, Osasun Ministerioak eta Carlos III.a Osasun Institutuak ENE-COVID³¹ azterlaneko lehen olatuaren emaitzak jakinarazi zituzten. Azterlanak covid-19aren antigorputzen azterketa serologikoaren bidez egin zuten. *Espainiarren % 5ek baino ez zuen izan covid-19a*, baina probintzien artean desberdintasun handiak zeuden: Murtzian % 1,4ek izan zuen, eta, Sorian, % 14,2k. Ez zen bete talde-immunitatea lortzeko itzaropena; orduan, guztizkoaren % 60 edo % 70 zen³².

5. Etxeak: babeslekuak eta babesik gabeko lekuak, zaintzaren gaineko kanpo-presioa areagotzearen ondorioz

Ikastetxeak ixtearen eta osasun-, jatetxe-, hotel-, osasun- eta aisialdi-jarduera gehienak etetearen ondorioz hiriak hustu ziren, eta gaitzespenak ekarri zuen etxeetako zaintza-lanetan. Adibidez, Bartzelonan, egunero bi milioi eta erdi pertsona inguru biltzen diren hirian, pandemiaren hasieran, 1,75 milioi

²⁶ Estatuko Aldizkari Ofiziala, 10/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 29koa, funtsezko zerbitzuak ez direnak eskaintzen dituzten besteren konturako langileentzako baimen ordaindu berreskuragarria arautzekoa, COVID-19aren aurkako borrokan biztanleen mugikortasuna murriztea helburu.

²⁷ Estatuko Aldizkari Ofiziala, 16/2020 Errege Lege Dekretua, apirilaren 28koa, Justizia Administrazioaren esparruan COVID-19ari aurre egiteko prozesu- eta antolaketa-neurriei buruzkoa.

²⁸ Eurostat, *Key Indicators*, 2020/07/28.

²⁹ *somos-mundi 94 - medicus mundi . NAM*. «Las banderas blancas del hambre en Perú: el país con más exceso de muertes afronta desbordado la crisis sanitaria, social y económica por la enfermedad». Hamabost eguneko behingo informazio-buletina, 2020ko ekainaren 30a.

³⁰ *EUROPA PRESS*. Herriaren Defendatzaileraren komunikatua, 2020ko apirilaren 3a.

³¹ <https://www.mscbs.gob.es/ciudadanos/ene-covid/docs/informacionENECOVID.pdf>

³² Osasun Ministerioa. «Avance Informe sobre encuesta serológica», 2020ko maiatzaren 13a. Zientziarekin, garraioarekin edo defentsarekin zerikusia duten erakundeetako ordezkarien ondorengo agerraldi publikoek agerian utzi zuten krisiaren hedapena eta horretarako irtenbideak bilatu beharra. Zaintzak –batez ere ez-sanitarioak– kontzeptu «bigunegia» zirudien auzia hil ala bizikoa izanik.

pertsona besterik ez zeuden. Beherakada hirigunera joateari utzi zioten turista, ikasle eta langileengatik gertatu zen (Bartzelonako Udalak telefonia mugikorraren bidez lortutako datuak)³³.

Familiei gaixotasunaren, krisi ekonomikoaren eta krisi politikoaren aurkako babesleku-funtzioa eman zitzairen, eragozpenik jartzeko aukerarik gabe. «Etxean geratu» eslogana –behin eta berriz errepikatu zuten komunikabideetan eta espazio publikoetako publizitate-iragarkietan– ez zen gonbidapena, agindua baizik. Hala ere, Valentzian egindako ikerketa baten arabera, koronabirusa harrapatuz gero, lau lagunetik batek ezingo luke bere etxean familiarekin isolatu, berrogeialdia ongi betetzeko³⁴.

Mugikortasun-zailtasunek eta adineko pertsonen arrisku handiak nabarmen murriztu zituzten ongintzako erakundeen erreakzio-aukerak, baina boluntario talde txikien ekimen ugari sortu ziren berehalako arazoei erantzuteko.³⁵

Etxeen barruan elkartasuna nagusi izan bazen ere, tentsio- eta gatazka-egoerak areagotu egin ziren, baina egoerak arintzeko aukerarik ez zegoen. Adierazgarri gisa, apirilean, genero-indarkeriaren kontuetarako telefono-deiak % 60 igo ziren, aurreko urteko hilabete bereko deiekin alderatuta³⁶.

Mundu osoan antzeko egoerak gertatzen ari ziren, Nazio Batuen eta beste erakunde batzuen txostenek frogatu zuten bezala³⁷.

Erakundeetatik etxeetara transferitutako ordu kopurua kalkula daiteke konfinamenduan eten ziren lanpostuen kopuruagatik; baina aldaketa etxeetako denbora-erabilgarritasunera egokitu behar izan zen, pertsona bakoitzak egunean erabilgarri dituen 24 orduen muga saihestezinera, alegia. Ordaindu gabeko lanorduen bolumena handitzeaz gain, ordutegia luzatu zen, lo egiteko denbora murriztu eta zereginak areagotu, hainbat jarduera gainjarriz eta, ondorioz, estresa eta gogo-higadura eraginez³⁸.

Andaluziako Estatistika eta Kartografia Institutuak argitaratutako datuak, ziurrenik, antzekoak dira autonomia-erkidego guztietan. Kasuen % 78,5ean, emakumeak dira familiako gainerako kideen hitzordu medikoez arduratzen direnak. Emakumeen % 71,4k eskolako kontuak antolatzen eta gainbegiratzen ditu. Eta % 82,1ek arropa noiz garbitu, seme-alabak egunero nola jantzi eta abar antolatzen eta planifikatzen du.

³³ Bartzelonako Udala (Vodafonek emandako datuak). 2020ko apirila. www.elperiodico.com > [movilidad-moviles-confinamiento-7933533](http://www.elperiodico.com/movilidad-moviles-confinamiento-7933533) 2020ko apirilaren 28a. Mugitzen den biztanleria % 30 izatetik % 16 izatera jaitsi zen.

³⁴ Data Science for COVID-19 taldea. Zuzendaria: Nuria Oliver. Valentziako Generalitateko presidentetzak sustatua, Adimen Artifizialerako Estrategiarako. 2020ko apirila. (Valentziako Erkidegoan egindako inkestaren emaitzak).

³⁵ Calvo, Dafne. «Social movements in a time of pandemic». CCCLAB 2020ko urriaren 6a.

³⁶ Berdintasun Ministerioa. Carolina Pecharrománnek www.rtve.es webgunean aipatua. «% 60 hazi dira 016 telefono-zenbakira egin diren deiak, genero-indarkeria dela eta laguntza eskatzeko. Genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko zerbitzuek 19.000 laguntza-eskaera erregistratu dituzte». 2020/05/06.

³⁷ 28c UN WOMEN SERIES Women at the forefront of COVID-19 response in Europe and Central Asia. The impact of Covid-19 on women's and men's lives and livelihoods in Europe and Central Asia: Preliminary Results from a Rapid Gender Assessment. 2020.

³⁸ 29 UCL Centre for Longitudinal Studies. «Parental involvement in home schooling and developmental play during lockdown. Initial findings from the COVID-19 Survey in Five National Longitudinal Studies». Aase Villadsen, Gabriella Conti eta Emla Fitzsimons. 2020ko uztaila.

Senideen eta lagunen osasunarekiko kezka eta ohiko giroetan elkar ikusteko zailtasunek eginkizun berri bat ekarri zuten etxeetara, eta lotura zuzena zuen zaintzarekin: afektua adierazteko eta transmititzeko sareak mantentzea telefono-deien bidez (gero, bideodeien, txaten eta WhatsApp-eko taldeen bidez).³⁹

Urrutitik zaintzeko modu berri bat zen, laguntza etengabe eskaintzeko modu bat; garrantzi handiko telelaguntza afektiboa eta psikologikoa, pandemiak eragindako bakardadearen eta segurtasun-ga-beziaren antidoto gisa. Pertsona askorentzat, sare hori mantentzea kide ziren taldeei eman beharreko zerbitzu bihurtu zen, eta eguneko ordu asko hartzen zituen, ia lanaldi oso bat.

Etxe askotan, lanera joan ezin zutenek garraioan ematen zuten denbora aurreztu zuten, eta lanean ematen zuten denbora nabarmen edo erabat murriztu zuten, ezin baitzen telelanarekin ordezkatu. Horren ondorioz, gizonak inoiz baino gehiago parte hartu zuten zaintza-lanetan. Hala ere, beste jardue-ra batzuetan aurreztutako denborak ez zuen konpentsatu zuzeneko zaintzan eta zeharkako zaintzan eman beharreko denbora⁴⁰.

Gaixotasunaren lehen une hartan, garrantzi handia ematen zitzaion fomiteen bidezko kutsatzeari, baina, gero, kutsatzeen erantzule nagusi gisa baztertu egin zen. Eskuak maiz garbitzea eta hidrogela erabiltzea ez ezik, kalera ateratzeko erabilitako arropa desinfektatzea edo garbitzea, ilea garbitzea eta erosketa-orgatxoak, zapatak eta elikagaiak (adibidez, laranja edo tomateak) desinfektatzea edo garbitzea gomendatzen zuten⁴¹.

Oraindik ez da ebaluatu higiene-premia berriek etxeko zaintzari gehitu zioten denbora. Birusa hamai-ka orduz egon zitekeen larruzalean; beraz, gorputzaren higiena mantentzea denbora asko eskatzen zuen zeregin bihurtu zen (G. Sánchez, IATA. CSIC.)⁴².

Ez zen soilik helduek beren burua zaintzeko ematen zuten denbora, baizik eta beren buruaz arduratzen ez zirenak zaintzeko eta neurri higienikoak, etxeko espazioak eta ekipamenduak behar bezala erabiltzeko behar den diziplina ezartzeko erabiltzen zuten denbora. Lan hori neurri higienikoak aplikatzea baino askoz konplexuagoa da, eta gatazkak sor ditzake⁴³.

Osasun-agintarien argibideak betetzeko, irizpideen batasuna, agintaritza eta diziplina behar ziren, eta etxe gutxik berma zezaketen hori.

³⁹ [isanidad.com](https://www.isanidad.com) > ASP - 2020ko apirilaren 9a.

⁴⁰ Farré, Lidia eta González, Libertad. «¿Quién se encarga de las tareas domésticas durante el confinamiento? Covid-19, mercado de trabajo y uso del tiempo en el hogar». 2020/04/23 BBVA Fundazioa.

⁴¹ García Calvente, María del Mar; Del Río Lozano, María; Maroto Navarro, Gracia. «Género, cuidados y coronavirus: antes, durante y después de la pandemia». EASP, [coronavirusysaludpublica](https://www.coronavirusysaludpublica.com). 2020ko maiatzaren 8a.

⁴² Sánchez, Gloria. Agrokimikako eta Elikagaien Teknologiako Institutua, CSIC. («Survival of SARS-CoV-2 and influenza virus on the human skin: Importance of hand hygiene in COVID-19» artikuluar buruzko iruzkina <https://academic.oup.com/cid/advance-article/doi/10.1093/cid/ciaa1517/5917611>, egileak eskainia)

⁴³ CNN, pandemia garaian alkoholaren kontsumoa eta adikzioak areagotu izanari buruzko programa (nazioarteko datuak). 2020ko maiatzaren 15a.

Egoera bereziki zaila izan zen osasun-langileak edo funtsezko jardueretako beste langile batzuk bizi ziren etxeetan. Higiene-neurriak gainerako etxeetakoak baino zorrotzagoak ziren. Norbera babesteko baliabide gutxi zegoenez, langileek beren ekipamenduak berrerabili, eta tenperatura altuan garbitzen zituzten beren etxeetan. Beste kasu batzuetan, egoitzetara, hoteletara edo bigarren etxebizitzetara joan ziren, senitartekoak kutsatzeko arriskua murrizteko, eta, beraz, ezin zuten partekatu beren etxeetako zaintza-karga.

Covid-19a izan zezaketen gaixoekiko kontaktu zuzenaren erantzukizuna, neurri handi batean, haien hurbileko senideei esleitu zitzairen, eta ez sintomak zaintzeko bakarrik. Sistema sanitarioak gainezka egiteko beldurreratik, herritarrei gomendatu zitzairen zerbitzu sanitarioen erabilera ahalik eta gehien murrizteko, eta covid-19aren sintoma arinak etxean bertan tratatzeko, parasetamola erabilita. Zentro sanitarioetan kutsatzeko beldurra hain handia izan zen, ezen ebakuntza kirurgikoetarako itxaron-zerrendetan zeuden pazienteek, hitzorduaren zain hilabeteak zeramatzen arren, ebakuntza egiteari uko egiten baitzioten⁴⁴. Ariketa fisikorik ezak, estresak eta dietaren okertzeak pisua handitzea ekarri zuten; azterketa batzuen arabera, hiru kilo, batez beste⁴⁵.

Txinan hasi zenetik, ikertzaileek egiaztatu zuten birusa hilgarriagoa zela gizonentzat emakumeentzat baino. Espainian, gizon gehiago hil ziren, adina kalteberatasun-elementu garrantzitsuenetako bat bazen ere eta adineko emakumeen kopurua gizonena baino handiagoa bazen ere. Ikerketen arabera, immunitate-sistemako desberdintasun genetikoak ziren arrazoiak⁴⁶. Gaixotasuna larriagotzen zuten beste elementu batzuk hipertentsioa eta obesitatea ziren. Haur eta gazteei ia ez zien erasaten gaixotasunak.

Hasieran, gaixotasunak kalte handiagoa egin zien gizarte klase altuko pertsoneri, nazioarteko kontaktu gehiago zituztelako, baina, laster nabarmendu ziren lanbidearen eta egoera sozioekonomikoaren araberrako aldeak. Hirietako biztanleak, adinekoak eta errenta txikikoak kalteberagoak ziren, etxebizitzetan pilaketa-egoeran zeudelako eta aurrez aurre bakarrik egin zitezkeen lanetara joateko jendez betetako garraio-bideak erabiltzen zituztelako^{47 48 49}.

⁴⁴ Güell, Oriol. «Hasta el 60% de los pacientes en lista de espera en grandes hospitales rechaza operarse». Bartzelonako, Madrilgo eta beste udalerrri batzuetako ospitale handietako zuzendariei egindako elkarrizketak. Pandemiaren lehen hilabetean jende gehiagok egin zien uko ebakuntzei, bereziki presazkoak ez ziren interbentzioen eta larritasun txikiagoko interbentzioen kasuan. *El País* egunkariak argitaratua, Bartzelonan, 2020ko ekainaren 2an.

⁴⁵ Ricou, Javier. «El confinamiento se mide también en peso: 3 kilos en dos meses». Bere ondorioekin bat datozen hiru inkestatan oinarritzen da: IFOP Institutuak Frantziako Darwin Nutrition-erako egindakoan, PronoKal Group-ek egindakoan eta Espainiako Deusto Salud erakundeko Nutrizio eta Herbedietetikako Goi Mailako Ikastaroko irakasleek egindakoan. *La Vanguardia*, 2020/05/15

⁴⁶ BBC News, Akiko Iwasakiren «Sex differences in immune responses that underlie COVID-19 Disease outcomes» artikulua aipatuz. *Nature* aldizkariak argitaratua, 2020ko abuztuaren 26an. (Margarita Rodríguez, 2020ko urriaren 1a).

⁴⁷ Bartzelonako Behatoki Metropolitarrak. Bartzelonako Udaleko Estatistika eta Datuen Hedapenaren arloko datuei buruzko txostena, katastroko datuekin. Bartzelonako errenta handieneko eta txikieneko barrutien artean, etxebizitzaren batez besteko tamainaren alde 87 metro koadrokoa da. Clara Blancharrek aipatua, *El País*, Bartzelona, 2020ko apirilaren 18a.

⁴⁸ Observatorio de la OIT: «El COVID19 y el mundo del trabajo. Cuarta edición». https://www.ilo.org/wcmsp5/groups/public/@dgreports/@dcomm/documents/briefingnote/wcms_745965.pdf

⁴⁹ Espainiako Boluntariotzaren Plataforma. Luciano Poyato PTS plataformako presidentearen adierazpenak: «Hirugarren Sektorearen Plataformak (PTS) -28.000 GKEk osatua- premiazko erreskate ekonomiko eta finantziarioko plan bat egitea eskatu dio Espainiako Gobernuari, GKEek urtean pobrezia- edo bazterketa-egoeran dauden sei milioi pertsona baino gehiago arriskuan ez jartzeko, Covid-19aren pandemiaren ondorioz, modu esponentzialean handitu baita kopurua». 2020ko ekainaren 17a.

65 urtetik gorako pertsonak bereziki kalteberak ziren pertsonatzat hartu zituzten osasun-langileek. Hori dela eta, zorroztasun handiagoz aplikatu behar izan zituzten konfinamenduarekin eta kanpoarekiko kontakturik ez izatearekin lotutako gomendioak, eta horrek herritar aske eta independente gisa zuten autoirudiari eta beren etxean bizi ez ziren pertsonen –batez ere seme-alaben eta biloben– zaintzaile gisa zuten funtzio sozialari eragin zien. Ondorioz, ezkutuko adinkeria, paternalismo atsegina, autoestimua eta segurtasun kolektiboaren galera eta bakardade-sentimendua areagotu dira⁵⁰.

Pandemiak eragina izan zuen familien eta ordaindutako zaintzaileen arteko harremanetan; batez ere, etxeko langileengan. Sektore profesional horrek ez du langabezia-asegururik, eta, hein handi batean, informaltasun-baldintzetan egiten dute lan; ez dute zergarik ordaintzen; aitortu gabeko diru-sarrerak ez dira erregistroetan jasotzen lehiaren ondorioetarako, eta ez dute gizarte-segurantzaren prestaziorik jasotzen. Kasu askotan, batez ere mendeko pertsonen edo adineko pertsonen etxeetan, zaintzaileek lanean jarraitu zuten, funtsezko langileak zirela uste zutelako. Kutsatzeko beldurreratik, batez ere metroan edo beste garraiobide batzuetan hartutako birusa transmititzeko aukeretatik, etxe askok ez zuten zerbitzu hori erabili. Kasu batzuetan, joan-etorriak saihesteko, enplegatuek enplegatzaileen etxean bizitzen geratu ziren. Beste kasu batzuetan, enplegatuek beraiek hartu zuten lan-harremana eteteko erabakia. Ez dakigu zenbat familiak ordaindu zieten langileei, ez zenbat denboran, ez zenbaterik hartu zuten ABEEen antzeko lan-harreman bat edo zenbaterik eten zuten harremana. Ez dago iturri fidagarriarik, eta komunikabideek egoerarik dramatikoak zabaldu dituzte, baina ez ohikoenak. Espero bezala, elkarte txiki batzuek protagonismoa lortu dute abusu pertsonalen kasu larrienak zabaltzeagatik; sindikatu handiek, aldiz, kasuistika pertsonalak saihestu dituzte. Aurreikus zitekeen bezala, ez da komunikabideen aurrean zabaldu zaintzaileek mendetasuna duten pertsonak abandonatu zituztela, edo konfinamenduan soldata osorik jaso zuten langile batzuk ez zirela lanera itzuli. Senideen artean bezala, egoera zailen ondorioz, enplegatzaileen eta enplegatuen arteko gatazkak piztu ziren, bai eta gatazka berriak sortu ere.

⁵⁰ UNITED NATIONS. «*Policy Brief: The Impact of COVID-19 on older persons*», 2020ko maiatza.

6. Haurrak zaintzeko denbora

6.1. Neurtzeko zailtasunak

Espanian 15 urtetik beherako 6 875 315 haur bizi dira, eta 15 eta 19 urte bitarteko 2 399 792 nerabe eta gazte⁵¹. Haurrak zaintzeko denboraren adierazleek heldu batek hurrekin zuzenean elkarreraginez ematen duen denbora hartzen dute barne: garbitzea eta janaria ematea, norabait eramatea, jolastea eta irakastea. Hala ere, haur bat zaintzeko erabilgarritasun-denbora, haurrak eskatzen duenaren ikuspegitik aztertzen bada, egunean 24 ordukoa eta urtean 365 egunekoa da. Denboraren erabilerari buruzko inkesta bezalako behaketa-tresna jeneralistak –oso erabilgarria eta egokia beste jarduera batzuetarako– beste behaketa-tresna batzuek baino okerrago islatzen dute zaintzaren nolakotasuna. Tresna horiek parte-hartze handiagokoak edo kualitatiboagoak ziren. Inkestak ez du aukerarik ematen ondo neurtzeko zaintzako zeharkako zereginetan (garbiketa, erosketak, kudeaketak edo elikagaiak prestatzea, etxean haurrak egoteagatik) egiten den ahalegina handitu eta areagotu den.

Haur txikien amek oso ordu gutxi lo egiten dutela topikoa da, hain zuzen ere, haurren zaintza-premia handia dela eta. Jaioberriek bi edo hiru ordu behin jan behar dute; hau da, egunean ia hamabi hartualdi egin behar dituzte, eta, horri, arreta higienikoak eskatzen duen denbora gehitu behar zaio (gasak, berrahoratzeak, pixoihalak aldatzea, biberioiak garbitzea, etab.). Hurrek, bizitzako lehen urtean, pixkanaka murrizten dute hartualdien kopurua, baina, sei hilabeterekin, oraindik ere lau edo bost ordu behin elikatu behar dute (egunean sei hartualdi). Urtebeterekin, komeni da egunean bost aldiz elikatzea (American Academy of Pediatrics).

Nola islatzen da zaintza-denboraren eskari handi hori inkestetan? Inkesta batzuek –hala nola Euskal Autonomia Erkidegoko Denboraren Erabilerari buruzkoak (2018)– erakusten dute partaide bakoitzak egunean ordu eta erdi baino ez duela ematen, batez beste, urtebete baino gutxiagoko haurrak zaintzen: 2 ordu eta 7 minutu emakumeen kasuan, eta ordu 1 eta 42 minutu gizonen kasuan. Emakumeek haur jaioberriak zaintzen ematen duten denbora oso egonkorra da aste osoan zehar, baina gizonek askoz denbora gehiago ematen dute larunbatetan: lanegunetan ordu 1 eta 42 minutu baino ez dute ematen; larunbatetan, berriz, 2 ordu eta 54 minutu. Zifra horiek ez datoz bat pertzepzio orokorarekin; harrigarria da egunean 25 minutuko aldea baino ez egotea urtebetetik beherako haurrak zaintzen dituztela dioten gizonen eta emakumeen artean. Harrigarria da, halaber, emakumeek egunean bi ordu eta zazpi minutu baino ez ematea, batez beste, urtebete baino gutxiagoko haurrak zaintzen. Nola interpretatu behar dira zifra horiek?

⁵¹ Estatistikako Institutu Nazionala (INE). «Cifras de población». 2020 (2020ko urtarrilaren 1ean).

Urtebete baino gutxiagoko haurrak zaintzen dituzten emakume guztiak ez dira umeon amak, baina bai gehien-gehienak. Elikatzeko, garbitzeko, estimulatzeko, aire zabalera ateratzeko, koliko txikien kasuan arretea emateko eta beste osasun-zaintza batzuk egiteko, haur bakoitzeko bi ordu baino gehiago behar dituzte zaintza beren gain hartzen duten emakumeek. Bizitzako lehen urtetik aurrera, haurrek ez dute hain dedikazio zorrotza behar, baina bost urte bete arte, sarritan gaixotzen dira. Haurrei ematen zaien osasun-arretea hobetu ahala, maizago erabili behar dituzte zerbitzu horiek. Adibidez, txertaketak, azterketa orokorrak, hortzen eta hezurren arloko arretea, eta estetikarekin eta laguntza psikologikoarekin lotutako arretea (gero eta ohikoagoa). Zaintza asko behar dituzte oraindik ere, batez ere konpainia eta arretea. Horregatik, familiek ordezko irtenbide bat aurreikusi behar dute; oro har, aitona-amonak edo gertuko beste senide batzuk.

Euskal Autonomia Erkidegoan, jaiotza-tasa txikia da aspalditik, eta haur gutxi daude (15 urtetik beherako 303.000) beste garai edo leku batzuekin alderatuta. 16 urtetik gorako herritarren % 16,40k soilik zaintzen ditu, eskuarki, haurrak. Indize hori handiagoa da astegunetan, asteburuetan baino. Datua bereziki harrigarria da, haurrak zaindu ohi dituzten pertsonen arabera, igandeetan eskaintzen baitiete denbora gutxien haurrei (ordu 1 eta 38 minutu lanegunetan, eta ordu 1 eta 28 minutu igandeetan). Partaide bakoitzak 14 urtetik beherako haurrei eskaintzen dien batez besteko denbora egunean ordu-bete eta 16 minutukoa da, eta 22 minutuko aldea dago emakumeen eta gizonen artean.

Haurren kopurua nabarmen murriztu bada ere, jasotzen dituzten zainketen kalitateak gora egin du, eta zaintzak ahalegin kolektibo handia eskatzen du, amen aldetik bereziki. Zoritxarrez, Eurostatek denboraren erabileraren inguruan bultzatzen dituen inkesta orokorrek ez dute ahalegin hori behar bezain argi islatzen. Euskal Autonomia Erkidegoan adingabeei eskaintzen zaien denbora urria azaltzeko gako metodologikoa honako hau da: zereginak gainjarri egiten dira, egunak 24 orduko muga duelako, eta zaintzari zuzenean eta zeharka eskainitako denbora bereizi egiten da.

Metodologia-kontuak beti dira garrantzitsuak, eta definizioen arteko alde txikiek emaitza oso desberdinak eman ditzakete. Kasu honetan, deigarria da haurrak zaintzen dituztela dioten herritarren ehunekoa % 28,23 izatea BAI inkestan (Espainia) eta % 16,04 Denbora-aurrekontuen inkestan (Euskal Autonomia Erkidegoa), batez ere mendekotasuna duten pertsonen zaintza-tasa ia berdina delako bi iturrietan. Aldea are deigarriagoa da lagina osatzen duten pertsonen adina desberdina delako; izan ere, BAIk ez ditu elkarrizketatzen 65 urtetik gorako pertsonak, eta ez da hain ohikoa haien etxeetan haurrak bizitzea.

Valentziako osasun-inkestan (2010) haurren zaintzari buruz bildutako zifrak oso bestelakoak dira. Inkesta horretan, hamasei urtetik gorako bizikide bakoitzak, batez beste, 5 ordu eta 12 minutu ematen ditu egunean haurrak zaintzen. Hamasei urtetik gorako pertsona bakoitzeko eguneko batezbestekoa –barne hartzen ditu jarduera mota horretan parte hartzen dutenak eta parte hartzen ez dutenak– ordu 1 eta 3 minutukoa da. CSICek 2010ean egin zuen Zaintza-denborei buruzko inkesta monografikoan, parte-hartzaileek adierazi zuten haur bat zaintzeko, batez beste, 17 ordu behar zirela egunean, baina denbora hori hainbat pertsonaren artean bana zitekeen.

6.2. Haurrak eta nerabeak zaintzea. Ezin badira bakarrik egon, norekin geratuko dira?

Espainiako legediak ez du ezartzen haurrak etxean bakarrik geratzea debekatzeko muga-adinik, baina Zigor Kodeak (226. artikulua) hiru hilabete eta sei hilabete arteko espetxealdi-zigorra ezartzen du guraso-ahalaren betebeharrak ez betetzeagatik. Betebehar horien artean, zenbaitetan, haurrak gainbegiratu dituen heldurik gabe uztea sar daiteke. Nazioarteko legedia heterogeneoa da; Estatu Batuetan, adibidez, estatu bakoitzak modu batean legezatu du muga-adin hori, eta zigorrak oso bestelakoak dira, sei, zortzi, bederatzi eta hamaika urteko zigorrak ere proposatzen baitituzte. The National SAFEKIDS Campaign motako kanpainek zigorrak handiena eskatu ohi dute etxean hamabi urte baino gutxiagoko haurrak bakarrik uzteagatik. Horrek esan nahi du heldu batek egunean hogeita lau orduko laguntza eta arreta hartu behar duela bere gain, hezkuntza-erakundeekin partekatuta.

Lanaldi luzeen, gurasoek hiriguneetan egiten dituzten joan-etorrien denboren eta familiak euren nukleora mugatzearen ondorioz, 1942an, Frantzia *enfants à la clé* eta Britainia Handian *latchkey children* deituriko fenomenoak sortu zen. Izendapen horrek barne hartzen dituen haurrek bost eta hama-hiru urte artean dituzte, eta beren burua zaintzen dute eskolatik atera ondoren, gurasoak edo tutoreak etxera itzuli arte. Izendapen dramatikoagoa ere izan dute: *eguneko umezurtzak*. Haur horien beste aldaera bat *liburutegiko giltzadun haurrak* dira; astean hiru aldiz edo gehiagotan liburutegi publikora joaten dira eskolatik ateratzean, gurasoak etxera noiz itzuliko zain. Ikertzaile ugari *giltzadun haurren* nortasunaren alderdi positibo batzuk nabarmentzen dituzte, baina, oro har, termino hori zentzu negatiboan erabiltzen da, eta gurasoen absentsia ondorengo jokabide antisozialekin lotu ohi da. Alderdi positiboak nabarmentzen dituztenek haur horien heldutasun- eta erantzukizun-maila handiagoa azpimarratzen dute, eta gogorarazten dute lanean eta anai-arreba adingabeak zaintzen oso goiz has-tea ohikoa izan dela gizarte guztietan, derrigorrezko eskolatzea ezarri zen arte.

Espanian *giltzadun haurrak* ez dira ohikoak, neurri batean, familia zabalarekin eta bizilagunekin lotura sendoagoak daudelako eta eskolaz kanpoko jarduerak eta, batez ere, oporretako hiri-kanpamentuak baliatzen direlako eskolako eta laneko ordutegien eta egutegien arteko desorekak arintzeko. Klase ertainean eta altuan, denbora-bateraezintasuna ordainpeko langileak kontratatuta konpontzen da, baina, sektore horretan, lan informala ugaria da. Hala ere, familia askok ezin dute ordainpeko zaintzailerik kontratatu euren seme-alabentzat, ezta bat-batean zaintzailerik izan ere, haurrak gaixotzen badira. Eskolako zuzendariak askotan kezkatzen dira haurrak sukarrarekin edo gripearen sintomekin joaten direlako eskolara, bai eta beste osasun-arazo batzuekin ere (adibidez, zorriak), eta eskola-erakundeek uste dute ez dela beren ardura. Arrazoi nagusia da familiek zailtasunak dituztela haurren zaintzak beste irtenbide bat aurkitzeko, beste betebehar batzuk betetzen dituzten bitartean.⁵² Kontrako kexa ere ohikoa da. Hau da, familiak kexu dira ikastetxeek ez dutelako partekatu nahi haurren arreta gurasoak etxean egon ezin diren ordu luzeetan.

Pandemiaren aurreko garaian, ikastetxeak itxi zirenean eta gurasoak lan-merkatuan zeuden bitartean, hein handi batean, senide erretiratuak arduratu ziren haurren arretaz; baina pandemiak age-

⁵² Pandemiaren ondoren ikastetxeetako zuzendariak egindako elkarrizketak, *El País*; 2020ko irailaren 9a.

rian utzi zuen larriki gaixotzeko arriskua askoz handiagoa zela adinekoentzat. Horregatik, 65 urtetik gorako biztanleei (9 268 545 pertsona, INEren arabera) gomendatu zitzaizen beren etxeetan isolatzeko eta beste pertsona batzuekin zituzten harremanak ahalik eta gehien murrizteko, bereziki hurrekin, superkutsatzailatzat jotzen baitziren. Adinekoek, ia bat-batean, neurri gehiago hartu behar zituzten, eta beren burua hobeto zaindu, eta ezin zuten beste adin-talde batzuetako pertsonari ematen zizkieten arreta eta zainketak eskaini. Seme-alaba adingabeak zituzten familiak noizbehinkako zaintzaile ohikoenak eta konprometituenak gabe geratu ziren, eta, aldi berean, belaunaldi helduak sozialitatearen, harreman afektiboen eta autoestimua oinarri garrantzitsu bat galdu zuen. Zenbait pertsona ikastetxeak ixtearen aurka agertu ziren, baina gutxiengoa izan ziren, eta osasun-arauek isilarazi egin zituzten. Irakaskuntzan bizkor-bizkor sortu behar izan zen modalitate birtual edo urrunekoa, alde aurretik prestatu gabe, ikastetxeetan eta etxeetan behar adina azpiegitura eta aparatu eduki gabe eta horretarako behar zen teknologia menderatu gabe⁵³.

7. Alarma-egoeraren luzapenak eta zaintzak eragiten duen nekea

*Alarma-egoera sei aldiz luzatu zen, eta ekainaren 21ean amaitu zen. Ustekabeko konfinamendu-aldi luze horretan, norberaren zaintza eta besteen zaintza, osasun-arretarekin batera, bizitza sozialaren protagonistak izan ziren. Lehen zerbitzu publikoek, enpresa pribatuek edo irabazi-asmorik gabeko erakundeek etxetik kanpo betetzen zituzten ekoizpen-eginkizunak eta, kasu askotan, baita elikadura-, osasun- eta aisialdi-zerbitzuen kontsumo-eginkizunak ere, alde batera utzi, edo etxeetara eraman behar izan ziren berehala. Hezkuntza-eginkizunen kasuan bezala, *produkzio-, elikagai- eta aisialdi-eginkizunen murrizketa familiek egunero ekoitzi behar izan zituzten milioika zaintza-orduetan kuantifika daiteke.**

Bere benetako izenarekin identifikatzen ez zen arren, zaintza pandemiak eragindako krisian sartu zen bete-betean, protagonista nagusi bezala. Etxeetan, zaintza, nagusiki, baina ez eskusiboki, emakumeen esku geratu zen. Langile Komizioak sindikatuak hau salatzen zuen: «*Egoera honek ezin ukatzeko eragina du eta izango du, epe ertainera, emakumeen osasun fisikoan eta mentalean: antsietate- eta estres-kasuak areagotu dira, bai eta kontrakturen ondorioz fisioterapia-kliniketara egindako kontsulten kopurua ere*» (Andaluziako Langile Komizioak)⁵⁴

⁵³ Durán Heras, Maria Angeles. «*El trabajo después de la covid-19*», in CSIC, Plataforma Temática Interdisciplinar Salud Global, «*Una visión global de la pandemia covid-19: qué sabemos y qué estamos investigando desde el CSIC*» txostena, 2020ko abuztua, 241-256. or.

⁵⁴ Andaluziako Langile Komizioak, «COVID-19aren krisiak erakutsi du emakumeen artean ere *osasun-arrakala* dagoela»; 2020ko maiatzaren 28a).

Kalitatezko daturik gabe, kalkuluen arabera, norberaren burua eta besteak zaintzeko orduen batez besteko kopuruak gora egin du emakumeentzat: pandemiaren aurreko garaian baino hiru ordu gehiago egunean.

Presio asistentzialak eta kutsatzeko edo kutsatuak izateko beldurrak kalte egin zien osasun-langile gazteeneri ere. Bartzelonako Medikuen Elkargoaren txosten baten arabera, medikuen laurdenak lanbide-uztea pentsatu zuen⁵⁵. [Espainiako Neurologia Elkarteak](#) (SEN), beste inkesta baten bidez, ondorioztatu zuen bere mediku egoiliarren ia erdiek antsietatea edo insomnioa izan zutela pandemiaren lehen hilabeteetan, eta ohartarazi zuen bigarren olaturik balego, osasun-langileak nekatuago eta akintuta helduko lirakeela.

Ekainetik aurrera, osasun-egoerak hobera egin zuen, baina suspertze ekonomikoa oso ahula izan zen, batez ere turismoaren, garraioaren, jatetxeen, aisialdiaren eta hurbileko jarduera guztien beherakadaren ondorioz⁵⁶.

2020ko urriaren 6an, pandemiaren bigarren olatuan jada, Gobernuaren eguneroko txostenak adierazten zuen aurreko egunean 4030 kutsatze berri izan zirela, eta Espainian, guztira, 825 410 kasu diagnostikatu zirela. Osasun Ministerioaren arabera, 10 696 paziente zeuden covid-19agatik ospitaleratuta, ospitaleko laguntza-ahalmen osoaren % 9; eta 1544 zainketa intentsiboetako unitate batean (ZIU), unitate horien egungo edukieraren % 17. ZIUetako okupazio-indize handiena Madrilek zuen (% 40), eta, atzetik, Gaztela eta Leonek (% 29) eta Gaztela-Mantxak (% 25).

PCR proba guztien % 10,2k emaitza positiboa eman zuten; Europako tasarik altuenetako bat zen, baina talde-immunitatea lortzetik urrun zegoen. PCR proben positibotasun-tasa oso heterogeneoa zen lurraldeen arabera; Melillan Asturiasen baino ia hamar aldiz handiagoa zen (% 26,5 eta % 3, hurrenez hurren).

Koronabirusaren bigarren olatuaren birulentzia handia zen, baina ez lehen boladakoa bezainbeste (martxoan edo apirilean). Saturazioa paziente batek ZIUan sartu behar duenean eta ezinezkoa denean gertatzen da, eta ez zen puntu horretara iritsi. Diagnostikatzeko ahalegina handiagoa zen, osasun-sistemak birusari aurre egiten ikasi zuen –baina ez hura garaitzen–, eta arrisku handieneko taldeek neurri gehiago hartzen zituzten. Osasun Ministerioa, aldiz, berrogeialdien iraupena hamalau egunetik hamar edo zazpi egunera murrizteko aukeraren inguruan hausnartzen ari zen.

⁵⁵ [Bartzelonako Medikuen Elkargoa](#) (COMB). Medikuntzako profesionalen pandemia osteko egoerari buruzko txostena. [Jessica Mouzok](#) aipatua, *Sanitarios agotados* argitalpenean, Bartzelona, [2020ko urriaren 9a](#).

⁵⁶ Alertak koordinatzeko zentroa eta Larrialdiak koordinatzeko zentroa, Osasuneko Idazkaritza Nagusia, Osasun Publikoaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren Zuzendaritza Nagusia. «*Koronabirusak eragindako gaixotasuna (COVID-19)*». 182. eguneratzea, 2020ko abuztuaren 11koa.

8. Pandemia-garaiko zaintzaren gune beltza

Pandemiaren unerik gorenean, ospitaleak kolapsatuta zeudenean, zainketa intentsiboetako geletan ez zegoen koronabirusa zuten gaixo guztiak artatzeko adina ekipamendurik, eta gerra-medikuntzara jo zen, triajera, alegia. Arnasgailu bakarra bazegoen, bizirik irauteko aukera gehien zuenari jartzen zioten, eta, hortaz, askotan, dokumentu formaletan jaso beharrik gabe, adinekoak edo beste gaixotasun batzuk zituztenak baztertzeko zituzten⁵⁷.

Hildakoen senideek protesta egin ondoren baino ez zen agindu adinaren irizpidea kontuan ez hartzea triajera sinplifikatzeko, bizirauteko probabilitateak baizik. Baldintza gogor horiek eragin handia izan zuten iritzi publikoan, eta salaketa ugari jarri ziren. Osasun-langileentzat ere esperientzia nekagarria izan zen, izugarria; eta judizializazioak larriagotu egin zuen⁵⁸.

Une honetan, hainbat autonomia-erkidegotako auzitegietan daude osasungintzako eta gizarte-zerbitzuetako arduradunek egindako balizko erantzukizun penalaren auziak, zahar-etxeek egoiliar gaixoak ospitaleetara ez eramateko agintzeagatik edo erraztasunak emateagatik. Kontu hori are gehiago larriagotu zen gizarte klasearen araberako ospitaleratzeekin; izan ere, aseguru pribatuak zituzten pazienteak hain beteak ez zeuden ospitale pribatuetara bideratu zituzten.

Pandemiaren zeharkako ondorio bat eutanasiaren inplikazioak ezagutzera ematea izan da; bai alde positiboak bai negatiboak. 2020ko urriaren 9an, Gobernuak aholkatzen duen Bioetika Batzordeak txosten bat egin zuen, eutanasia eskubide subjektibo galdagarri aitortzeari uko egiteko. Txostenak, aldiz, sedazio aringarria protokolizatzea eskatzen zuen. Hala ere, batzorde horren txostenak ez dira lotesleak, eta litekeena da izapide-bidean dagoen eutanasiari buruzko legea onartzea, lege hori bultzatzen duen gehiengo parlamentarioa bat datorrelako⁵⁹. Gainera, nazioarteko legediaren joerak eta iritzi publiko gehienek gaixo terminalen sufrimendua ez luzatzearen eta haiei eragiten dieten erabakietan autonomia handiagoa ematearen alde egiten dute.

⁵⁷ RTVE. «Coronavirus: Radiografía del coronavirus en residencias de ancianos: más de 19.600 muertos con COVID-19 o síntomas compatibles». [Internet]. 2020. <https://www.rtve.es/noticias/20200621/radiografia-del-coronavirus-residencias-ancianos-espana/2011609.shtml>. (315) Sociedad Española.

⁵⁸ Heras, Javier. Elkarrizketa *Dicen* aldizkari birtualean, «Humanizar las UCIs» proiektuari buruz; 2020ko ekainaren 10a.

⁵⁹ Artikulu hau idatzi ondoren, 2020ko abenduaren 17an, Diputatuen Kongresuak eutanasia arautuko duen lege-proposamena onartu zuen. 198 diputatuk aldeko botoa eman zuten, 138 kontra eta 2 abstentzio izan ziren. Araua Senatura pasatu da orain, 2021ean behin betiko onartzeko.

9. Zahar-etxeetako tragediatik berritzeko asmora

Abellánen eta Rodriguezen arabera, 2019an, 372 985 plaza zeuden Espainiako zahar-etxeetan, 5417 zentrotan banatuta. Zentroen % 72,8 titulartasun pribatukoak ziren (271 579), irabazi-asmorik gabeko zentro pribatuak barne (49 832), eta gainerakoak, titulartasun publikokoak (101 406). 80 urte eta gehiagoko biztanleria zahar-etxeetan bizi den biztanleria osoaren % 79 da; batez besteko adina 86 urte dira, eta narriadura kognitiboa duten egoiliarren proportzio handia dago. Okupazio-indizea % 89 da⁶⁰.

Pandemiak bi arazo azaleratu ditu, zahar-etxeen sistemari dagokionez. Lehenengoa antolaketakoa da, eta, bigarrena, ekonomikoa. Nolanahi ere, ezin da aurreikusi pandemiaren ondoren nabarmen aldaturiko denik osasun-baldintzak direla eta era autonomoan bizi ezin diren eta gune babestu batean bizi behar duten pertsonen kopurua. Antolaketari dagokionez, osasun ahula edo narriatua duten baina ospitalizatorik behar ez duten biztanleak artatzeko, ingurune medikalizatuak eta egoitza-inguruneak aukeratu behar dira. Aditu guztiek uste dute ospitaleko giroa ez dela ona adineko pertsonen bizi-kalitatetarako, eta, beraz, egoitza-sistema babesleen alde egiten dute⁶¹. Horregatik, egoitza gehienak ez dira osasun-erakundeak, eta ez daude oso medikalizatuta.

Pertsonen artean gutxienez bi metroko distantzia mantentzeko gomendioa ezin izan zen aplikatu *erakunde total* guztietan, bertan, zerbitzuak komunitarioak eta oso partekatuak baitira; besteak beste, jantokiak, bizikidetzaguneak eta logelak. Diseinu horrek dimentsio ekonomikoa bazterrezina du: gela bikoitzak merkeagoak dira leihoak eta bainugela partekatzen ez diren banako gelak baino. 2020ko urrian, webgune askok zahar-etxe pribatuetako tokiak eskaintzen zituzten, hilean 1900 eta 2300 euroren truke (gela motaren arabera), bai eta aparte ordaindu behar diren zerbitzu ugari ere. Logelak terraza txiki bat badu, prezioa % 5 eta % 10 artean handitzen da. Beste egoitza pribatu mota batzuekin aldera daiteke: unibertsitate-egoitzak. Gazteei zuzenduta daude, eta, beraz, zerbitzu gutxiago behar dituzte. Mantenu osoan, hilean 635,29 eta 1295 euro arteko kostua du, gela motaren arabera (hiru ikasleren artean partekatua edo ikasle bakarrarentzat). Prezioak ez ditu barne hartzen asteburuko otorduak, ezta arropa garbitzeko zerbitzua eta aparte ordaintzen diren beste zerbitzu batzuk ere.⁶²

Horrez gain, ez ditu barne hartzen arreta pertsonaleko zerbitzuak, eta horiek oso ohikoak dira adinekoen egoitzetan. Aurreikus daiteke egoitza geriatriko publiko eta itunduetan espazio komun zabala goak eta banako gelak egiteak ezinbestean ekarriko duen kostu-igoera.

Pandemian, kritika ohikoa izan da zaintzaileen proportzioa egoiliarrekiko txikia izateagatik, batez ere gauetan eta jaiegunetan. Kexak egon dira, baita ere, batzuetan, gauetz, 150 egoiliar artatzeko bi laguntzaile bakarrik zeudelako. Zaintzaile askok baja hartu behar izan zuten gaixotasunagatik edo

⁶⁰ Abellán, Antonio eta Rodríguez, Vicente, «Covid-19 y efectos en la salud mental» in CSIC, Plataforma Temática Interdisciplinar Salud Global, «Una visión global de la pandemia Covid-19: qué sabemos y qué estamos investigando desde el CSIC», 2020ko abuztua, 183-191. or.

⁶¹ Cuerdo, Teresa eta Oteiza, Ignacio, «Habitabilidad», in CSIC, Plataforma Temática Interdisciplinar Salud Global, «Una visión global de la pandemia Covid-19: qué sabemos y qué estamos investigando desde el CSIC», 2020ko abuztua, 238-241 or. eta 74b.

⁶² Ikus Galileo Galilei ikastetxe nagusiaren webgunea, Valentzia, 2020ko urria

gaixotasun-kasuak gertatu zirelako haien familian edo hurbileko ingurunean, eta, beraz, ratioek okerrera egin zuten erakunde guztietan. Horrek agerian utzi zuen langileen/egoiliarren ratio idealaren eta erakundeen aurrekontu publiko eta pribatuen ratio jasangarriaren arteko aldea⁶³.

Pandemiako heriotzeen kopurua handia izan denez, asko hitz egin da adineko pertsonentzako egoitzen egungo sistemaren ordeztasun sistema berri bat ezartzeko beharraz, baina gutxi sakondu da heriotza-tasa handiaren kausen eta eredu horren alternatiba errealisten azterketan.

Langileen ratorik onena ezartzea zaila da, egoiliarren egoeren heterogeneotasunagatik eta arreta ematen dieten langileen kualifikazio eta soldatagatik: zuhurtasun osoz, 0,45 zaintzaile zuzeneko ratioa erabiltzen da maiz, eta, zeharkako zaintzaileak kontuan hartuz gero, 0,85⁶⁴.

Egoitzetan ezin da ezegonkortu egoiliar baldiodunen, erdi-baldiodunen eta mendekotasun handikoen arteko proportzioa; izan ere, zainketen beharra areagotuko balitz, ezingo litzukete eskura dauden zaintzaile-ratioekin hornitu. Ratioa hobetuko balitz eta egoiliar bakoitzeko zuzeneko zaintzaile bat ezarriko balitz, edo egoiliar bakoitzari banako gela bat eta elkarbizitzarako espazio zabalagoak emateko eskuragarri dagoen espazioaren baldintzak hobetuko balira, toki bakoitzaren kostua bikoiztu edo hirukoiztu egingo litzateke.

Zerbitzuak *outsourcing* bidez deszentralizatzeko deialdi publiko batzuetan, baldintza-agiriak eguneko 50 euroko kostua jartzen du muga gisa, egoiliar bakoitzeko (1500 euro hilean). Kalkulatu zen egoitza arrunten batez besteko kostua 1700 eurokoa izango zela, 2019. urterako. Egoitzek urtean 24 orduz eta 365 egunez eman behar diete arreta egoiliarrei, barne hartuta, besteak beste, ostatua, lau otordu egunean, arropa eta ohea garbitzeko zerbitzua, higiene pertsonala eta arreta sendagaiak eta beste terapia arrunt batzuei dagokienez. Hori guztia, medikalizatuta ez badaude, ez baita barne hartzen kostua handituko luketen osasun-zerbitzuen eskaintza. Galiziako zuzendarien aurkako salaketengatik agerian geratu zenez, egoitza ordaintzea kostu oso handia da egoiliarren senideentzat⁶⁵. Askotan eskerrak eman zaizkie langileei beren dedikazio pertsonalagatik, eta kexak agertu dira behar adinako arreta medikoa, pertsonala eta ekipamendua ez izateagatik ere. Kexak ez dira indibidualak; aldiz, kexa kolektibo bihurtu dituzte egoitzetako erabiltzaileen edo egoiliarren senideen elkarteek, komunikabideetan zabaltu dira, eta, kasu batzuetan, judizializatu.

Zer zerbitzu-kalitate eskain daiteke baliabide hain gutxirekin? Euskal Autonomia Erkidegoan –per capita errenta handia da, eta, gainera, gizarte-zerbitzuen kalitatea sustatzen da–, eskaintza hori bi aldiz handiagoa da, baina salbuespena da.

⁶³ Gómez Ordoki, Alejandro: «Contraste teórico de ratios en residencia de mayores desde la Asociación entre el índice Barthel y el Baremo de valoración de la Dependencia (BVD)». Zerbitzuan: Gizarte zerbitzuetarako aldizkaria = Revista de servicios sociales, ISSN 1134-7147, N° 69, 2019, 121-1477. or., Sancho Castiello, Mayte. «Viviendas y alojamientos para personas mayores. La experiencia internacional», Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkaria, 2020. (prentsan)

⁶⁴ Espainiako Geriatria eta Gerontologia Sozietatea (SEGG). «Resumen Normativa de residencias». 2020ko ekainaren 17an berrikusia.

⁶⁵ www.vigoe.es > vigo > local > usuarios-de-residencias Egoitzetako erabiltzaileek nagusiak eta zuzendariak salatu dituzte. 2020ko apirilaren 18a.

10. Pandemia osteko garairako ikuspegiak

Pandemiak mundu osoan izan du eragina, eta puntu gorena gainditutakoan, mundua ez da covid-19aren aurreko egoerara itzuliko⁶⁶. Arlo sozial eta ekonomikoan, epe labur eta ertainean, zaintza-politika orok kontuan izan behar du covid-19aren ondorioz mota guztietako baliabideak urriak izango direla.^{67 68 69 70}

Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundearen arabera (ELGA), Espainian bolada bikoitza izanez gero, BPGd-a % 14,5 jaitsiko da 2020an, eta, 2021ean, soilik % 5 suspertuko da. Zorra BPGd-aren % 129ra iritsiko da 2020an⁷¹. Egoera horretan, zaila izango da pentsioak mantentzea.

Nazioarteko merkatuetako lehia areagotu egingo da, eta desberdintasuna areagotu egingo da arlo guztietan, genero-desberdintasuna barne⁷².

Teknifikazioa eta robotizazioa areagotuko dira, eta, horrekin batera, emakume langile askoko enplegu mota batzuk desagertuko dira⁷³. Zainketak batez ere monetarizatu gabeko sektore ekonomikoan gertatzen eta kontsumitzen diren arren, biztanleriak bizirauteko, ezinbestekoa da sektore monetarizatuko enpleguak mantentzea.^{74 75} Espainian, INEren arabera, 2020ko bigarren hiruhilekoan, diru-bilketak % 18,5eko beherakada izan zuen, eta uste zuen urteko beherakada % 22,1ekoa izatera iritsiko zela^{76 77}.

Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomian, sektore monetarizatu eta monetarizatu gabea elkarlotzen dira. 2020ko lehen hiruhilekoan, lanaldi osoko 945 045 lanpostu zeuden Euskal Autonomia Erkidegoan; gehienak, 674 862 lanpostu, alegia, zerbitzuen sektorekoak (2020ko ekainaren 5ean argitaratutako datuak). Langabezia-tasa % 9,6koa baino ez zen izan 2019an Euskal Autonomia Erkidegoan, eta uste da 2020an % 13,7ra iritsiko dela, eta 2021ean altua izaten jarraituko duela, % 12,2a⁷⁸.

-
- ⁶⁶ Lamo de Espinosa, Emilio. «¿Nada será igual? El mundo post-pandemia» webinarra in *Tribuna independiente*, 2020ko urria
- ⁶⁷ ELGA (2020), «OECD Economic Outlook, Interim Report September 2020», OECD Economic Outlook: Statistics and projections (database)
- ⁶⁸ CEPAL. «El desafío social en tiempos del COVID-19». 2020ko maiatza.
- ⁶⁹ CEPAL. «Los Efectos Económicos y Sociales del COVID-19 en América Latina y el Caribe». 2020ko ekaina.
- ⁷⁰ Ikerketa Ekonomikoen Valentziako Institutua (IVIE). COVID-19: IvieExpress - Web [IvieWeb Ivie](#)
- ⁷¹ ELGA. «Economic Outlook No 107». June 2020 Double Hit Scenario. 2020.
- ⁷² CGLU (Hiri eta Tokiko Gobernu Batuak), NBE, Habitata, eta Metropolia. «El liderazgo de las mujeres será fundamental para repensar el futuro en la era post-COVID-19». 2020ko maiatzaren 8a.
- ⁷³ International Federation of Robotics (IFR). [ifr.org > ifr-press-releases > Post-COVID-19 Economy: «Robots Create Jobs»](#). 2020ko maiatzak 14.
- ⁷⁴ UCL Centre for Longitudinal Studies. «Finances and employment during lockdown – Initial findings from the COVID-19 Survey in Five National Longitudinal Studies», Bożena Wielgoszewska, Francis Green eta Alissa Goodman. 2020ko uztaila.
- ⁷⁵ BBVAko Pentsio Institutuko Adituen Foroa. «¿Qué impacto tendrá la crisis del COVID-19 en los sistemas de pensiones?». 2020ko uztailaren 1a.
- ⁷⁶ Estatistikako Institutu Nazionala (INE). «Información estadística para el análisis del impacto de la crisis COVID-19». 2020.
- ⁷⁷ Estatistikako Institutu Nazionala (INE). Biztanleria Aktiboaren Inkesta (BAI), 2020ko bigarren hiruhilekoa.
- ⁷⁸ Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza Nagusia, 2020ko ekainaren 9an argitaratua.

Eustaten arabera, «Euskal Autonomia Erkidegoko BPGd-a, 2019ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, % 20,1 jaitsiko da 2020ko bigarren hiruhilekoan, edo % 16,9 urtaroko eta egutegiko ondorioak ateratzen baditugu, 2019ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta⁷⁹». Enplegua % 19,8 murriztuko da aldi horretan. 2020. urtean, aurreikusten da BPGd-a % 8,7 murriztea eta diru-bilketa % 18 jaitea. Horrek eragina izango du zerbitzu publiko guztien finantzaketa-ahalmenean eta enpresa eta irabazi-asmorik gabeko erakunde ugariaren diru-sarreraren galeran edo zorpetzean.

Espainia, orain arte, covid-19aren krisia gogorren jasan duen herrialdeetako bat, eta horrek aldaketa sakona eragin lezake ekoizpen- eta birbanaketa-egituretan, zaintza lehentasunezko leku batean jartzeko. Hala ere, pandemiak erakutsi duen arren zaintza garrantzitsua dela biztanleria osoaren bizi-kalitatea bermatzeko, *ez dirudi epe laburrean inolako eragile ekonomikoren aurrekontuak handitzeko neurriak ezarriko direnik*, ez familienak, ez enpresenak, ez irabazi-asmorik gabeko erakundeenak, ezta administrazio publikoenak ere.

Zerbitzuak zabaltzeko baliabiderik ez badago, *irtenbide bakarra da zaintzaren ahalegina birbanatzea eta kontratu sozial berri bat adostea. Zaintza gizarte-bizitzaren funtsezko helburu gisa ezartzea ez da helburu erraza, eta gizarte osoak laguntza eraginkor, publiko eta irmoa ematen badu bakarrik lortuko da.*

⁷⁹ 2020ko uztailaren 24an argitaratutako datuak.